

6



*Gabriel Jauregi*  
Batxilergorako materialak

# Sexismoa maitagarrien ipuinetan

Iñigo Etxeberria Zapirain

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Euskara Zerbitzua  
Ikasmaterialak

Gabirel Jauregi Bilduma  
Batxilergorako materialak

# 6

## Sexismoa maitagarrien ipuinetan

Iñigo Etxeberria Zapirain



**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:  
<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

### **ARGITARATUTAKO IZENBURUAK**

1. Arte klasikoa. Grezia eta Erroma (iruzkigintzarako testuak).
2. Mikroekonomiaren oinarriak.
3. Energia baliabideak. 1. Batxilergo teknologikoa.
4. Arte marrazketa.
5. Oinarritzko mekanika: mugimenduen transmisioa, makina arruntak eta mekanismoak.
6. Sexismoa maitagarrien ipuinetan.

---

Argitaldia:	1. <sup>a</sup> , 2008ko abenduan
Ale-kopurua:	500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria.Gasteiz
Egilea:	Iñigo Etxeberria Zapirain
Fotokonposizioa:	Composiciones RALI, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 7. <sup>a</sup> - 48010 BILBAO
Inprimaketa:	Estudios Gráficos ZURE, S. A. Carretera Lutzana-Asua, 24-A. Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2857-4
L.G.:	BI-3819-08

# AURKIBIDEA

1. IPUINEN INTERPRETAZIOA .....	7
2. EMAKUMEA: TRATAERA MENDERATZAILEA.....	11
2.1. Egilearen tratamendua.....	13
2.2. <i>Arrantzalea eta Jainua</i> : mutilaren gaitasuna .....	15
2.3. <i>Hiru txerritxoak</i> : otsoa eta libidoaren kontrola.....	16
2.4. <i>Erleen erregina</i> : mutilaren indar instintiboa.....	17
2.5. <i>Bi anai-arreatxoak</i> : neskaren autokontrola .....	19
2.6. <i>Simbad marinela</i> : mutilaren autonomia .....	21
2.7. <i>Mila eta bat gau</i> : alienazio sexuala .....	21
2.8. <i>Hiru hizkuntzak</i> : mutilaren integritatea .....	22
2.9. <i>Hiru lumak</i> : mutilaren indar instintiboa .....	24
2.10. <i>Antzaren zaintzailea</i> : neskaren heteronomia .....	25
2.11. <i>Nabiza</i> : neskaren heteronomia .....	27
2.12. <i>Hansel eta Gretel</i> : anai-arreben autokontrola.....	29
2.13. <i>Txanogorritxo</i> : neskaren autokontrola .....	30
2.14. <i>Jack eta baba magikoak; Jack eta haren negoziok</i> : mutilaren autonomia .....	32
2.15. <i>Edurne Zuri</i> : neskaren heteronomia .....	35
2.16. <i>Loti Ederra</i> : neskaren heteronomia .....	37
2.17. <i>Errauskine</i> : neskaren heteronomia .....	40
2.18. Senargai animalien saila .....	44
2.18.1. <i>Eros eta Psike</i> : neskaren autokontrola eta heteronomia .....	45
2.18.2. <i>Bizarrurdin</i> : neskaren autokontrola eta heteronomia .....	46
2.18.3. <i>Ederra eta Piztia</i> : neskaren autokontrola eta heteronomia .....	48
3. EMAKUMEA: TRATAERA OSATZAILEA.....	53
3.1. Egilearen tratamendua.....	55
3.2. <i>Otsemea</i> : Emakume Basatiaren pizkundea.....	57
3.3. <i>Bizarrurdin</i> : sarbidearen hasiera.....	59
3.4. <i>Vasalisa Jakituna</i> : intuizioa berreskuratzea.....	62
3.5. <i>Manawee</i> : bestearekin elkartzea.....	65
3.6. <i>Emakume Eskeletoa</i> : maitasunaren borroka bakartia.....	67
3.7. <i>Ahatetxo Itsusia eta Zigoto erratua</i> : taldea aurkitzea.....	70
3.7.1. <i>Ahatetxo Itsusia</i> .....	70
3.7.2. <i>Zigoto erratua</i> .....	73
3.8. <i>Tximeleta</i> : gorputzaren poza.....	74
3.9. <i>Zapatatxo gorriak</i> : kontserbazio-instintua .....	75
3.10. <i>Foka-larruazala</i> : bere baitaratzea.....	79
3.11. <i>Negartia, Pospolo-saltzailea eta Urrezko hiru adatsak</i> : bizitza-sortzailearen elikagaia .....	82
3.11.1. <i>Negartia</i> .....	82
3.11.2. <i>Pospolo-saltzailea</i> .....	84
3.11.3. <i>Urrezko hiru adatsak</i> .....	85
3.12. <i>Jainkosa lizunak</i> : sexualitate sakratua berreskuratzea .....	87
3.12.1. <i>Baubo</i> : sabelaren jainkosa.....	87
3.12.2. <i>Dick koiote</i> .....	88

3.13. <i>Ilgorako hartza eta Zuhaitz idortuak: sumindura eta barkamena</i> . . . . .	89
3.13.1. <i>Ilgorako hartza</i> . . . . .	89
3.13.2. <i>Zuhaitz idortuak</i> . . . . .	91
3.14. <i>Urrezko adatseko emakumea: borrokaren zauriak</i> . . . . .	93
3.15. <i>Andre besamotza: azpimunduaren sarbidea</i> . . . . .	95
4. EMAKUMEA: TRATAERA EZ-SEXISTA . . . . .	103
4.1. Ipuinen testuinguru soziohistorikoa . . . . .	105
4.2. Margaret Mead eta ikuspegi berria . . . . .	107
4.2.1. Kokapena . . . . .	107
4.2.2. Teoria . . . . .	108
4.3. Kontakizun ez-sexistak . . . . .	113
4.3.1. <i>Mapucheen</i> kosmogonia . . . . .	113
4.3.2. Euskal Herriko mitologia . . . . .	114
<i>Mari</i> . . . . .	114
<i>Basandere</i> . . . . .	114
4.3.3. Ipuin garaikide ez-sexistak . . . . .	115
5. BIBLIOGRAFIA . . . . .	117

*Ipuinen interpretazioa*

**1**

Lan honetan, ipuinen bi aro aztertu dira: antzinako aroa eta aro klasikoa. **Helburua** emakumearen trataerak batetik bestera izan duen bilakaera aztertzea da, ondoren, berdintasunezko trataera batera heltzeko falta dena ondorioztatzeko.

Horretarako erreferentzia gisa, bi idazle psikoanalista esanguratsuren ipuin aukeratuen interpretazio-lana erabili da, bakoitzak aro baten pentsaera nabarmen ordezkatzeko. **Bruno Bettelheimen lanak aro klasikoa** ordezkatzeko du, ondo; eta aro horixe da lehen aztertu dena, jaso dugun kultura patriarkalaren eragina oraindik ere hurbilen nabari duguna delako. Ondoren, **antzinakoaren aztarnak aztertu dira, Clarissa Pinkola Estesek eskutik**, emakumeak kulturaren ardatza betetzen zuen aroa, eta gurera ahozko tradizio marginalaren interpretazio garaikidetik heldu zaiguna. Azkenik, **antzinako interpretazio berrizalearen hutsune sexistak aztertu nahi izan dira, Margaret Mead etnografoaren ikuspegi kulturala aplikatuz**.

Lana osatzeko, ipuinen ikuspegi menderatzaileari eta osatzaileari darian sexismoa ulertzeko, **bi erreferentzia sozial** eta **hiru mitologiko** aztertu dira, sintesian. Erreferentzia sozialen artean, ipuinen errebaso soziohistorikoa, batetik, eta David Brouwyn-en haurren rolen bereizketa berria, bestetik; erreferentzia mitologikoen artean, bestalde, *mapucheen* kosmogonia, eta euskaldun paganoen *Mari* eta *Basandere* numenak, bestetik.

*Emakumea: trataera  
menderatzailea*

**2**



## 2.1. EGILEAREN TRATAMENDUA

Maitagarrien ipuinek **funtzio gizarteratzaile sakona** dute, eta haurren heziketaren lagungarri ezinbesteko bihurtzen dira, Bruno Bettelheimen esanetan. Ipuin klasiko hauek haurrari (prekontzientean eta inkontzientean) gordeta dituen irrikak askatzeko bidea ematen diote. Ipuinaren kontakizuna bereganatu ahala, haurrak **zera** (irrika irrazional basatiak, ipuinetan animalien bidez adieraziak) asetzeko bideak ikasten ditu, **niaren** (kontzientzia antolatzailea) eta **superniaren** (arau eta balio moralak) eskakizunen arabera. Ipuinak eskaintzen duen irudimenaren bidez, haurrak azaleratu egiten ditu barneko korapilo psikologikoak, eta irudimenezko konponbide zoragarria aurkitzen die. Horrenbestez, Bettelheimen ustean, ipuinek ondo gizarteratutako nortasuna eraikitzen lagunduko diote haurrari, ni sendoak, superniaren laguntzarekin, kontrolpean izango dituelako zeraren irrika suntsitzaileak. Ildo horretatik, psikoanalisiarentzat eta, beraz, Bettelheimentzat berarentzat ere, gizakiak era agresiboan, asozialean eta interesatuan jokatzeke berezko joera du. Bettelheimek azpimarratzen duenez, «gure seme-alabek gizakiak jatorriz onak direla sinestea nahi dugu», eta hori, jakina, egia okerra da. Horregatik, gizakiak bizitzaren izaera problematikoa onartzeko gai izan behar du.

### Iruzkina

Zer frogatan oinarritzen da psikoanalisi eta Bettelheim bera, gizakiaren irrika ez-kontziente suntsitzaileen **jatorria** naturala dela baieztatzeke? Agian, irrika horien izaera suntsitzailea bizi izan diren gizartean txertatutako kultura nagusiaren ezaugarri propioa da, eta psikoanalisten etnozentrismoak estrapolatu du beste kultura guztietara. Hori egia bada, gizakiaren irrika suntsitzaileen jatorria kultura propioaren mugak sortutako aurreiritzi ezkorra litzateke. (Hipotesi hori «emakumea: trataera ez sexista» 4. atalean aztertuko da).

Maitagarrien ipuinetan, **balioen manikeismoa eta polarizazioa** agertzen da. Pertsonaiak oso onak edo oso gaiztoak dira, eta betiere, ona eta gaitza, biak, ipuin bakoitzaren oinarritzko osagaiak dira, gizakiaren baitan oinarritzkoak diren hein berean, Bettelheimen ustez. Ipuinaren ikasle den haurrak onura nabaria jasotzen du horrekin: psikearen barruan sentitzen dituen joera gaiztoak gaingintzeko itxaropena, ipuineko heroiak (psikearen irrika onek) irabazi egiten duelako eta ipuineko gaiztoek (psikearen irrika txarrek) zigorra jasotzen dutelako. Hori ipuineko heroia-ekin identifikatuz lortzen du haurrak, heroia pertsonaiarik erakargarriena delako berarentzat. Eta haurrak erreferentzia axiologiko argia eraiki eta gero, heldutasun psikikoaren bidez, errealitatearen ambiguitasunak ikasiko ditu.

### Iruzkina

Logikoa dirudi haurrari erreferentzia axiologiko argi baten bidez errealitatearen jite ambiguoaz azaldu nahiak, baina kontuan hartu behar da gizakiaren joera moral anbibalenteak ez dituela izaera **polarizatuak** onartzen, nahiz eta haurarentzat oso eraginkorrak gertatu. Psikologikoki haurrari bere barneko gatazka argitzen laguntzen badio ere, moraliki erreferentzia okerra eraiki diezaioke, eta horrek gizartean onak eta gaiztoak bilatzeko joera utziko dio. Bestalde, baloreen aurkakotasun naturalak ez du berezko izaera moralik, hori kulturak egiten duen irakurketa da; beraz, artifiziala da ipuinen trataera moral **manikeoa**. Egileak berak, Bettelheimek, aitortzen du ipuin amoralak ere eraginkorrak izan daitezkeela nortasuna eraikitzeke (*Katu Botaduna*, adibidez).

Ipuinen funtzio sozializatzailean, **enkulturazio** garbia jasotzen du haurrak. Bettelheimek berak aitortzen duenez, haurrak nagusiaren boterea proiektatzen du ipuinetan (erraldoiaren bi-

dez), eta botere hori da, funtsean, imitatzen duena eta eskuratu nahiko lukeena etorkizunean. Horrekin argi ikusten dugu haurrek batik bat nagusien balore moralak eskuratzen dituztela, baita ipuinen bidez ere.

Enkultrazioaren alderdi **moral-erlijiosoa** ere argi ikusten da. Gure kulturaren oinarri historikoa den moral kristaua irakasteko hainbat ipuin asmatu izan dira. Horien artean bi aipatuko ditugu.

Grimm anaien **Zazpi beleak** ipuinean, adibidez, arreba txikia jaiotzean zazpi anaiak bele bihurtzen dira (jainko paganoen sinbolo) eta arrebak bere gorputzaren atal baten eskaintzarekin (hatza) berriro gizaki izatera ekartzen ditu (kristautu egiten ditu). Ipuin horren enkultrazioak, besteak beste, neska gaztearen inozentzia eta zintzotasuna erabiltzen ditu moral kristaua aurkezteko.

**Gure Andrearen alaba** ipuinean, Grimm anaiena hori ere, Andre Mariak familia pobre baten alaba zerura eramaten du, han zaintzeko. Hamahiru giltza uzten dizkio bere kargu, beste hainbeste ate zain ditzan, baina horietatik hamabi bakarrik irekitzeko aginduarekin. Alabak Ama Birjina engainatu egiten du, eta mundura itzuli behar du, mutu. Gizonen artean kondenatu egiten dute, eta azken unean, errua aitortu nahi duenean, ahotsa berreskuratzen du eta Ama Birjinak bizitza osorako zoriontasuna ematen dio.

### **Iruzkina**

Enkultrazioak, haurrak gizarteratzeko balore lagungarri askorekin batera, **aurreiritzi** moral eta estetiko galanta jasoko dituela esan nahi du, eta horrek eragin zuzena izango du sexuarekiko eta generoarekiko eraikuntza kontzeptuarekin. Kuriosoa da, adibidez, *Zazpi beleak* ipuinean arrebatxoak erabiltzea kristautasunaren mezulari, kontuan hartuz moral kristauak emakumeaz helarazi duen irudia, historian zehar.

**Bizarrurdi** ipuinak, aurrerago ikusiko dugun eran, *Gure Andrearen alabaren* argumentu bera darabil, baina beste ikuspegi batekin: proba berdina betetzearren giltza-joko berdina uzten zaio neskatxari, baina jabea Bizarrurdi da oraingoan, neskatxaren harrapari naturala. *Gure Andrearen alaban*, ordea, jabea neskaren salbatzaile naturala da. Adierazgarria da harrapari naturala, paganoa eta gizona, noraino eraldatzen den, eta kristau eta emakume bihurtu. Badirudi inozentziak (neska gazteak) gizonezkoa duela harrapari naturala, eta emakumezkoa, salbatzaile naturala.

Enkultrazioaren eraginez, eta Bettelheimen beraren arrazoiketari helduz, haurrak nagusiaren **botere-grina** (eta botereari lotutako irrika suntsitzaile guztiak) jasoko ditu, zuzen-zuzen. Hortxe aurkituko litzateke gizakiaren irrika suntsitzailearen jatorri nagusia.

Ipuinen funtzio sozializatzailarekin batera, Bettelheimek adierazten ez duen fenomeno nabarmena agertzen da, ikusiko dugun eran: **sexismoa**. Maitagarrien ipuinetan, emakumeak (neskatilak) eta gizonak (mutikoak) hartzen dituzten rolak nabarmen aldatzen dira, oso asmo jakinarekin gainera. Ondorioz, nabarmena da ipuinek duten funtzio **moralizatzailea**, Bettelheimek inola ere onartzen ez badu ere, «mundu honetan zuzen ibiltzeko jakinduria erlijio-dotrinak, mitoei eta alegiekin helarazten baitute», bere hitzetan. Maitagarrien ipuinek haurrari ez omen diote aholkatzen nola jokatu behar duen, eta are gutxiago jokaera batera edo bestera behartzen. Ipuinak osagarri eta sendagarri suertatzen dira, irakurleari behar dituen konponbide pertsonalak bere kabuz topatzeko aukera ematen diotelako; beraz, eredu libreak baino ez omen dira, egilearen

iritziz. Auzi hori sexismoaren bidetik aztertuko dugu, datozen ataletan, ipuinek irakurlea karga moral jakinaren bidez nola gidatzen duten ikusteko.

Kultura askotan nabari da ipuinen erabilera gizarteratzailea, eta baita **terapeutikoa** ere. Indiako tradizioan, hain zuzen ere, bereziki ikusten dugu ezaugarri hori. Han, medikuntza tradizionalaren barruan sartzten da ipuinaren egitekoa, eta medikuak gaixoaren desoreka psikikoa arintzeko ipuin egokia aukeratu eta kontatu egiten dio, gaixoak horren gainean gogoeta sendagarria egin dezan (Lou Marinoff-ek eskola filosofikoen funtzio terapeutikoarekin egiten duen eran).

Maitagarrien ipuinek **funtzio antropologikoa** ere badute, Jung psikoanalistaren jarraitzaileen arabera. Haien iritziz, ipuinetako pertsonaia eta gertakariak giza komunitatearen fenomeno psikologiko arketipikoak adierazten dituzte, eta arketipoek gizabanakoari identitate-maila garaitzea eskatzen diote, arketipoek beraiek gordetzen duten indar inkontzienteaz (komunitatearen eskarmentuaz) baliatuz.

## 2.2. ARRANTZALEA ETA JEINUA

*Arrantzalea eta Jeinua, Mila eta bat gau* ipuin sortako bat izanik, erraldoiak gizakiarekin duen gatazka adierazten digu. Kultura guztietako gaia izan da beti, toki guztietako hurrek diotelako beldurra eta aurre egiteko gogo nagusien botereari. (Gurean Grimm anaien bertsoia daukagu, *Botilaren espiritua* ipuinean). Argumentuaren arabera, hurrek nagusien esana betetzen ez dutenean, era bakarra dute nagusien haserretik libratzeko: engainua. Honatx ipuinaren sintesia.

«Arrantzale pobre batek sarea itsasora jaurtitzen du lau aldiz. Lehenengoan, hildako asto bat ateratzen du. Bigarrenean, hondarrez eta lohiz beteriko txarroa. Hirugarrenean, oraindik gutxiago lortzen du: kristalezko puska batzuk. Laugarrenean, arrantzaleak kobrezko treska bat ateratzen du. Irekitzean, hodeitzar batetik jeinu izugarria ateratzen zaio eta hiltzeko mehatxua egiten dio, arrantzalea hari erreguka ibili arren. Arrantzalea, orduan, engainuari esker salbatu egiten da. Zalantzan jartzen du izaki erraldoi hura hain ontzi txikian sar daitekeenik. Horrela, erraldoia behartu egiten du ontzira sartzera, egia dela frogatzeko. Segidan, arrantzaleak estali egiten du treska eta itsasora itzultzen du».

Haur batek ere, botilako jeinuak bezala, jokaera bera dauka nagusiek abandonatuta sentitzen denean. **Abandonoari** luzeegi irizten badio, nagusien hurbiltze-saio berria mesprexatu egingo du, amorrak emozioak blokeatu egiten dizkiolako, eta horrek angustian murgiltzen du umea. Horregatik bete-betean identifikatzen da ipuinarekin, eta ipuinaren bukaera lasaigarriak irtenbidea erakusten dio, daukan korapilo emozionala askatzeko. Ipuinak haurari hainbat identifikazio-bide eskaintzen dizkio: jeinuaren bidez bere abandonoari irtenbidea ikusten dio, batetik; eta aita (arrantzalea) zigortu egiten du, bestetik. Arrantzalearen bidez, **nagusien boterea** (jeinua) eskuratu eta kontrolatu egiten du. (*Botilaren espiritua* aldaeran, protagonista mutikoa da, eta zapi magiko baten bidez jeinuari bi desio betearazten dizkio. Desio horien bidez aitaren boterea bera gainditzea lortzen du).

Ipuin honen bidez, gainera, haurrak arrantzalearen sakrifikatze grina ikasten du (ez dio sarea botatzeari uzten) eta, horrekin, **errealitatearen printzipioa** eraikiz doa, poliki, oraindik hain errotuta daukan plazeraren printzipioaren gainetik.

**Iruzkina**

Ikusten da, argi, ipuineko protagonista gizona zein mutikoa denean (jeinuaren ipuinaren bi bertsioetan), gai dela gainetik duen botere zapaltzailea gainditzeko (jeinu izugarria), eta baita boterea bera kontrolatzeko eta eskuratzeko ere (sinbolikoki, aitaren boterea), bere baliabideak bakarrik erabiliz, hots, adimena eta abilezia. Ezaugarri hori beste ipuinekin alderatzeko erabiliko dugu.

**2.3. HIRU TXERRITXOAK**

1843an argitaratua, Londresen, bertsio ugari ditu, maitagarrien ipuinekin gertatu ohi denez. Mezu bakuna eta argia dauka ipuinak: ez dugu alferkerian erori behar eta egiten dugunaren erantzule izan behar dugu. Hona hemen ipuinaren sintesia:

«Hiru txerritxoek negua pasatzeko etxe bana egin behar dute. Txikienak berea lastoz egiten du, eta batere arretarik ipini gabe. Ertainak enborrak erabiltzen ditu, eta etxe sendotxoagoa egiten du, baina arreta gutxirekin, hala ere. Bi txerritxoek bizilekua ahalik eta azkarren bukatzen dute, jolasteko denboraren bila dabiltzalako. Txerri zaharrenak, ordea, zuhur jokutzen du, eta adreiluzko etxe sendoa egiten du. Otxoa datorrenean, lehen bi etxeak ufada batez botatzen ditu, eta bi txerritxo gazteenak jan egiten ditu. Hirugarrenarekin, ordea, ez du lortzen, eta maltzurkeriaz jokutzen du, orduan, txerri nagusia etxetik ateratzearren. Hirutan proposatzen dizkio plan erakargarriak: arbiak eta sagarrak biltzea, eta baita maitagarriari bisita egitea ere. Txerritxoak amore ematen ez duenez, etxean sartzen saiatzen da tximiniatik, baina ur irakinetan erortzen da, eta haragi egosi goxo bihurtzen da txerritxoarentzat».

Ipuin honetan, *zeran* (**plazeraren printzipioan**) oinarritutako nortasunetik *supernian* (be-tebeharrean) eta, batez ere, *nian* (**errealitatearen printzipioan**) oinarritutako nortasunerako bilakaera adierazten da. Txerritxo gazteenek, plazerean murgilduta, erantzukizunik gabe jokutzen dute, eta, ondorioz, etorkizuna galtzen dute. Txerri zaharrenak errealitatearen printzipioan oinarriturik, autokontrola garaturik dauka, eta aurrera ateratzen da. (Kontakizun honen mezuak Esoporen *Txitxarra eta Inurria* alegiarena dakar gogora).

Plazeraren printzipioa asetzeko umeak **jolasa** dauka irtenbide nagusia. Bettelheimen esanetan, jolasaren bidez desio ezkutuenak ere asetzen ikasten du. **Mutikoak**, neskatilak egiten duen eran, panpinekin jolasteko irrika sentitzen du, eta horrekin, haur batez erditzeko edo haurrak zaintzeko desioa sublimatzen du. Bettelheimen iritziz, mutiltxoak gozamina senti dezake panpinekin jolastuz, soilik ekintzaren esanahi inkontzientea ezagutzen ez badu. (Hori ezagutzeko, errealitatean ase ezin diren desioak sublimatzeko heldutasuna beharrezko dauka). Era berean, **neskatilak** zaldiak bereziki maite ditu, bai jolasteko eta baita ganean ibiltzeko ere. Horren arrazoia, egilearen iritziz, zaldiaren bitartez arra mendean hartzen duela sentitzen duela da; eta arrarekin batera, neskatxak bere baitan duen «animalia-sexualitatea».

Gozabide horiek guztiak jolasaren bidezko **sublimazioak** dira; beraz, ez-kaltegarriak eta atseginak dira haurarentzat. Haurrak jolas-ekintzaren azpiko desio inkontzienteak ezagutzen ez baditu, sortuko lizkiokeen kontraesan mingarria eta presio jasangaitza saihestuko ditu. Bettelheimek dioenez, haurrak maitagarrien ipuinen esanahi sakona kontzienteki ezagutzeak psikean gordeta dauzkan desio, antsietate eta sentimendu negatiboez jabetzea dakar, eta horrek blokeatu egingo dio nortasuna. Beraz, hobeto haurtzaroan haurra fantasiaren mundu inozentetik ez ateratzea.

Deigarri gertatzen da —gero ikusiko denez—, ipuinean, **otsoak** duen trataera. Maitagarrien ipuin gehienetan bezala, hemen ere etsai limurtzaile eta harrapari agertzen da. Suntsitzaile eta basati, gizatasunaren aurkako indar inkontzienteak adierazten ditu. Haurrak, ordea, niaren indarraren bidez garaitu egin dezake, ipuinak erakusten duen eran. Otsoa, Bettelheimek dioenez, haurrak bere baitan duen irrika suntsitzailearen proiektzioa da, eta ipuinaren bidez, hori kontrolatzen ikasten du.

### Iruzkina

**Plazeraren printzipioaren arriskuak** aztertzen dira ipuinean, errealtatearen printzipioaren mesedetan. Mezu hori mezu nagusi bihurtzen da maitagarrien ipuinetan, eta, ikusiko dugunez, trataera ezberdina izango du protagonista neska ala mutila izan. Bettelheimek jakinarazten duen eran, haurrek irrika sexual sakonak sublimatzen dituzte jolasaren bidez, eta ez omen da komeni jakinaraztea horien edukia, sentimendu negatiboak saihestearren. Horren arrazoi logikoa, hala ere, kulturak kanpotik haurrari ezarritako moral estua izan daiteke, eta ez haurraren jatorrizko joera. Moralak (superniak), beraz, haurraren erru-sentimendua pizten du, eta horrek mugatu egiten dio barneko irrika ezkutuen ezagutza.

Aipagarri gertatzen da, ildo beretik, neskek zaldiarekin duen atxikimendu sexuala, Bettelheimen arrazoiketari heltzen bazaio. Gero ipuinak aztertzean ikusiko denez, trataera berezia eman zaio kontakizun klasikoetan emakumearen arlo psikiko ezkutu horri.

**Otsoak sinbologia negatiboa** hartzen du ipuin klasiko gehienetan. Baina ez da beti horrela gertatu kontakizun zaharretan, Pinkolaren arketipoekin ikusiko denez. Otsoak, basatasun ezkutuen arketipoak, hainbat esanahi izan ditu gizarte-egituraketa aldatu ahala, eta horretan emakumezkoaren eragina erabakigarria izan da.

## 2.4. ERLEEN ERREGINA

Ipuin honetan, gizakiak nortasunaren integrazioarako egin behar duen borroka aztertzen da, kaoserako duen joera handiaren erdian. Hau ere Grimm anaien ipuina izaki, hona hemen laburpena.

«Errege baten bi seme nagusiek alde egiten dute etxetik, abenturaz betetako bizitzaren bila. Luza gabe, bizimodu basatian eta alprojan murgiltzen dira, plazeraren printzipioari jarraitzen baitiote, eta ez errealtatearen eta moralaren eskakizunei. Hirugarren anaia, *Ergel*, beste bien bila doa, ondoren. Topo egiten dutenean, anaia nagusiek iseka egiten diote Ergeli, beste biek baino ganora handiagoz bizi ahal dela pentsatzen duelako. Egia da eguneroko lanetan Ergel okerrago moldatzen dela, baina errekurtsio propio onak dauzka: animalia ongileak.

Mundu zabaletik bidaiatzen ari direla, egun batean inurritegi batekin egiten dute topo. Anaia nagusiek suntsitu egin nahi dute, inurrien izuaz gozatzeko. Ergelek, berriz, ez die horrelakorik egiten uzten, animaliak bakean uzteko eskatuz. Bideari jarraituz, laku batera heltzen dira, eta anaia nagusiek hango ahate batzuk hil nahi dituzte, erre eta jateko; baina berriro ere Ergelek eragotzi egiten die. Aurrerago erlauntz batekin egiten dute topo, eta anaia nagusiek zuhaitza erre nahi dute, hango ezti eskuratzeko; baina Ergelek debekatu egiten die berriro, animaliak lasai bizitzen uzteko erregutuz. Azkenean, gaztelu bitxi batera iristen dira. Dena harri bihurtuta dago, edo, bestela, lo sakonean, salbuespen batekin: gizontxo bat. Gizontxoak sartzen uzten die, eta ostatu hartzen dute.

Biharamunean, gizontxo horrek anaia nagusiari hiru eginbehar jartzen dizkio, egun bakarrean burutzekoak, aztikeria hura desegiteko. Lehenengoa, zingiran barreatuta dauden mila perlak biltzea da, baina lortzen ez badu, bera ere harrizko estatua bihurtuko da; eta haxe gertatzen da. Bigarren anaiak ere porrot egiten du. Ergelen txanda heltzen denean, berak ere ezin du proba garaitu; baina, atsekabetuta dagoela, lehen salbatutako bost mila inurriak han agertzen zaizkio laguntzeko prest, eta perla guztiak jasotzen dizkiote. Bigarren proba erregeren alabaren gelako ateko giltza lakutik ateratzea da, eta salbatutako ahateei esker, hori ere burutu egiten du. Azken proba da berdin-berdinak diruditen hiru printzesaren artean gazteena eta zoragarriena aukeratzea. Une hartan bertan, Ergelek salbaturiko erlauntzeko erle-erregina agertzen da, eta printzesa egokiaren ezpainetan pausatzen da. Horrela, aztikeria desagertzen da, eta lotan edo harri bihurtuta dagoen jende guztia bere onera dator, baita bere anaia nagusiak ere. Ergel printzesa gazteenarekin ezkontzen da, eta erreinuaren errege izendatzen dute».

## Interpretazioa

**Nortasunaren integrazio-beharra** adierazten digu. Niak zera eta supernia barneratzen ditu. Zehatzago esanda, balio moralek (supernia) erakutsi dioten errespetuari eta ulermenari esker, nia gai da instintuak (animalia basatiak) ondo zaintzeko. Horrekin, errealtatearen aurrean zailtasunak gainditzeko prest agertzen da, barneko energia osoa (instintiboa) aprobetxatzen dabilako.

### Iruzkina

Niak, ipuin honetan, instintuak babestu eta ondo aprobetxatzen ditu. Izan ere, irrika gaiztoak alboratuz gero, irrika onen laguntza etorriko da. Berez, animaliak bakean uzteak irrika instintibo inmoralak (animalien aurkakoak) baztertzea esan nahi du; eta horrek, gerora, instintuen (animaliak) energia alde edukitzea omen dakar. Arazoa askoz ere korapilatsuagoa da, ordea: irrika instintibo inmoralak zein diren kulturak esaten du, eta, nabaria denez, moralaren aldeko irrikek, askotan, instintuak zigortu eta makaldu egiten dituzte. Ez da hain erraza, beraz, supernia zerarekin bateratzea, kulturaren eraginez. Are gehiago, **supernia zeraren etsai** nagusi bilakatzen da, kultura izaera basatiaren zapaltzaile gertatzen denean.

Protagonista orekatua Ergel da, anaia txikia, **mutila, instintuen indarraz** baliatzen dakiena. Ipuin honetan ikusten da mutila dela instintuei esker aurrera ateratzen dena, eta, gainera, bera bakarrik, beste inoren laguntzarik gabe. Hortik ondoriozta daiteke neska balitz ez litzatekeela bere kabuz aurrera ateratzeko gai izango; ez lukeela instintuek ematen dioten autonomia ezagutuko.

Ipuinak, nortasunaren hiru faktoreen integrazioarekin batera, haurtzaroko arazo orokor bat ukitzen du: **izaera ezberdinen integrazioa**. Oraindik nortasunaren alderdi ezberdinen haustura bizi duen garaian, haurra emozionalki **polarizatuta** sentitzen da. Ezin ditu izakien eta, batez ere, pertsonen jarrera polibalenteak ulertu. Hala, amarekiko, bereziki, ikuspegi anbibalentea dauka, eta horrek garai edipikoa ezaugarrituko du: **ama ona** (ipuinetan biktima izaten da), batetik, eta **ama gaiztoa** (ipuinetan sorgina edo amaordeak ordezkaturia), bestetik. Ipuinen fantasiak haurrari emozio anbibalentea kanporatzen lagunduko dio, eta ama gaiztoaren protagonismoak aukera emango dio haurrari bere erresumin kontrolagaitza bideratzeko. Ama gaiztoak, ipuinean, zigorra jasotzeari esker, haurrak ama onaren irudia salbu gordeko du bere baitan, eta horrek erakutsiko dio bizitza errealean amaren alderdi ona tinko gordetzen, amaren alderdi txarrak haurra atsekabertzen duenean.

**Iruzkina**

Ipuinetan ama gaiztoaren parte-hartzea oso aktiboa izan ohi da, ama onarena baino askoz ere handiagoa. Sorgin maltzurrek, ama axolagabeek eta amaorde jeloskorrek protagonismoa bereganatzen dute. Bettelheimen arabera, horrek aukera ematen dio haurrari, identifikazioaren bidez, konplexu edipikoari eusteko. Galdetu beharko litzateke ea, bizitza errealean, amaren anbibalentzia ez ote dagoen kulturaren moralaren (supernia) zorrotasunarekin proportzio zuzenean. (Erantzun partziala Malinowskik emango digu, 4.2.2. atalean, konplexu edipikoa gainditzeko aitaren rol estua gezurtatu baitzuen).

**2.5. BI ANAI-ARREBATXOAK**

Ipuin honetan, nortasunaren integrazio-beharra lantzen da, autoerrealizazioari begira. Grimm anaiak idatzia, hona hemen laburpena.

«Anai txikiak arreba eskutik hartu eta etxetik mundua ezagutzera eramane zuten, familiagirotan zapaltzaitetik ihes egiteko. Zelai eta bideak ibili zituzten. Hurrengo egunean, ibiltzen ari zirela, iturri bat ikusi eta anaiak bertatik edan nahi du; baina arrebak, instintuak kontrolpean dituela, iturriaren marmarra entzuten du «edaten nauena tigre bihurtuko da» esaten. Horregatik, edateari muzin egitera makurtzen du anaiak. Aurrerago beste iturri bat topatzen dute, eta, anaiak edatera doala, marmarrak dio bertatik edaten duena oso bihurtuko dela, eta neskak entzun egiten du. Beraz, anaiak ez edateko konbentzitzen du. Hirugarren iturrira iristean, marmarrak orein bihurtzeko arriskua adierazten du, baina, oraingoan, egarriari ezin eutsirik, anaiak edan egiten du eta oreinkume bilakatzen da. Arrebak, orduan, anaiari zin egiten dio ez duela sekula utziko, eta urrezko gerrikoa kendu eta anaiari jartzen dio lepotik, kontu handiz.

Asko ibili ondoren, basetxe bat aurkitzen dute, eta arrebak bizitzeko lekutzat egokitzen du. Hantxe bizi dira, pozik, neskak goizero bientzako janaria biltzen duela. Egun batean, lur haie-tako erregek ehizaldia antolatzen du. Anai-arreben bizitokira hurbiltzean, anaiak ehiztari eta zakurren zaratak entzuten ditu eta ikustera ateratzen da, arrebari, uzteko behin eta berriro erre-gutu ondoren. Eguna amaitzean, oreinkume bihurtutako anaiatxoak arazorik gabe itzultzen da arrebarenera. Hurrengo egunean, berriro ateratzen da ehizaldia ikustera, baina hanka batean zauritzen dute eta arrastaka itzultzen da arrebarenera. Oraingoan, ordea, erregek ikusi egin du oreintxoak, eztarrian urrezko lepokoa jantzita, eta hurrengo egunean kontu handiz harrapatzeko agintzen du. Arrebatxoak sendatu egiten du, baina hurrengo goizean, erregearen indarrez arreba limurtuta, atera egiten da berriro anaiatxoak ehizaldira. Gauean, arrebarenera dator anaiatxoak, errege alboa dakarrela. Arrebaren edertasunarekin liluraturik, berarekin ezkontzeko eskatzen dio erregek, eta arrebak baiezkoa ematen dio, baina anaiak ere beraiekin bizitzekotan.

Urte askoan zoriontsu bizitzen dira hirurak, baina egun batean, errege ehizan dabilela, erregearen gaztea erditu egiten da ume eder batez. Erditze-egoera horretan, erregearen amaordeak erregeari lagundu egiten dio, eta erregea bainu hartzera eramaten du. Bainatzen ari dela, ordea, ito egiten du, eta haren orde bere alaba jartzen du erregearen atzetik. Gauerdian, hildako erregea agertzen da haurra magalean hartzera eta anaiak oreintxoak laztantzera. Handik aurrera, gauero egiten die bisita, eta hitz egiten jartzen da, ohartaraziz anaiak eta semea zain ditzaten, berak, laster, azken bisita egingo dielako. Neskamea guztiaz konturatzen da, eta erregeri kontatzen dio. Erregek, orduan, gaua esna ematen du. Erregea berriro agertzen da espektro eran, eta bisitan datorren azkenaldia dela esaten duenean, erregek deitu egiten dio eta heriotzatik esnatu egiten du erregea,

bere maitea. Amaordea, sorgina halakoa, erre egiten dute, eta, orduan, anaiak gizasemearen itxura berreskuratzen du, eta handik aurrera zoriontsu bizitzen dira anai-arrebak».

## Interpretazioa

Ipuinean, neskatxak **errealitatearen printzipioari** jarraitzen dio (niaren eta superniaren esana); mutikoak, aldiz, plazerarenari jarraitzen dio (zerarena). Irakaspena neskek instintuak kontrolpean hartzeko duen gaitasunak ematen du, hiru txerrixoen ipuinean txerrixo nagusiarekin gertatzen den eran, nortasunean integratuta baitauzka, ni sendoaren bidez, bai zera eta bai supernia. Mutikoa hirutan erortzen da instintuen atzaparretan, bai iturritik edaten duenean, eta baita ehizaldia ikustera ateratzen denean ere. Hori izango da mutikoaren sarbidea, **nortasun integratua** lortzeko. Neskatxak, bere aldetik, hiru saio propio burutu behar ditu, sarbidearen zikloak markatzen duen eran, nortasunaren eraldaketa berria ezagutzeko, pubertarotik helduarorako (amatasunerako) jauzia; hots, **autoerrealizazioa**; eta hori erditzearekin hasten da, orduko biziera amaituz. Probak espektro eran egiten dituen bisitaldi mintzatuak dira, eta, azkenean, gainditu egiten du.

### Iruzkina

Emakumearen joera **autokontrolatzailea** azpimarratzen da, anaiak ez bezala arrebak daukako horretarako prestutasuna. **Kulturak emakumeari txikitatik ezartzen dion rol zorrotza ikusten da hemen, erantzukizunez betetakoa eta instintuetatik urrun zaindu beharrekoa**. Mutikoa, ordea, instintuen liluran behin eta berriz erori arren, ipuinak ez dio ondorio larririk gordetzen.

Emakumearen sarbideak etsai handiarekin egiten du topo: ipuinetan hain arrunta den amaordearekin, **sorginarekin**. Arketipo horrek amaren alderdi gaiztoa irudikatzen du. Mutikoaren sarbidearen etsaiak, ordea, **basapiztiak** dira (tigrea, otsoa eta oreina, sarbidearen aurrerapenaren ordenan ipinitakoak, hurrenez hurren), aitaren alderdi gaiztoa. Gainera, basapiztiek gizakiaren joera «animalia» adierazten badute ere, sorginak gizakiaren joera «asoziala» adierazten du, Bettelheimen hitzetan. Horri erreparatuz gero, bereizketa nabaria agertzen zaigu bien artean: **gizonezkoaren joera irrazionala errugabea da (basapiztiek ez daukate maleziarik); emakumezkoaren joera irrazionala, ostera, erruduna (amaordeak maleziaz jokatzeko du)**.

Ipuinaren lehen irakaspen nagusia autokontrola da, eta bigarren irakaspen nagusia **autoerrealizazioa** da. Eginkizun konplexu bezain zail hori, berriro ere, emakumearen esku uzten du, eta horrek oso ezaugarri esanguratsua adierazten du: ipuinak emakume gazteak (*puberak*) bizitzaren errealizazioa burutzeko bidea ematen du; alde batetik, emakumeak kulturaren duen **rol tradizionalan murgilduz** (ama eta senar boteretsuaren ezkontide izatea), eta bestetik, autoerrealizatzeko beharrezko duen gizon boteretsua eskuratuz (erregea). Bigarren ezaugarri horrek ondorio paregabea eskaintzen du: emakumea ez da gai bere kabuz, gizon boteretsuaren laguntzarik gabe, bere bizitzaren helburu nagusiak betetzeko. *Erleen erregina* ipuinean, ordea, protagonista zen Ergel mutilak autoerrealizazioa lortzen zuen (printzesa ederrenarekin ezkondu eta erreinuaren jabe izatea) bere buruaz bakarrik baliatuz, beste guztiek jarritako oztopoen gainetik. Ipuin horietan ikusten denez, **mutilari bere buruaren autonomia eskaintzen zaio, baina emakumeari ez**.

Azken ezaugarria nortasun-garapenaren urrats apalagoan ere ikusten da: **mendekotasun edipikoa gainditzeko** gaitasunean, hain zuzen. *Arrantzalea eta jeinua* ipuinaren aldaera guztietan, protagonista, gizonezkoa beti, gai da bera bakarrik jeinua (aitaren boterea) gainditzeko. *Bi anai-arrebatxoak* ipuinean, ordea, protagonista den neskatxoak amaordea gainditzen du (amaren alderdi gaiztoa), baina erregearen ezinbesteko laguntzarekin bakarrik.



## 2.6. SIMBAD MARINELA

Ipuin hau *Mila eta bat gau* ipuin sailekoa da, eta gaia gizakiak errealitatea bizitzeko duen joera bikoitza da: arrunta eta fantasiakoa. Honela dio ipuinak, labur-labur:

«Zamaketari behartsu bat atsedean hartzen ari da, lan gogorraren ondoren, jauregi baten ondoan. Jauregiari begira, gogoeta egiten du horko nagusiak biziko duen luxu eta plazerezko bizimoduaz, bera bezalakoek hain bizimodu latza jasan behar duten bitartean. Jauregiko jabeak zamaketaria ikusten du eta jauregi barrura sartzera gonbidatzen du. Hasieratik konturatzen dira biek izen bera daukatela: Simbad. Simbad jauregiburuak, zazpi egunez, munduan zehar egindako zazpi bidaia zoragarriak kontatzen dizkio. Bidaia horietan arrisku ikaragarriak gainditu ondoren, etxera itzuli zen aberastasunez beteta. Bidaiariak aitortzen duenez, bidaia horietara bultzatzen duen indarra bere baitan duen gizon zahar eta maltzurra da, batetik, eta deabruaren aginduetara dagoen gizon sentsuala, bestetik».

### Interpretazioa

Bi pertsonaiak, marinela eta zamaketaria, gizakiaren nortasunaren **nia** eta **zera** dira, hurrenez hurren. Ipuinak nortasunak bietarako duen joera azpimarratzen du batetik, eta bestetik, bien integrazio-beharra. Bizitzaren eskakizunek nia garatzen dute, errealitatearen printzipioa, bizirau-pena ziurta dadin. Baina bizitza bera gogorra bezain monotonoa izaten da maizegi, eta hori konpentsatzeko irrika ezkutuak laxatu beharra dago, ametsetan sikiera, plazeraren printzipioari jarraiki. Hortik sortzen dira bi pertsonaiak, bata bestearen osagarri (sakonean, pertsona bera dago). Aukeran, argi dago Simbad marinelaren bizimoduarekin geratuko lirakeela biak, ipuinean, eta psikeak ere plazera nahiago duela, berez; baina bi alderdiak **integratu** beharra dago, nortasunaren orekari begira; eta horregatik elkartzen dira egunero bi pertsonaiak, ipuinean.

#### Iruzkina

Oso argi dago gizakiaren kanpoko eta barneko errealitatearen izaera anibalentea. Ipuinean, Simbad da langilea eta abenturazalea; hau da, **gizonezkoa**. Badirudi zailagoa dela emakumezko bat hautematea bi rolak betetzen, eta ez ohiko langilearena betetzen ez duelako, abenturazalearena bete ohi ez duelako baizik. Ipuin batean emakumezko pertsonaia batek arrisku biziak pasatzea arrakastatsu eta aberats etxera itzultzeko, ez da hain onargarria. Are gutxiago horretara bultzatzen duen indarra bere baitan duen gizon (emakume) zahar eta maltzurra bada, batetik, eta deabruaren aginduetara dagoen gizon (emakume) sentsuala, bestetik. Ondorioztatu beharko litzateke, hortik, emakumeak ez duela bere nortasunean plazeraren beharrik, gizonarekin alderatuz gero.

## 2.7. MILA ETA BAT GAU

*Mila eta bat gau* jatorri indiarra edo persiarra duen ipuin sorta luzea da, gai nagusi baten harira datorrena; eta hainbat gautan zehar kontatzeko erabili omen zen. Hona hemen ipuin sorta luzea («mila eta bat»ek arabieraz kopuru mugagabea adierazi nahi du) biltzen duen ipuin nagusiaren mamia.

«Schariar erregea oso triste eta haserre dago emazteak morroi beltz batekin engainatu duelako, eta, jakin duenez, gauza bera gertatu zaio haren anaia Schazenan-i eta baita jeinu botere-

tsu bati ere. Horregatik, gizakiekiko konfiantza galduta, emakumeekin mendeku hartu nahi du, eta, horretarako, lizunkeriazko bizimodua aukeratzen du. Orduz geroztik, gauero dontzeila batekin oheratzen da, eta, goizero, hura erailtzeko agintzen du. Azkenean, erreinuan geratzen den emakume birjina bakarria bisir beraren alaba da, Scherezade. Ministroak ez du alaba sakrifika-tzerik nahi; alabak, ordea, bere burua sakrifikatzen du arrazoi on bat tarteko. Ondo ateratzen zaio gainera, mila gauetan zehar erregeri ipuinak kontatzen jarduten duelako eta, horrela, kontakizunaren jakin-minean erregek bizia barkatzen diolako. Ipuinen zikloa gai horrekin hasten du Scherezadek, hain zuzen, ipuinak kontatzeari esker heriotzatik libratu zen merkatariarekin, eta gai berarekin bukatzen du, 1.001 istorio kontatu ondoren. Bukaeran, errege hain txunditurik geratzen da, ezen guztiz maitemindurik baitago orain neska hark erakutsi dion grinarekin, eta, horrela, sendatu egiten du emakumearekiko zeukan gorrotoa, eta pozik bizi dira biak betiko».

## Interpretazioa

Bettelheimen hitzetan, **erregeak** zerak (irrikak) mendean hartutako nortasuna ordezkatzeko du, jasandako desengainuak nia (autokontrola) ahuldu diolako. Bestalde, **neskak** nia ordezkatzeko du; izan ere, deskribatzen den moduan, Scherezade azkarra, artetsua, zuhurra eta kultura handikoa da. Baina nia indartsuko nortasun horretan, **superniaren** (balio eta arau moralak) nagusitasuna nabari da, neskak bizia arriskatu nahi duelako musulmanen alaben heriotzak bukatzearen, injustizia latza konpontzearen. Scherezadek aprobetxatu egiten ditu zeraren (erregearen aldeko sentimenduak) eta superniaren indarrak (justizia-egarria) ni sendoa eraikitzeko. Finean, neskak bere nortasun **integratuari** esker, erregeari lagundu egiten dio nortasuna ere integratzen (ipuinaren irudietan, ezkondu eta semea emanez erregea familiaburu bihurtzen du).

### Iruzkina

Erregea zeraren irrikek menderatutako gizakia izateaz gain, psikopata hutsa da nabarmen, **neskak bortxatzea eta erailtzea** duelako handikeria zauritua sendatzeko bide. Hala ere, jokaera aldrebes horrek badu, antza, arrazoi ulergarri bat: **emakumearen engainu sexuala**. Horrela ematen zaigu aditzera, baita Bettelheimek berak ere, ipuinaren plano sinbolikoaz baliatuz. Ondorioz, erregearen psikopatia-jokaera soilik heldugabetzat hartzen da, seguru asko bera «errege» delako, eta, gainera, «gizona». Irudika dezagun, lanerako hipotesi eran, erregearen erreinuko mutiko guztiak bortxatu eta erail nahi dituela, erregeak beste batekin abenturaren bat izan duelako. Hori barregarria litzateke, erregeak (eta musulmanen kulturaren gizon aberatsek, poliginiaren bidez) legezko duelako neska askorekin oheratzea. Emakumeak, ordea, gauza bera eginez gero, traizio sexuala (moralak, batez ere) egiten du. Ipuinean zehar, horrek ez dio erregeari sentikortasuna eta gizatasuna kentzen, badakielako Scherezaderen izaera integroa asimilatzen. Badirudi barkatu egiten zaiola erregeari muturreko sexismoa, jarrera soilik heldugabetzat harturik. Nabarmen agertzen da, ipuinean, kulturaren eragin sexista.

Neska (Scherezade), gainera, **zeraren irrika likitsetatik at** dago, ipuinean. Niak eta superniak gobernatzen dute bera, eta zeratik, soilik erregearekiko maitasuna eta sendatu nahiaren irrikak bizi ditu. Oso pertsona integroa izateaz gain, aingerua dirudi ipuinean. Zeraren asmo likitsak (sexualak, kasu) gizonaren eremu partikularrean geratzen dira, antza.

## 2.8. HIRU HIZKUNTZAK

Ipuin hau **anai-arreben arteko harremanez** diharduen ipuin sailekoa da. Ipuin sail horretan, izaera ezberdina duten anaiek bide ezberdinak hartzen dituzte bizitzan. Bata ausarta eta

abenturazalea izaten da, eta bestea zuhurra eta etxekoia; eta ia beti etxekoiak irten behar du anaia abenturazalearen atzetik, hura erreskatatzera. Berrero elkartzen dira eta bizimodu zoriontsua eramaten dute. Esanahiaren aldetik, nortasunaren joera ezberdinak integratu beharra adierazten dute, nagusiki zera eta supernia, eta baita gurasoekiko lotura eta askatasun-nahia ere (haurtzaroan Ediporen konplexuarekin gertatzen den gatazka). Adibide garbia, Grimm anaien *Anai-arrebak* ipuinean dugu; han bertan, etxetik alde egiten duten anai-arreben elkartasunari esker, batak bestea salbatuko du sorgin gaiztoaren madarikaziotik. Hau da, nortasunaren joera ezberdinen integrazioak laguntzen digu arazo larriak gainditzeko.

Bada, ordea, etxearekiko lotura edipikoan oinarritzen den ipuinik. Adibide egokia ezagutzen den ipuinik zaharrenean topa dezakegu, papiro egiptoar batean idatzita, K.a. 1250. urtean. Ipuin horretan, emazte bat senarraren anaia seduzitzen saiatzen da, eta, lortzen ez duenez, senarraren anaia leporatzen dio seduzitzen saiatu izana. Senarra, enteratzean, sutan jartzen da, baina anaia bila doanean, hura etxetik ihes eginda dago. Azkenean, egiaz jabetzen denean, anaia aurkitu eta salbatu egiten du.

### Iruzkina

*Anai-arrebak* ipuinean, arketipo arrunta den sorginarekin egiten da topo. **Sorginak** amaren eragin edipikoa ordezkatzeko du, eta, horregatik, hasieran opariak egiten baditu ere (ama ona), gero ipuineko protagonistari eraso egiten dio (ama gaiztoa). Sorginaren ekarpen globala negatiboa izan ohi da, beraz, ipuinetan; oro har, maltzurak dira. Ondorioz, sorginaren irudiarekin ikusten da ipuinek amaren rolari ematen dioten trataera negatiboa dela.

Ipuin egiptoarrean, anaia baten emazteak sortzen du gatazka, hau da, emakumeak. Gatazkak **izaera sexuala** du, eta maltzurkeriaz eginikoa da. Berrero ere emakumea agertzen da bekatu sexualaren iturburu, *Mila eta bat gau* ipuinean bezala.

Ikusitako anai-arreben saileko bi ipuin horiei erreparatzen badiegu, gizona askatzen dira etxeko lotura edipikotik, **bizitza propioa** eraikitzeke asmoz. Nekez aurkituko dugu etxea uzten duen emakumezkorik, bere kabuz edo ahizpak lagunduta, bizitza propioa eraikitzekeko intentzioz.

Bi anaien ipuinetako sailaren barnean Grimm anaien *Hiru hizkuntzak* daukagu. Honela dio ipuinak, laburki.

«Konde batek seme bakarra zeukan, ergela eta ezer ikasteko gai ez zena. Horregatik maisu partikular batengana bidali zuen, eta urtebetez harekin ibili zen ikasten. Urtearen buruan, ordea, semeak zakurren hizkuntza besterik ez zuen ikasi, eta aita sutan jarri zen. Berrero bidali zuen beste maisu batengana, eta urtearen buruan, oster, semeak txorien hizkuntza besterik ez zuen ikasi. Azken aukera eman zion aitak, aprobeztatzen ez bazuen, aita izateari utziko ziola mehatxu eginez. Urtea bukatu zenean, semeak soilik igelen korroka ikasi zuen, eta horregatik, aitak zerbitzariei basora eramateko eta basoan bertan akabatzeke agindu zien; baina haiek, mutikoarekin errukituta, basoan bizirik utzi zuten. Horrela, bakarrik, munduan zehar ibiltzen hasten da. Halako batean, zakur basatien zaunkengatik atsedean hartu ezin duten herrialde batera heltzen da; gainera, noizean behin herriko bat eman behar diete zakurrei irensteko. Mutikoak, zakurrekin hitz egin ondoren, arazoa konpontzen du eta herrian bertan gelditzen da bizitzen denboraldi baterako. Urte batzuk igarota, Erromara joaten da. Bidean, igel batzuek belarrira etorkizunaren berri ematen diote, eta horrek kezkatuta uzten du mutikoa. Erroman, aita santua hil berri da, eta kardinalak berria aukeratzeko seinale baten zain daude. Halako batean, bi uso zuri mutikoaren sorbalda gainean pausatzen dira. Mirarizko seinalea delakoan, kardinalak aita santu izendatzen

dute, eta, handik aurrera, usoek belarrira jakin beharrekoa salatzen diotela, meza emateko gai izango da mutiko heroia».

## Interpretazioa

Ipuinean mutikoak aitaren nahiaren gainetik bere nahia ezartzen du (animalien hizkuntzak ikastea); beraz, mendekotasun edipikoa gainditzen du. Gainera, hiru animalien hizkuntzak bereganatzen ditu; hau da, nortasunaren funtsezko hiru atalak garatzen ditu (zera, nia eta supernia). Igelek (sexuaren ikur) zera adierazten dute; zakurrek (babesa), nia; eta usoek (espíritu santua), supernia. Horrekin, nortasun independente eta integratua lortu duela esan nahi da, eta, ipuinean zehar, erakusten da mutiko batek autoerrealizazio osoa lortzeko nerabezaroan egin beharreko prozesua.

### Iruzkina

Argi ikusten da mutiko bat gai dela, gaitasun intelektuala eskastua badu ere, nortasun heldua eta bizi-proiektu propioa eraikitzeko, gurasoen kontra, bakarrik eta arrakasta sozial handienarekin (aita santu izateraino). Baina ez dakigu horrek berak balio duen neska izanez gero.

## 2.9. HIRU LUMAK

Bi anaien saileko ipuin honetan ere, Grimm anaiena, nortasunaren bilakaera lantzen da. Ikus dezagun, labur.

«Bazen behin hiru seme zeuzkan errege bat. Bi nagusiak oso bizkorak ziren eta txikia, berriz, motza; horregatik *Mututxo* deitzen zioten. Errege zaharra zen, eta erreinua zeinen esku utzi erabakitzeko hiru semeak bildu zituen, eta, proba moduan, munduko tapiz ederrena ekartzeko eskatu zien. Gero, hiru luma aireratuz, bakoitzari hartu beharreko norabidea adierazi zion. Luma bat sartaldera, bestea sortaldera eta bestea han bertan geratu zen, Mututxori zegokiona, hain zuzen. Mututxo, triste eta bakarrik, luma ate baten ondoan zegoela konturatu eta atetik barrera sartu zen, barruko eskaileretatik behera. Eskailerak jaitsita, beste ate bat topatu eta barrura sartu zen. Han, zapo handikotea topatu zuen, zapo txikiz inguraturik. Mututxok munduko tapiz ederrena eskatu eta zapoak eman egin zion. Itzuli ziren hiru anaiak, eta erregek Mututxoren alde egin zuen, beste biek artzain-tapiz baldarrak eraman zizkiotelako. Orduan, anaia nagusiek aukera berri bat eskatu zuten. Erregek, oraingoan, eraztun ederrena ekartzeko eskatu zion. Han abiatu ziren lehengo bidetik hirurak. Mututxo zapoarenera iritsi, eraztun zoragarria eskuratu, eta proba berriro ere irabazi egin zuen, beste anaiek, lasai antzean, burdinazko uztaitxoak ekarri zituztelako. Aukera berria eskatu ondoren, erregek azken proba jarri zion: munduko emakumerik ederrena ekartzea. Lehengo bideari helduz, Mututxo zapoarenera iritsi zen, eta eskaera egin zion. Oraingoan, ordea, sei saguk tiraka zerabilten arbi huts horia eman zion zapoak, eta agindu zion zapo txiki bat han bertan sartzeko. Hori egindakoan, zaldizko gurdi ederra izan zuen esku artean Mututxok, eta, barruan, neska xarmant-xarmanta. Han abiatu ziren erregeren jauregira. Anaiek bide bazterreko lehen neska zatarrak eraman zituztenez, erreinua eman egin zion erregek oinordetzan Mututxori. Baina anaia zaharrek erregek azken proba luzatzea lortu zuten: neska guztiek uztai handi baten erditik jauzi egin beharra, uste baitzuten Mututxoren neska pinpirinak ez zuela lortuko. Anaien neska trauskilek kaskezurra ere hautsi zuten; Mututxorenak, aitzitik, arin-arin gainditu zuen. Harrezkero erreinua gobernatu zuen, baita jakinduriaz gobernatu ere».

## Interpretazioa

**Nortasuna integratu** beharraz hitz egiten da, berriro ere, ipuin honetan. Kasu honetan, **inkontzientearen balioa** azpimarratzen da (zerarena eta superniarena). Mututxok zapoarengana lur azpian behera egiteak inkontzienteko instintuen indarra (animaliak) aprobetxatzea esan nahi du; beste anaiak, aldiz, niaren abileziarekin konformatzen dira. Errealitatea kontrolatzeko azkarra izatea ez da nahikoa, errealitateaz baliatzeko **grinarik (zera)** eta **irizpiderik (supernia)** ez bada. Mututxok bere errealitatea aberastu egiten du, eta esperientzia aberatsekin, jakintsu egiten da.

### Iruzkina

Argi ikusten da, berriro ere, gaitasun intelektuala eskastua duen mutiko bat gai dela nortasun heldua eta bizi-proiektu propioa eraikitzeko, instintuen laguntzarekin (animaliak) eta irizpide moral garbiarekin (aita boteretsuarekiko identifikazioa), eta, horrela, arrakasta sozial handiena lor dezakeela (erreinuaren eta edertasunaren jabetza). Baina ez dakigu horrek berak balio duen neska izanez gero.

Ipuin honetan superniaren emailea erregea da, aita; gizonetzkoa, beraz. Eta emakumearen rol bakarra sari izatearena da (Mututxoren bilaketa instintiboaren saria), edo bestela, andre trauskila (anaia zaharren topaketa erraza).

## 2.10. ANTZAREN ZAINZAILEA

Ipuin hau **gatazka edipikoan** oinarritzen den sailean koka daiteke. Haurrek nerabezaro bi-tartean bizi dute Ediporen konplexua, bi norabidetan. Neskatilek aitarekin maitemintzeko joera dute, eta, ondorioz, lehiakide ikusten duten ama gorrotatzekoa. Mutikoek, beren aldetik, amarekin maitemintzeko joera dute, eta, ondorioz, lehiakide ikusten duten aita gorrotatzekoa. Ipuinen bidez, mutilek dragoia (aita) hiltzen dute, eta printzesa liberatuarekin (ama) ezkontzen dira. Neskatilek printze urdinarekin (aita) ihes egiten dute, eta sorgina edo amaorde gaiztoa (ama) zigortzen dute. Badirudi fenomeno simetrikoa dela, beraz; baina ez da hala gertatzen. Haurrek familian aitaren eta amaren aldetik **inplikazio-gradu ezberdina** ikusten dute: ama erabat inplikutzen da, baina aitaren inplikazioa arinagoa da. Horregatik, aitak semeari desio edipikoak eteten dizkionean ez dio kontraesan afektibo bizia sortzen. Amak alabari desio edipikoa eteten dionean, ordea, kontraesan afektibo sakona sortzen dio. Amak, gainera, seme-alabei heziketaren debekuak ezartzen dizkie garai edipiko honetan, gero eta gehiago; beraz, dena ematen zuen ama ona orain oso bestela agertzen da. Horregatik, ipuinetan oso argi nabari da **ama onaren eta gaiztoaren arteko bereizketa** (sorginaren edo amaordearen bidez irudikatzen dena), aitarena agertzen ez den bezala. Aitak semearen nahi edipikoa galarazten duenean, dragoi baten, otso baten edo bestelako animalia baten irudia hartzen du, ez pertsona maltzurrena. Amak alabaren nahi edipikoa galarazten duenean, ordea, pertsona maltzuraren rola hartzen du (sorgina edo amaordea).

### Iruzkina

Fenomeno horrek ohartarazten digu familietan guraso bakoitzak daukan rol afektiboak baldintzatzen duela haurren egituraketa psikologikoa. Era berean, kulturak moldatzen du gurasoen rola. Beraz, ipuinetako emakumezko pertsonaiaren disoziazioak jatorri kultural huts-hutsa du, eta emakumearen alegiazko erabilera negatiboa (sorgin eta amaorde gaiztoaren bidez) ez da haurrak berez eskatzen duena, gizarteak kanpotik ezartzen duena baizik, Bettelheimen iritziaren aurka. (Kulturak rol sexualetan duen eragina aztertzeko, ikus 4.2. atala).

**Antzaren zaintzailea** ere Grimm anaien ipuina da, eta protagonistak gurasoen laguntza dauka harreman edipikoa gainditzeko, hots, autonomia pertsonala eraikitzeko. Hona hemen laburpena.

«Bazen behin erregina alargun bat alaba galanta zeukana. Heldu zitzaion beste herrialde batera ezkontzeko ordua, eta amak bitxiak eta altxor ederra oparitu zizkion. Zaldi gainean irten zen, dontzeila eta guzti. Alabaren zaldiak, *Faladak*, hitz egiten zekien. Irteteko unean, amak bere odoleko hiru tantaz zipriztindu zuen zapi bat, eta alabari eman zion, larrialdian lagunduko ziola esanez. Bidean zihoazela, printzesak zerbitzariari erreka ura emateko agindu zion, baina hark ezetz esan zion, ez zela gehiago printzesaren zerbitzaria. Aurrerago gauza bera gertatu zen, eta printzesa ura edatera makurtu zenean, amaren zapia galdu egin zuen. Harrezkero printzesak babes galdu zuen, eta dontzeilak, egoeraz baliatuz, arropak eta zaldiak elkarri trukatzera behartu zuen printzesa, eta, gainera, gorteko inori salatuko ez ziola zin eginarazi zion. Horrela, heltzean printzeak dontzeila hartu zuen printzesatzat, eta benetako printzesa antzarak zaintzen zituen mutiko bati laguntzen jarri zuten. Ondoren, sasiandregaiak *Falada* zaldiari burua mozteko eskatu zuen, gertatua inori sala ez ziezaion, eta burua bideko zuhaitz batetik zintzilik uzteko. Handik aurrera, benetako printzesa eta mutikoa antzaretan handik igarotzen zirenean, buruak honela esaten zuen: «Zure amak gertatua baleki, bihotza urratuko litzaioke».

Egun batean, printzesak adatsa askatu egin zuen, eta, urrezko distirarekin liluraturik, mutikoak heldu egin nahi izan zion, baina neskak galarazi egin zuen, haize-bolada bati deituz. Haize-boladak mutikoari kapela harrotu zion. Hurrengo egunetan gauza bera gertatu zen, eta mutikoa, nazkaturik, erregeri kexatu zitzaion. Hurrengo egunean errege zuhaitz atzean ezkutatu zen, eta dena behatu zuen. Gauean, neskak jauregira heldu zenean, erregek misterioa azaltzeko eskatu zion, baina neskak sekretua gordetzeko hitza emana zuela erantzun zion. Asko erregutu ondoren, tximinia bati kontatzera limurtu zuen, eta, erregek, tximinia atzean jarrita, printzesaren benetako identitatea ezagutu zuen.

Egia ezagutzean, festa handia antolatu zen, eta printzeak benetako printzesa bere alde batean eta sasikoa bestean eseri zituen. Bazkariaren bukaeran, printzeak sasikoari zerbitzari desleial eta gezurti bati zein zigor ezarriko liokeen galdetu zion. Neskameak, nortaz ari zen susmatu gabe, erantzun zion larrugorrian iltzez betetako upel batean sartuko lukeela eta zaldiz kaleetan zehar hil arte arrastatu. Printzeak, orduan, berarekin horixe bera egiteko agindu zuen, eta benetako printzesarekin ezkondu zen. Urte askoan elkarrekin zoriontsu bizi izan ziren».

## Interpretazioa

Ipuinean, **lotura edipikoaren gatazka** aztertzen da. Pertsonaia batek lehiakidearen tokia hartu nahi du (neskameak printzesarena), baina azkenean bakoitzari dagokiona itzultzen zaio. Horrekin, haurrak bere sexuko gurasoari dion arrangura gainditu beharra adierazten da.

Ipuineko protagonistak, neskak, **promes egiten du** ez diola inori kontatuko bidean gertatutakoa, eta bete egiten du promesa. Bertute moral horrek (leialtasuna) merezitako saria ekarriko dio, Bettelheimek dioenez. Ipuinaren bukaeran, bere burua besteen aurrean duintasunez onartzen eta defendatzen ikasiko du. Leialtasunak autonomo izaten irakatsiko dio.

Ipuin honen aldaera gehienek **neska dute protagonista**, baina bada mutila protagonista duen kasuren bat ere, hala nola *Roswal eta Lillian*. Ipuin horrek egitura bera du, salbuespen batekin: mutiko bat beste errege baten gortera bidaltzen dute, han hez dezaten. Gaiak, beraz, pertsonaren garapenari, heltzeari eta autonomiari egiten dio erreferentzia, baita ipuin horretan ere. Bettelheimen iritziz, istorio horretako sexu-aldiera ez da garrantzizkoa neskek eta mutilek bizi duten gatazka edipikoa deskribatzeko.

Ipuinean, printzesak galdu egiten du amak oparitutako zapi magikoa, odolez bustia. Gainera, bidean dontzeilak agintzen diona onartzearekin eta antzarak zaintzen dituen mutikoari laguntzen jartzearekin, neskaren inizatiba gabezia azpimarratu nahi da. Galdutako amaren zapiak odol tantak zituen. Horrekin, Bettelheimen arabera, lapsus freudiar garbia agertzen du neskak: ez dago birjintasuna galtzeko (ezkontzeko) prestatuta. Beraz, **pertsona autonomo izateko asko falta** zaio, hasieran, neskari.

### Iruzkina

Ipuinaren muina lotura edipikoaren askatzea da, eta emakumea da gatazka horren adierazle. Badira ipuinaren aldaera maskulinoak folklorea, baina gutxiengoa dira, Bettelheimek berak onartzen duenez. Ez da, beraz, kasualitatea emakumeen arteko lehia azpimarratu nahia, batak bestearen pribilegiozko rola atzeman nahian. Badirudi **emakume izateari dagokiola jeloskor izatea**.

Ipuinean, emakumeak promes egiten du, oso agindu bidegabea izan arren; eta, beraz, guztia-  
ren gaintik, konplitu beharra dauka, hori baita bertute moralak. Bertute moral horrek (leialtasuna) merezitako saria ekarriko dio, Bettelheimek dioenez. Harritzekoa da, berriz ere, emakumea izatea ipuinean rol moralaren pisua daramana. **Superniak harri koskor baten pisu astunaz lotzen du emakumea** istorioan zehar. Argi dago maitagarrien ipuinen bidez kulturak batik bat emakumeari ezarri nahi diola bizitzan heldutasuna lortzeko izan behar duen jarraibidea.

Egia da ipuinaren aldaera maskulinoak ere badirela; hala nola *Roswal eta Lillian*. Bettelheimen iritziz, istorio horretako sexu-aldiera ez da garrantzizkoa neskek eta mutilek bizi duten gatazka edipikoa deskribatzeko. Aldaera maskulino horri erreparatzen bazaio, ordea, oso ezberdintasun esanguratsua aurkituko zaio: mutikoa beste errege baten gortera doa, baina heziketa egokia jasotzera, ez printzesa batekin ezkontzera. Kasu horretan, orokorrean maitagarrien ipuinetan ikusten den ezau-garri nabarmena ikusten da: **gizonezkoak heldutasuna lortzeko (nortasunaren garapena, autonomia eta autoerrealizazioa) ez du emakumezko baten beharrik**, bere buruarekin aski du; ipuinean, ez du ezkondu beharrik, eta, hortaz, ez du printzesaren beharrik.

Bettelheimen interpretazioan, printzesari asko falta zaio pertsona autonomo izateko; eta, frogatzat, inizatiba falta adierazten duten gertakari batzuk aipatzen ditu, baina baita birjintasuna galtzeko prestutasun eza ere (amak zapiarekin odoljarioaren behar arketipikoa igortzen dio alabari). **Autonomia eraikitzea, beraz, printzearentzako eskaintza sexualarekin parekatzen da**, eta hori irain-garria da, gaur egun, emakumearen autonomiarentzat.

## 2.11. NABIZA

Grimm anaien ipuin hau ere gatazka edipikoaren adierazle da. Hona hemen laburpena.

«Nabizaren amak urazak jateko irrika dauka, haurdun egoteak ematen dion gosegatik, baina urazak sorginaren baratzean hazten dira. Senarra konbentzitu egiten du lorategi debekatu hartan sartu eta urazak lapurtzeko, baina saiatzen den bigarreanean sorginak harrapatu egiten du.

Zigortu nahi du, baina ekintzaren arrazoia jakitean errukitu egiten da sorgina. Hortaz, nahi adi-na uraza hartzen uzten dio gizonari, baldintza batekin, ordea: jaiotzen denean, umea eman egin behar dio, sorginak ama batek bezala zainduko duen baldintzapean. Aitak, beldurturik, baiezkoa ematen dio; eta halaxe gertatzen da.

Dena ondo doa Nabizak 12 urte betetzen dituen arte. Adin horrekin, sorgina neskatxak alde egingo duen beldur da, eta, horregatik, eskuragaitz dagoen dorreko gelan ixten du. Baina Nabizari txirikordak hainbeste luzatzen zaizkio, ezen erregeren semea haietatik tiraka dorreraino igotzen baitu, behin eta berriz. Sorginak, susmoa hartuta, bera igotzeko eskatzen dio. Behin goian, Nabizari ustekabean ihes egiten dio ahotik txirikordatik sorgina igotzea printzea igotzea baino gehiago kostatu zaiola. Zigor moduan, sorginak Nabiza erbestera egiten du, eta printzeak, hori jakitean, dorretik salto egiten du eta arantzekin begiak zauritu egiten ditu, eta itsu geratzen da.

Nabiza basamortuan bizi da, erbestean, eta noraezean galduta sentitzen da, tristeziak janda eta miseria gorrian. Printzea, bere aldetik, basoan bizi da, bakarrik, sustraiak eta fruituak janez, negarrez eta aieneka. Baina erbestetik bueltan berriro elkartzeko dira biak, eta sorgina garaitzen dute. Nabizak bere malkoez printzearen begiak sendatzen ditu, eta handik aurrera elkarrekin bizi dira, zoriontsu eta erreinuaren jabe».

## Interpretazioa

Ipuin honetan haurrak (neska, kasu honetan) heldutasunerako behar duen elementu funtsezko bat agertzen da: gorputza. Bettelheimek azpimarratzen duen eran, gazteak arazoak gainditzeko baliabide ezin hobea du gorputza; eta gorputzarekin, gaitasun fisiko guztiak hartzen dira aintzakotzat. Ipuinean, Nabizak ama jeloskorraren (sorgina) eta aita zabarraren (saldu egiten du) mendetik irtetea lortzen du, eta **autonomia lortzeko gorputzaren baliabideak** erabiltzen ditu.

### Iruzkina

Gorputzaz baliatzeko gaitasunak neskaren autonomia azpimarratzen du, eta aitoren horrek emakumearen integritatearen alde egiten du. Baina ipuinean erreparatu egin behar zaio neskatxak gorputzari ematen dion erabilerari: ez bakarrik, baina bai beti, printzearen mesederako da, hots, printzea gelara igotzeko eta printzeari begiak sendatzeko. Hortaz, ipuin honetan **emakumearen gorputza eta, berarekin, autonomia gizonaren zerbitzura** jartzen da.

Nabizarekin, **emakumearen autonomia gizonak bermatzen du** (printzeak), berriro ere; emakumea ez da gai bere kabuz autonomo izateko.

Ipuinean, **emakumezko gurasoen rola negatiboa** da. Ama biologikoa eta ama adopziozkoa (sorgina) joko maltzurran agertzen dira. Gizona (aita), berriz, soilik ahula da, ez maltzurra; izan ere, beldurrez jokatzeko du.

Aipatzekoa da Nabizaren ama biologikoak ipuinaren hasieran duen jarrera ustela: «Senarra konbentzitu egiten du lorategi debekatuan sartu eta urazak lapurtzeko» (Bettelheimen testuan). Aipu horretan Eva eta Adamen pasarte biblikoaren erreminiszentzia daukagu, **emakumeak (Eva) gizona zirikatatu eta bekatura bultzatzen du**elako, «lorategi debekatuan lapurtzera»; eta ez dirudi Bettelheim horretaz ohartu denik.



## 2.12. HANSEL ETA GRETEL

Grimm anaien ipuin hau ere gatazka edipikoaren askatze-prozesuan oinarritzen da. Hona hemen laburpena.

«Guraso pobre batzuen seme-alabak dira Hansel (anaia) eta Gretel (arriba). Familiak oso egoera larria bizi du, eta anai-arrebek uste dute gurasoek abandonatu egingo dituztela, gosez hiltzen uzteko; eta halaxe gertatzen da: abandonatu egiten dituzte basoan. Hanselek etxerako bidea aurkitzen du, harritxoak erabiliz ibilbidea markatzeko; eta bueltan etortzen dira etxera. Arazoa ez da konpontzen, ordea, eta amak gero eta azkarrago planeatzen du seme-alabak akabatze modua. Berriro uzten dituzte basoan, eta oraingoan Hanselek ogi apurrak erabiltzen ditu ibilbidea markatzeko, baina txoriek jan egiten dituzte, eta galdu egiten dira basoan. Noraezean dabiltzala, txori batek turroizko etxetxo bateraino gidatzen ditu, eta, han bertan babesa bilatu beharrean, gosearen gosez jan egiten dizkiote teilatua eta leihoa. Ahots batek galdetu egiten die ea nor ari den etxea jaten, baina haiek bere horretan segitzen dute. Etxetxoko jabea agertzen zaie, amona zahar adeitsu bat, eta han bertan geratzera gonbidatzen ditu. Jaten ematen die eta ohe bana, goxo-goxoa. Baina, biharamunean, sorgin gaizto bihurtzen da, eta umeak harrapatu ondoren, irentsi egin nahi ditu. Baina Greteli esker, hezur baten ordeztzatza erabilia, sorgina engainatu egiten dute, eta sutara erortzen da. Ondoren, sorginak ezkutuan gordeta zeuzkan altxorak hartu eta, zisne bati esker, etxera itzultzen dira».

### Interpretazioa

Ipuin honek adierazten du hurrek, lotura edipikoan sartzen direnean, ama debekatzailearen lezioa ikasi behar dutela: **antsietate orala sublimatu beharra** (turroizko etxea irentsi beharrean), desio mugaezin horren energia arazoei irtenbidea bilatzeko erabiliz; beraz, abilezia landuz. Horrela, **ama debekatzailearen (sorgin gaiztoa) irudia** gaindituko dute, eta guraso gaiztoen baitan gordetzen diren guraso onak deskubrituko dituzte. Bilakaera hori bi anai-arreben arteko laguntzarekin gauzatzen dute; beraz, funtsezkoa da haurren (anai-arreben) arteko **elkar laguntza**. Azpimarratzekoa da, Bettelheimen dioen eran, biek kooperatzen dutela; lehenik, Hanselek laguntzen dio Greteli, eta, gero, Gretelek salbatzen du anaia.

#### Iruzkina

**Anaiaren eta arrebaren arteko rolak orekatuta** daude, bata besteari laguntzeko gai direla erakusten baitute biek, izan neska zein mutila. Gurasoena, ordea, oso arrunta izan ohi den eran, desorekatuta dago guztiz. **Ama agertzen da benetan gaizto, umeak fase oraletik ateratzeko** suntsiketaren mehatxua erabiltzen duela (sorginaren bidez). Aitak, aldiz, ipuinean zehar ez du maltzurkeriarik erakusten. Interesgarria da Bettelheimen honi buruz esaten duena: «Aitak pertsonaia gris eta inkompetente izaten jarraitzen du, umearen lehen urteetan agertzen delako, amak umearen gunea betetzen duen garai berean; hots, umearengan eragin onena eta txarrena amak duen garaian, hain zuzen ere». Beraz, hortik eratorritzen da Hanselen eta Gretelen adinean amak duen funtzio errepresioilea, umearen heziketan umea bera gizarteratzeko funtsezko garrantzia duena.

Hitz gutxitan, umea gizartean agintzen duen kulturaren molde estura egokitzeko tresna ama izan ohi da, eta aitak, aldiz, urrunetik eta puntualki baino ez du parte hartzen. Ipuinak erreproduzitu egiten du gizartean nagusi den eredu sexista hori: heziketa errepresioilea (fase orala gainditzea) amaren esku uzten du.

### 2.13. TXANOGORRITXO

*Txanogorritxok* bertsio asko ditu. Ezagutzen den aldaera zaharrena Perrault-ek egindakoa da, baina aldaera famatuena Grimm anaiena da. Biek merezi dute azterketa. **Gaia pubertaroan neska batek izan behar duen instintuen autokontrola** da. Hona hemen, lehenik, Perraulten bertsioa.

«*Txanogorritxo* izena amonak egindako txanotxo gorritik dator kio neskari. Egun batean, amak janaria eman zion amonari eramateko; izan ere, amona gaixorik zegoen. Neskak basoa zeharkatu behar zuen, eta otsoarekin egin zuen topo. Une hartan otsoa ez zen neska jatera ausartu, egurgileak zebiltzalako basoan; beraz, Txanogorritxori nora zihoan galdetu zion, eta neskak esan egin zion. Otsoak amona non bizi zen galdetu eta Txanogorritxok azaldu egin zion. Orduan, otsoak esan zuen berak ere amona bisitatu nahi zuela, eta korrika abiatu zen. Bitartean, Txanogorritxo bidean harantz-honantz ibili zen olgetan.

Otsoa amonaren etxera iritsi zen Txanogorritxoren plantak eginez, eta, segituan, amona jan egin zuen. Ondoren, ohean sartu zen. Txanogorritxo heldu zenean, otsoak ohean sartzeko eskatu zion. Txanogorritxok arropak erantzi zituen, eta oheratu egin zen. Ustezko amona biluzik ikustean, harritu, eta amonari zein beso luzeak zituen adierazi zion. Otsoak biloba hobeto besarkatzeko zirela hain luzeak erantzun zion. Ondoren, neskak amonari zein zango luzeak zituen adierazi zion, eta otsoak hobeto korri egiteko zituela erantzun zion. Segidan, belarrien handitasunari buruz galdetu zion, eta hark hobeto entzuteko zirela erantzun zion. Hurrengo galdera begiei buruzkoa izan zen, eta erantzuna berriro zolitasunean oinarritu zen. Azken galderak hortzei egin zion erreferentzia, eta erantzuna izan zen neska hobeto jateko zirela hain handiak. Hitzak bukatutakoan, otsoak Txanogorritxoren gainera jauzi egin zuen, eta jan egin zuen».

Perraultek, ohi zuen moduan, kontakizunaren amaieran olerki labur batez irakaspen moralatu utzi zuen: neskak oihartarazten die hurbiltzen zaien lehenengoari ez diotela kasu egin behar. Hala eginez gero, ez baita harrizkoa otsoa hurbiltzea eta jatea. Otsoei buruz, era askotakoak daudela zehazten du Perraultek, baina denetan arriskutsuenak adeitsuenak direla, bereziki neska gazteei kalean jarraitzen dietenak, baita etxeraino jarraitzen dietenak ere.

Grimm anaien kontakizunak, bestalde, bi bertsio ditu.

Batean, neskak otsoarekin topo egitean ihes egiten du korrika amonarenera, abisu ematera. Bien artean atea trangatu egiten dute, eta otsoak ez du sartzera lortzen. Azkenean teilatutik beherra irristatzen da, eta putzu batera erori, eta ito egiten da. Hortaz, Txanogorritxo pozik eta zoriontsu itzultzen da amaren etxera.

Beste aldaeran, ez da sexualitatearen izpirik ere aipatzen, eta ipuinari ezaguna den bukaera ematen zaio. Otsoak amona eta biloba irentsi ostean, ehiztaria agertzen da. «Hemen zaude, agure lizun hori; bazen garaia», esaten dio otsoari. Orduan, amorruari eutsiz, lehenik sabela irekitzen dio artaziekin, eta neska eta amona erreskatatzen ditu. Txanogorritxok, segidan, bete egiten dio harriz sabela, eta, pisuak eramanda, erori eta lehertu egiten da otsoa.

#### Interpretazioa

Bettelheimen arabera, Perraulten **Txanogorritxok du gertatzen zaionaren errua**. Amari obeditu beharrean, otsoari obeditzen dio, eta seduzitzen uzten dio. Adibidez, otsoarekin oheratzen da larrugorrian, eta otsoak esaten dio beso luzeak hura hobeto besarkatzeko dituela; Txanogorri-

txok ez du ihes egiteko imintziorik egiten, egoerarekin liluratuta baitago. Ederki asko uler daiteke otsoak sexu-jokoa nahi duela neskatxarekin, ez baitu basoan bertan aurkitu orduko jaten.

Txanogorritxo **lotura edipikoaren baitan** dago (aitarekiko irrika mugagabea); beraz, seduzitzeko (otsoak irensteko) arrisku bizian, Bettelheimen hitzetan. Txanogorritxok, jada, ez du Gretelek (ipuinean) zuen fijazio oralak; bai, ordea, edipikoa, eta bete-betea, gainera. Emozionalki autonomia ez den puberra da, eta **jakin-mina** du izaeraren ezaugarri nagusi. Fase horretan ez dio beldurrik etxetik ateratzeari, eta irrika edipikoa munduan proiektatzeko joera du; beraz, elementu erakargarriak josita ikusten du etxetik kanpoko mundua. Bettelheimen ildotik, horrek **plazeraren printzipioan murgiltzeko arriskua** dakarkio neskatxari. Otsoak Txanogorritxo zirikatzen egiten du basoko lore, txori eta gauza ederrez ohar dadin. Amak esana zion bidetik ez ateratzeko eta ez hasteko bazterrak nahasten; hau da, errealitatearen printzipioa emana zion, jakin ondo baitzekien Txanogorritxok bidetik ateratzeko eta nagusien gauzak zelatzeko zeukan joera. Ondorioz, Bettelheimek izaera inuzentearen desegokitasunaz ohartarazten du.

Grimm anaien bertsio arruntan pertsonaia maskulinoa agertzen da, bere bi esanahi nagusietan: **seduktore gaiztoa (aita otsoa) eta ehiztari salbatzailea (aita babeslea)**. Gizonezkoak, ipuinean, psikearen muturreko bi alderdietara jotzen du: zeraren irrika berekoi eta suntsitzailetara (otsoa), eta niaren bulkada orekatu eta babesleetara (ehiztaria). Aitaren irudia bi pertsonaia horien baitan egoteak alabaren desio edipikoaren anibalentzia adierazten du. Eta neskatxak biak ezagutu nahi ditu. Otsoak ehiztariak berak dituen joera onartezinak ere ordezkatzeko ditu, Bettelheimen esanetan, **otsoa pertsona guztiek psikean gordetzen duten izaera animalia baita**.

Bettelheimen iritziak, guztiz **kritikagarria da amonaren jarrera**. Bilobari laketa zaion guztia emanez, neska erabat mimatzen du, eta plazeraren printzipioan uzten du harrapatuta. Gainera, gorriak diren txano eta kapak ematen dizkio; horrekin, gizonetik duen erakarpen menderatzailea igortzen dio amonak neskatilari, gorriak emozio gordinak sinbolizatzen baititu, eta horrela **Txanogorritxok erakarpen sexualaren grina goiztiarra jasotzen du**. Bettelheimen hitzetan, sexualitate goiztiarra esperientzia erregresiboa da, mendekotasun edipikoa handitu egiten duelako. Horregatik, ipuinean, amonak neskari egindako kaltearen ordaina jasotzen du, egilearen iritziak.

Ehiztariak otsoaren hilketarekin **gogorkeriaren erabilera sozial egokia** erakusten du, Bettelheimen iritziak; izan ere, bi emakume erreskatatzeko erabiltzen da.

Ondorioz, Txanogorritxok bide zuzenetik desbideratu beharra izan du lezioa ikasteko eta, horrekin, nortasuna garatzeko. Konturatu da hobe dela ez errebelatzea amaren aurka eta hobe duela, era berean, gizonaren (aitaren) sedukzioaren arriskutik urrutzea, sentimendu edipikoak bere baitan kontraesana sortzen badio ere. Hori lortzeko **superni sendoa eraiki** behar du, amaren eta aitaren aldeko identifikazioaren bidez. Eta eginbide horretan **ez dago gizaratearen bortsarik**, gurasoek ez baitote pubertaroan dagoen neskari (Txanogorritxori) jarraibidea inposatzen; neskak berak ikasten du, bere kabuz.

### Iruzkina

Harrigarria da Bettelheimek Txanogorritxoren **erruduntasunaz** hitz egitea, aitortu egiten badu neska inozentziak eramanez duela gizonetik nagusien izaera arakatzerak; arriskura, beraz.

Neska gazteak nagusien portaera ikasteko duen **jakin-mina arriskutsutzat** dauka Bettelheimek, haurren heziketarako jakin-mina eta esperimentazio naturalaren (espontaneoaren) beharra

.../...

.../...

jada Rousseauk argi asko erakutsi zuenean. Badirudi genero-aurreiritzi batek bereziki neska gaztearen sexuarekiko jakin-mina zigortu nahi duela. Gainera, azterketa soziologiko sakonak ziurrenik gizarteari egotziko lioke jakin-min sexuala arriskutsu gertatzea, eta ez neska puber baten psikeari.

Ez da harritzekoa ipuin honetan ere nortasunaren garapenerako **plazeraren printzipioak neska batentzat duen arriskua** azpimarratzea, batik bat plazer sexualaz ari denean. Berrito ere emakumezkoari plazererako bidea murriztu egiten dio kulturak ipuinen bidez. Bettelheimen esantzan, amak Txanogorritxori bidetik ez ateratzeko agintzen dio, baina neskak basoko izakiekin jolasteko «bekatua» egiten du, otsoak horretara limurtuta.

**Otsoa gizonezkoaren (aitaren) bulkada sexual suntsitzaileen ikurra** da ipuinean. Ipuineko gaizkilea otsoa bera da. Ipuinaren gaiak aitaren alderdi beldurgarria azpimarratzen du, baina, era berean, faktore hori oso disimulaturik agertzen da, bukaeran ehiztaria (aita ona) ateratzen delako garaile, otsoaren (aita gaiztoaren) gainetik. Ama gaiztoa lantzen den ipuinetan, ordea, gizonezko pertsonaia ona izan ohi da, berriro ere, emakumezko pertsonaia maltzurra (sorgina edo amaordea) hiltzen duena. *Txanogorritxon* aita onak bukaeran duen protagonismoak neskatxaren jokaera okerra zuzendu beharra azpimarratzen du. Are gehiago Perraulten bertsioari erreparatzen badiogu: otsoa ateratzen da garaile. Perraultentzat (XVII. mendeko nobleziarentzat) **bekatu sexualaren ardura neska inuzente baina probokatzailleak dauka, ez «aita» bortxatzaileak.**

Bettelheimen iritziz, guztiz **kritikagarria da amonaren jarrera, neskatxari erakarpn sexualaren grina goiztiarra eragiten diolako.** Amonak gorritz janztera bultzatzen du, eta apetatsu bihurtzen du haurra. Kolore gorriaren arketipoak ez dio, ikusten denez, esanahi bera ematen mutil gazteari eta neska gazteari. Zaila da aurkitzen aitona edo aita batek mutikoarengan eragindako sexualitate goiztiarra salatzen duen ipuinik; eta aitona bilobari apetatsu izaten erakusten badio, aitona (edo aita) gizon onkotetzat hartuko du ipuinak. Iraingarri dirudi Bettelheimen berak amona kondanatzea horregatik. Horrek **emakumearen berezko irrika sexualaren aurkako aurreiritzi zabala** adierazten du, kulturaren tradizioz errotutakoa (Grimm anaiek ere, Perraulten bertsioa aldatuz, amona «axolagabea» otsoari aurre egiten dion amona on bihurtzen dute).

Ehiztariak otsoa hiltzen du, bi emakumeak erreskatatzeko. **Gizon sendoak (aita) emakume ahulak (alaba eta amona) salbatzen ditu.** Ipuinetan nekez ikusiko da amaren halako protagonismorik.

Neska gaztetxoak mendekotasun edipikoa gainditzeko superni sendoa eraiki behar du, amaren eta aitaren aldeko identifikazioaren bidez. Eginbide horretan ez du Bettelheimen gizartearen bortxarik ikusten, gurasoek ez baitiote neskari jarraibiderik inposatzen. Nabaria da, ordea, supernia gurasoen kulturaren eta, azpitik, gizartearen beraren kulturaren transmisio-bide zuzena dela. Ikusten denez, **autonomia eskasa gelditzen zaio Txanogorritxori sexualitatea beste era batera bizitzeko.**

## 2.14. JACK ETA BABA MAGIKOAK; JACK ETA HAREN NEGOZIOAK

Jack-en ipuin sorta Ingalaterratik dator, eta horien artean *Jack eta baba magikoak* da famatuena. Bi ipuinen **gaia mutikoaren garapen sexuala eta soziala** da.

*Jack eta baba magikoak* kontakizuna **lehen haurtzaroaren amaieran** kokatzen da, etapa orala utzi eta etapa falikoarekin (eta analarekin) egiten duenean topo. Hona hemen ipuinaren laburpena.

«Esne Zuri behiak amarentzat eta haren seme Jackentzat esnea emateari uzten dio. Jackek babarrun haziak ditu, eta uste du botere magikoa dutela. Orduan, amak behia saltzeko esaten dio, ez baitu esnerik ematen gehiago. Jackek behia babarrun landarearen hazi magikoen truke ematen dio gizon saltzaile bati. Etxera bueltan, amak tratuaz iseka egiten dio, eta umea astindu egiten du. Jackek ezer jan gabe oheratu behar du. Lo dagoela, haziak izugarrizko landarea sortzen dute. Esnatutakoan gelan ez da argirik sartzen landare handituak ematen duen itzalagatik. Landarea zeruraino igo da, eta, horretaz baliatuz, landaretik gora zeruko atariraino heltzen da umea. Han, ogro bat bizi da, eta hari urrezko poltsa lapurtzen dio umeak. Erraldoiak deskubritu egiten du, baina emazteak umea labean ezkututzen du; horrela, etxera itzultzen da, amari dirua ematen dio eta behar duten guztia erosten dute. Bigarrenez ere, landaretik gora igotzen da, eta ogroari urrezko arrautzak jartzen dituen oiloa osten dio. Oraingoan ere, haren emazteak ezkututzen du labean. Horrekin amak eta semeak aserik dituzte behar fisikoak; baina hirugarren bidaiatxoa egiten du, eta urrezko harpa lapurtzen dio ogroari, sentikortasun artistikoak ukituta. Ogroak, oraingoan, atzetik jarraitzen dio landarean behera. Umeak, izaturik, amari deitzen dio eta ama landarea aizkoraz mozten saiatzen da, baina ogroaren hanka erraldoiekin izaturik, ikarak harra-patuta gelditzen da. Jackek berak aizkora hartu eta zuztarra mozten du. Ogroa erori eta hil egiten da. Handik aurrera pozik bizi dira».

## Interpretazioa 1

**Bigarren haurtzaroan** sartzen da mutikoa, eta gorputzaren baliabideak deskubritzen ditu, batik bat aparatu sexuala. Zakilaren erekzioarekin ama konkista dezakeela iruditzen zaio, eta lehiakide nagusi den aita (ogroa) akabatu. Amak ez dio merezi duen arreta eskaintzen mutilaren gaitasun sexual berriari; horregatik, landare haziari burla egiten dio. Haurrak, amaren mendekotasunak (etapa oralak) huts egin ondoren, eta haren gorputzaren grinaz (estimulazioaz) baliatuz, bere kabuz deskubritu eta lortu nahi du bizitzan behar duena. **Amak mutikoaren autonomia sozial eta sexual berriari behar duen konfiantza emango balio, semeak ez luke fantasiara (masturbaziora) jo beharko.** Haurtzaroko fase honetan (bigarren haurtzaroa, 1-2 urtetik nerabazarora arte doana), hasierako urteetan batez ere, mutikoak ez du aitarekin identifikatzeko gaitasun nahikoa; beraz, lotura edipikoan erortzen da, bete-betean. Horregatik aitari (ogroari) botere osoa lapurtu nahi dio, ama lortzeko lehiakidetza estuan.

Bettelheimen hitzetan, **amak mutikoaren ausardia sexuala aldeztu behar du**, eta artasunaren autoafirmazioak dakarzkion arriskuetatik babestu, aitari aurre egiten dionean, batik bat. Ipuinean, Jacken autoafirmazio saioek behin-behineko erregresiora eramaten dute: oralitatera (ogroaren emazteak labean ezkutatu behar du) eta analitatera (amari emateko urrezko objektuez jabetu nahi du), sexualitate berriarekin jokatzeko duenean sentitzen duen ziurtasun faltagatik. Baina saiatzearen saiatzeaz **lorpen pertsonalak izango ditu, eta desio erregresiboak sublimatu** egingo ditu; orduan, goi-mailako desioak sentituko ditu (ipuinean, urrezko harparekin irudikatzen dira). Etapa falikoan dago, baina hori ere gainditu egingo du, mundua (batik bat ama eta aita) bere (zakilaren) esanetara ez dagoela ohartzean.

Amak (ipuinean egiten duen eran) semearen saioak gutxietsi beharrean aurrera egiteko behar duen ziurtasuna emango balio, mutikoak azkartu egingo luke identitate-eraikuntza, eta lehenago askatuko litzateke amari atxikitzen dion lotura edipikotik, eta aitaren irudiarekin lehenago identifikatuko litzateke. Bettelheimen esanetan, **amak luzatu egiten du semearen mendekotasuna**, mutikoaren kaltetan.

Hona hemen *Jack eta haren negozioak*. Mutikoa dagoeneko **pubertarora** heldu da, eta haurtzaroaren amaiera ezagutuko du.

«Aita batek zorrak kitatu beharra dauka, eta baliabide bakarra behiak saltzea du. Semeak, Jack alprojak, orain artean ez dio zuloatik ateratzen lagundu; horregatik, aitak azokara bidaltzen du familiak dauzkan zazpi behietako bat saltzera, ahalik eta diru gehien ateratzeko. Bidean gizon batek truke berezia eskaintzen dio: behiaren orde, zakuan daukan makila magikoa. Makila, jabeak zakutik ateratzeko agintzean, atera egiten da, eta inguruko etsai guztiak astintzen ditu. Tratua egin eta badoa etxera zakua hartuta. Aita, haserre bizian Jack zigortzen saiatzen denean, mutikoak makilari deitu eta aita egurtzen du. Horrek etxeko autoritatea ematen dio semeari, aitaren gainetik. Baina, lehen bezain pobre, berriro ere azokara joan beharra dauka. Bidean lehengo gizonarekin egiten du topo, eta, oraingoan, erle abeslari bat ematen dio behiaren truke. Diruaren premia areagotzen ari denez, hirugarrenez doa azokara, baina orain biolin-jotzaile batekin etortzen da bueltan.

Lurraldeko erregeren alabak ezin du irribarrerik egin; beraz, aitak alabaren eskua eskaintzen du irri eragiten dion gizonarentzat. Printze eta aberats ugari saiatzen dira, baina alferrik. Jackek, zatar jantzita ere, askatu egiten dio irria erle kantariaren eta biolin-jotzailearen bidez. Ondoren, makilaz bazterreko ezkongai guztiak zigortzen dituenean, printzesari barre-algara eragiten dio. Ezkontzaren aurretik mutikoak gaua pasa behar du emaztegaiarekin, baina ohantzean geldirik gertatzen da, eta ez zaio neskari hurbiltzen. Errege haserretu egiten da, baina beste aukera bat ematen dio, eta gero beste bat, eta beste bat; alferrik, ordea. Horregatik, lehoiz eta tigrez betetako putzura botatzen du, baina makilaz animaliak erraz menderatzen ditu Jackek. Printzesa txundituta uzten du mutilaren gizontasunak. Hori horrela, ezkondu eta seme-alaba ugari dituzte».

## Interpretazioa 2

Jackek, pubertaroan dagoen mutikoak, hiru gaitasun landu behar ditu **etapa edipikoa pubertaroan erabat atzean uzteko** eta autonomia osoa eskuratzeko: lanaren bidezko sakrifizioa (erleak irudikatzen duena), sentikortasuna (biolinak irudikatua) eta botere sexualaren kontrola (makilak irudikatua). Horrela, identitate propioa edukitzeak ematen dion autonomiarekin konfiantza osoz jokatu du, bizitzan nahi duena lortzeko, hots, autoerrealizatzeko.

### Iruzkina

**Bettelheimek Jacki Txanogorritxori egiten uzten ez ziona egiten uzten dio: inizatiba hartzea garapen sexuala aurrera eramateko.** Txanogorritxorentzat arriskutsua zena (gizonaren sexualitatea deskubritzea) Jackek bere esku dauka, amak mutikoaren inizatiba falikoak bultzatu egin behar omen dituelako. Mutikoarentzat onuragarria da gorputzaren bidez mundua deskubritzea. Bettelheimen ustez, amak mutikoaren autonomia sozial eta sexual berriari behar duen konfiantza emango balio, semeak ez luke fantasiara (masturbaziora) jo beharko. *Txanogorritxon*, ordea, neskatxari ez zaio batere autonomia ez eta konfiantza eskaini behar, garapen sexuala eta soziala aurrera eramateko. Inizatiba sexuala erreprimitu egin behar du (amak agindutako bidea zuzen-zuzen ibili) eta babestu, kanpoko eraginetatik («aitak» otsoa hiltzen du; amonak atea trangatu egiten du). Bettelheimentzat, **amona arduragabe lizuna** da, neskatxari arropa gorriak (bulkada sexuala) oparitzeagatik. Jacken ama, ordea, arduragabe errepresioegilea da mutikoari babalore-hazien (bulkada sexuala) gainean trufa egiten diolako. Babalorearen pasartearekin, **amaren itsukeriagatik** Jack gizaizaioak masturbaziora jo beharraren errukia agertzen da. Txanogorritxori masturbazioaren kon-

.../...

.../...

tsolamendua ere ez zaio geratzen ipuinean; dena du debeku zorrotz. Gainera, kontuan izan behar da Jack umearen aldean, Txanogorritxo neska puberra dela. Ikus dezagun, bada, Jack puberrarekin alderatuz gero, zer gertatzen den Txanogorritxorekin.

**Jack puberrak aukera eta eskubide guztiak ditu, bere makila (zakila) nahi duen eran erabilia nahi duena lortzeko.** Aitari autoritatea kentzen dio, etsai guztiak mendean hartzen ditu, eta erreinua eta printzesa **konkistatu** egiten ditu (printzesa liluratu egiten du bere gizentasunaz). **Txanogorritxo puberrak bere janzkera gorriaz (sexualitatea) akabera besterik ez du lortzen** emakumezkoen erruz, eta gizonezko batek salbatu behar du heriotzatik (otsotik).

Jacken kontakizunetan, berriro ere, argi adierazten da **mutiko batek bere kabuz lor dezake-ela bizitzan autoerrealizatzea.** Bi ipuinetan, mutilak txikitatik (etapa oraletik irten orduko) behar dituen inizatiba eta autonomia aldarrikatzen dira, emakumezko protagonistari inongo ipuinetan aitortzen ez zaizkion dohainak.

Protagonista alde batera utzita, Jacken bi ipuinetan agertzen diren pertsonaia femeninoak arduragabeak (ama), posesiboak (ama), beldurtiak (ama), leloak (printzesa) edo babesleak (ogroaren emaztea) dira. Pertsonaia maskulinoak, ordea, arduratsuak (aita), boteretsuak (erregea eta ogroa), azkarrak (saltzaileak) edo beldurgarriak (ogroa) dira. **Nolakotasunak, nabari denez, ez daude parean.**

## 2.15. EDURNE ZURI

*Edurne Zurik* era askotako aldaerak izan ditu, eta Europa osoan zabalduta dago. Aldaera ezagunena Grimm anaiena da, eta horixe aztertuko da. **Gaia lotura edipikoak neska gazte-engan eragiten duen bilakaera** da. Hona hemen laburpena.

«Bazen behin erregina bat ebano beltzezko leihoan jarrita, negu gorriaren erdian elurra mara-mara nola ari zuen begira. Josten ari zen, eta halako batean, jostorraz hatza ziztatu eta hiru odol tanta elurretara erori ziren. Hain polita zen elur gaineko odolaren gorria, ezen erreginak elurra bezain zuria, odola bezain gorria eta leihoa bezain beltza izango zen haur bat izateko gogoia adierazi baitzuen; eta halaxe izan zuen. Horregatik, Edurne Zuri deitu zion. Haurra izan eta handik gutxira hil egin zen, eta errege berriro ezkondu zen. Edurne Zuri lasai bizi izan zen aita erregerekin eta amaorde erreginarekin, zazpi urte betetzen dituen arte. Orduan, erreginari jelsia pizten zaio eta ispilu magikoari egunero galdetzen dio nor den erreinuko emakumerik ederrena, bera dela ziurtatzeko. Baina heltzen da Edurne Zuri pubertaroan sartzeko garaia, eta ispiluak erregina bera baino politagoa dela adierazten dio. Horregatik, erreginak ehiztariari basora eramateko eta han bertan akabatzeko agintzen dio. Neskaxaren barrukiak ekarri behar ditu bueltan, gainera, hil duen froga moduan. Ehiztariak, hala ere, basoan uzten du, bizirik, eta animalia baten barrukiak eramaten ditu, neskaxarenak direlakoan. Erreginak jan egiten ditu, alabaordearenak direlakoan.

Bitartean, Edurne Zuri, nora ezean, ipotxak bizi diren etxera heltzen da. Sartzen da eta zazpi ipotxen plateretatik jaten du, zazpi edontzietatik edaten du, eta zazpi ohetan etzaten da, eta egusentira arte lo egiten du. Ipotxak itzultzen dira, basoan lan gogorra egin ostean, eta, Edurne Zuriren edertasunaz eta zoritxarraz hunkituta, berean hartzen dute; baina, trukean, Edurne Zurik etxean gogor lan egin behar du. Denboraren joan-etorrian, ipotxek argi uzten

diote neskari ez diola atea inori ireki behar, kanpoan lanean diharduten bitartean. Egun batean, ordea, erregina agertzen da ate-joka, saltzaile ibiltariz mozorroturik. Tentazioak harrapatuta, atea zabaltzen dio, eta kortse-zinta bat erosten dio. Erreginak hain estu lotzen dio kortsea gerri-  
ra, ezen konortea galdu eta erdi hilik uzten baitu. Ipotxak itzultzen direnean salbatu egiten dute neska. Berriro ohartarazten diote neskatxari erreginarean maltzurkeriaz, baina hurrengoan amonaz mozorrotuta agertzen denean ile-orrazle eran, berriz ere atea zabaltzen dio, eta erreginak konortea galduta uzten du lurrean. Ipotxek oraingoan ere erreskatatu egiten dute, baina erregina hirugarrenez etortzen denean nekazariz jantzita, sagar gorri pozoituari kosk egiten dio. Edurne Zuri hil egiten da, eta kristal gardeneko hilkutxan sartzten dute. Denbora luzez dihardu han, eta ipotxek gain, hiru hegaztik egiten diote beti bisita: hontza zuri batek, bele batek eta uso batek. Egun batean, printze bat etortzen da, eta hilkutxa eraman egiten du. Mugimenduak eztula eragiten dio Edurne Zuriri, eta sagar pozoitua bota egiten du. Horrela, bizira itzultzen da, printzearekin ezkontzen da, eta amaordea zigortu egiten dute, burdinazko zapata gori-goriekin hil arte dantzatzera».

## Interpretazioa

Lotura edipikoak amaren alderdi jeloskorra eta lehiakorra pizten ditu, eta horrek alabari muga jartzen dio. Amaren alderdi narzisistak bigarren haurtzaroan bizi den alabari (Edurne Zurik zazpi urte betetzen dituenetik) eraso egiten dio. Arrazoia, ordea, alaba gaztearen jeloskortasuna da, hark, amarekin lehiatu ezinean, proiektzioaren mekanismoaz ama bihurtzen baitu jeloskor. Ipuinak, beraz, **neska gazteak haurtzarotik nerabezarora arte bizi duen mendekotasun edipikotik ateratzeko** eman behar duen bilakaera azaltzen du.

Lehenik, **urrundu egin behar du gurasoekiko dependentziaz**, eta ikasi egin behar du bere kabuz baliatzen, **lanaren eta gizarteratzearen bidez** (ipotxekin bizitzen eta **etxeko lanak** egiten ikasten du. «Gure etxea zainduko duzu, janaria prestatuko duzu, oheak egingo dituzu, arropa garbituko duzu, josi egingo duzu, eta dena garbi eta txukun izango duzu», diote ipotxek).

Bigarrenik, eutsi egin behar die instintuen irrikeri eta, bereziki, lotura edipikoak konpondu gabe utzi dion irrika sexual deskontrolatuari (erreginarean tentazioei), asko kostatu arren (sagarrenaren bekatuan erortzeraino). **Garapen psikologiko-sexuala prozesu luzea izango da, eta jarduera pasiboa eskatuko dio** (hilkutxan lozorroan dago denbora luzez). Bilakaera aurrera eramateko funtsezko bertuteak landu beharko ditu: jakinduria, kontzientzia eta amodioa (hontzaren, belearen eta usoaren sinboloak).

Hirugarrenik, heldutasun psikologiko-sexuala lortuta, **gai izango da maitalearen agerpenaz ohartu eta hura onartzeko**, haren arrimoan zoriontsu izateko. Aurrerantzean, bizi-proiektua gauzatu egingo du; hots, autoerrealizatu egingo da.

Horrela, prozesu horren bidez, Bettelheimen hitzetan, neska **ikasi egiten du bereizten ona eta txarra**, supernia eta zera, kontzientzia garbiaren kolore zuria eta emozio deskontrolatuen kolore gorria; eta ni heldu berriaren bidez «zuria» eta «gorria» oreka harmonikoan izango ditu.

Ipuinean, nahaste edipikoan amak eta aitak jokaera ezberdina dute: aita ezgai eta ahul agertzen da; ama, bere aldetik, ustel eta maltzur. Haurraren gain duten eragin maila ere ezberdina da: amak bizirauteko gaitasuna kentzen dio; aitak, aldiz, bere kabuz moldatzera bultzatzen du. Bet-



telheimek berizketa hori **batari eta besteari dagozkion berezko rolen bidez azaltzen du: amak elikadura eta behar psiko-fisiologikoak asetzea ziurtatu behar dio haurrari, eta aitak arriskuen aurreko babesa eta gizarteratzeko laguntza.**

### Iruzkina

*Edurne Zurik* neskaren lotura edipikoa nola gainditu azaltzen digu, *Txanogorritxoren* antzera, baina oraingoan etapa osoa kontuan hartuz: haurtzarotik nerabegarora arte. Eta bai ipuinak eta baita Bettelheimek berak ere ematen duten soluziobideak **irrika guztien, eta batez ere sexualaren, errepresioa eskatzen du. Neskak sakrifikatzen ikasi behar du** lanaren bidez, gogoetaren bidez, ariketa intelektualaren eta moralaren bidez, eta pasibitatearen bidez. Hitz batean, zera erreprimitzu eta supernia landuz. Horretan ere, *Txanogorritxon* bezala, kolore gorriaren anatematizazioa egiten du. Biblian paradisua galtzarekin gertatu bezala, neskak gizakiaren galera dakar **sagar gorriaren** bidez. Neska da bekatari sexuala, beraz.

Oso esanguratsua da ipuinak neskarentzat gordetzen dituen garapen pertsonalerako lanak, ipotxen etxean: **etxeko lanak**, hots, «gure etxea zainduko duzu, janaria prestatuko duzu, oheak egingo dituzu, arropa garbituko duzu, josi egingo duzu, eta dena garbi eta txukun izango duzu», ipotxek dioten eran. Eta oso esanguratsua da Bettelheimen oharra: «Horrela Edurne Zuri etxekoandre peto-peto bihurtzen da, neskatxa askorekin gertatu ohi den eran, amaren faltan aitaren, anai-arreben eta etxearen kargu egiten direnean».

Prozesua osatutakoan, neskak zoriona ekarriko dion maitalearen zain egon beharra dauka.

Ipuinaren eta Bettelheimen arabera, mutikoak haurtzarotik nerabegarora bitartean bete behar duen prozesua hartzen badugu kontuan, Jacken kontakizunari begiratu beharko zaio. **Jackek ez du sakrifikatu beharrik**, ez du inolako lanik egin behar (gutxiago oraindik familiaren zerbitzura dagoen etxeko lana), ez du neurritasunez, ez pasibotasunez jokatu behar. Gainera, zeraren irrikak eta, batez ere irrika sexualak, lotu beharrean, askatu egin behar ditu, eta, jakina, horretan familiak berekin ulerberatasunez jokatu behar du. Askea eta alferra izan behar du. Bere kabuz eta maltzurkeriaz baliatuz, aitaren autoritatea gailendu behar du. Anbiziosoa eta harroa izan behar du. Eta mundua konkistatu behar du. Hori guztia bere kabuz lor dezake; beraz, zoriontsu izateko ez du maitalearen (emakumearen) zain geratu behar. Horrela, arrakasta osoa izateko merezimendua dauka. **Neskaren eta mutilaren garapen-prozesuaren aldea erabatekoa da.**

Ipuinean, amak (amaordea) eta aitak (erregea eta ehiztaria) jokaera ezberdina dute: **aita ezgai eta ahul agertzen da; ama, berriz, ustel eta maltzur**. Amak bizirauteko gaitasuna kentzen dion bitartean, aitak bere kabuz moldatzera bultzatzen du. Amak eragin kaltegarria dauka; aitak, aitzitik, eragin onuragarria. Bettelheimek, gainera, bereizketa hori berez dagozkion rolen bidez azaltzen du: amak elikadura eta behar psiko-fisiologikoak asetzea ziurtatu behar dio haurrari, eta aitak arriskuen aurreko babesa eta gizarteratzeko laguntza. Egun, ordea, **gurasoen artean ez da horrelako diskriminaziorik onartzen, biek gaitasuna baitute edozein rol betetzeko**. Ikusi besterik ez dago bikote homosexualen kasua.

## 2.16. LOTI EDERRA

*Loti Ederrak* bi aldaera nagusi ditu, Basile-rena (*Eguzkia, ilargia eta Talia*) eta Grimm anaiena. Biak dira funtsezkoak eta aztertzea merezi dute. **Gaia lotura edipikoa neskagaztearen eragiten duen bilakaera da, Edurne Zurin moduan.**

Hona hemen, lehenik, Basileren *Eguzkia, ilargia eta Taliaren* laburpena.

«Erregek erreinuko jakintsu guztiak bildu zituen alaba jaio berriaren etorkizuna iragaritzeko. Denek iragarri zuten liho izpi batengatik arriskualdi handia igaroko zuela. Istripu hori saihestearren, erregek gazteluan ez lihorik ez kalamurik sartzen ez uzteko agindu zuen. Baina egun batean, Taliak —dagoeneko neska koskorra— amona bat ikusi zuen leihoan iruten. Taliak, halakorik inoiz ikusi gaberik, lilura sentitu zuen ardatzaren kulunkarekin. Jakin-minez beteta, gorua eskuetan hartu eta haria ateratzen hasi zen; baina, orduan, egur printza bat azkazalean sartu zitzaion, eta lurrera erori zen hilda. Gertatutakoaren ondoren, erregek alabatxoa belusezko aulki batean eseri zuen, jauregiko ateak itxi, eta alde egin zuen betiko, zoritxarra astindu nahian.

Denbora tarte bat geroago, handik ehizan zebilen errege bat igaro zen. Haren belatza gazteluan sartu zen leiho batetik, eta ez zen ateratzen. Errege hegaztiaren bila barrura sartu zen, eta Talia aurkitu zuen, lozorro sakonean murgildurik balego bezala. Neskaren edertasunak hainbeste liluratu zuen, ezen ezinbestean harekin oheratu baitzen. Geroxeago alde egin zuen, eta abentura hura ahaztu egin zuen. Bederatzi hilabete beranduago, Talia, oraindik lozorroan sartuta, bi umez erditu zen, eta horiek amaren bularretik elikatu ziren. Egun batean, bularra topatu ezinean, ume batek hatza zurrupatu zion, eta egur printza atera egin zion, eta, horrela, ama lozorrotik esnatu zuen.

Egun batean, errege bere abenturaz gogoratu zen, eta gaztelura joan zen Taliaren bila. Neska esna eta bi haurrekin ikustean hain pozik sentitu zen, ezen ezin izan baitzituen gehiago ahaztu. Baina erregeren emazteak sekretua deskubritu zuen, eta haurrak ekartzeko agindu zuen, sukaldean jaki gisa maneatzeko eta erregeri jaten emateko. Sukaldaria errukitu egin zen, eta haren etxean gorde zituen haurrak. Haien ordeaz antxumea jarri zuen platerean. Beranduago, Tania hartu eta, desleialkeriaren errudun zelakoan, sutara botatzen saiatu zen, baina azken unean errege agertu eta emaztea bota zuen sutara. Taniarekin ezkondu eta, semeekin batera, familia zoriontsua osatu zuten».

Hona hemen Grimm anaien bertsoia, laburbilduta.

«Erregek alaba izan zuen eta bataiora, askoren artean, inguruko hamahiru maitagarrietatik hamabi gonbidatu zituen. Horregatik, hamahirugarrenak madarikazioa bota zion haurrari, haurra goru batekin ziztatu eta hil egingo zela. Azken maitagarriaren desioak, ordea, mehatxua ehun urtera jaistea lortu zuen. Erregek, ondorioz, goru guztiak kendu zituen gaztelutik.

Haurrak hamabost urte bete zituenean (lehen pubertarora iristeko adina zen), bazterrak miatzera atera zen, eta eskailera kiribil bat igo ondoren, halako batean, gela ezkutatu batean amona bat ikusi zuen goruan. Goruarekin liluratuta, hariarekin probatu nahian ziztatu, eta hil egin zen. Lozorro sakonean balego bezala, han utzi zuten neskatxa, ohean etzanda, sasiz eta arantzaz inguratutako zirkulu baten erdian. Bitartean, printze asko saiatu ziren zirkuluan barrura sartzen, baina sasieta trabatuta akabatu egin ziren.

Ehun urteak pasa eta gero, iritsi zen azkenean esnatzeko eguna. Loti Ederraren inguruko sasiarte lore eder eta handien hesi zoragarri bihurtu zen, eta printze berriaren etorrerarekin alboratu egin ziren, pasatzen uzteko. Printzeak musu eman eta neska esnatu egin zen, elkarrekin ezkondu eta pozik bizitzeko».

## Interpretazioa

Loti Ederrak pubertaroaren aldaketa psikosexualak bizi ditu, eta heldutasuna lortzeko **beharrezko du atsedean, kontenplazio eta kontzentrazio aldi bat** igaro, Bettelheimen ustez puber guztiek behar duten aldia, izan neska zein mutil. Horrela, nerabezeroarekin batera nortasuna hel-

tzea lortuko dute, bizitzan edozein proiekturi aurre egiteko. Beharrezkoa du gazteak lozorro garai hori, **prestatze lasaiaren bidez heldutasun sexuala lortzeko**, harremanetan hasi aurretik (Edurne Zurirekin gertatzen zen moduan), Bettelheimen ustez.

Ipuinaren argumentua **gurasoen (aitaren) atxikimendu edipikoan oinarritzen da. Aitak ez du nahi alabak heldutasun sexuala izaterik**, baina horrek heldutasuna atzeratzea besterik ez du ekartzen, eta hortik dator pubertaroarekin (goru-ziztadaren odol-isuriak hilekoa sinbolizatzen du) neska aparteko mundura joatea. Edurne Zuriren moduan, aitaren babesa galtzen du, eta lozorroan erortzen da, baina orain lozorroa erabatekoa da: ehun urteko lozorroa.

Neska gaztea (Loti Ederra) **pubertaroan sartzean jakin-minak jota** dago, irrika sexualak bultzata. Horregatik, sexualitatearen gaitasunak arakatu nahi ditu (gela ezkutua bilatuz) eta giltza erabiliz, gela itxiko atea irekitzen du (organo sexual maskulinoak femeninoetan sartu nahi ditu), baina dantzan diharduen goru-ardatza ukitzean min hartzen du, eta lozorroan erortzen da; esan nahi da, **esperientzia sexualak traumatiko gertatzen zaizkio**, ez baitago oraindik prestatura. Horregatik, fase pasibo luzean sartu behar du heldutasuna topatu arte.

Harreman sexualaren traumarekin batera, ustekabeko odoljarioak **hilekoaren etorrera** (traumatikoa, Bettelheimen ustean) irudikatzen du, maitagarriaren **madarikazioaren gauzatzeara**. Hemendik aurrera abstinentziazko fase pasibo luzea bizi beharko du, maitale guztiak bazterrean edukiko dituen (ipuean, sasiartean trabatuta geratzen dira).

Bettelheimek dioenez, gorputza eta gogo prestaturik egon baino lehenagoko estimulazio sexuala arriskutsua da oso. Heldutasunaren zain egon behar da. **Printzearen musuak, azkenean, «aztikeria narzisista» puskatuko du, eta emakumeari osotasun sexuala ekarriko dio.**

Emakumeak heldutasun sexuala lortu ondoren, bikote-harremana eta familia berria ezagutuko ditu; baina ez da oraindik autoerrealizaziora iritsi. Emakume baten **autoerrealizazioa ume izan berria elikatzearekin dator; hau da, amatasunarekin** (ipuinaren bertsio zaharrenetan, hots, *Perceforestenean* eta *Basilerenean*, neska gaztea lozorroan dago haurrez erditu ondorenean ere, eta bakarrik horiek bularretik zurrupaka hastean esnatuko da), Bettelheimen hitzetan.

### Iruzkina

Bettelheimen ustez, Loti Ederra puberrak (Edurne Zuriren eran) heldutasuna lortzeko **beharrezko du atsedean, kontenplazio eta kontzentrazioaldi bat** igaro, puber guztiek behar duten aldia, izan mutila zein neska; baina oso bestelakoa da Jackentzat gordetzen zuen interpretazioa. Harentzat pubertaroa ez zen lozorroan emateko garaia; aitzitik, mutilaren dohain berriak praktikan jartzeko aldia zen, inongo mugarik gabe, gainera. **Kontraesana eta diskriminazioa**, hortaz, erabatekoa da.

Ipuineko pertsonaia nagusiak, protagonista alde batera utzita, erregea(k), printzea, maitagarriak, amona irulea eta erregearen emaztea dira. Ohi den eran, **gaiztoenak emakumezkoak dira**: maitagarri samindua (maitagarriek sexu femeninoa izan ohi dute ipuinetan) eta erregearen emaztea (Basileren bertsioan). Aipagarria da erregearen emaztearen jokaera. Jelosiaz beteta neska gaztea hil nahi du, hari leporatzen diolako, gainera, senarrak bortxatu izanaren errua (kontuan hartu neska gaztea lozorroan zegoela). **Muturreko sexismoa** adierazten du ipuinak bertsio horretan, emakumezko horren rolaren bidez, eta baita, jakina, haren senarra den erregearen bidez. **Errege hori bortxatzaile garbia da**, ipuinean; baina istorioan garaile ateratzen da, zangar, maitekor eta salbatzaile agertzen dela. Ikusgarria, Basileren ipuina.

.../...

.../...

Ipuinaren mamia neska puberraren garapen sexualaren aurrean **gurasoen jarrera bazter-tzailea izanik, zigorra neskak berak** jaso behar du. *Edurne Zurin* ama baztertzailea heriotza merezi duen emakume maltzur agertzen da; *Loti Ederran*, aldiz, aita baztertzaileak gizaki noblearen errespetua merezi du.

Neskatxa puberrak **jakin-minez jokatzeko du sexualitate sortu berriaren aurrean, eta, ipuinean, zigortu egiten zaio atrebentzia hori**, traumatikoa delako eta lozorroan gorde beharrekoa (Txanogorritxorekin gertatzen den era berean). Jacken kontakizunetan, ostera, jakin-mina bultzatu egiten da, saria dakarrelako berarekin (aberastu egiten da).

Ipuinean, eta baita Bettelheimen interpretazioan ere, **hilekoa eta jakin-mina sexuala traumati-ko gertatzen dira** (ikusi besterik ez dago hilekoa maitagarriaren madarikazioaren emaitza dela), eta horrek sexualitate femeninoaren desnaturalizazioa adierazten du.

**Neska protagonistak ez du, ohi den eran, autoerrealizazio sexuala bere inizatibaz egi-ten**, horretarako gizonezko baten nagusitasuna behar du. Bettelheimen hitzetan, printzearen musua-rekin neska ederrak «aztikeria narzisista» gaingitzen du, eta osotasun sexuala eskuratzen du.

Ipuinean, eta Bettelheimen iritziz, emakume baten **autoerrealizazioa ume izan berria elika-tzearekin omen dator; hau da, amatasunarekin**. Amatasunak, beraz, definitzen du emakumea. Egun, umea (propioa, adoptatua edo babesean hartua) haztea bizitzaren helburu nagusitzat ez duten emakumeek emakumezko izaera galdu egingo lukete.

## 2.17. ERRAUSKINE

Jatorri orientala duen ipuin hau maitagarrien ipuinetan ezagunena da. **Gaia desengainu eta lehiakortasun edipikoak alabarengan eragindako bazterketa da**. Bertsio zaharretan gai nagusia gurasoenganako lotura edipikoa da; berrietan, aldiz, anai-arreben arteko norgehiagoka edipikoa izan ohi da. Jatorrizko bertsioetan, beraz, gurasoekiko lotura edipiko desagokiak era-giten du alabaren degradazioa. Ezagunena Perraulten bertsioa bada ere, atal honetan Grimm anaiena landuko dugu, Perraultek esanahi sakona zeukaten irudi batzuk kendu zituelako, istorioa dotoreagotzeko (zuhaitzaren ordeztu maitagarria ezarri, kasu). Hona hemen Grimm anaien ber-tzioa, laburturik.

«Errauskine pozik bizi da gurasoekin, baina ama hiltzen zaio. Aita berriro ezkontzen da, eta oraingoan amaordeak gaizki tratatzen du: sukaldera baztertzen du, errautsen artean bizitzera. Gainera bi ahizpaorderekin bizi behar du, eta haiek oso gaizki tratatzen dute. Egun batean aita azokara doa, eta alabek opariak eskatzen dizkiote. Ahizpaordeek jantzi dotoreak eta bitxiak eskatzen dizkiote; Errauskinek soilik bideko hurritz-adartxoak ekartzeko eskatzen dio. Aitak, agindu zion eran, hurritzaren adartxo bat ekartzen dio, eta Errauskinek amaren hilobian landa-tzen du, eta bisitan doala negar egiten duen bakoitzean askatutako malkoen bidez, landarea haziz doa. Errauskinek egun osoan etxeko lan zikinenak egiten jarduten du; horretan etxeko animaliek laguntzen diote. Denborarekin, ama bere hilobian hazi den hurritza bihurtzen da, eta zuhaitzaren gainean txori txuri bat agertzen zaio, neskaren desioak betetzeko.

Egun batean erregek festa bat antolatzen du, semeak erreinuko neska guztien artean ezkon-gaia aukera dezan. Errauskinek amaordeari joaten uzteko erregutzen dio, eta, azkenean, baiezko

baldintzatu lortzen du: errautsetara bota dituen dilista pila bildu eta garbitu egin behar ditu, bi orduren buruan. Neskak, laguntzera datozen txoriei esker, proba gaintu egiten du. Berrero ere errautsetatik dilistak bildu behar ditu, onak eta txarrak bereiziz, eta neskak lortu egiten du, berrero txoriei esker. Ondoren, amaren hilobiko txoriak festarako soineko eta zapatatxo ederrak ematen dizkio. (Perraulten aldaeran, maitagarriak kalabaza, sei sagu eta sei sugandila hartu eta zaldizko karroza eder bihurtzen ditu, beste hainbeste zaldi eta morroirekin. Gainera, soinekoa eta kristalezko oinetako ederrak oparitzen dizkio, baina baldintza batekin: gaueko hamabiak baino lehen itzultzekoa, bestela dena lehengo itxurara itzuliko da. Hirugarren gauean, ordea, berandu dabil eta korrika ateratzen da, zapatatxoa eskaileretan galduz. Soinean daraman guztiak lehengo itxura zatarrak hartzen du).

Jauregiko dantzan, Errauskinek alde egin nahi duenean, printzeak lagundu egin nahi dio, baina neska ezkutatu egiten da usategi batean. Erregeren semeak neskaren aita ikusten du, eta usategian gorde dela kontatzen dio. Orduan, aita aitzakora hartu eta usategia puskatu egiten du, baina dagoeneko alaba alde eginda dago. Bigarren gauean, Errauskinek alde egin nahi duenean, printzeak lagundu nahi dio, baina, berriz ere, alaba ezkutatu egiten da udareondo baten adarretan. Aita agertzean zuhaitza ebakitzen du, baina neska alde eginda dago. Azken gauean, printzeak eskailera bikeaz lohitzeko agintzen du, eta, horrela, neskaren zapatatxoa han bertan itsatsita geratzen da. Printzeak, orduan, zapatatxo hori erreinuko zein neskatilari dagokion jakiteko, neska guztiei probarazten die. Errauskinek ahizpei tokatzen zaienean, kabitzen ez zaiela jakitean, amaordearen laguntzarekin behatz lodia moztu dute, baina, txandaka, printzearekin zaldi gainean doazela, Errauskinek amaren hilobiko hurrizetik bi usok neska haien oinari odola dariola salatzen diote printzeari; beraz, ahizpaordeak alferrik mutilatzen dute oina. Errauskinek, bere identitateari eutsiz, zarpail jantzita egiten du zapatatxoaren proba, baina oinean bikain sartzen dela ikustean, printzea harekin geratzen da. Ahizpa maltzurrei, gainera, bi txori txurik begiak erauzten dizkiete, zigor modura».

## Interpretazioa

*Errauskinek gaia alabak harreman edipikoaren ondorioz pairatzen duen bazterketa da.* Bertsio zahar askotan aita zokoratzen du, bai alabarekin ezkondu edo sexu-harremanean jardun nahi duelako, bai aitari alabak nahikoa maite ez duela iruditzen zaiolako. Bertsio berrietan, ordea, amaordea edo ahizpaordeak dira zapaltzen dutenak. Bettelheimen esanetan, alabaren sublimazio fantasiosoak asmatzen du aita hartzea harreman edipikoaren erantzule.

**Lehen narzismoan**, haurrak munduko zilborra dela sentitzen du, eta, horregatik, zelo edipikoak gurasoengana bideratzen ditu. **Bigarren narzismoan**, ez dago ziur erdigunea denik; beraz, zeloak beste haurrengana (anai-arrebengana, batez ere) bideratzen ditu. Bigarren etapa hori sozializazioaren garaia da; hortaz, gurasoen debekuak jasotzen ditu. Horrek gurasoengana desio kontrajarriak eragiten dizkio; beraz, erru-sentimendua eta baztertuko duten beldurra. Ondorioz, **anai-eruben norgehiagoka estua** bizi du. Mendekotasun edipikoaren bukaeran, nerabezaroan, alabak amarengana itzuliko du bere nahi afektiboa, **identifikazioaren** bidez.

Hortaz, **gurasoenganako lotura edipikoak (eta horrek eragindako erru-sentimenduak) moldatzen du anai-arreben arteko norgehiagoka.**

Ipuinean **Errauskineri errautsetan lan egin eta bizi beharrak ez dio duintasuna kentzen, Erroma garaiko Birjin Vestaleen sinbolizazioa egiten delako**, Bettelheimen ustean.

Birjin Vestaleek (lehen garaian) bost urtez jardun behar zuten sua zaintzen, eta, emakume apai-zen moduan, inozentzia eta purutasuna lantzen zuten, prestigio handiz, ezkontzeko adina eskuratzen zuten arte. Kristautasuna ezarri eta gero, ordea, garrantzitsua zen egiteko hori iraingarri bihurtu zen, jainkotasunak izaera femeninoa galdu eta maskulinoa hartu baitzuen.

Errauskinek **txikitako ama onari esker, oinarrizko konfiantza eskuratzen du**, eta horrek bizitzan bere buruaz baliatzeko segurtasuna ematen dio; ipuinean, hori zuhaitzak eskaintzen dion laguntzarekin irudikatzen da. Laguntza horren bidez, neskak aitarekiko lotura edipikoa gainditu egingo du, eta autonomia eskuratuz joango da, pixkanaka. Amarengandik jasotzen duen laguntza, ipuinaren aldaera guztiak kontuan hartuz, **zuhaitzaren, hezurren eta errautsen iru-dietan** gauzatzen da.

Errauskine printzearen festara joatea eta, era berean, hiru aldiz haren eskuetatik ihes egiteak familiaren lotura edipikotik ateratzeko haurrak **identitatearen bila egiten dituen hiru al-diko saio arketipikoa** adierazten du. Neskaren jokaera anibalenteak segurtasun emozional falta adierazten du, **transferentzia edipikoaren erdian** (aitarengandik printzearengana). Aitak, ipuinean, bere ezkutalekuak desegiten ditu, ezkongaiaren onarpenaren bidez, alabari transferentzia hori osatzen lagundu nahi diolako. (Ipuinaren aldaera askotan Errauskinek kontakizunaren hasieratik aitarengandik ihes egiten du, hark bortxa ez dezan; beraz, aldaera horietan, dantzatik ihes egiteak bortxaketa edo irrika lizunen aurkako beldurra adierazten du).

Ipuinaren (bertsio berrien) oinarrizko gaia ahizpen arteko jelsia da, baina, Bettelheimen hitzetan, anai-arreben artean gertatzen den **jelsia nagusia anaiaren eta arrebaren artean** gertatzen dena da, hain zuzen; izan ere, bakoitzak desiratu egiten du berari falta zaiona. Psikoanalisiaren irakurketa klasikoan neskak jasaten zuen inbidiarik handiena, *zakilaren inbidia* daukalako; baina, Bettelheimek aitortzen duen eran, inbidia sexuala bi norabideetan ematen da: neskak mutilaren zakilaren inbidia dauka, eta mutilak, bere aldetik, neskaren bularrena eta umeak izateko gaitasunarena. Sakonean, umeek daukatena, izan neska zein mutila, *kastrazioaren angustia* da, Bettelheimen arabera.

Ipuinean, Errauskine aukeratzen du printzeak, zapata odol-isuririk gabe (mutilaziorik gabe) egokitu zaiolako. Bettelheimek dioenez, irakurlearen inkontzientean **hilekoa heldu ez zaion neska birjina da puruena**. Zapatatxoak, ipuinean, baginaren esanahia hartzen du, eta printzeak zapatatxo neskaren hankan biribil sartzeak, sexu-harreman gozagarria. Bettelheimek ohartarazten digun eran, **zapatatxoaren arketipoak** erro antropologikoak ditu. *Mantxuen* artean, adibidez, ezkontzan andregaiak zapatatxoak oparitzen dizkie senargaiaren anaiei, tradizioz, eta horrekin guztiak bihurtzen ditu sexurako lagun. Nabari denez, poliandria kasu xeble baten aurrean gaude. Hortaz, printzearen erabakia ez da zapatatxoan oinarritzen, odol-isurian baizik, interpretazio analitiko horren arabera.

**Errauskinek ez du sexualitate agresiboa** erakusten, hirutan printzearengandik ihes egiten duelako. Printzeak aukera dezan itxopen du, lasai; baina, behin printzearen aurrean, iniziatiba hartu eta Errauskinek berak egiten du zapatatxo egokitzeko proba. Bettelheimen arabera, horrek **segurtasun emozionala** adierazten du; eta, era berean, Errauskinek berak aurkitzen duela osotasun sexuala, printzearen laguntza izan arren. Printzeak neskaren sexualitate umil eta zarpaila onartu du, emakume kastratu gabea delako (birjina eta hilekoa izatera heldu gabea), Bettelheimen ustean. Horrekin (odol-isuriaren gabeziarekin) mutilak kastrazioaren angustia saihesten du, eta neskak haren zakilaren jabe egitearekin ere bai.

Bettelheimen gogoetari jarraituz, hauxe da ipuinaren lezioa: Errauskinek familiakoen umiliazioa eta zapalkuntza behar ditu, bilakaera pertsonalaren bidez, printzearen emazte bihurtu ahal izateko. Gaztetxoak (pubertarora heldu ez dena) **identate osoa eta autoerrealizazioa lortzeko, bi guraso motak behar ditu: lehen urteetako guraso onak eta ondorengo guraso zorrotz eta kru-delak** (amaordearen antzera). Garapenerako behar duen *oinarrizko konfiantza* guraso onek (amak, batik bat) lehen aroan ematen dioten babes afektiboari esker lortzen du; baina gero gogor jokatu behar dute seme-alabekin, bakardadea pairatu behar badute ere, haiek indibiduazioa osa dezaten.

Hortaz, **funtsezko gertatzen da gatazka edipikoa (lehenik gurasoekin, gero anai-arrebekin) gaztetxoak garapen pertsonala izan dezan.**

### Iruzkina

*Errauskineren* bertsio zahar askotan, aipatu denez, **aita da alaba zokoratzen duena, neskarrekin ezkondu edo sexu-harremanean jardun nahi duelako**, edo, agian, aitari alabak nahikoa maite ez duela iruditzen zaiolako. Bertsio berrietan, ordea, amaordea edo ahizpaordeak dira zapaltzen dutenak, aitari erantzukizuna kendu nahian edo. Aitaren irrika desorekatua eta inmoralak (gure kulturaren, bederen) inongo traszendentziarik gabe gelditzen da ipuinean, garrantzirik izango ez balu bezala. Irudikatu besterik ez dago zein izango litzatekeen ipuinaren tratamendua, irrika inzestuoso zapaltzailea amak adieraziko balu, semearekiko.

Ipuinean, **Errauskineri errautsetan lan egin eta bizi beharrak (Vestaleen antzera) ez dio duintasuna kentzen**, Bettelheimen ustean. Inozentzia eta purutasuna lantzen ditu, ezkontzeko adina eskuratu bitartean. Zein ezberdina den Jack konkistatzailearentzat planteatzen den bigarren haurtzaroa: inizatiba sexual eta sozial askeak, inongo lanik eta sakrifizioz gabe.

Errauskine printzearen festara doa, eta haren eskuetatik ihes egiten du. Neskak segurtasun emozional falta adierazten du, baina aitak (bere ezkutalekuak puskatu egiten ditu) bultzatu egiten du erabakia hartzera, tradizioz gertatu ohi denez, ezkongaiaren onarpena ezarriz. **Neskak, antza denez, independentzia pertsonala lortzeko printzearen eta aitaren beharra dauzka**; izan ere, ia-ia haren orde ez erabakiko dute. Kontuan hartu behar da, gainera, neskak dantzatik ihes egiteak bortxaketa edo irrika lizunen aurkako beldurra adieraz dezakeela, Bettelheimen berak aitortzen duen eran.

Ipuinean, Errauskine aukeratzen du printzeak, Bettelheimen ustean irakurlearen inkontzientean hilekoa heldu ez zaion neska birjina delako puruena. Benetan harrigarria, halako ikuspegi sexista. (Irakurlearen) inkontzientean esaten duenean, inkontziente kolektiboan esan beharko luke, erabateko bereizketa egin behar delako gizabanakoak berez bere baitan dituen baloreen eta kulturak urteetako alienazioaz ezartzen dituen baloreen artean. Kasu honetan, **«hilekoa heldu ez zaion neska birjina» historian asko hedatu den kultura patriarkalaren balio merkantilista huts** bihurtzen da, inkontziente kolektibotik heldu dena. Bettelheimen iritziari eutsiz, printzeak Errauskine aukeratzean, badirudi egokitasunari baino garrantzi handiagoa zapatatxoaren purutasunari ematen diola; hortaz, birjina den eta hilekoa heldu ez zaion neska izateari. Egun, gurean, joera afektibo-sexual hori kode penalean tipifikatuta dago, eta **pederastia** deritzo.

Errauskinek **ez du sexualitate agresiboa erakusten**, Bettelheimen ikuspegiaren arabera, hirtan printzearengandik ihes egiten duelako. Printzeak aukera dezan itxoiten du, lasai. Errauskinek, ipuin klasiko bati dagokion rol estuan, guztiz pasibo jokatzeko du, edertasunarekin eta amuarenekin eginez, printzearen etorrera itxoin besterik ez duelako egiten; ez dio hitz xumerik eskaini beharrik, ihes egiten badu ere, haren atzetik etorriko delako mutil galanta. Jokaera horri bertutetsu eta ez-agresibo deritzo Bettelheimen, baina **kulturak emakumeari ezarritako zerbitzari-rolari men egitea** besterik ez da.

.../...

.../...

Errauskinek, behin printzearen aurrean, inizatiba hartu eta hark egiten du zapatatxoa egokitze froga. Horrek segurtasun emozionala adierazten omen du; eta, era berean, neskak berak aurkitzen duela osotasun sexuala (printzearen laguntza izan arren), Bettelheimen hitzetan. Inizatiba, ordea, soinekoa dantzan harro erakutsi, bere burua ezkutatu eta ihes egiteko besterik ez du izan emakumeak. Printzearen aurrean den bezala agertu da, eta zapatatxoa jantzi du. Den bezala agertzeak inizatiba baino gehiago duintasuna adierazten du, eta zapatatxoa neskak berak jantzeak, sexu-jardunerako prestutasuna (printzeak eskaini ondoren, jakina). Nabari da, berriz ere, **gizonezkoak (printzeak) ematen diola neska hasiberriari osotasun eta heldutasun sexuala.**

Printzeak neskaren sexualitate umil eta zarpaila onartu du, eta horrek berebiziko meritua adierazten omen du. Ezin da bazterrean utzi printzearen **lehen mailako motibazioa: neskaren edertasuna eta, horrekin batera, birjintasuna eta purutasuna.** Horren ondoren, ez dirudi printze boteretsu bati lan handia eskatzen dionik neskaren itxura paregabea erreinuko jantzirik xarmantenaz apaintzeak.

**Pubertarora heldu gabeko neskatilak (Errauskine) familiakoen umiliazio eta zapalkuntza behar ditu, bilakaera pertsonalaren bidez, printzearen emazte bihurtu ahal izateko.** Hau da, funtsezko gertatzen da gatazka edipikoa (lehenik gurasoekin, gero anai-arrebekin) neska gazteak garapen pertsonala izan dezan. Muturreko gelditzen da Errauskineren eta Jack gaztearen arteko aldea: Jackek ez du amaren debekurik onartu behar (Bettelheimen ustez, behintzat), ogroari (aitari) eraso egin diezaioke, eta, pubertaroan, aitari berari autoritatea ken diezaioke, nortasunaren garapenerako jokaera bikaina adierazten baitu horrek. **Zapalkuntza edipikoak neskarentzat bakarrik balio al du?**

## 2.18. SENARGAI ANIMALIEN SAILA

Ipuin sail honetan ezkongaiak elkarrekiko harremana aurrera eramanez ahal izateko (hots, zoriontsu izateko) izan behar dituzten **aldaketa afektibo-sexualak** aztertzen dira.

Askoz **arruntagoa da ipuinetan senargai animalien fenomeno**a, andregai animaliena baino; eta andregai animaliak agertzen direnean, horiek samurrak izan ohi dira, eta ez arrisku-tsua. Gizon animaliak, ordea, beldurgarriak dira. Asimetria hori nabarmena da, eta esanguratsua. Bettelheimen arabera, horrek badauka azalpen psikologikoa: inkontzienteki gizonezkoak jokatzen du **rol agresiboa** sexu-harremanetan. Aztertu beharko litzateke hain arrunta den fenomeno hori noraino dagoen kulturaren baitan.

Ipuinetan, **emakumezkoaren debozioak eta maitasunak ateratzen du senargaia animaliatasunetik**; esan nahi da, maitemindu egin behar du neskak animaliaz, horretara aitaren borondateak bultzaturik.

Emakumezko pertsonaia (maitagarri zitala, esaterako) izan ohi da gizonezkoa animalia bihurtzen duena, ipuinetan. Horrek badauka azalpen garbia, Bettelheimen arabera: **txikitatik amek hartzen dute haurren heziketaren ardura (lehen eta bigarren haurtzaroan), eta sexua tabu bihurtzeko ohitura dute.**

Senargai animalien saileko ipuinek adierazten dute, Bettelheimen arabera, **sexuarekiko jarrera batez ere emakumeak aldatu behar duela**; izan ere, emakumeak sexua zerbait lohizat



hartzen duen bitartean, gizonak animaliarenekin jarraituko du, eta horrela ezingo dute ez bata ez besteak sexuaz disfrutatu.

Hona hemen hiru kontakizun esanguratsu.

### 2.18.1. Eros eta Psike

Apuleio-ren kontakizun hau, K.o. II. mendekoa (iturri zaharragotatik datorrena), mende-baldeko senargai animaliarenekin saileko ipuinen oinarria izan da. Hona hemen laburpena.

«Errege batek hiru alaba dauzka. Psike, txikiena, hain polita da, ezen Afroditaren jelsia pizten baitu. Horregatik, Afrodita bere seme Eros-i agintzen dio Psike munduko gizonik higuigarriarekin maiteminarazteko, zigor moduan. Psikeren gurasoek orakulari galdetzen diote alabaren etorkizunaren berri, eta orakuluak suge itxurako munstro batentzat sakrifikatu beharko dutela iragartzen du. Horregatik, Psike hileta-prozesioan eramaten dute sakrifizio-gunera; baina, amildegi ertzean daukatela, haize-bolada batek neska hartu eta amildegitik behera eramaten du, leunkiro jauregi huts batean ipintzeko. Jauregi hartan Eros-ek gordetzen du, maitale moduan, ama Afroditaren desioen aurka; eta han bertan neska desio guztiak asetzen ditu. Gauaren iluntasunean ezkutaturik Eros berarekin biltzen da, egokiro mozturirik.

Erosotasunaren erdian, ordea, Psike bakarrik sentitzen da; beraz, Erosek haren ahizpa jelsokorren bisita onartzen dio. Jelsiak janda, ahizpek sugetzar batekin bizi dela kontatzen diote Psikeri, eta haren semea espero duela, orakuluak iragarri zuen eran. Konbentzitu egiten dute sugetzarrari burua motz diezaion. Ahizpen hitzak sinistuta, Eros hiltzea erabakitzen du, lotan dagoen bitartean. Hurbiltzen zaio, eta Erosen abisuaren aurka olio-zoko lanpara batez aurpegia argitzen dio. Orduan, gazte ederra dela ikusten du. Ezinegonean, olio tantak ihes egin eta Erosen gorputza ukitzen du. Eros esnatu egiten da, eta atsekabetuta, neska abandonatu egiten du. Etsita, bere buruaz beste egiten saiatzen da, baina salbatu egiten dute. Afroditaren gorrotoak eraginda, proba gogorak jasan behar ditu, horien artean infernura jaitsi beharra. Artean, ahizpa ustelek Psikeren tokia hartu nahi dute eta haren antzera amildu egiten dira, haizeak jauregiraino eramango dituelakoan, baina hil egiten dira. Eros, Psikeren damua ikusita, errukitu egiten da, eta Zeus konbentzitzen du Psike hilezko bihurtzeko. Hala, Olinpoan ezkontzen dira, eta Plazer izeneko haurra daukate».

### Interpretazioa

Erosen geziek desio sexual kontrolaezinak eragiten dituzte. Apuleioren kontakizunean Eros izendatzeko latinezko Cupido erabiltzen da. Psike hitz grekoak arima adierazten du; Erosek, bere aldetik, maitasuna eta sexua. Apuleioren eskutik, kontakizun zahar bat alegoria bihurtzen da; hain zuzen, arrazoizko arimak (psikea) jasan behar duen bilakaera amodiozko arimarekin (erosa) elkartzeko. Horrela, **gizakiaren gogoak (psikea edo emakumea) egin behar du prestakuntza, gizakiaren sexualitatearekin (erosa edo gizona) bat egiteko.**

Ipuinean, **neskaren kuriositateak** bikotearen harremana hondatzen du. Jakin-mina beldur-erak eragiten dio, mutilaren izaera misteriotsuak sekretu kezkarria (munstro izatea) gordetzen duelako. Sakonean, neska ez da konformatzen mutilak ematen dionarekin, **neskak berak ez baitu onartzen sexualitatea bizitzatik bereizita egotea** (mutilaren bizimodua eta aurpegia ezkutatuta egotea).

**Iruzkina**

**Emakumeak (psikea) egin behar du sexualitate naturalarenganako (erosa) hurbilketa,** Bettelheimen arabera; baina ipuin klasiko gehienetan alderantzizko hurbilketa erakusten da (*Edurne Zurin, Loti Ederran* eta *Errauskinen*, kasu). *Eros eta Psike* mito erako kontakizunean (eta senargai saileko guztietan) neska hurbiltzen zaio mutilari, baina **zerbaitek edo norbaitek bultzatuta**. Gainera, mutilaren **alderdi zatarrena ezagutzeko eta onartzeko** ahalegina egin behar du. Ahalegin horren adierazgarri *Zerri sorgindua* ipuin errumaniarra daukagu; ipuin horretan, emakumeak hatz txikia moztu behar du, senargai irainduarenganako (zerri itxurako printzea) hurbilketa burutzeko. Maitagarrien ipuinetan hurbilketa mutilak egiten duenean, aldiz, bere gogoz neska konkistatzeko da, ez besterik. *Eros eta Psike* kontakizunean, harremanaren azken hitza mutilak dauka, eta hura bihurtzen da harremanaren eta neskaren salbatzaile oso.

**Neskak jakin-minak harrapatuta jokatzea zentzuduna da,** Bettelheimek ulertzeraz ematen duen eran, mutilaren sexualitatea ezagutu eta ulertu nahi duelako. Mutilak sexualitatea (maitasuna) ezkutuan gordetzen duenean, neska larritu egiten da, ez baitu onartzen sexualitatea (maitasuna) bizitzatik bereizita egotea. Beraz, hobeto balioztatu beharko litzateke neskaren jakin-min sexuala ipuinetan, Txanogorritxoren eta Loti Ederraren kasuan, adibidez.

Baina Bettelheimek, segidan, esaten du **emakumearen jakin-min sexuala emakumeak berak dauzkan erresumin eta aurreiritzi sexuak sortzen dutela**; hots, deskonfiantzak. Ipuinetan gizona animalia bihurtzen duena emakumezkoa izan ohi da (ama, ahizpak, orakulua edo sorgina). Gizonak, gainera, egunez animalia itxura izan arren, gauez pertsonarena (ederra, jakina) berreskuratzen du. Horrek, Bettelheimen iritziz, esan nahi du emakumeak gizona alboan duenean, sexualitatearen aberastasunaz gozaten duela, baina gizona urrun duenean, jelsiak hura desbirtuatzeraz ermaten duela emakumea. Badirudi Bettelheimek ahaztu egiten duela lehenago beraren analisiak aurkitutako arrazoia: gizonak sexualitatea bizitzatik bereizita izateak ekartzen dizkio emakumeari kezkek. Egun, kulturak sexualitate integral baten gabezia sakona pairatzen du, arlo guztietan, **sexualitatea kontsumismoaren korrante nagusian** murgildurik, merkantilizatu egiten baita; ahaztu gabe, oraindik ere gizarte hierarkizatuak, oro har, **gizonarena den boterearen zerbitzura jartzen duela sexualitatea (emakumea)**.

**2.18.2. Bizarrurdin**

Perraultek asmatutako ipuina da, jatorri ezagunik gabea. Istorioko senarra maitagarrien ipuinetako senar guztien arteko ankerrena eta zitalena da. Gaia hau da: emakumeak ez du gizonen sekretuetan arakatu behar.

Hona hemen *Bizarrurdin* ipuinaren mamia.

«Bizarrurdinek bidaia egin beharra zeukan egun batzuetarako. Emazteari etxeko gela guztietako giltzak eman zizkion, baina giltza txikiena erabiltzeko debeku argia eman zion. Emazteak, egoera aprobetxatuz, festa handia antolatu zuen, eta etxera ahizpak eta beste ekarri zituen, jabearen presentzian etortzera sekula ausartuko ez ziratekeenak. Festan jende guztia asko olgatu zen. Ondoren, senarrak debekaturiko atea ireki zuten ahizpek, eta hildako emakumeen gorputzez betetako gela deskubritu zuten. Bizarrurdinek utzitako giltza odolez ziprztindu zen, eta emazteak ezin izan zuen inola ere garbitu. Bizarrurdin itzuli zenean, giltza guztiak erakusteko eskatu eta dena jakin zuen. Hortaz, emaztea hiltzen saiatu zen, baina, azken unean, neskaren anaiak agertu ziren eta gizona hil egin zuten».

## Interpretazioa

*Fitcherren txorian, Zerri sorginduan eta Bizarruridin* ipuinetan senarrak sekretua gordezko eskatzen dio emazteari, arrautzaren sinboloaren bidez (lehenengoan) eta giltzaren sinboloaren bidez (bigarrenean eta hirugarrenean). Arrautzak emakumearen sexualitatea adierazten du, eta, ildo beretik, giltzak, gizonarena. Horregatik, emaztearen huts egiteak esanahi jakina hartzen du ipuinotan: **desleialtasun sexuala, gizonarentzat dagoen traiziorik mingarriena**.

Ipuinak tentazio sexualen inguruan dihardu, eta nabari da **neskaren adulterioa** gertatzen dela. Horregatik, zentzu hartzen du emazteak delitu beragatik hildako emakumeak ikustearen fantasia larria edukitzeak, Bettelheimen hitzetan. Mota bereko hiru ipuin horietan argi adierazten da **emakumeak debekatu zaiona egiteko daukan eutsi ezineko joera**, Bettelheimen ustez.

Ipuinak, bestalde, emozio jakina aztertzen du: **amodio jeloskorra**. Ipuinean, gizonak, amodioaren jelsiaz gaixoturik, emaztea nahi bezala zigor dezakeela pentsa dezake, baina oker dabil. Istorioaren amaierak senar-emazteen arteko **desleialtasun sexuala barkatzeko premia** erakusten du. Ideia hori Perraultek berak bukaeran ematen duen irakaspenean ikusten da: «... (senarrak) asegabe edo jeloskor sentitzen badira ere, haien emazteekin adeitsu dira (izan behar dute)».

Ipuinak, gainera, **sexua soilik era suntsitzailean** erabiltzen duena zigortu egiten omen du. Bettelheimek ez du azalpen gehiagorik ematen; beraz, ezin da jakin zeri egiten dion erreferentzia.

Giltzaren argumentu bera aurkitzen da oso bestelakoa den ipuinean: Grimm anaien *Andre Mariaren alaban*. Ama Birjinak zeruan zaintzen duen hamalau urteko neska bati giltza sorta ematen dio, horietako bat erabiltzeko debekuarekin, baina neskatxak desobeditu egiten du, eta, gainera, egindakoa ukatu egiten du. Horregatik, hitz egiteko gaitasuna galarazi egiten zaio, ahotsa gezurretarako erabiltzeagatik. Proba latzak jasaten ditu, azkenean egia aitortzen duen arte. Orduan, ahotsa itzultzen zaio, «bekatuez damututa, bekatuak aitortzen dituen horrek barkamena merezi baitu». Kontakizun horretan ere, **jakin-minak dakartzan arriskuez** ohartarazten da.

### Iruzkina

Emakumea gizonaren sekretu sexualetan miatzen ibiltzeak oso tratamendu negatiboa dauka maitagarrien ipuinetan. Ohitura femenino horrek, Bettelheimen arabera, **emakumearen desleialtasun sexuala** adierazten du, hiru ipuin horietan. Badirudi emakumeak, joera natural batek hartara bultzaturik edo, ezin duela aparatu sexuala beste gizonentzat gorderik eduki (Xabier Leteren kantua gogoratuz, «zure bular politak, zerrien jostailu; edertasunak beti, gorderik behar du»). Errealitate sozialari eta historikoari begiradaxo bat ematea nahikoa da konturatzeko desleialtasun sexuala askoz ere arruntagoa dela gizonezkoengan (estatistikoki, bederen). Beraz, ipuinek zergatik ohartarazten diote emakumeari, eta ez gizonari? Bettelheimek ez dauka erantzunik; ipuinek bientzat berdin balio dutela erantzungo luke, baina kontua da desleialtasun horien protagonista beti dela emakumea. Arrazoa lehen ere emana dago: **gizarteak gizonarena den boterearen zerbitzura jartzen du sexualitatea (emakumea)**. Horrekin, sexualitateak (emakumea) eskuetatik ihes egiten badio gizonari, botereak eta, berarekin, prestigio sozialak ere, ihes egingo dio. Gauzak horrela, ulertzen da zergatik den desleialtasun sexuala traiziorik mingarriena gizonarentzat.

.../...

.../...

Amodio jeloskorren ondorio deskontrolatua saihestu beharra azpimarratzen du istorioak, Bettelheimen hitzetan; hots, desleialtasuna barkatu beharra. Ipuinetan, ordea, **emakumea gizona baino askoz ere maizago agertzen da zigortua**. Adibidez, *Bizarrurdinen* senarrak emakumeak hiltzen ditu, eta, azkenean, senarra bera hiltzen dute; baina *Edurne Zuriren* Basileren bertsoan erregearen emazteak senarra eta emakumea zigortu nahi ditu, senarrak berak izandako desleialtasunagatik; eta azkenean, emakume bat (emaztea) zigortzen dute; *Mila eta bat gau* ipuinean ere, erregeak emakume guztiak zigortzen ditu, haren emazteak izandako desleialtasunagatik.

Ipuinean, zeharka bada ere, **sexua soilik era sunsitzailan erabiltzen duena zigortu** egiten da. Bettelheimek ez du argi uzten horrekin zeri egiten dion erreferentzia. Hala ere, Perraulten (asmatzailea) irakaspenari erreparatuz gero, kontakizunak emakumearen desleialtasun sexuala dauka gai nagusi. *Bizarrurdinek*, beste aldetik, gizonak perbertsio eta sexu-abusurako daukan joera adieraz lezake, sexu kontuan gizezkoaren alderdi iluna izango litzatekeena; baina badirudi ipuin-egileek ez zeukatela asmo hori gogoan, ipuinak asmatu (edo idatzi) zituztenean (*Txanogorritxoren* asmo nagusia, adibidez, ez da otsoa zigortzea, neskata zuzentzea baizik).

*Andre Mariaren alaba* ipuinean, berriro ere neskaren kuriositatea zigortzen da. Beraz, emakumearen jakin-mina bekatu moral transzendente bihurtu nahi da, zeruan bertan emakumeak oraindik bekatu hori errepikatzen baitu. Kasu honetan, ordea, beste emakume batek zigortzen du, emakume-ereduak berak (Ama Birjinak). Badirudi ipuinak duin egiten dituela emakume gazteak proban jartzen dituztenak (giltza sortaren bidezko proba bera errepikatzen baita). Ipuin sorta honetan, antza, **proba-jartzailearen jiteak baino garrantzi handiagoa du proba gainditi ezin duenarenak (neskaren desleialtasuna)**.

### 2.18.3. Ederra eta Piztia

Bertsio asko egonagatik, famatuena Madame Leprince de Beaumont-ena da. Gaia piztiak neskaren harreman edipikoan eragiten duen transformazioa da (aitarengandik piztiarengana). Hona hemen laburpena.

«Bazen behin merkatari aberats bat hiru seme eta hiru alaba zeuzkana. Hiru alabak oso ederrak ziren, txikiena batez ere, *Eder Txiki* ezizenez ezaguna. Ahizpen jelsia pizten zuen ezizen horrek, ahizpa nagusiak harroak eta berekoiak baitziren; txikiena, berriz, apala, adeitsua eta samurra jende guztiarekin. Egun batean, aitak aberastasun osoa galdu zuen, eta familia miserian geratu zen. Ahizpa nagusien oso bestela, *Eder Txiki*ren nortasuna ondo moldatu zen egoera horretara.

Behin, aitak bidaia luzea egin behar izan zuen aberastasuna berreskuratzeko asmoz. Ahizpa nagusiek jantzi garestiak eskatu zizkieten, dirutza lortuko zuelakoan; txikiak, bere aldetik, ez zion deus ere eskatu. Aitak erregutu ondoren, arrosa bat eskatu zion. Alabaina, aberasteko asmoa bertan behera geratu zen, eta aitak lehen bezain pobre itzuli behar izan zuen etxera. Bidean baso itxi batean galdu zen, eta, etsipenak jota zegoela, janaria eta babesa eskaini zion jauregi batera iritsi zen, baina jauregi hartan inor bizi ez zela zirudien. Hurrengo goizean, jauregia utzi eta, arrosa batzuk ikusterakoan, *Eder Txiki*ren desioan pentsatu eta baten bat hartzeraz hurbildu zen. Une horretan piztia izugarria agertu zitzaion, lore-lapurretagatik kexu, bere gazteluan adeitasunez hartu ondoren, gainera. Zigor moduan, aita hil beharra zeukan. Loreak alabarentzat zirela esanez, aitak erregutu ondoren, Piztiak, errukituta, alde egiten utzi zion, baina aitaren patua

alaba batek betetzekotan; eta hala ez bazen, aitak hiru hilabeteren buruan itzuli beharko zuen heriotzari aurre egiteko. Bideari heltzerakoan, Piztiak urrez betetako kutxa eman zion. Aitak ez zituen alabak sakrifikatu nahi, baina hiru hilabeteke epea onartu zuen haiek berriz ikusi eta dirutza oparitzeko.

Etxera heltzean, Ederri arrosak oparitu zizkion; baina gertatua ere kontatu behar izan zion. Orduan, anaiak Piztiaren bila joateko prest agertu ziren, baina aitak ezezkoa eman zien, Piztiak akabatuko zituelakoan. Ederrek, bere aldetik, aitaren tokia hartu nahi izan zuen, eta inortxok ere ez zuen haren iritzia aldatzerik lortu. Aitak ekarritako diruari esker, ahizpa nagusiek goi-mailako ezkontza izan zuten. Hiru hilabeteren buruan, aita eta Ederra Piztiarenera abiatu ziren. Neska ikustean, Piztiak borondatez zetorren galdetu zion. Baiezkoa jasotzean, animaliak aitari handik alde egiteko esan zion, eta kostata, baina alde egin zuen. Eder erreginarenean bizi izan zen Piztiarekin, agindu guztiak magiaren ukituaz betetzen zitzaizkiola. Afalorduan Piztiaren bisita jasotzen zuen, eta benetan eskertzen zuen, bakardadea arintzen baitzion. Halere, afalostero, Piztiak ezkontzeko eskatzen zion, eta neskaren ezezkoak animaliarenean desengainua eragiten zuen. Behin, ezezkoa jaso ondoren, Piztiak haren ondoan betiko egoteko eskatu zion. Neskak eskaera onartu zuen, aita ikusteko baldintzapean, ispilu magiko batetik aitak egindakoagatik jasotako etsipena ikusi ahal izan zuelako. Piztiak astebeteko epea eman zion, eta epea gaindituz gero, penaz hilko zela ohartarazi zion.

Hurrengo goizean aitaren etxean agertu zen; aita oso zoriontsu egin zuen. Artean, anaiak soldaduskan zeuden, eta ahizpak, beren ezkontzekin atsekabetuta, inbidiaz jota; horregatik, Ederra aste bat baino gehiagoz atxikitzea pentsatu zuten, horrela Piztia agertuko zelakoan, hura mendekuz hiltzera. Azkenean, konbentzitu egiten dute haiekin beste astea emateko, baina hamargarren gauean Ederrek Piztiaren tristura sentitu zuen. Orduan, berehala itzuli zen jauregira, eta han Piztia penaz hiltzorian aurkitu zuen, promesa bete ez zuelako. Berrero harekin bizitzen jarrita, bien arteko lotura estua deskubritu zuen, eta Piztia hain babesgabe ikustean, harenganako maitemin sakona sentitu zuen. Horregatik ezkontzeko eskatu zion. Une hartan bertan, Piztia printze eder bihurtu zen. Aita eta familia haiekin elkartu eta denak elkarrekin luzaz bizi izan ziren. Ahizpa gaiztoak estatua bihurtu zituzten, egindako gaiztakeriez damutu ziren arte».

## Interpretazioa

Ipuinean aitak alabarentzat arrosa bat lapurtzeak alabarenganako maitasuna adierazten du, batetik, eta alabak **birjintasuna galduko** duela laster, bestetik. Neska beldur da, esperientzia basatia izango delakoan; baina gero, harreman samurra eta gizatiarra suertatu ohi zaio, Bettelheimen hitzetan.

**Bizarrurdinek** sexualitatearen alderdi suntsitzailea irudikatzen duen eran, **Piztiak** sexualitatearen alderdi ederra irudikatzen du, eta harreman sexualaren harmonia lortzeko **bidea: maitasunaren eta nortasunen bateratzea** (neskarena eta mutilarena), hain zuzen ere.

*Ederra eta Piztian*, beste edozein ipuinetan baino argiago, gurasoekiko lotura edipikoaren izaera onuragarria ikusten da, neska heltzearekin batera eraldatu eta igorri egiten bada aitarengandik (edo amarengandik, mutila) maitalearengana. Harreman edipikoak, beraz, zailtasun emozional larrien iturri izateaz gain, zoriontasun egonkorren oinarria dira. **Neskak, hasieran, bakarrik aitari dion maitasunagatik elkartu nahi du piztiarekin**; eta bakarrik neskak aitaren ondotik joan eta piztiaren ondora itzuli nahi duenean, hau da, aitarekiko dependentzia edi-

pikoa konpontzen duenean, gainditzen du **sexuarenganako nazka**, eta deskubritzen du sexuaren edertasuna. Horri deritzo maitasunaren transferentzia.

*Ederra eta Piztiak* gizonaren baitan bereizita dauden izaera animaliaien eta espiritualaren adiskidetzeari irudikatzen du. Piztiak ez du sexualitatearen sekreturik gorde nahi, Bizarrurdinen aurka. Orain, benetako izaera erakutsi nahi du, itxura nardagarriaren atzean ezkututzen den pertsona adeitsu eta maitagarria; izan ere, sexualitatearen alderdi espiritualak bilatzen du, nortasuna osatzeko behar duena. Beraz, ipuinak esaten du **neskaren lana dela gizonaren izaera basatia onartzea eta maitatzea, horrela gizonak bere izaera sentikorra garatuko duelako**. Bettelheimen hitzetan, Ederraren eta Piztiaren arteko ezkontza superniak eragiten duen zeraren humanizazioa eta sozializazioa besterik ez da; horren ondorioz, Plazer deituriko umea jaiotzen da (Eroekin eta Psikerekin gertatu zen eran).

### **Iruzkina**

**Piztiak** sexualitatearen alderdi ederra irudikatzen duen moduan, **Bizarrurdinek** sexualitatearen alderdi suntsitzailea irudikatzen duela dio Bettelheimek; hain zuzen, sexualitate faliko (bereko), oldarkor eta suntsitzailea. Beraz, oraingoan (*Bizarrurdinen* ez bezala) Bettelheimek zabaldu egiten du gizonaren sexualitatearen alderdi iluna: maitasun jeloskorra pairatzeaz gain, **gizonak berak perbertsio eta abusu sexuarekiko daukan joera ere hartzen du kontuan, baina alderdi hori ez da batere argi garatzen** *Ederra eta Piztia* ipuinean. Piztiaren alderdi krudela (aita hil nahia) berehala samurtzen da, errukituta, dirua eta aukera berri bat ematen dionean. Oso ezkutuan geratzen da. Emakumearen sexuarekiko alderdi iluna, ordea, xehetasunez (sinboloz beteta) lantzen da kontakizun askotan.

Neskak, hasieran, bakarrik aitari dion maitasunagatik elkartu nahi du piztiarekin, ez bere gogoz, nahiz eta Piztiak bestela ulertu. Ipuin honetan, berriro ere, emakumeak harreman afektibosexuala «iniziatiba» hartu ahal izateko gizon baten bultzada, onarpena eta babesa behar ditu; **ez du, beraz, benetako inizatibarik hartzen**.

**Neskak bizi-proiektu nagusietarako (autoerrealizatzeko) gizonetzko baten beharra du**, beste ipuinetan gertatzen den eran; zehatzago, bi gizonena: aitarena eta piztiarena (aitaren onarpena eta piztiaren boterea). Bizitzan egin nahi duena erabakitzeke eta aurrera eramateke, beraz, ez da autonomo; ez du bere burua aski.

Bettelheimen arabera, neskak aitarekiko dependentzia edipikoa konpontzen duenean gainditzeko sexuarekiko nazka eta deskubritzen du sexuaren edertasuna. Neskak haurtzaroan irrika sexuala aitarengana zuzentzen duen moduan, transferentzia edipikoarekin familiaz kanpora zuzenduko du ondoren; ez da jarraipenik gabeko prozesua. Beraz, **ezin da aurreiritzi kultural sakonik gabe baieztatu neskaren sexuarenganako inhibizioa**. Neskak kulturatik jaso du, bide askotatik, sexu kontuetarako nazka.

*Ederra eta Piztiak* gizonaren baitan bereizita dauden izaera animaliaien eta espiritualaren adiskidetzeari irudikatzen du. Piztiak sexualitatearen alderdi espiritualak bilatzen du, nortasuna osatzeko. Emakumezko batek kondenatu zuen animalia itxura hartzera, aurretik izan zuen praktika sexual zapaltzaile batengatik (neska umezurtz batekin), ipuinaren aldaera batek zehazten duenez. Hortaz, ipuinak esaten duenez, neskaren lana da gizonaren izaera basatia onartzea eta maitatzea, horrela gizonak bere izaera sentikorra garatuko duelakoan. Berriro ere **neska agertzen da gizonaren zerbitzura harreman sexuala eraikitzeke** garaian. Ipuinaren bidez, Bettelheimek aditzera ematen du emakumeak gizonaren jarrera sexual haragikoia onartzetik abiatu behar duela, jarrera

.../...

.../...

hori samurtzeko asmoz; baina ez du esaten gizonak emakumearen jarrera sexual sentikorra onartzetik abiatu behar duenik, jarrera hori haragiztatzeko asmoz. Horren arrazoia nabaria da: kulturari sexualitatearen alderdi sentikorra edo espirituala (femeninoa) bereizita eta moralaren bidez murriztuta egotea komeni zaio, alderdi funtzional-produktiboaren (maskulinoa) baitan.

Neskaren (Ederra) eta mutilaren (Piztia) arteko ezkontza superniak (neska) eragiten duen zeraren (mutila) humanizazioa eta sozializazioa besterik ez da, Bettelheimen ustez. Superniak, ulertzen denez, arau ekonomiko-juridiko-moral hertsietara murriztu behar du irrika sexuala, eta rol hori emakumeari dagokio. Berriro ere **emakumea hartzen da kulturaren murrizketaren eragile, tentazioetatik (zeraren irrikak) kanpo dagoelakoan**; hau da, plazeraren eremutik kanpo. Badirudi kulturak aspalditik ezarri diola sexualitatearen murrizketa hori emakumeari, arrakasta nabarmenarekin gainera, eta horren adibide landutako ipuinek plazer sexualarekiko duten tratamendu diskriminatzailea (sexista) da.

Ipuineko **pertsonaia femeninoak, berriro ere, maskulinoak baino gaiztoago** agertzen dira, protagonista alde batera utzita; hala nola protagonistaren ahizpak, eta Piztia sorgindu zuen emakumea. Gizonezkoak, berriz, borondate onekoak dira edo, ohi denez, ahulak: anaiak, borondate onekoak; eta aita eta Piztia, borondate onekoak, baina ahulak.

*Emakumea:  
trataera osatzailea*

**3**



### 3.1. EGILEAREN TRATAMENDUA

Ipuin hauen helburua, *Clarissa Pinkola Estes* egilearen ildotik, emakumeak bere psike instintibo naturala berreskuratzea da, era horretara nortasun propioa eraikitzeko eta bizimodu autonomo sendoa aurrera eramán ahal izateko. Beraz, helburu ideologiko nabarmena dute, eta, horrekin batera, emakumeari eskaintzen zaion bide **terapeutiko** eraginkorra marrazten digute, egungo gizarte patriarka zein paternalistaren erdian.

Ipuin hauen sinbolo nagusia **otsoa** da, eta otsoa da emakumearen baliokidea animalien munduan, biak direlako gizartekoiak eta jakingura handikoak, eta erresistentzia eta indar handikoak. Biek dute intuizio zorrotza, eta biak dira biziki arduratsuak familiarekin. Gainera, ederki dakite moldatzen egoera aldakorretara, eta biziki dira leialak eta gartsuak. Bestalde, biek jasan dute gizakiaren arrangura, eta jazarri egin dituzte amorruez, oihana garbitzeaz gain, psikearen alde basatia garbitu nahiko balute bezala.

Otsoari **Emakume Basatia** deritzo, sinboloa hezurmamituz, emakumeak bere benetako izaera, hain bereak dituen ziklo naturalak, izaera basati garbian aurkitzen baititu; hori baitu muina. Eta izaera hori berreskuratuz gero, ederki jakingo du besteen harraparitzatik ihes egiten; berez dena izaten. Emakume Basatia, beraz, emakumearen baitan ezkututzen den benetako izaeria da, emakumea bera aska dezakeen Laguna, Nia, Bitartekaria. Izen asko ditu: *Ibaipeko Ibaia*, *Emakume Handia*, *Amildegiko Argia*, *Otsoa*, *Basoetako Emakumea* edo *Hezurzaina*, besteren artean. Adierazgarria da *navajoek* jartzen dioten izena: *Emakume Armiarma*, hain zuzen, animalia, harri, landare eta gizakien patua ehuntzen duena.

Emakume Basatia ulertzeak **funtzio praktikoa** dauka: arima ezagutzea. Emakumeak zentzumen lokartuak esnatu behar ditu, segurtasuna eta oreka berreskuratu, bizitzeko arrazoia finkatu, barne-hoztasuna urtu, eta berreskuratu kulturak, intelektuak eta ego-ak jan dizkioten instintuak, hots, bizitzeko ziklo naturalak. Horregatik da emakume prototipikoa Emakume Basatia, emakumearen osotasuna biltzen duelako; beste era batera esanda, emakume izatearen **arketipoa** delako.

Jakina da emakume guztiek gordetzen dutela, gutxi edo asko, berezko izaera basatia beren baitan, baita oso erreprimituta daudenek ere. Horiek, ezkutuko bizitza batean, pentsamendu eta sentimendu sekretuak gordetzen dituzte sor, lujuriaren indarpean, inoiz azaleratuko diren esperantza instintiboarekin. Horiei zuzenduta dago, bereziki, Emakume Basatian oinarritutako ipuinen terapia; beraz, funtzio psikologiko argia dute ipuinek: emakumearen **psikopatologia** konpontzea. Izan ere, oso arrunta da emakumeek bizi duten egoera animiko abaildua gizarte desorekatzaile honetan, eta, horrekin batera, **sintoma** nabariak agertzen dituzte: nekea; lehor, hauskor, uzkur, deprimituta, nahastuta, erotuta, zalantzak jota, bere baitan bilduta, kontrola galduta, fedea galduta, eta domestikaturata sentitzea; lanak, pefekzioak eta arrazoiak alienaturata egoeta; ahoa josita, gogoa galduta, inizatibarik gabe, beldurtuta, ahulduta, ezinduta, inspirazioa galduta, desanimaturata, lotsaturata, otzanduta, eta sumindura kronikoak jota sentitzea; menduegarritz, aldakor, antsiak eta angustiak jota, umiliaturata, trabaturata, sormena galduta, trinkoturata, eta zurrundurata egotea; goragaleak, zorabioak, bihotzerreak eta itolarriak jota sentitzea, Pinkola Estesen hitzetan. Epidemia bihurtu zaio emakumearen barne-haustura gizarte menderatzaileari, hura kontzientziaren jabe izaten hasi den garaian batez ere.

Gatazka horretatik ateratzeko terapian, Emakume Basatiarekin bat eginez otsoaren izaeria eraikitzeko helburuarekin, tresna ezin baliotsuagoa dauka emakumeak eskura: **intuizioa**. Jakin-

duriaren atea izanik, sentikor eta hautemaile bihurtzen du emakumea, arretatsu eta zoli; beraz, bere bizitzaren protagonista, sendabide zuzenean. Eta intuiziotik etorriko zaio sormena, arteak lantzeko gaitasuna, eta horrekin, bizitza propioa eraikitzekoa.

Intuizioa instintuaren alderdia izanik, gaitasun ezagutzailea, hain zuzen, Emakume Nagusiaren baitan kokatzen da, Emakume Nagusiak laburbiltzen baitu **instintua**. Ondorioz, instintua bera da emakumezkoaren jatorria, Pinkola Estes pentsalariak definitzen duenez. Jakintsu egiten du emakumea, eta, ondorioz, bizi dugun errealitatearen jabe. Errealitatea Bizitza/Heriotza/Bizitza ziklo nagusiak sostengatzen du; beraz, emakumea da aurrerantzean gizakion indar nagusiaren gidaria.

### Iruzkina

Horrekin lotuta, hainbat gauza gordeko ditugu azken kapituluko **kritikarako**, gaia ikuspegi ez-sexistatik berreskuratzean: 1. Emakumea al da instintuaren hartzaile bakarra edo nagusia? 2. Pinkolak aditzera ematen duenez, emakume senezkoa, intuizioa landu berri duena, arauen betetzailer bilakatzen da. Hona hemen kezka: senak arauak onartzera ala arauak gainditzera eramaten gaitu? Eta 3. Egilearen arabera, Instintuaren baitan datzan «Emakume Basatiak gu pentsatzen gaitu, eta gu hark dituen pentsamenduak gara». Hortaz, emakume fisikotik haratago dagoen izaki metafisikoa —bizitza propioa duena, substantziala— ezartzen digu Pinkolak. Horrekin, Jung-en arketipoak dakarzkigu gogora. Baina ba ote halakorik? Beharrezko ote? (Arketipoen izaera kulturala aztertzeko, ikus 4.2. atala).

Pinkolaren arabera, Emakume Basatia betierekoa da: iraganean bizi da, eta dei egiten diogu gureganatzeko; orainaldian bizi da, eta babestu egiten gaitu; etorkizunean bizi da, eta gurera itzultzen da gurekin elkartzera.

### Iruzkina

Emakume Basatiarekin, *Nietzcheren* Supergizakiarekin bezala, patuak aurrezari digun printzipio inmanente baten aurrean gaude, hau da, gure bizitzaren ildo zehazten digun printzipio baten aurrean; baina (aurreko kritika gogoratuz), gizakiarengandik kanpo, ba al da izaki eredugarririk, gizakiarentzako arketipoa denik? Eta izatekotan, gai al da patua ezartzeko?

Pinkolak darabilen terapia Jung-en psikoanalisian oinarritzen da, inkontziente kolektiboak gordetzen omen dituen arketipoetan. Terapiaren lanabesa **kontakizuna** da, ipuin, kondaira eta mitoena. Horiek lantzeko era eraginkor bat darabil: **antzerkia**. Antzerkian, galdera jakinen bidez eta horien erantzuna kontakizunen analisiarekin erkatuz, jarraibide guztia aurkitzen du gaixoak bere garapen psikologikoa aurkitzeko. Kontakizun horiek bizi egiten ditu emakumeak, bere baitan arrastatzen duen drama espirituala islatzen baitute, argi asko. Eta horretan datza sendatzearen gakoa. Gogora datorkigu garai klasikoan antzerkiak betetzen zuen tokia: bizitzaren tragedia berpiztea, Jainko eta pertsona esanguratsuek bizitakoa berpiztea. Horrela, barne-sentimenduak azaleratu egiten dira, eta terapia kolektibo bihurtzen da antzerkia.

Antzerkiarekin batera, **eskulana** aplikatzen du Pinkolak terapia horretan: ofizio zaharren bidez gaixoak materializatu egiten du bere arimaren ezinegona eta irrika, eta horrela, indar ezku-tuak askatzean lasaitu egiten da, eta arimaren arazoei beste era batera begiratzen ikasten du.

Bada, halere, kontakizunen interpretazio-lana oztopatzen duen faktore bat: garaiak aurrera egin ahala, **kultura** ugarik aldarazi dute beren nahierara kontakizunaren muina, askotan. Horre-

la, sinbolo pagano zaharren gainean elementu kristauak ezartzen dira gurean, hala nola aztiaren gainean, sorgina; edo espirituaren gainean, aingerua. Halaber, basaizakiak eta animaliatxoak deabru bihurtzen dira. Oso arrunta ere bada elementu sexualak ezabatzea.

Laburbilduz, Pinkola Estesén teknika psikologia analitikoan eta arketipikoan oinarritzen da. Teknika horrek **azpiko ereduak** bilatzen ditu alegiazko munduan, inkontzientearen irudi kolektiboetan, eta baita ametsetan eta esnaldi berezietan ere. Horretarako, mito, kondaira eta maitagarrien ipuinetako gaiak eta argumentuak arakutzen ditu, gizakien bizitza instintiboa ulertu nahian. Pinkolaren ardatza, beraz, Jung-en psikoanalisi arketipikoa dugu, eta horrek kultura guztiek kontakizunetan utzitako aldaera guztien azpiko aztarna estrukturala eskuratu nahi du, belaunaldiz belaunaldi gordeta gelditu den jarraibidearen bila: jarraibide instintiboaren bila.

Azpimarratzekoa da Pinkolak erakusten digun ikuspegi **kosmopolita**, mundu osoko kultura zaharrak hartzen baititu aintzakotzat, batez ere Erdialdeko eta Ekialdeko Europakoak; Errusiakoak; eta Hego, Ipar eta Erdialdeko Amerikakoak. Pinkola bera ipuin-kontalarien bi leinu luzeko kide dugu: *mesemondók* leinu hungariarrekoa, alde batetik, eta *cuéntistas* leinu latinoamerikarrekoa, bestetik. Esaten digun eran, ipuina sendagaia da gizabanakoaren zein komunitatearen indartze eta bideratzerako.

Egileak argi adierazten digu bere sinesbidea: psikeak badauka **transformazio-gaitasuna**, eduki ere, eta gure bizieraren zuzendari bihurtu behar dugu, beti ere emakumeari dagokionez. Horretarako baliatzen ditu psikearen erregulatzailer nagusiak: kontakizunak.

### 3.2. OTSEMEA: EMAKUME BASATIAREN PIZKUNDEA

«Emakume Basatia beti itzultzen da, hezurrez hezur, adatsez adats, ametsen bidez, ekintza eta ipuinen bidez», dio Pinkolaren errezuak. AEBn 60ko hamarkadako migrazioak natura-eskualde oparo askotan zehar eramán zuen gure pentsalaria, eta hantxe izan zuen Otsemearen berri, dela *Neskatxa otsoa*, dela «umezurtz bikiak eradoski zituen otsoa» kontakizunen bitartez. Bidaia luze horretan, Hezurzainaren istorioa ezagutu zuen, hildakoak berpizten zituen irudi mitikoa, animalia zein pertsoneri bizia itzultzeko gai zena. Gainera, benetako emakume hezurzain bat ezagutzeak bizitza aldarazi zion behin betiko, hala aitortzen duenez. Hona hemen kontakizunaren muina:

«Bada zokoan isolatuta, galdutakoen zelatan bizi den emakume zahar bat. Zuhurra da, iletsua gehienetan eta beti lodia; bakartia. Animalien orroak darabiltza, gizakiarenak baino gehiago. Hainbat izenez da ezaguna: *Hezurzaina*, *Traperoa* edota *Otsemea*. Emakume horren egiteko bakarra hezurak biltzea da, batez ere galtzeko arriskuan dauden izakienak. Haitzuloa basamortuko animalien hezurrez beteta dauka, kriskitin-suge, bele eta, batez ere, otsoen hezurrez. Ibaiak eta mendiarteak ibiltzen ditu horien bila, eta animalia baten eskeletoa osatzen duenean, azken hezurra egokiro txertatuta, su ondoan esertzen da eta kanta bat aukeratzen du. Ondoren, besoak airean zabalduta kantatu egiten du. Segidan, animalia hezurdura haragiztatzen hasten da, eta ilea ateratzen zaio. Otsemeak kantuari eusten dio, eta animaliak bizia berreskuratzen du; basamortuaren zoria dardarka hasten da, eta animaliak jauzi eginez hanka egiten du leizetik kanpora. Korrika doala mendiartean behera, abiaduragatik edota erreko plisti-plastagatik edo, agian, eguzki-izpiak zein ilargi-izpiak saihetsean jotzen duelako, otsoa emakume bilakatzen da, barre-algaraz zeruertzerantz aske korri egiten duen emakumea.

Basamortuan barna galdu samar, nekatu samar doan emakumea, eguna iluntzeaz dagoela, Otsemearen magalean bukatzeko zorian egongo da agian, hark biziaren sekreturik gorena erakusteko zori onean».

## Interpretazioa

Ipuin hori **pizkundearen** kontakizuna da, Emakume Basatiarekiko harreman ezkutua eragindako pizkunda. Emakumeak gure arima basatiaren arrastoei bizia eman diezaieke, oso-tasunean; galdutako izaera instintiboari, hain zuzen ere. Hori bakarkako lana da, emakume bakoitzak bere psikearen azterketa gardenean soilik lor dezakeena. Emakumeak arima eskuan hartuta, hots, sentimendu sakonenarekin hitz egiten dio bere barruari, eta horrela, bizia ematen dio. Horixe baita «hezurren gainean kantatzea». Eta hori egin dezake bere baitan Otsemea gordetzen duelako, psikean isolatuta bizi den mundu instintiboa, bizitzaren beraren indarra. Lan horretan, **hezurrek** berebiziko garrantzia daukate, indar suntsiezina adierazten baitute sinbologia arketipikoan; hain zuzen, gure espiritua eraberi dezakeen arima hilezkorra dira. Horregatik, emakumeari aholku eraberritzaile hau ematen dio Pinkolak: «zoaz hezurak biltzera, zure basamortuan arreta handiz paseoa ematen duzun bitartean».

**Otsemeak** hainbat sinonimo biltzen ditu, hala nola *Badakiena*, *Egunen Jainkosa*, *Nyx Jainkosa*, *Durga*, *Coatlicue* edota *Hécate*, eta denek dute otsotasuna muinean. Azpimarragarria da otsamak, naturan, **lurrek** duen lotura, «hankaren larruazalean sentikortasun zolia baitauka», eta horregatik da «Badakiena», Pinkolak adierazten duenez. Otsemearen bizilekua arrazoiaren eta mitoaren arteko munduan kokatzen du; beraz, **jakinduriaren** bitartekari nagusia dugu, soilik artearen indarrak atzemangarria. Horra hor Nietzschearen ikuspegi gnoseologikoa. Psikearen gaitasun horrek, hots, Badakienak, eragiten digu jakin-mina, eta horrekin, historian elkarrekin ernaldutako mistika eta erlijioa; era berean, **instintuen** gordailua denetik, baita instintu horiek eragindako bulkada arketipiko guztiak ere, Jung-ek ondo aztertutakoak. Psikearen alderdi instintibo horri Jung-ek **inkontziente kolektibo** deituko dio, patologia eta terapien iturri. Pinkolaren esanetan, otsemearen izaera identitate osoan datza, hau da, **substantzia** bete izatean. Horrek Aristotelesen ikuspegi metafisikoa erakusten digu, izen asko hartuagatik ez baitaio izaera aldatzen Otsemeari. Eta horregatik mantentzen du izaera arketipikoa historian zehar, gure gidari. Otsemea substantziatzen hartzea Nietzschearen Supergizakiaren erreminiszentzia garbia da.

Egitura psikiko horretan (Otsemearena) sartzeko behar den ardura ilustratzeko, Pinkolak **Lau errabinoen ipuina** aurkezten digu, Ezekiel profetaren Gurrpil Sakratua begizatzea irrikatzen zuten lau errabinoena, alegia:

«Gau batean, aingeru batek lau errabino esnatzen ditu, eta, ohetik altxata, paradisura daramatza, Ezekielen Gurrpil Sakratua ikus dezaten. *Pardesetik*, paradisuetik, mundura jaistean, lehenengo errabinoak burua galdu zuen, eta burutik eginda gelditu zen bizitza osorako. Bigarren errabinoak zinikoki hartu zuen ikusitakoa, eta amets hutsa izan zelakoan gelditu zen. Hirugarrenak obsesioz hartu zuen Ezekielen gurrpil zoragarria; geroago, ordea, fedea galduta bukatu zuen. Eta laugarrenak, berriz, lasaitasunez hartu zuen harrezkero bizitza, poesiara dedikatu zen eta bizitza hobea ezagutu zuen».

Hortik Pinkolak ateratzen duen lezioa, Jung-ek ildotik, lilura orekatu beharra da, ez baitugu ez gehiegikeriaz, ez gutxiegikeriaz esperimentatu behar; izan ere, nia aurkitzeak, Emakume

Basatiaren bidetik, aplikazio morala eskatzen du gure bizitzan. Beraz, bi ipuinetan, ikasitakoaren ardura morala eskatzen zaigu, halaberrez.

Otsemeak badu, bestalde, paralelismo zuzena hildakoen pizkundea adierazten duten **mito unibertsalekin**: *Osiris*, *Lazaro*, *Jesukristo* eta *Persefoneren* irudiekin, kasu. Eta horietan guztietan argi ikusten da Sorkuntzaren Ama era berean Heriotzaren Ama dela, Emakume Basatiak bizia eman eta kendu ere egiten baitu, naturaren ziklo nagusian. Hura da Bizitza/Heriotza/Bizitza zikloaren Ama; hala nola Nietzschek Betiereko Itzuliaren jabea. Emakumezkoari aplikatuz, emakumea bera da bere bizitzan zer osatu eta zer bukatu erabaki behar duena.

### Iruzkina

Azpimarragarria da erlijio paganoetan emakumea izatea bizi-emaile eta bizi-kentzaile nagusia; eta kristautasunean, oster, gizonezkoa (Jesukristo).

Otsemearen kontakizunak **emakume antropologiko**arekin egiten du topo, egitura matrilineala izan duen gizarte arkaikoarekin, emakumearen leinu luzeak lotzen baitu historia historiaurrearekin, eta hark ematen baitio jarraipena gizadiari. Eta hortik heldu zaio emakumeari, gaur egun, haren arketipoa. Hortaz, emakumearen arketipoa finkoa al da? Kulturala ala naturala? Asmatua ala halaberrezkoa? Erantzuna Margaret Mead-en eskutik aurkituko dugu, 4.2. atalean.

Otsoaren tratamendua nabarmen ezberdina gertatzen da, ipuin klasikoekin alderatuz gero. Bettelheimek emandako interpretazio klasikoan, otsoak izaki gizonezko suntsitzailea (aitaren bulkada edipikoan oinarritua) irudikatzen du. Pinkolarentzat (antzinako tradizioari erreparatuz), ordea, otsoak emakumezko osatzailea irudikatzen du, seguru asko gizarte matrilineala naturari eta animalien izaera basatiari atxikita zegoelako. Horregatik, batak eta besteak otsoaren kontakizun zeharo ezberdinak darabiltzate.

### 3.3. BIZARRURDIN: SARBIDEAREN HASIERA

Ipuin hau psikearen alderdi negatibo batean oinarritzen da, naturaren aurkako indar batean, *Bizarrurdin* deiturikoan. Indar hori Freuden *tanatosa* litzateke, hots, hil-irriken multzoa. Egileak, Pinkola andreak, Hungariako izebak kontaturiko bertsioa darabil, jatorrizko frantsesaren eta eslabiarraren arteko nahasketa. Hona hemen ipuinaren muina.

«Bada mendi urrunetako moja zurien komentuan gordetzen den bizar zati bat, urdin-urdina. Diotenez, mago zapuztu eta emakumezale batena zen, erraldoi bizar urdina berori, *Bizarrurdin* deiturikoa. Magoak hiru ahizpa gorteiatu zituen batera, baina neskatilak ez ziren fio haren bizar bitxiarekin. Egun batean, hirurak liluratzearren, basora eraman zituen zaldizko gurdi dotore batean, eta zuhaitz azpian bazka goxoa eman ondoren, kontu-kontari aritu zitzairen. Pozik itzuli ziren hirurak, baina bi zaharrenek ez zuten harekiko susmo txarra galdu. Hirugarrenak, aldiz, liluraz hartu zuen, eta, denborarekin, biak ezkondu egin ziren. Erraldoiak basoko bere gaztelura eraman zuen bizitzera. Egun batean, Bizarrurdinek kanpora zihoala eta giltzatak oparitu zion, esanez giltza guztiak erabil zitzaizkeela, txikiena izan ezik. Neskatxak bi ahizpak gonbidatu zituen gaztelura, pozaren pozez. Haiek etorri zirenean, entzundakoak entzunda, giltza txikiaren balioa jakin nahi izan zuten, eta, ahizpa gaztea konbentziturik, gazteluko gela guztiak arakatzeari eman zioten, giltza txikiak irekitzen zuen sarraila topatu zuten arte. Hura sotoan zegoen, eta ate ilun bati zegokion. Barrura sartu zirenean, ikararen ikaraz hezurdurak eta burezurak ikusi zituzten lurretik barreiatuak, odolez inguratuta. Atera ziren handik, baina ahizpatxoa giltza txikiari odola zeriola

ohartu zen, eta nahiz eta mila erremedio etxekoak erabili hura lehortzeko, odolez tantaka jarraitzen zuen giltzak, negarrez bezala. Ezjakinean, jantzien armairuan gordetzea erabaki zuen, senarra bazetorrela eta bueltan bidaiatik. Hark berehala galdetu zion giltzen berri, eta jakin zuenean txikiena erabili zuela, armairua ireki eta arropa dotore guztiak odolez bustita ikustean, sutan piztu zen amorrazioz. Emazte txikia zigortu nahirik, hil egin behar zuela agindu eta arrastaka sotoko gelaraino eramane zuen; baina sartu aurretik, neskatxak heriotzarako prestatzeko denbora tartetxoa eskatu zion, eta erraldoiak bai eman ere. Hartaz baliatuz, gelatxora igo eta ahizpekin bildu zen, eta harresien gainetik begiratu, nebak noiz zetozen salbatera abisatzeko eskatu zion. Halako batean, agertu ziren zeruertzetik korrika, eta erraldoia eskaileretan gora deika eta pazientzia galduta gelara sartzerantz zihoala, gazteluan sartu, eta ezpataz akabatu egin zuten azti maltzurra».

## Interpretazioa

Egilearen baitan, ipuinak esanahi argia du: emakume (eta gizon) guztien psikean bada **harrapari naturala**, jaiotzetikoa, ezkutuko indar maltzurra, hain zuzen, *azti zapuztu* batek betetzen duena. Horrek naturaren legeak gainditu nahian boterea urritu duen pertsonaia mitologikoaren izena darama, eta emakumeak barnean gordetzen duen instintu suntsitzailea adierazten du. Gizakiaren ikusmin eta sentikortasun naturalak eramanda, indar ilunak barneratu nahi ditu emakumeak txikitatik, Pinkolak aditzera ematen duenez. Badirudi, interpretazio horren arabera, izaki ederraren eta boteretsuaren nahi naturala daukala neskatxak.

Pinkolaren ustez, irrika hori **bost urte arteko neskatxek** jasaten dute gehienbat, eta heziketaren onespenez, munstro ederra maitatzen uzten zaie. Hori, egilearen ustez, kaltegarria da, pertsonak berez duen joera autosuntsitzailea elikatzen duelako. Munstroa munstroa da, eta ezin da tratatu goxoaz limurtu, hori haurrentzako paradisuan sinestea litzateke; berez, errealitatea gordina da.

### Iruzkina

Gogorazi behar da Pinkolaren esana: «Erlazio kaltegarriek, irudi autoritario zakarrek eta agindu kultural negatiboek irudi oniriko eta folklorikoetan eragiten dute, Jungék pertsonarenak direla uste duen jokaera arketipikoek beraiek baino are gehiago». Beraz, noraino dira munstro harrapari horiek **jaiotzetikoa**? Noraino kanpotik ezarriak eta, hortaz, kulturaren gainbehera kontingentearen ispilu? Horrekin kontraesan nabarmena agertzen du Pinkolak, auzi korapilatsua baita oso innatismoan sinesten duten psikoanalistentzat.

Bestalde, munstroa **gizaseme**arekin irudikatzen du. Pinkolaren esanetan, harrapariari *senar-gai animalia* dei dakioke. Badirudi gizasemeak jokatu behar duela inuzentziaren harrapari maltzuraren rola, halabeharrez. Jakin beharko genuke, etnologiaren ikuspegitik, ez ote den gizonaren berezko agresibitate suntsitzailea, berriro ere, psikoanaliaren aurreiritzi garbia.

Irrika suntsitzaileen izaera jaiotzetikoaren eta gizonezkoaren auzia argitzeko M. Meaden ikerketaren emaitzei erreperatuko zaie, 4.2. atalean.

Munstroaren lilurapenetik askatzeko bidea, giltzarria (giltza, ipuinean), **jakingura** naturala da, emakumeak berez duen galdetzeko nahia, gehiago ezagutzeko grina. Horrela lortuko du argitara eramatea munstro «maitagarriaren» maltzurkeria basatia. Ipuineko giltzaren odoljarriak, zein sotoko gela ilunarenak, emakumearen (bereziki) espiritua ahultzea esan nahi du, haren sormena ahultzea. Eta arima sendatzeko, emakumeak galderak egin eta erantzun egin behar ditu, hau da, etsaia etsai dela konturatu.

Eta ondoren, bigarren pausoa emanez, ar boteretsuaren menderatzeko nahitik ihes egin behar du, emakumeak berak maitatzeko era propioa eraiki dezan. Lan horretan, barruan gordetzen duen Emakume Basatiak lagunduko dio, zorionez. Emakumeak baliatu egin behar du bere jakingurak eskaintzen dion instintu naturala, **egoera menderatzaileak bereizi eta saihesteko**.

### Iruzkina

Nabarmen egiten da **bi arketipo sexualen** arteko bereizketa erradikala: Emakume Basatiak bizitza ahula edo hila berpiztu egiten du, batetik; eta Bizarrurdinek bizirik dagoena harrapatu, esploatatu eta akabatu egiten du, bestetik. Horra hor bi generoek duten egiteko berezkoa, kultura jakin baten baitan.

Irrika suntsitzaileen izaera jaiotzetikoaren eta gizonezkoaren auzia, zein irrika osatzailearen izaera jaiotzetikoarena eta emakumezkoarena argitzeko, M. Meaden ikerketari erreparatuko zaio, 4.2. atalean.

Hirugarren pausoa emanez, emakumeak bere **indarra** erabiliz erabaki latza hartu behar du: etsaia hiltzea. Ipuinean anaiak agertzen zaizkio lan horretako egile, eta baita ahizpa nagusiak ere behatzaile gisa. Horiek psikean gordetzen dituen zolitasunaren (ahizpak) eta adorea (anaiak) ahotsak dira, hots, instintuak, askotan landu gabe motelduta dituenak, psikean ezkutu samarrean. Adorea edo indarraren bidez, emakumeak pentsamendu eta kreaio propioa aurrera eramaten jakingo du, proiektu zehatzetan gauzatzen. Pinkolaren esanetan, emakumeak erabaki latzak hartzeko duen adorea bulkada maskulinoa da, Jungen *animusa*: batetik, instintiboa; eta bestetik, hilkorra eta kulturala. Jungek aitortzen du gizakiaren gaitasun transformatzaile horrek alda dezakeela inkontziente kolektiboa; beraz, inplizituki bada ere, adierazi nahi du osagai kulturala duela batik bat. Pinkolak, ordea, bereizi egiten du indar maskulino suntsitzailearen jatorria: batetik, faktore psikikoa; bestetik, kulturala; eta baieztatzen du faktore objektiboak subjektiboak adinako eragina daukala. Ondorioz, kultura sano batek sendatu egiten duela aitortzen digu.

**Ametsek** atariaren lana betetzen dute: botere gaiztoaren transformazio-beharraren ataria dira. Eta ametsek salatzen dutena eragile kultural baten presio gaiztoa izan ohi da, «bazuetan» —berak dioenez—. Betiere, funtzio lasaigarria dute emakumearentzat, funtzio ohar-tzailea izateaz gain. Gaizkilea identifikatzen laguntzen diote, emakumearen bizitza hondatu aurretik, nahiz eta, askotan, beranduegi izan ohi den emakume askorentzat, sormenarekin batera nortasuna ia autosuntsitzeraino iristen baitira asko, ipuinean gela iluneko emakumegorpuek adierazten duten eran. Eta hori, gazteegi direlako edota instintua ahulduegi dutelako gerta dakieke.

### Iruzkina

Argi ikusten da Pinkolak emakumearen **senak diskriminatu** egiten dituela: sortzailea berezkoa eta femeninoa da; jakin-mina eta zolitasuna ere berezkoak eta femeninoak dira; instintu suntsitzailea, berezkoa eta maskulinoa da (nahiz eta eragin kulturala onartzen duen neurri batean, lehen aipatu dugunez); eta indarra maskulinoa da, baina ez osoki berezkoa. Beharrezko da jakitea zein irizpide objektibok aldezen duen diskriminazio hori.

Emakumearen instintuen izaera eta berezkotasuna M. Meaden ikerketa antropologikoak argituko du, 4.2. atalean.

Laugarren pausoan, emakumeak hildako botere maltzurra **transformatu** egiten du, eta erabilgarri bihurtzen du. Psikean gordetako konplexu mingarri hori, botere suntsitzailea, desaktibatua ostean, psikeko botere berrizale nagusiari, Emakume Basatiari, ematen dio, horrek birrindu eta birzikla dezan, indar-sortzaile bihurtzeko. Eraldaketa horrek lagundu egingo dio emakumeari, autokonfiantzaren bidez, bizitzan proiektu propioak aurrera eramaten. Eta indar gaiztoa psikearen zoko batean gordeko du, gradurik urrienean, birusaren aurkako antigorputz.

### **Iruzkina**

Nabarmena da Pinkolarentzat Bizarrurdin maltzurra eta neskatxa ingenuoa badira ere, Bettelheimentzat neskatxa dela maltzurra (axolagabea eta desleiala sexu kontuan), eta, gizona, ingenuoa (nahiz eta jelsiak jota hiltzaile bihurtu). Ipuin-egilearen ikuspuntuak auzia argi dezake. Perraultek, ipuinaren asmatzaileak, Bettelheimen esanahi klasikoa eman zion ipuinari, hau da, emakumearen desleialtasunak eragiten duela gizonaren oldarkortasun sexual neurrigabea. Egileak irakaspenean zioen legez, gizonak ikasi egin behar du emakumearekin ulerkorrago izaten (hots, zigorra neurtzen). Pinkolaren interpretazioak, hortaz, euskarri literario ahula dauka ipuin honetan.

### **3.4. VASALISA JAKITUNA: INTUIZIOA BERRESKURATZEA**

Ipuinak **intuizioa** du oinarri, emakumearen gaitasun funtsezkoa, emakumearen izaera sormenezkoaren ezagutza emango diona; hau da, Bizitza/Heriotza/Bizitza zikloarena, hots, Emakume Basatiarena. Hona hemen kontakizuna, errusiarra bera:

«Behin batean hilzorian zegoen ama batek aitari eta alabari deitzen die azken hitzak emateko. Alaba Vasalisa-ri, panpintxoak emanez, eskatzen dio hura beti zaintzeko eta laguntza behar duenean berari zer egin behar duen galdetzeko, eta gose denean jaten emateko. Gerora, aita, alargundu ostean, berriro ezkontzen da, eta Vasalisak amaordearekin eta bi ahizpaorderekin bizi behar du, baita bizitza latza eraman ere, bakarrik geratzen direnean hiru emakumeek gogorki esplotatzen dutelako. Egun batean, sua nahita itzali eta Vasalisa behartzen dute Baba Yaga sorginarenera, sua eska diezaion, horrela sorginak Vasalisa hil eta jan egingo duelakoan. Bidean zihoala, Vasalisari panpinak laguntzen dio bide zuzena aukeratzen. Iristear dagoela, hiru zaldizko pasatzen zaizkio ondotik: lehenengoa, zuria, pasatzean eguna argitzen duena; bigarrena, gorria, pasatzean eguzkia jalkitzen duena; eta hirugarrena, beltza, pasatzean ilunabarra dakarrena.

Sorgina topatzen duenean bere etxe bitxiaren aurrean, panpinari esker aukeratutako hitz zuzenez, sua emateko esaten dio: »hala eskatzen dizudalako». Suaren ordainetan sorginak lan batzuk egiteko eskatzen dio; oker eginez gero, hil egingo du. Lehenik, etxeko lanak egiteko eskatzen dio, horien artean arto ona arto zimeletik bereizteko. Vasalisak lan guztiak zuzen betetzen ditu, panpinaren bidez. Hurrengo betebeharra, opio-belarra lurretik bereiztea izango da. Lan izugarri hori ere panpinak egiten dio. Sorginak opioari olio atera ostean, ikusitako lau zaldizkoen esanahiari buruz Vasalisak egiten dizkion jakin-minezko galderak erantzuten ditu. «Nire Eguna, nire Eguzkia eta nire Gaua dira», dio Baba Yaga-k. Panpinak salatu egiten dio berriro ere Vasalisari, sorginari zer galde diezaiokeen eta zer ez. Vasalisak jakinduria amaren bedeinkapenari esker lortu zuela aipatzen dionean, sorginak etxetik ateratzen du, eta suzko garezurra makilaren gainean josita emanik, bidali egiten du handik.

Etxera heltzen direnean, Vasalisak badaki irabazi egin duela erronka. Garezurrak makilaren gainetik amaordeari eta ahizpaordeari behatzen die, adi-adi, haien jokaera aztertu nahian, eta



laster ematen die merezitako erantzuna: suzko garraz kiskali egiten ditu. Handik aurrera eta betiko, Vasalisa libre geratzen da eta bere bizitzaren jabe».

## Interpretazioa

Ipuin horretan, emakumeak psikean gordeta duen **intuizioaren** berreskuratzea deskribatzen da, Emakume Basatiaren zolitasuna; horregatik deritzo horri *Badakiena*, hain zuzen.

Emakumeak, **intuiziora heltzeko, sarbide-prozesua** osatu behar du, urratsez urrats.

Bete beharreko lehen urratsa **otzantasuna gainditzea** da; hau da, psikean gordetzen duen «ama onegia» gainditzea. Mundu ez-amatiar honetan, emakumeak onberatasun irrealista alde batera uzten ikasi behar du. Mundutik babestu duen ama onberak, halere, «panpina» ematen dio lagungarri, hots, **intuizioa**: emakumeek elkarri transmititzen dioten bizi-baliabidea. Beraz, ama onegia «hiltzen utzi behar da». Jungek «itzalpeko elementu» deitzen die onartu nahi ez diren baina eragina duten faktore psikiko horiei. Horretan, Pinkolak nabarmentzen duenez, kaltegarri dira bi muturrak: ama onegia eta ama gaiztoa. Biek uzten dute emakumea lotuegi (anbibalentzia edipikoagatik) psikea garatzeko garaian. Horren orde, ama maitagarri baina zorrotza behar du emakumearen garapen psikikoak. *Superniak*, argi denez, emakumeak gizartearen nahierara moldatutako egitura psikikoa adierazten du, eta Pinkolaren arabera «ustezko familiak» ordezkatzeko du supernia ipuinean, baina baita emakumearen familia naturalak ere; ezin da hori ahaztu. Horregatik, guraso sineskorak dituzten alabek izaera bigunegia jasotzen dute, egileak aitortzen duenez. Eta, aurrerago Pinkolak berak adieraziko duen eran, bai kulturak eta baita familiak ere indartzen dute psikearen joera negatibo hori.

Bigarren urratsa **instintua bilatzea** da, ipuinean «basoan sartu, eta panpinak gidatzen uztea». Panpinak neskak bere baitan gordetzen duen *numena*, jeinua, adierazten du, argi; bereziki, haren jakinduria. Eta jakinduria emakumeen leinu luzeak gorde eta transmititzen du, senezko indarrari esker, *Badakiena*-ri esker.

Hirugarren urratsa **instintua ezagutzea** da; hots, ipuinean, Baba Yaga sorgin basatia ezagutzea. Sorgina Emakume Basatiaren irudi maltzurra da, beraz, Bizitza/Heriotza/Bizitza zikloaren jainkosa, zero eta lurretako jainkoen zaindaria: Egunarena, Eguzkiarena eta Gauarena. Sorgina da emakumearen psikeak duen bizitza instintiboaren indarra, eskakizunetan zorrotza baina justua. Eta justiziaren zentzua erakutsiko dio emakumeari, merezi dituen eskubideak orekaz ikusten eta bilatzen ikas dezan. Pinkolak ederki ilustratzen duenez, «andre biziki otzanegiek gauez amestetan basapiztien hortzak agertzen dituzte, Baba Yaga ate-joka dutela».

Laugarren urratsa **instintuari zerbitzatzea** izango da. Ipuinean etxeko lanak eginarazten dizkio, eta horrek «arimaren etxea» nola antolatu esan nahi du: magia, gogoz eta atseginez; gure Niak agintzen digun eran. «Lixiba» egin behar du emakumeak, hots, psikearen garbiketa, zikina denaren ezabaketa. Oihalaren sinboloa agertzen da pasarte horretan, Bizitza/Heriotza/Bizitzaren prozesua adierazten duen eskulan batekin oso eskutik helduta: ehungintza. Gogoratu *Hiru Parken* zeregina, alegia, gizonen «haria» ehundu edo moztea, greziar mitologian. Era berean, garbitu behar diren «jantziak» pertsonaren sinbolo dira, gizartean erakusten dugun kategoria. Gainera, erraztu egin behar du etxea ipuinean; hau da, emakumeak psikeko ideiak antolatu egin behar ditu. Halaber, janaria prestatu behar du. Hortaz, emakumeak suaren grinaz bereak dituen ideiak prestatzen jakin behar du. Eta ipuinean

Vasalisak bere psikea atontzen ikasten du (etxeko lanak) aldean daukan panpinaren bidez, intuizioaren bidez.

Bosgarren urratsean, emakumeak **bereizketa** egingo du, balio duenaren eta ez duenaren artean. Ipuinean panpinak laguntzen dio zeregin horretan, lotan dagoen bitartean. Ametsen bidez inkontzienteak, panpinaren intuizioak, lan hori egiten laguntzen dio, material kognitiboa jo eta su egituratzen baitihardu. Lehen bereizketan arto zimeldua alderatu behar du. Mitologian esana-hi handia dute artoz, gariz, garagarrez eta opioz, besteak beste, egiten ziren likore haluzinogeenok eta sendagaiek. Gogoratu, bestela, Demeter jainkosari greziarrek eskainitako erritualak edota kultura paganoan hain zabaldua egon ziren akelarreak. Horrekin, naturaren gaitasun askatzailea eta sendatzailea ezagutzearen garrantzia azpimarratu nahi da. Beraz, emakumeak bere «psikearen lorategian», ideiak (landareak) eta horien balioa bereizten ikasi behar du.

Seigarren urratsean, emakumeak **misterioak aztertzeari** ekiten dio. Misteriorik handiena Bizitza/Heriotza/Bizitza zikloa da, emakumearen izaera sakona, eta hori ulertzen ahalegindu behar du emakumeak. *Uretako Emakumeak* kontakizunak ondo baino hobeto adierazten du ezaugarri hori: «Aintzira guztietako hegian, eskuak zaharkituriko neska gazte bat bizi da. Neskatxak portzelanazko ahatei bizia ematen die (*tüz*) egurrezko giltza batez eraginda. Ahatetxoei eragindako bizia bukatzen zaienean, ziplo erortzen dira. Orduan, neskatxak mantalaz haizatu egiten ditu ahatetxoetatik ateratzen diren arimak, zerurantz. Eta berriro bizia eragiten die beste portzelanazko ahatetxoei, behin eta berriz, amaierarik gabe». Beraz, Baba Yagak, Uretako Emakumeak, Badakienak edo Emakume Basatiak emakumeari erakusten dio nola eman (eta kendu) bizia bere ideiei eta inguruan dituen izakiei; izan ere, Demeter jainkosa bezala, emakumea bera emankortasunaren iturria da. Jakin egin behar du emakumeak bizitzen uzten, eta hiltzen uzten. Hauxe da sorginaren Hiru Zaldunek argi adierazten duten prozesua: **beltzak**, erorketa; **gorriak**, heriotza; eta **zuriak**, pizkundea. Adierazgarria da bai Vasalisak eta bai haren panpinak janzten duten arroparen kolore hirukoitza: beltza, gorria eta zuria. Eta misterio hori misterio gisa ulertu eta onartu behar du emakumeak; ezin du auzitan jarri, gehiago ulertu nahian bezala. Sorginak neskatxari ipuinean esaten dionez, «gehiegi jakiteak goiz zaharraraz dezake pertsona».

Zazpigarren urratsean, emakumeak **intuizioa aplikatu** behar du bizitzan. Horra hor garezurraren argia neskaren eskuetan. Sorginak zakar jokatzeko du harekin, samurtasunak izaera basatian aldi motzerako bakarrik balio duelako. Emakumeak, era horretan, zorrotz begiratzen ikasten du, eta besteen txorakeriak gero eta gutxiago onartzen ditu. Mesprexuz begiratzen ikasten du, Pinkolaren hitzetan. Emakumeak besteen ekintza, pentsaera eta hitzen atzean dagoena ikusten ikasten du, horrela. **Garezurraren** sinboloak, oro har, argi erakusten du arbasoekiko jaurespena. **Hezurretan** datza jakinduria; eta garezurrean, arima; ondare matrilineala, hain zuzen.

Horrekin amaitzen du emakumeak sarbide-prozesua, intuizioaz jabetzerainokoa; eta psikearen botere basatia emakumeak bere esku izango du, hortik aurrera.

Azken urratsean **negatibotasuna suntsitu** egingo du, bere baitakoa eta baita ingurukoa ere. Ondorioz, aldatu eta garbitu egingo du bizitzan gaizki ikusten duen oro. «Zertarako balio du ikasitako orok, bestela?», galdetzen du Pinkolak. Hauxe ere erants liteke, ildo beretik: zertarako balio du bizitzaz filosofatzea, bizitza bera hobetzeko ez bada? Ezagutza intuitiboari esker, emakumeak badaki bizi duen munduaren baitan dagoen harmonia ederra ikusten, eta beraz, positiboki interpretatzen haren inguruan gertatzen eta egiten den guztia.

**Iruzkina**

Pinkolaren ustez, arazoaren azterketa **logiko** sakonak, eta horren ondorioz, haren ulertze sakonak lor dezake, huts-hutsean, arazoa gainditzea. Nabari zaio planteamendu horri ikuspuntu psikoanalitiko garbia. Intuizioaren aplikazio integralak, ordea, logikarena gainditzen du, eta **sormenarena** eransten dio hari. Beraz, intuizioa jarrera logiko hutsa baino nabarmen ahaltuagoa da.

Laburbilduz, intuizioaz baliatu beharra dago, hiru alderdiak kontuan hartuz: intuizio babeslea (panpina), intuizio sortzailea (sorgina) eta intuizio garbizalea (sua). Eta intuizioaren bidez, emakumeak bere bizitzaren zikloak ezagutu egiten ditu eta erregulatzen ikasten du, kanpotik datozen eragin distorsionatzaileen gaitetik. Horrela, naturak eremu zabalean dituen zikloekin bat egiten du. Horri **espontaneotasuna** deritza Pinkolak; zehatzago, intuizioak erabakiak hartzen uzteari, *egoa* alde batera utziz. Beraz, ez litzateke nahierak esandakoari men egitea, instintuak agindutakoa betetzea baino. Instintua, intuizioaren bidez, logikaren eta kapritxoaren gainetik dago, ikusi dugunez. Era ilustratiboan azaltzen digu hori egileak, esanez «naturak ez duela baimenik eskatzen, eta nahi dugun guztietan loratu eta jaio behar dugula; ziklo basatietarako estimulu gehiago behar dugula eta ikuspegi originalagoa».

**Iruzkina**

Vasalisak **emakumezkoak diren dohain hutsekin** lortzen du garapen pertsonala; beraz, gizonetzkoen batere laguntzarik (are gutxiago nagusitasunik) gabe. Oso bestela ikusten dira Bettelheimen ipuin klasikoetako emakume protagonistaren ibilbide pertsonalak. Emakume horien garapen psikologikoak okerrera egiten du berezko irrika sexual heldugabeengatik, eta gizon indartsu baten babesa (eta amaren zigorra) behar dute bidea zuzentzeko; hala nola Txanogorritxok, Edurne Zurik eta Loti Ederrak, besteak beste. Pinkolaren *Vasalisak* askoz ere ikuspegi integralagoa eskaintzen dio emakumeari, bizitzarako beharrezko duen intuizioa eraikitzeko.

Vasalisak, hala ere, sarbide-prozesua burutzeko batez ere **proba sektarioak** gainditu behar ditu, hala nola sorginaren etxeko lanak; hots, prestigio txikikoak. Ipuin batek ez du inoiz mutil bat jarriko trantze horretan, sarbide-prozesu baterako. Bettelheimen Jacken saileko ipuinetan, mutikoak intuizioa (landarea edo makila, hots, zakila) garatzeko bete behar dituen probak prestigio handi-gokoak dira (ogroa, etsaiak, piztiak eta erregina garaitzea, kasu).

Hala ere, proba sektario horiek beste zentzu bat dute *Baba Yagan* eta ipuin klasikoetan. *Baba Yagan* Vasalisak etxeko lanak egiten ikasten du autonomia propioa lortzeko, eta *Edurne Zurin*, ordea, printze batekin parekatu ahal izateko.

**3.5. MANAWEE: BESTEAREKIN ELKARTZEA**

Mitoetan bezala, errealitatean **Gizon Basatiak** bere emaztea «lur azpian» bilatzen du, emakumearen benetako izaera bilatzen baitu gizasemeak. Ikus dezagun zer esan nahi duen horrek. Hona hemen ipuina:

«*Manawee* deituriko gizon batek bi neska biki gorteiatzeari ekin zion. Aitak erantzun zion ezingo zuela haiekin ezkondu, bikien izenak asmatzen ez zituen bitartean. Mutila saiatu zen izenekin, baina ez zuen batere asmatu. Behin, txakurtxo bat eraman zien, eta animalia ohartu zen bataren edertasunaz eta bestearen gozotasunaz. Biek, gainera, gozokiak ematen zizkieten, eta

begietara begiratzen zioten; eta horregatik, gustuko zituen. Egun hartan txakurtxo korrika itzuli zen neskatilen etxolara eta berriketan ari zirela, mutila goresteko, izenez deitu zioten ahizpek elkarri. Abiatu zen korrika batean txakurra jabeari izenak salatzea, baina bidean hezur handia ikusi eta, hortzekin harrapatuz, sasiartera sartu zen bazkatzera. Konturatzeko, ordea, ahaztuta zeuzkan nesken izenak, eta arrapaladan itzuli zen haiengana. Ahizpak eskuak eta hankak olio igurzten ari zirela, txakurrak berriro entzun zizkien izenak, eta saltoka abiatu zen nagusiari berri ematera. Bidean, ordea, intxaur muskatuaren usaina somatu zuen. Ez zen ezer gustagarriagorik txakurrarentzat usain hori baino. Harrapatu zuen enpanada usaintsua, eta, bidetik aterata, jan egin zuen enbor baten gainean. Etxera zihoala kontent, izenak ahaztu zituela otu zitzaion. Neskatxen etxera itzuli zenean, haiek jada ezkontzarako prestatzen ari zirela ikusi zuen, elkarri izenez deika berriro ere. Denborarik galdu gabe, ondo gorde zituen gogoan, eta korrika abiatu zen, irmo. Bidean hainbat tentaziori muzin egin ondoren, halako batean sasiartereko norbaitek lepotik heldu eta jipoi ederra eman zion, izenak emateko eskatuz. Animaliak minaren minez ezetz, eta egundoko koskada eman zion hatz artean. Arrotzak askatu, eta han joan zen berriro ere txakurra Manaween bila. Kostata iritsi zenean, mutilak zauriak garbitu eta txakurrak dena kontatu zion, baita bikien izenak ere. Pozaren pozez abiatu zen mutila, txakurra sorbalдан hartuta, eta haien aitari aitortu zizkion izenak. Ondo atonduta, neskak mutilaren zain zeudela ohartu zen, hasieratik egon baitziren haren esperoan. Era horretara, Manawee eskualdeko dontzeilarik ederrenak eskuratu zituen, eta laurak, txakurra barne, zoriontsu bizi izan ziren urte askoan».

## Interpretazioa

Interpretatzeko garaian bi ikuspegi aztertu behar dira: etnologikoa eta arketipologikoa. Etnologikotik begiratuta, kultura poligamikoko baten aurrean gaude; arketipologikotik begiratuta, berriz, emakumearen berezko bi indar nagusirekin egiten dugu topo, **emakumearen izaera anbibalentea** eta ezagutu beharrekoa baita, hura konkistatu nahi bada. Alde batetik, izaera agerikoa du, soziala eta pragmatikoa; bestetik, izaera ezkutukoa, harrigarria eta azkarra. Ipuinean, txakurrak emakumea ulertzeko lanean zoli ibili behar du; beraz, argi irudikatzen du mutilaren ni instintiboa.

Emakumearen izaera bikoitzaren **paradoxa** da bataren indartzeak bestearen makaltzea dakarrela. Bien arteko elkarreragina oinarritzakoa izanik, osotasunaren baitan, biak **orekan** elikatu behar ditu emakumeak, psikearen batasuna eta garapena nahi baditu. Antzinaroko hainbat kulturatan sinesten da ahizpa bikiak energia mistikoaren jabe direla, eta biak elikatu behar direla berdin, bata hiltzen bada bestea ere hilko delako; beraz, orekan daudela. *Adaxka bat, bi adaxka* ipuinak aditzera ematen duenez, talde batean banatutako adaxkak binaka edo hirunaka elkartzen direnean ezin dira apurtu; bai, ordea, bakoitzak bere adaxka soilik hartzen duenean. Beraz, arimek adaxkak bezala elkarrekin behar dute bizi, orduan gara benetan indartsu.

Gizonak ere, emakumeak bezala, izaera bikoitza azaltzen du ipuinean: ageriko jokaeraz gain, txakurrarena agertzen da, jokaera instintiboa eta emakumearen bilatzailea. *Txakurra*, beraz, **gizonaren alderdi instintiboa** litzateke, zolia, afektiboa, borrokalaria eta, kostata ere, tentaldi azalekoak menderatzen dituena. Horren ordain femeninoa, ikusi dugunez, *otsoa* da, bakartia eta ez zibilizatua. Eta, horrela, Manawee bera **Gizon Basatia** litzateke. Beraz, emakumearekin gizonak jarrera konstruktiboa erakuts dezake, emakumearen izaera bikoitza onartuz gero (Manawee), edota jarrera suntsitzailea, izaera perfektu bakarra bilatzen badio (Bizarrurdinek), Pinkolaren hitzetan.

Neska bikien **izena** ezagutu nahiak emakumearen izaera bikoitza barneratu nahi esan nahi du, pertsonaren izenak pertsonaren beraren izaera sakona (espiritua) adierazten baitu, antzinako kulturaren. Pinkolak azpimarratzen du izenaren balio kontzientea, horrek emango baitio **jakinduria** gizakiari. Eta haren aurka psikearen alderdi inkontzienteak ipintzen ditu, bereziki plazerak, ipuinean txakurra tentatzen agertzen direnak.

### Iruzkina

Izenaren balio kontzientea plazeraren balio inkontzientearen gainetik aldarrikatzean, Pinkolari berak aipatzen dituen Koraneko hitzok gogorarazi behar zaizkio: »Kontuak eskatuko zaizkigu bizitzak eskaintako plazer ez gozatuengatik». Eta pentsatu behar da emakumearen **izenaren esanahia instintiboa dela, plazerak diren bezala; beraz, bateragarriak, biak.**

Psikearen alderdi inkontziente hori (plazeraren erakarpena) kanpoko munduko faktore sunsitzailleekin berdintzen du Pinkolak, emakumeentzat zein gizonentzat, moral estuak eramanda, antza. Gainera, psikearen baitako **instintuen diskriminazio-nahia** ageri da: batzuk, positiboak (maitasuna); negatiboak, besteak (tentazioak). Hori manikeo gertatzen da eta diskutigarria oso, gaur eguneko kultura hedonistan, batik bat.

Bestalde, izenetan izana dagoela adierazten du eta argitu beharko litzateke, nominalismoaren eskutik, **ontologia errealista** horren aurrean izenek ez dutela errealitatea murrizten.

Pinkolak **txakurra** nabarmentzen du gizonaren alderdi instintiboa irudikatzeko, zolia, afektiboa, borrokalaria eta, kostata ere, tentaldi azalekoak menderatzen dituena. Horren ordain femeninoa, nabarmendu duenez, **otsoa** da, bakartia eta ez zibilizatua. Eta, gainera, Manawee edo Gizon Basatiaren funtzioa Emakume Basatiaren zerbitzuan kokatzen du. Alde batetik, gizon eta emakumearen arketipo horien balioa M. Meadek zehaztuko du, aurrerago. Beste aldetik, **gizon arketipikoa (basatia) emakume arketipikoaren (basatia) baitan definitzeak lehen ipuin klasikoek egiten zutenaren jokoan erortzea dirudi**, haiek emakumearen izaera eta espektatibak gizonaren izaera eta espektatiben baitan definitzen baitzituzten (printzearen nahietara makurtu behar zuen beti printzesak).

*Manaween gizona da emakumearen atzetik eta emakumearen ezagutze- eta ulertze-lanean aritu behar duena, Bettelheimen «senargai animalia» saileko ipuinetan gertatzen denaren oso bestela;* horrek emakumearen mesedetan hitz egiten du. Gainera, «senargai animalia» saileko istorioetan emakumeak sarbide-prozesu sakrifikatua igaro behar du senarra bereganatzeko (*Zerri sorginduan*, adibidez, neskak hatza moztu behar du). Manaween egin beharreko sakrifizioa, aldiz, zakurrari eustea da, eta zakurrak jasotzen du zigorra (zeharka, beraz).

### 3.6. EMAKUME ESKELETOA: MAITASUNAREN BORROKA BAKARTIA

Gizakiek Bizitza/Heriotza/Bizitza zikloa osoki bizi ahal izateko, **alderdirik beldurgarriarenekin jokatu**, »dantzatu», beharko dute: heriotzarekin, Herio Andrearekin. Inuit-entzat, ildo honetan, patuarekin bat egitea bizitzarekin eta heriotzarekin dantzatzea da. Gizon baten eta emakume baten artean maitasun sendoa eraiki nahi bada, Emakume Eskeletoa besarkatu beharra daukate biek. Hona hemen horixe erakusten duen ipuin adierazgarria:

«Aitak onartzen ez zuen zerbait egin zuen neskatxak. Horregatik, hark alaba arrastan hartu eta amildegitik behera jaurti zuen, itsasora. Arrainek alabaren gorpua jan zuten, eta eskeletoak biraka zirauen itsas azpian. Egun batean arrantzale gazte bat hurbildu zen kala hartara, nahiz eta gehientzat toki arriskutsua izan, fantasmaren bizitokitizat hartzen baitzuen kondairak badia

hura. Amua bota eta, hara non, emakumearen eskeletoan geratu zen trabatuta. Arrantzaleak arrain oso lodia zelakoan tiraka eutsi zion. Bitartean, andreak, amua askatzen saiatu arren, korapilatzen jarraitu zuen, saiatze bakoitzarekin ura astintzen zuela. Arrantzaleak sarea bildu orduko, amuari begiratu eta eskeletoa txalupatik tinko zintzilik aurkitu zuen, eta oihu lazgarri batez arraunketari eman zion ziztuan bazterrera iristeko asmoz, arraunarekin eskeleto hura ezin askaturik. Brankari atxikita, gizonaren bizkarretik lotuta jarraitzen zuen hezurdurak, estu-estu. Ertzera iritsi orduko kayak-etik jauzi egin eta korrika batean abiatu zen tundran barrena, atzetik eskeletoak jarraitzen ziola kanaberaren hariarekin trabatuta. Bidean, gizonak arrastaka zeraman bitartean, eskeletoak arrainen bat eramanean, gosea pizten nabaritu baitzuen. Azkenean heldu zen gizona bere izotzezko etxera, eta sartu zen, arnasestuka, barrena pasabide estu eta ilunetik. Negar-zotinka gelditu zen atsedenean, jainkoei (Beleari) eskerrak ematen, salbatu zutela eta. Baina balearen olio-lanpara piztu zuenean, hantxe aurkitu zuen berriro eskeletoa kikilduta ertz batean, hezurak bata bestearekin korapilaturik. Horrela ikusita, gizonak errukia sentitu zuen bihotzean eta hurbildu egin zitzaion, leunki hitz eginez, haria askatzen zion bitartean. Dezente kostata, lortu zuen azkenean askatzea, eta, hezurak bere tokian ipinita, larruzko estalkiaz babestu zuen hotzetik. Sua piztu zuen, kanabera jaso eta loak hartuta etzan egin zen. Ametsetan zegoela malkoak ihes egin zion masailetik, sentimendu nostalgikoak harrapatu balu bezala. Emakume Eskeletoak ikusi egin zuen tanta, suaren distirak lagunduta, eta egarria sentitu zuen, milurtekoa. Hurbildu egin zitzaion eta malkotik edan zuen, ase arte. Etzan egin zen gizonaren ondoan, eta segidan eskua sartu zion bularrean barrura, bihotza heltzeraino. Atera egin zion bihotza, jaiki egin zen eta hura bi aldeetatik astintzen zuen bitartean, kantuan jardun zuen, «haragia, haragia, haragia!» oihukatuz. Hala, emakumearen hezurdura haragiztatzen hasi zen, gorputza erabat osatu zitzaion arte, lerden-lerden. Kantuaren bidez, era berean, gizona biluztu zuen, bihotza itzuli zion eta goxo-goxo oheratu zen haren ondoan. Eta halaxe esnatu ziren biak, korapilatuta, baina oraingoan era onean, era iraunkorrean. Jendeak dioenez, han joan ziren biak elkarrekin bizitzera, eta itsas azpiko izakiez elikatu ziren aurrerantzean».

## Interpretazioa

Ipuineko dama, inuit-en *Sedna* jainkosa, Heriotza, Emakume Basatiaren **Bizitza/Heriotza/Bizitza** zikloaren adiera da. Mexikarren *Txati* jainkosak, era berean, jaiotza, maitasun-harremana eta heriotza hartzen ditu bere baitan. Beraz, gure kulturaren ez bezala, bizitzari estuki helduta dago, ezin baitira elkarrengandik banandu. Bizitzak beti dakar heriotza, baina heriotzak ere bere baitan inkubatzen du bizitza. *Sedna* jainkosak sendatu ere egiten du. Gurean, kultura modernoetan, heriotza oker ulertu da, beldurrez, sega eskuan buruak biltzen dituela; eta ez, krea- zioaren beharrezko atal gisa. Ikuspuntu arketipikotik, ordea, izaera instintiboaren osagai beharrezko agertzen zaigu heriotza.

Ipuinaren aplikazio-eremua maitasuna da, batez ere. Adierazten duenez, ezin da maitasun bizia bakarrik espero, pizteak itzaltzea baitakar, ezinbestean. Hauexek dira **maitasun sendoak** bete beharreko lanak:

1. **Kidea deskubritzea** eta aintzat hartzea. Eskarmentu gabeek eta beharrak jotakoek ezin dute kidearen balioa neurtu, naturaltasuna falta dutelako. Entretanimendu hutsa bilatzean, halabeharrez sartzen dira psikearen eremuan eta, beraz, Emakume Eskeletoaren eremuan. Heriotzak maitasunean *egoa* apurtzen du, dena edukitzeko antsia, ederra bakarrik edukitzeko nahia. Maitasunaren alderdi ederra soilik bizi nahi izateak porrota dakar, Emakume Eskeletoa amildu egiten du berriro, eta bikotea puskatu egiten da.

Normala da maitale hasiberriak beldurra izatea, segurtasun gabezia eta Herio Andrea-ren aurrean ihesari ematea.

2. **Jazarpena eta ezkutalekua.** Maitaleak norbaitekin harreman estua ezarri nahi duenean egiten du topo Emakume Eskeletoarekin. Intimitateak eta konpromisoak beldurra ematen diote, ez dagoelako ohituta, gure kulturaren, bizitzaren alderdi gogorra onartzen. Harremanaren alderdi atseginarekin bakarrik gelditu nahi du, eta hori ezinezkoa da, harremana gauzatu nahi bada. Etapa honetan eutsi egiten zaio bizitzaren aldaketa mehatxugarriari.
3. **Eskeletoaren askatzea.** Hasierako sustoaren ondoren, eta egoaren erresistentzia gaintuz, maitalea prest agertzen da bestearengan polita ez dena aztertzeko, hots, kidearen akatsak eta inperfekzioak miatzeko. Ipuinetan, ekintza horrek beti saria dakar berarekin. Emakume Eskeletoaren hezurak askatzen jarduteak haren izaera ulertzen hastea esan nahi du, Bizitzaren eta Heriotzaren artikulazioak ulertzea, biak elkarrekin baitoaz estutu. Ego azpigaratuak —inuiten Belearnak, kasu— arimak behar duen pazientzia eta irmotasuna falta ditu, eta horiek beharrezkoak dira maitalea **maitale basati** izateko.
4. **Konfiantzaren ametsa.** Fase honetan, inozentziaren indarrarekin jokutzen du maitaleak; horrek segurtasun egoistatik ateratzen du eta maitatu beharrak ematen dion jakin-nahiak aurrerantz bultzatzen du, harremanean arriskatzera. Ametsetan gertatzen den moduan, inozentziak ere amets berritzailean murgiltzen du maitalea. Psikoanalisiak aspalditik egiaztatu du ametsaren funtzio osatzailea. Konfiantzaren apustuarekin, maitalea espiritu gazte bihurtzen da. Pinkolak horrekin gizonari egiten dio erreferentzia, eta pentsatzen du psike maskulinoaren dohain berezkoa dela. Horregatik, zeharka «ni gerlari» deitzen dio konfiantzaz baliatzen ikasi duen espiritu gazteari. Gizona bezala, ez al da emakumea ere gai konfiantzazko jauzi hori egiteko? Berez, ez al du egiten? Aurre-rago Pinkolak aitortzen du **bien lana** eta gaitasuna dela hori, eta arriskatzea merezi duela, apustua galtzea naturaren zikloan sartzen delako, Bizitza/Heriotza/Bizitza zikloaren dinamika propioa delako, maitasun-harremanak piztu eta itzali egiten direlako, hain zuzen.
5. **Malkoaren eskaintza.** Malkoak grina eta errukia adierazten du. Etapa honetan maitaleak, sentikortasun ikasiaren bidez, bakardadea deskubritzen du, errukia pizten zaio, eta sendatu egiten du. Horixe da malkoaren irudia, malkoaren indarra. Orain, hutsune pertsonala sendatzeko ezagutzen ditu maitasun-iturriak, bere baitan eta beragandik kanpo. Maitea ez du hartuko, jada, bakardadearen estalki soiltzat.
6. **Bihotzaren kantua.** Tradizioz, maitasun betea eragiten duena da. Maitaleak sentimendu osoa jartzen du maitearengan. Ipuinean, Emakume Eskeletoak kantatu egiten dio bihotzari. Kantua, tradizioz, Jainkoen jakinduria eta boterea eskuratzeko bidea da; baita ere, maitasunaren sorbidea hainbat kulturatan; Islandian, kasu. Bihotzarekin kantatzeak, ipuinean, naturaren esperientzia sakonenei dei egitea esan nahi du; maitatzea, beraz.
7. **Gorputzaren eta arimaren dantza.** Tradizio zaharrear, Herio Andrea patuaren igorlea izan da, hots, bukaera izateaz gain, sortzailea eta berritzailea ere bada. Beraz, maitaleak Heriotzarekin dantza egiten duenean Bizitzarekin egiten du, era berean. Eta maitatzea hauxe da: emakumearen gaitasun sortzailearekin eta suntsitzailearekin bat egitea. Maitaleak bilakaera ezagutu du azkenean, errealitate sakonarekin batera horren alde latza ezagutu eta onartu du. Ipuinean, ehiztariak maitasun eskuzabalaren bidez emakumearen gorputza eskuratu du. Emakume Eskeletoak kantuarekin lortu du haragitzea, bere izaeraren alderdi goxoena eskaintzea, emakumezko gorputza osatzea. Beraz, gizonak emakumeari bihotza ematen dio, hots, maitasun osoz onartzen du emakumearen izaera basatia, sortzailea eta suntsitzailea, polita eta itsusia. Emakumeak, ordainetan, errealitatearen zikloan sartzen du gizona, horren alderdirik goxoenarekin, hau da,

gorputzaren eta emozioen gozamenarekin. Bakoitzak berea eskaini behar du, maitasuna izan dadin. Pinkolak, horrekin, ez du «maitasunik» gabeko harreman sentsuala emakumearen propiotzat hartzen, ez baitago soilik gorputzaren plazerean oinarrituriko maitasuna (harremana). Galdetu beharko litzaioke noraino den konstatazio hori kulturala eta noraino naturala.

### **Iruzkina**

Pinkolak **ez du «maitasunik» gabeko harreman sentsuala emakumearen propiotzat hartzen**, ez baitago soilik gorputzaren plazerean oinarrituriko maitasuna (harremana). Konstatazio hori kulturala ala naturala den jakiteko Donald Marshallen landa-ikerketara jo daiteke (1971). Polinesiako *mangai*andarren artean, «neska gazteei ez zaizkie amodiozko deklarazio erromantikoak interesatzen, laztanaldi luzeak edo atariko joko amoltsuak. Harreman sexuala ez da afektu maskulinoaren saria; alderantziz, afektua bera bihurtzen da asebetetze sexualaren sari» (Marvin Harrisen hitzetan). M. Meadek ere erantzun orokorra eman dezake, 4.2. atalean.

Pinkolaren ipuinean **gizonak emakume eskeletoa aurkitzearekin, emakumearen alderdi latzena (iluna) aurkitzea, ulertzea eta bereganatzea adierazi nahi da** (eskeletoaren hezurak kontu handiz aztertzen eta antolatzen ditu). Bettelheimen interpretazio klasikoan, ordea, emakumeak egiten du lan hori (senargai animalien sailean), eta gizonaren alderdi iluna ez du ulertu eta aztertu behar (jakin-minak zigorra dakarkio emakumeari); soilik, onartu. Gizon maitaleak alderdi iluna ezkutuan gordetzeko eskubidea izan ohi du, alderdi ilun hori suntsitzailea izan arren (antinaturala); hala ere, gizonari neska bereganatzeko txantaia moduan erabiltzeko eskubidea ematen dio ipuinak.

## **3.7. AHATETXO ITSUSIA ETA ZIGOTO ERRATUA: TALDEA AURKITZEA**

### **3.7.1. Ahatetxo itsusia**

*Ahatetxo Itsusia* aspaldiko kontakizuna da, **bereziari eta babesgabeari buruz** diharduena. Ipuinean Pinkolak bertsio hungariarra ematen du, familiako narratzaileek kontatua. Hona ipuina:

«Uztaren aroa hurbiltzen ari zen, eta bitartean jendeak baserri-lanean ziharduen. Ibai ertzean ahate ama arrautzak erruten ari zen. Garaia heldu zenean, arrautzak puskatu eta han irten ziren ahate txo berriak zabuka, bat izan ezik, handi-handia eta geldi zegoena. Harrituta, ahate amak indioilar batena ote zen hitz egin zuen bizilagun batekin. Ahate amaren kezka aita gehiago agertu ez izana zen. Azkenean, arrautza zartatu eta han atera zen izaki baldar berria. Benetan itsusia zen. Beste txitak bezala uretan sartu eta igerian hasi zenean, indioilarrek igerian ez zekitela eta, amari berea zela iruditu zitzaion.

Ama ahate txo baldarrarekin ohitzen hasi zen azkar, eta jada ez zitzaion itsusia iruditzen. Baina abeltegian denon aurrean aurkeztu zuenean, erasoak hasi ziren, eta handik aurrera ez zuten bakean utzi. Mokoka jarduten zitzaizkion, kosk egiten zioten, eta baita txistu, burla, garrasi ere. Hasieran amak defendatu egiten zuen, baina, egoeraz nazkatuta, azkenean alde egitea irrikatu zuen. Orduan, ahate txo itsusiak ihesari eman zion. Padura batera heldu zen. Han ertzean, bi antzar hizketan hasi zitzaizkion, baina, une hartan bertan, ehiztariek tiroz hil egin zituzten antzarak. Berriro ihes eginik, txabola txiro batera heldu zen. Nagusiak, amona zarpailak, onartu egin zuen; hala ere, harekin bizi ziren katuak eta oiloak ez zuten bakean uzten. Alde egin zuen,



eta urmael batera iritsi zen. Han igerian hasi zela, hegazti andana ikusi zuen gainetik hegan. Izugarri ederrak iruditu zitzaizkion, eta oso pozik jardun zuen putzuan bueltaka.

Negua heldu zen, eta neguarekin, hotza. Horrek baserri-giroa baldintzatu egin zuen elur berriarekin. Urmael txikian, izotzak gero eta toki txikiagoa uzten zion ahatetxoari igerian ibiltzeko. Goiz batean ahatea izozturik agertu zen, baina, zorionez, handik pasatzen zen baserriar batek askatu eta etxera eraman zuen. Etxean, beldurrez, janari barrura erori, eta sukaldea hondatu zuen. Baserriarraren emaztea atzetik zuela, berriro ere ihesari eman zion; eta han ibili zen, urmaelez urmael eta etxez etxe babes bila. Negua eman zuen horrela, bizitzaren eta heriotzaren artean.

Baina atzetik udaberria ere iritsi zen noizbait. Baserriko jendea bizkortzen ari zen, eta urmael hurbil bateko ahatetxoak hegadak zabaldu zituen, orain oso indartsuak eta handiak ziren hegadak. Eta hegalek airean barrena eraman zuten ahatetxo itsusia, oso gora. Handik beheko izakien bizitza dastatzen ari zela, halako batean hiru zisne eme eder begiztatu zituen, hara nondik, lehengo udazkenean igerian ari zela begiztatu zituen hirurak, hain zuzen ere. Eta haiengana jaistea erabaki zuen, txikituko zuten beldur hala ere, ikusita ordura arte zer-nolako tratu txarra eman zioten gizaki eta animalia guztiek. Eta okerrena espero zuenean —zisne puska haiek mokoka hastea, alegia—, burua makurtu, eta, a zer sorpresa! Bere burua ere zisne eder bihurtuta ikusi zuen uretan islaturik. Zisnea zen! Miresten zituen izaki galant horiek bezalakoa. Haien arrautza, istripuz, ahateen familiaraino erori zen biraka. Lehenengo, bere klasekoak hurbildu zitzaizkion, eta amultsuki hartu zuten gainera. Eta haurrek zisne etorri berriaren notizia zabaldu zuten, algaraka, eskualdean».

## Interpretazioa

**Erbesteratuaren arazoa** aurkezten du ipuinak. Kontakizunetan klasikoa da erbesteratuaren gaia. Gehienetan egoera aldrebesak sortzen du —Loti Ederrarenean, esaterako— edota hanka-sartze inuzenteak —Hefestoren mitoan, kasu—. Beste batzuetan, ordea, maltzurkeriak eragiten du, Vasalisa Jakitunarenean ikusi denez.

*Ahatetxo Itsusia* ipuinaren esanahi funtsezkoak hauexek dira: batetik, ahatetxoa izaera basatiaren sinboloa da, **borrokalaria** eta erresistentea; bestetik, norbere **familia psikikoa** aurkitzeak bizitasuna eta babesa ematen ditu; eta azkenik, **norbere buruaren edertasun berezia**.

Erbestearen fenomeno oso sartua dago kulturean. Izaera instintibo indartsua duten neskatilek ere jasan behar izaten dute bizitzaren lehen aroan familiaren eta kulturaren aldetik, **otzantasunean alaba perfektuaren bila** ari baitira. Ahatetxo itsusi bihurtzen dira. Kulturak emakumeari ezartzen dizkio arrakastarako ereduak, psikearekin borrokan. Pinkolaren bereizketak bi eredu ematen ditu: barnekoa (pertsonala) eta kanpoko (kulturala).

### Iruzkina

Hala ere, galdetu beharra dago zer-nolako bereizketa genealogikoa dagoen bi ereduen artean (kanpoko eta barnekoa), ikusita, gainera, Pinkolak berak onartzen duenez, «barruko amak» gobernatzen duela neskatala. Beraz, Pinkolak bateratu egiten ditu neskatalarengan eragiten duten barneko eta kanpoko faktoreak, **barruko amaren** irudiarekin.

Hainbat **ama klase** dago. Emakumeak txikitatik barneratzen du amarengandik jasotako balio-eskala, eta bizitza osorako gainera. Horren gainean, eskarmentuak erakutsi dizkion beste ama-ereduak gaineratuko ditu, eta, horrela, «barruko ama» eraikiko du. Hona hemen ama motak:

1. **Ama anbibalentea.** Komunitatearen eskakizunak alabaren izaerarekin topo egiten duenean, amak komunitatearen alde egiten du, eta alabatxoa moldatzen saiatzen da komunitatearen ohitura eta baloreen aldera. Arrazoia ama edo alaba onartua ez izatearen beldurra da. «Alaba» emakumearen kreaioaren sinboloa da berez, eta seme-alaba biologikoez aparte, amak maite duen edozein elementu izan daiteke alaba, hala nola pentsaera, zaletasuna, lagunak, eta abar. Eta kultura suntsitzaileetan latza egiten zaio emakumeari izaera propioa zaintzea, horretarako behar diren ausardia eta garra falta dituelako ama anbibalenteak.
2. **Ama eroria.** Ama horrek ezin dio presioari eutsi, eta umea abandonatu egiten du. Horixe bera gertatzen zaio ipuinean ahate amari, edo William Styron-en *Sophie-ren erabakia* nobelan protagonista Sophieri. Egun, ama solterek bizi duten zokoratzea da kulturaren presio latzaren kasu garbia. Tradizioz, emakumeek gizonaren eskutik onartu ohi dituzte kulturak ezartzen dizkien arauak, eta uko egiten diote propioa dutenari, haiek sortutakoari.
3. **Ama haurra edo ama ez mimatua.** Mimatua (maitatua) izan ez den ama hauskor bihurtzen da psikikoki. Amak maitasuna izan behar du, gero seme-alabak maitatu nahi badi-tu. Tradizioz, tribuko emakume zaharrenek betetzen zuten ama gazteak mimatu eta hezteko eginkizuna, eta, ondoren, erakunde erlijiosoek rol hori «amabitxi» bihurtu zuten. Gaur egun, emakumeak gero eta gehiago bizi du belaunaldiekiko deskonexioa eta babes falta; horrela, hauskortasun psikiko hori, ama haur izate hori, zuzen igortzen die seme-alabei. Emango dien heziketak haur mizkeak egingo ditu, behar duten maitasunaren faltan. Orduan, alabatxoak, ama izatean eta bere kabuz jarduten duenean identitate bila, unea aprobeitza dezake, garaian bilatu ez zuen identitatea bilatzeko.
4. **Ama sendoa, alaba sendoa.** Hala izaten da emakumeak barruan daraman ama gaztea amultsuki mimatzen duenean, inguruko emakume jakintsu eta helduek lagunduta. Ama basatiaren kontzeptua beti presente izan behar du. Zaila izaten du, hala ere, txikitari ama suntsitzailea izan duen emakumeak bere barruko amaren berreraikuntza hori egiten.

Ipuinak aditzera ematen duen **ahate itsusiaren sindromea**, hots, behar ez den tokietan behin eta berriz identitatearen bila jardutea, barruko ama ez seguruak eragindako irrika da. Niak (egoa) nola edo hala komunitate bat aurkitzeko nahiak urrundu egiten du emakumea berezko identitateak, Emakume Basatik, sormen naturaletik, emakumea bera indarge utzirik.

Emakume erbesteratuak, kultura propioaren bila diharduenak, ez badu hura aurkitzen, antzeko kultura asmatzeko ahalmena emango dio intuizioak, kultura propio hori aurkitzen duen arte, eta bitartean, intuizioaren indarrak egoera berriak tentuz arakatzeko adina amore emango dio, egoera latzaren erdian. Ipuinean, ahate itsusiak beti egiten du aurrera. Otsoak egiten duen legez, izaera naturalaren berezitasuna da aurrera egin nahia, **pertseberantzia**. Eta borrokalariari bizitza basatiak saria gordetzen dio: ipuinean bezala, neguaren ostean beti dator udaberria.

**Norbere edertasuna onartu beharra** da ahatetxo itsusiak ondorioz bizi duen zailtasuna, inguruko kulturak baztertu egin baitu. Arazo hori bizi duen emakumeak ezin ditu balorazio positiboak aintzat hartu, mesfidantzaz jarduten duelako. Barruko amak ez dio behar zuen babesa eman. Ahatetxoaren ipuineko azken fase honetan, kultura propioa eta komunitate propioa aurkitzeak identitatea ematen dio emakumeari, eta baita norberaren edertasuna onartzea ere.

**Iruzkina**

Andersen en ipuinaren gainean, ahatetxo ar bat oinarri hartuta, Pinkolak emakume batek behar duen identitate propioaren eraikuntza eta komunitate propioaren aurkikuntza aldarrikatzen ditu; oso helburu zentzudunak, baina ipuinean gizonezko itxura daukan animalia bati zuzendutakoak. Ipuin klasikoetan ere (Bettelheim) **sarbide-prozesu guztiz autonomoak soilik gizonezkoentzat** daude gordeta. Ez dagokio, beraz, ipuin hau komunitate eta identitate propioaren bila borrokan dabilen emakume «basatiari».

Ahatetxoaren ama «ama eroritzat» dauka Pinkolak, eta rol hori bai dagokio emakumezko bati ipuinean. Hortaz, ipuinean agertzen diren **emakumezko izakiek funtzio negatiboa** jokatzen dute soilik (hala nola baserritarraren emazteak), edo funtzio zerbitzaria (zisne emeek ahatetxo itsusiari merezi duen duintasuna berreskuratzen laguntzen diote).

Ipuinak darabilen gaiaren gaurkotasunari begira, ordea, gaia emakumezkoei dagokie gehienbat. **Itxura fisikoak emakumeak diskriminatzen dituelako** bereziki, gure kulturari.

**3.7.2. Zigoto erratua**

Zigoto erratuaren sindromeak emakumeen berezko konplexua adierazten du, hain zuzen, zergatik jaio den hain familia arrotz eta bihozgabeen. Emakumea bera saiatzen da zintzoa izaten eta ondo moldatzen tokatu zaion ingurunera, familiara batez ere. Baina **arrazoizkoa izan beharrrak indar gehiegi kentzen dio** eta sormen gutxiegi uzten. Honela dio Pinkolak berak asmatu-riko ipuinak:

«Zigotoen Maitagarria zure herriaren gainetik zebilen hegan, saskia zigoto alaietz beteta zeramala, eta familien banaketa zuzena egitera zihoala, hara non borrhaska batekin egiten duen topo Maitagarriak, eta zas!, erori egiten zara saskitik okerreko familiaren etxera. Horregatik maitemindu zara zurea ez den familiarekin, oso bestelako ohitura eta baloreak dituen familiarekin. Zuk maitasuna bakarrik eskatzen diezu; eta haiek zuri, ordea, bakea. Arazoa etxean zigoto basatia dutela da. Eta zu bezala basatia ez den familiak gauza bakarra bilatzen du zuregan: kontsekuente izatea, gauza garrantzitsuetan bada ere. Kontua da familiaren irizpidea eta zurea ez direla berdinak, garrantzitsua zer den erabakitze».

**Interpretazioa**

**Jokaera kontsekuentea ezinezkoa da** emakume basatiarentzat, indarra moldagarritasunetik ateratzen baitu, aldaketak ematen dion aldatzeko gaitasunetik. Ezin dio jokaera uniforme bati heldu, izaera basatia gorde nahi badu, horrekin soilik baita kontsekuente. Ildo horretan, haurrentzat sozializatzea oso garrantzitsua izanik ere, barruko «izakia» (izaera basatia) hiltzeak haurra hiltzea esan nahi du, mendebaldeko afrikarrek dioten legez. Haietzat, haur batekin gogorra izateak arima gorputzetik aldentzea dakar: batzuetan, pauso bakar batzuk; besteetan, hainbat eguneko bidea. Horregatik, ondoegi jokatzen duten haurrek arima koldarra adierazten dute. Arima hori berreskuratzeke, beharrezkoak dira samurtasuna eta edertasun basatiari zor zaion maitasuna, eta horretan dihardute kultura zaharreko hainbat jainkosak, hala nola *dine*-tarrren Emakume Armiamak, eta baita Hiru Gorulariek ere. *Coatlicue* jainkosa aztekek, bide batez, babesa eskaintzen dio emakume arrotzari, hau da, gure zigoto erratuari.

Zigoto erratuak ondo ikasten du bizirauten, baina ez da nahikoa. **Sortzeari eman behar dio** zigoto galduak, nortasuna garatu nahi badu. Eta sortzen hasteko ondo ulertu behar ditu haurtzaroak ezarri dizkion muga kultural horiek; beraz, familiak eman dion jarraibide estua gainditu behar du, bere burua horren gainetik baloratuz. Bere burua onartzearekin batera izaera propioa eraikitzen hasten denean, atzean utziko du haurtzaroa, eta haurtzaro hura perspektiban ikustera joko du, mirespenez, eta baita izan ez zenaren penaz ere. Utziko du, behingoz, zigoto erratu sentitzearen konplexua.

#### **Iruzkina**

Neska gazteak **familiaren gainetik nortasun propioa eraiki** behar du, kultura moldatzaileak bereziki emakumeari ezartzen dion presioa gaindituz. Oso xede zentzuduna adierazten digu Pinkolaren kontakizunak, emakumeak familian bizi duen inhibizioari erreparatuz gero. Ipuin klasikoekin alderatuz gero, nabarmena da haietan familiak (gurasoek) alabari ezartzen dioten presio izugarria. Bettelheimen interpretazioan, aldiz, familiak neska gazteari nortasuna garatzeko lagungarri zaizkion ereduak erakutsiko dizkio (*Errauskinen*, adibidez).

### **3.8. TXIMELETA: GORPUTZAREN POZA**

**Gorputz femeninoa, berez, jakinduriaren tresna da;** mugikortasunaren eta sentikortasunaren bidez, ingurua eta barrua ezagutzen ditu, eta erantzuna ematen eta egoerak auresaten ikasten du. Gorputzak hizkuntza propioak erabiltzen ditu egoerak adierazteko; eta gainera, gorputzaren atal zein azpialal bakoitzak oroimen zoliaz gordetzen du bizi duen guztia. Emakumearen instintuak gorputza eta espiritua baloratzen ditu, horiek erakusten duten bizitasunagatik, erantzuteko eta erresistentziarako ahalmenagatik, kanpoko itxuragatik baino gehiago. Kontuan hartzekoa da irizpide kulturalak okertu duela emakumea, gorputza baloratzeko orduan.

**Kulturak emakumeak gorputzaz duen ikuspegia deformatu du;** edertasun estandarra inposatu dio; baina, baita ere, ohiko genero-zapalketak elikadura-nahaste suntsitzaileak sortu dizkio, eta horrek bultzatu du emakumea gorputza deformatzera, hein handi batean. Ondorioz, emakumeak autoirudia are okerragoa du. Galdu egin ditu konstituzio naturalak eman dizkion berezko dohainak: jakinduria, indarra eta, jakina, aniztasuna. Izan ere, gorputzak askotarikoak izatea naturala da, ingurunerako egokitzapen nabaria. Eta harro sentitu beharko luke emakumeak, arbasoengandik jasotako gorputzera bitxiarekin.

Aurreiritzi kultural suntsigarria da oso, era berean, espiritua gorputzaren **gainetik eta gorputzarengandik bananduta** jartzea. Pentsaera hori tradizio indoeuroparrak ezarri zuen, eta ez du gorputzaren balioa ikusten uzten. Izan ere, gorputzak psikea elikatzen du, bizia ematen dio, eta kontzientzia izateko beharrezko diren sentimenduak pizten ditu. Beraz, gorputzarengan aurkitzen dugu kontzientzia, espiritua. Hona hemen, horren adibide, Pinkolak kontatzen digun kasu bat.

«Mexiko Berriko Puyé eskualdean *Anasazitarrak* bizi ziren, eta oraindik ere erritu berezia mantentzen dute, turismoak ikuskizun bihurtu duena. Dantza eta musika tradizionalaren artean, ikuskizun berezia *Tximeletaren dantza* da. Aldaka zabaleko emakume biribil zaharra ateratzen da plazara, eta, tximeleta-itxurako abaniko lumatsuaz, han jartzen da saltoka eta biraka. Gaitasun transformatzailea du, eta, tximeletaren polinizazioaz, ukitzen duen guztia ongarritu egiten du, fertilizatu egiten du. Andre tximeletak Emakume Basatiak eman dion gorputzarekin natura-

ren transformazio orekatua irudikatzen du, dantzaren bidez, eta jendea ere ukitzen jarduten du, ikusleek haren emankortasuna beregana dezaten».

### Iruzkina

Aldarrikapen sakona da gorputzarena, emakumearentzat, gure kulturaren. Tximeletaren dantza egiten duen **emakume zakarrak kontraste bortitza eskaintzen du ipuin klasikoetako protagonista diren printzesa fin eta ezin ederragoekin** (hortaz ez da batere mintzo Bettelheim analista). Pinkolak emakumearen gorputzera kontsumistarekin puskatzen du ipuin honetan, batetik; eta emakumeak beharrezko duen gorputzaren erabilera naturala aldarrikatzen du, era sakonean, bestetik.

**Gorputzaren eta espirituaren dikotomia apurtzen du** kontakizunak, gure kulturaren hain erroturik dugun aurreiritzia, hain zuzen. Platonengandik gaur arte espirituak guztiz mendean hartu du gorputza, eta, ebidentzia horren aurrean, Pinkolak bien arteko integrazioa eskatzen du. Ipuin klasikoetan zigor fisikoak eta gorputzaren mutilazioak ugariak dira, baina batez ere emakumeen kasuan; hala nola amaorde gaiztoek, ahizpa jeloskorrek eta sorginek jasotzen dutena, eta baita neska protagonistak kasuren batean ere (*Zapatatxo gorriakeko* neskatxak oinak mozten ditu, eta *Zerri sorginduako* andregaiak hatza mozten du).

### 3.9. ZAPATATXO GORRIAK: KONTSERBAZIO INSTINTUA

**Emakume piztia** basatasun psikikoa galarazi eta otzandu zaion emakumea da, eta, ondorioz, agertzen duen sortzeko gogo neurrigabeak tranpa sozial errazetan erortzera eramaten du. Ikus dezagun Hans Christian Andersen-en ipuin honetan emakume piztiak sor gordetzen duen arrisku bizia.

«Bazen behin neskatxa umezurtz txiro bat, zapatarik ez zuena. Aurkitzen zituen zapata zaharrak biltzen zituen, baina behin zapatatxo gorrixka batzuk josi egin zituen. Baldarrak izan arren, gustuko zituen, eta aberats sentiarazten zuten; eta haiekin joaten zen basora janari ziztrinaren bila. Behin, ordea, gurdi dotore batean zihoan amonak harenera etortzea eskaini zion, alabatzat hartuko zuela. Hala, neskatxa amona aberatsarekin joan eta handik aurrera fin eta dotore jantzi zuten, zapata beltzekin gainera. Penatuta zegoen neska, hala ere, jantzi zaharrak bota zizkiotelako eta, haiekin, hark jositako zapatatxo gorriak, hainbeste maite zituenak. Harrezkero jokabide zorrotza eramatera behartu zuten.

Urteak bete zituenean, Sendotza hartzeko eguna heldu zitzaion, eta amonak zapata berriak eroztera eramane zuen. Erakusleihoko larru oneko zapata gorriak aukeratu zituen, amonak ikusmen motela zuela aprobetxatuz. Biharamuneko elizkizunetan jende guztia, baita elizako ikonoak ere, hari begira zituen gaitzespenez, hain ziren eta nabarmenak zapata gorri distiratsuak. Ospakizunaren ostean, amonari jendearen kexua heldu zitzaion, eta, horregatik, debekatu egin zion erabat zapata horiek gehiago janztea. Baina heldu zen igandeko meza, eta tentazioari ezin eutsirik, berriro jantzi zituen zapata gorritxoak. Elizaren sarreran zegoen zauritutako soldadu zahar batek, zapatak garbitzeko aitzakiarekin, zolak astindu zizkion leunki, kanta bitxi batekin batera. Hain pozik zegoen, ezen zapatatxoei ez beste ezeri ez baitzion erreparatzen, baita eliza barruan ere. Irteeran, soldaduak «zein politak dantzarako zapatak» oihukatzearekin bat, neskatoaren oinak dantza etengabeen hasi ziren, eta han abiatu zen herriko kaleetan zehar era askotako dantzak dantzatzuz, bizi-bizi eta jauzika. Lortu zuten azkenean amonak eta gurdi-gidariak neskatxa harrapatzea, eta etxeratu orduko, amona hark betiko debekatu zion zapatak ukitu ere egitea; horretarako, apal altuenean gorde zituen.

Amona gaixo jarri zen batean, alabaina, neskatoak ezin izan zion irrikari eutsi, eta, apal gainera igota, zapatak berreskuratu zituen. Oinetan jantzi orduko, dantzarako grinak neska harra-patu eta han eraman zuen eskaileretan behera, kaleetan zehar, berriro ere. Neskata zorion betean sentitzen zen, baina konturatu zenean zapatek agintzen zutela eta ez hark, larritzen hasi zen. Zelaian zehar, lohiaren erditik baso iluneraino eraman zuten neskatoa. Han soldadu zaharrarekin egin zuen topo, eta «a zer oinetako politak dantzarako» errepikatu zion. Hantxe bidali zuten zapatek neska dantza bizian mendi eta haranetan zehar, hotz eta berotan; eta gau osoa emanda, egunsentian oraindik dantza beldurgarri hartan jarraitzen zuen. Hilerrri batera iritsi zen, eta atarian espiritu batek madarikazioa bota zion: hil arte horrela segituko zuela, eta jendeak haren patu miseralea izateko beldurrez begiratuko ziola. Dantzan jarraitu zuen handik-hemendik etxerako bidean. Etxean, amona hil zela ikusi zuen, baina neskak ezin zuen geratu eta oinetakoek borreroa bizi zen basoraino eraman zuten, oraingoan. Borreroari oinetakoen sokak mozteko eskatu zion, baina dantzan jarraitu zuten oinetakoek. Orduan, oinak mozteko agindu zion, eta halaxe egin zuen borreroak. Han abiatu ziren haren oinak basoan barrura dantza etengabe. Handik aurrera, besteren zerbitzari elbarri ibili zen neskatoa, eta galdu zuen betiko zapata gorriak izateko gogoan».

## Interpretazioa

Bukaera beldurgarriek, ipuin tradizioaletan, mezu sakona ikasteko premia adierazten dute, eta, horregatik, alderdi emozionalean eragiten dute. Ipuin honetan, **basatasun erreprimituak** pizten dituen desio tranpatien beldur izateko eskatzen dio emakumeari, arimaren goseak emakumeari kontrola galarazten baitio. Ipuinean, eskuz egindako zapatilek bizitasun naturala adierazten dute, eta zapata beltzek bizimodu otzandua. Oinak askatasunaren sinbolo izanik, ipuinak adierazten du bizimodu otzanegiagatik galdutako bizitasunak noraino bultzatzen duen emakumea bere askatasunaren kontrola galtzera, eta, ondorioz, askatasuna bera galtzera. Alabaina, Pinkolak adierazten digunez, porrotak arrakastak berak baino gehiago irakasten du, eta «dantza madarikatua» ibili duen emakumeak berak eskarmentuaren argia bizi du.

**Eskuz egindako zapatatxo gorriek** emakumearen egoera naturala irudikatzen dute: instintiboa, pasiozkoa eta sortzailea. Hizkuntza arketipikoan, **zapatek** autoritatea, biziraupena eta babesa adierazten dute, batetik; eta bestetik, **oinak** babesten dituztenez, askatasunaren defentsa ere esan nahi dute. Horrez gain, **kolore gorriak** pasioa eta sakrifizioa adierazten du. Hortaz, hori guztia kontuan izanik, uler dezakegu neskatoaren gatazka zein den: bizitza pasiozkoa eta borrokatua bizitzeko askatasuna galtzen du; eta horrek irrika obsesiboa sortzen dio askatasuna beste era batera berreskuratzeko, hau da, emozio arrunten bidez. Emozio arruntak bizitzaren tranpa bihurtzen dira. Ikus ditzagun **tranpa motak**:

1. **Urrezko gurdia.** Bizitzaren erosotasuna irudikatzen du, eta limurtu egiten du erraz, garraioaren kultura bizi duen gizartean. Baliabide eta erosotasun materialaz gain, sormenezko bizitzak eskatzen duen sakrifizioa gainditzeko nahia adierazten du, bizimodu erraz baten bidez. Urrezko gurdia niak emakumeari etengabe eskatzen dion bizi-hobekuntza da. Jungentzat, emakumeak helduaroan uzten du albora sormenezko bizitza, hots, «arima». Hala ere, kultura lehiakor eta kontsumistan edozein arotan gertatzen zaio emakumeari galera hori, gero eta gehiago.
2. **Amona zurruna.** Sinbologia arketipikoan jakinduria eta transmisioa irudikatzen du amonak, eta horrekin, jarraibidea zein den eta zein diren ez betetzearen ondorio txarrak. Ipuinean, amonak, zurruna izanik, bi funtzio betetzen ditu: batetik, komunitatearen pentsaeraren zaindaria da; eta bestetik, neskatoaren galeraren iragarlea. Komunitatearen

ikur arketipikoa **eliza** da, eta norbanakoaren gainetik uzten du tradizioak, ipuinean nabarmen ikusten denez. **Norbanakoak, aldiz, arima basatiaren eskakizuna lehene-tsi behar du.** Horrek komunitatetik bereizteko eskatzen dio, eta, soilik norbanakoak, hots, emakumeak, hala erabakitzen duenean, zubiak eraikitzeke beste kideekin. Modu horretan, ez du galduko hain propioa duen sormena, historian kulturak emakumeari hainbeste debekatu dion sormena. Ipuinean, amona zurrunaren bidez, komunitatearen jarraibide boteretsu, soil eta errazak limurtzen du emakumea, eta horrek denboraren joan-etorrian emakume piztia izatera kondenatuko du.

3. **Arimaren gosea.** Arimaren gose bizia sentitzen du emakumeak, bizimodu estuaren zuloan sartuta sentitzen denean. Orduan, desesperazioak bultzatuta, estimulu naturalarekin antza duten estimulu tranpatietan eroriko da; analogia hutsagatik, beraz. Instintuek lagundu egiten diote emakumeari ametsetan, gatazkarekin sinbolikoki jolastuz, emakumea kontziente egiteraino. Gehiegizko goseak emakumeari kontrola galarazten dio, eta neurrigabeko irrikaz ekiten die estimulu tranpatiei, otsoak ehiza neurrigabeari ematen dion bezala gose-aro latzaren ondoren. Horrela, droga sasibasati guztiei ematen die, hala nola alkoholari, kontsumismoari, promiskuitateari, ikasketari, diziplina estuari, eta abar; beste modu batean esanda, zapatatxo gorriei.
4. **Kontserbazio-instintuaren galera.** Emakume batek izaera basatia larregi otzantzen duenean, irrika horiek inkontzientean alderdi ilunenean gordetzen ditu. Egoera horretan, emakume piztia bihurturik, sentikortasuna eta grina itzalita izango ditu, edo gehiegi piztuta, eta ez du bere buruaren iraupena zaintzen jakingo. Hainbat emakume piztiaren kasu ezagunak ditugu, hala nola Janis Joplin, Edith Piaf, Marilyn Monroe, Bessi Smith eta Frida Kahlo, besteak beste.
5. **Bizitza ezkutua eraman nahia.** Emakumeak (niaz eta superniaz) berezko instintu eta bulkadak erreprimitzen dituenean, horiek inkontzientean gordetzen dira, presio eginez; eta azkenean presioa handiegia bada, eztanda betean azalera daiteke ilunpean gordetakoa. Beraz, komeni zaio emakumeari erreprimiturik daukana bizitzara pixkanaka ateratzea. Berezko energia inkontzienteko itzalen mundura desbideratzen duenez, emakumea bizitza bikoitza eramaten hasten da. Existentzia sekretu horrek ageriko existentziari denbora, afektua eta energia lapurtzen dizkio. Horrela engainatzen dute emakumeek. Arimak errealitatetik behar zuenari uko eginez, mila ordezkorekin jolastuten dute psikearen barruan, itzalen munduan. Pinkolaren esanetan, bizitza desiratu ezkutatzek eragin positiboa du, soilik inkonformista izaten laguntzen badio eta, beraz, bizitza hori gauzatzera bultzatzen badu emakumea. Horrela, emakumeak saihestu egingo ditu estimulu suntsitzaileak, «zapata gorriak», psikeko depredatzaileak edo kulturak jartzen dizkion tranpa errazak direla ohartuko baita, inkonformista delako.
6. **Komunitatearen bortxa.** Emakumeak etsi egiten du kulturaren aurrean, edo haren barneratzea den superniaren aurrean. Bizitza basatia zapaldu egiten zaio, eta emakumea bera bihurtzen du kulturak zapalketaren eragile; presioaren ondorioz, beste emakumearen salatzaile izatera murrizten da, berezko duen bizitza basatia etsai hartuta. Bortxa hori gainditzeko, Emakume Basatiak ematen dion borrokarako gogoaz baliatu behar du, ahatetxo itsusiak bezala, dagokion komunitatea eta kultura aurkitu arte edo, besterik ezean, berak berria sortu arte. Eta bitartean, saihestu egin beharko ditu jartzen dizkion estimulu suntsitzaileak, «zapata gorriak», **inkonformismoaz** saihestu ere.
7. **Anormaltasunaren normalizazioa.** Emakumeak ezin du egoera makurtu horretan txintxo portatu, besterik gabe, ezkutuko itzalak hozka egiten diolako. Egun, emakume modernoak abnormaltasuna (egoera alienatua) normalizatu nahia bizi du, eta horrek nahaste sakona eragiten dio. Joera hori kontzientea izan daiteke, edo baita inkontzientea ere, hau da, kontrolagaitza. Hala denean, **etsipen ikasia** gertatzen da: emakumeak ikasi

egiten du ahula izaten, mendekoa, eta besteek diotena psikeak dioenaren gainetik estimatzen du. Tentsio horrek eragiten dion nahastea bere erruzkotzat hartuta, nahaste hori ezin gainditurik sentituko da, eta gutxiagotasun-komplexuan murgildurik. Psikean erreprimitutako indarrari gehiago eutsi ezin dionean, ordea, estimulu tranpatian eroriko da emakume etsitua, hots, «zapata gorrietan». **Tratu txarren aurreko mendekotasuna, esaterako**, era horretan azal daiteke.

Gaitza sendatzeko, Pinkolaren gomendioa da emakumea jabe dadila bere buruari errepresioarekin egiten dion kalteaz, bi norabideetan hartuta errepresioa: kanpotik ezartzen dena; eta gero, emakumeak berak barrenetik onartu duena.

8. **Obsesioa eta adikzioa.** Emakumeak hainbeste erreprimitu duenean bizitza instintiboa, bizimodu anormala normalizatzeraino, ezkutuko grina obsesio bihurtzen zaio; eta estimulu tranpatiak, adikzio suntsizaile. Dagoeneko galdu du intuizioak estimuluak identifikatzeko zeukan zolitasuna, horrenbestearaino makaldu baitzaio izaera instintiboa.

Kulturari ez zaio komeni biziera basatia, kontrolagaitza. Horregatik, kulturak emakumeari jarrera normalizatua ezarri nahi dio; beraz, **adikzioetara bultzatzen du**, eta ekintza instintiboen ordeaz, analogiazko jokaera onartuak bilatzen ditu emakumeak, obsesiboki. Horrek **neuro-sian edo drogetan murgiltzen du; eta luzarora, psikosian**. Emakume piztia hori, bere grinen kontrola galdu duena, ezin da, ordea, beste emakumeen eredu zuzena izan, artista sortzaile puntakoa izanagatik ere (Janis Joplin eta Frida Kahlo, esaterako), biziera basatia berreskuratzen ez duen bitartean, hots, sendatzen ez den bitartean. Izan ere, sendatzea lortzen ez badu, bere burua suntsituko du azkenean, eta besteen etsipena eragingo du.

Alienazio hori sendatzeko, emakumeak askatu egin behar ditu barruko eskakizun basatiak, ardurazko neurriak aurretik hartuz, inguruarekiko harremana okertu ez dezan. Zailtasuna *etsipen ikasitik* datorkio, horrek inozo eta konformistegi bihurtu duelako. Baina beti gordeko du ezkutuko indar basatiaren arrastoa, Emakume Basatia, eta horrek lagundu egingo dio, indartzen joan ahala. Bitartean, emakume indartsuen gidaritza onartu beharko du, jarraibideari eusteko. Charles Simic-ek dioen eran, «ulu egiten ez dakienak ez baitu aurkitzen taldea».

### **Iruzkina**

«Zapatatxo gorriak» nola hala berreskuratu nahi dituen emakumeak zigor zitala jasotzen du: mutilazioa, hots, askatasun materiala galtzea. Kapa eta txano gorriek Txanogorritxorentzat, edota sagar gorriak Edurne Zurirentzat, alegia, **gorritasunak (grina sexualak) emakumearentzat, bekatua adierazten dute**; eta zigor latza dakar berarekin. Gizonezkoarentzat, ordea, boterea eta askatasuna lortzeko bidea adierazten dute sexu-grinaren sinboloek (Jacken baba-haziek eta makilak, edota Ergelen apo berdeak).

Pinkolaren interpretazioak **emakumearen bizimodu basatiaren alde** egiten du, jatorriz dauzkan sormenez eta askatasunaz baliatzearen alde; eta horri, biziera erosoago batengatik, uko egin izanaren kalteaz dihardu. Ipuin klasiko guztietan, berriz, zigortu egiten da neska gaztearen irrika basatia.

Pinkolarentzat, instintuak erreprimitzeak (zapata beltzak janzteak) nortasunaren kaltea ekarriko dio emakumeari, epe luzera. Horregatik **nahi propioa komunitatearen eskakizunen gainetik jarri behar du**, horrek borrokatzea eskatzen badio ere; eta jarrera inkonformistaz aldarrikatu behar du desio basatiak galdu duena, saihezbideei uko eginez. Planteamendu horrekin, Pinkolak kultura moralistaren (errepresioegilea), kontsumistaren (erosozalea) eta eszeptikoaren (drogak eta desesperazioa) kritika egiten du; eta, inplizituki, hortaz, **kultura alternatibo baten alde**. Kritika kultural horrek, ordea, talka egiten du *Andre besamotza* ipuinean kulturarekiko azaltzen duen jarrera konformistarekin (3.15. atalean).



### 3.10. FOKA-LARRUAZALA: BERE BAITARATZEA

Emakumearen ziklo naturalik garrantzitsuen **bere baitaratzea** da, berera itzultzea, etxe naturalera, arimaren etxe basatira. Ipuin hau itsaso izoztuak dituzten herrietan kontatu ohi da, Pinkolaren esanetan.

«Izotzaren lurraldean gizon bat bizi zen, bakar-bakarrik, lagunak aspaldian galduta. Gau batean, ilargiaren argitan ehizan zebilela, izotz-mendi batean emakume eder batzuk ikusi zituen dantzari, larrugorrian, haren harridurarako. Hurbilduz zihoala, emakume horietako baten foka-larruazala lapurtu zuen. Emakume biluziak, ostan, nork bere foka-larruazala hartu eta, jantzita, han murgildu ziren berriz ere itsasoan, pozaren pozez; denak, luzexkoa zena izan ezik. Larruazalaren bila eta bila ibili zen, baina aurkitu ezin. Gizona agertu zitzaion, eta, larruazala erakutsiz, bakarrik zegoela eta emaztetzat hartzeko eskatu zion. Emakumeak ezetz, itsaspekoa zela, bestelakoa. Gizonak, segidan, promes egin zion zazpi udaren buruan larruazala itzuliko ziola, bitartean harekin geratzen bazen, eta orduan erabaki zezala itsaspora itzuli ala haren ondoan geratu. Emakumeak onartu egin zuen gizonaren proposamena. Elkarrekin jarri ziren bizitzen, eta Ooruk ekarri zuten mundura, seme kuttuna. Hari amak naturaren mirariak erakutsi zizkion, batez ere itsaspeko izaki bizidunen joan-etorriak.

Hala ere, denbora joan ahala, amaren haragia lehortzen hasi zen, gorputza zimeltzen eta ikusmena ahultzen. Gau batean, aita-amen ahots lazgarrien eztabaidak esnatu zuen Ooruk. Emakumeak larruazala itzultzeko eskatzen zion gizonari, igaro zirela zazpi udak. Gizonak erantzun zion alde egin eta bakarrik utziko zituela hura eta semea. Haserre, hanka egin zuen ehiztariak, eta semeak negarrari eman zion, amaren galerak izutzen baitzuen. Loak hartu zuen semea. Halako batean, oihu sakonak esnatu zuen; haren izena abesten zuen oihuak. Altxatu eta han abiatu zen, presaka, itsasaldera jarrita zegoen amildegira. Handik fokatzar handia begiztatu zuen itsaso zakarraren erdian. Aurrera jarraitu eta fardel batekin egin zuen estropuz, hain zuzen, amarena zen foka-larruazalarekin. Arroka gainetik jauzi, eta etxera itzuli zen amaren usain goxoa zerion larruazala hartuta. Etxean, amak pozarren hartu zituen biak. Segidan, larruazala jantzi eta, semea besapean hartuta, itsasaldera abiatu zen. Han, ertzean, zalantzan ibili eta gero, haurrari arnasa eztea sartu zion biriketean, eta itsasperaino murgildu zuen berarekin. Igerian, mundu zoragarri horretako izaki guztiak erakutsi zizkion, eta baita lehen ikusitako fokatzarra ere. Foka handikoteak, umea besoetan hartuta, biloba deitu zion, eta emakumeari, alaba deitzearekin batera, lehorraldean nola joan zitzaion galdetu zion. Emakumeak aitortu egin zion senarrari utzitako hutsunea, eta baita haurra lehorrera itzuli beharra ere. Fokak eta emakumeak elkarrekin egin zuten negar. Zazpi eguneko egonaldia gozoaren buruan eta emakumeak gorputzaren sendotasuna berreskuratuta, Ooruk kanpora eraman zuten amak eta aitonak, eta han utzi zuten leunki arroaren gainean. Agurtzeko, amak zin egin zion semeari beti ondoan izango zuela, eta horretarako, aski zuela amaren tresnak ukitzea, kantuan egiten jakiteko. Hantxe geratu zen Ooruk, bakarrik, ez baitzen oraindik haiekin joateko garaia iritsi.

Harrezkero, kantari eta ipuin-kontalari fina izan zen mutikoa, esaten dutenez, foken espiritu handiek irakatsi ziotelako txikitari. Eta han ibiltzen omen da arroka batean kayaka lotu eta belauniko jarririk foka bitxi batekin solasean, begirada oso-oso bizia duen foka batekin».

#### Interpretazioa

Foka, berez, arima basatiaren sinboloa da. Gainera, ipuinean, **emakume foka** (arima) mutikoaz (espiritua) erditzen da, eta mutikoa elikatu eta indartu egiten du, bere kabuz bizitzan au-

rrera atera ahal izateko. Semea gizon ehiztariarekin (nia) izaten du, gizonaren eskakizunetara makurtu delako. Emakumeari larruazala (izaera instintiboa) lapurtzen diote, eta berreskuratzeko **etxera itzuli behar du**, itsasora (bizitza basatira).

Ipuina interpretatuz, ikusten da **emakumeak gizarteak eskatzen dion nortasun zerbitzaria eraikitzen duela: *egoa (nia)***, hain zuzen. Niak lapurtu egiten dio emakumeari energia naturala, esplotatu egiten duelako gizartearen mesedetan. Bitartean, niaren bidez intuizioa gartuko du, emakumeak munduan duen tokia eta berez dagokiona ondo uler ditzan, eta horrela bere burua babesteko. Intuizioaren bidez, ondorioz, munduarekiko lotura eta psikearen izaera naturalarekin daukan berezko lotura mantendu egingo ditu. **Emakumeak gizartearen bizimodu menderatzaileagatik galtzen duen izaera naturala berreskuratu egin behar du**, aldiro, bere baitara bidaia espirituala eginez, jatorria duen bizitza naturalaren bila. Horrela, intuizioaren bidez gizartean dagokion tokira itzultzen denean, indarberiturik eta konfiantzaz beteta itzuliko da.

### Iruzkina

Pinkolaren interpretazioan, berriz ere **gizona agertzen da psikearen alderdi iluna adierazteko, emakumearen alderdi ego-ista**, gizartearen indar menderatzailea. Gizonak emakumeari foka-larruazala lapurtzen dio, hots, izaera instintiboa, emakumearen babes naturala. Emakumeari, ondorioz, berezko izaera naturala aitortzen zaio, eta gizonak emakumearen alienazioa ordezkatzan du, beharrezkoa emakumea mundu sozialean integratzeko, baina alienazioa, azken finean. Niak ari-mari, hau da, gizonak emakumeari, promesa faltsua egiten dio, aske utziko duela zazpi urteren buruan, alegia. Eta ez du bete nahi, bakarrik geratzeko beldur delako. Gizonaren berezko alderdi maltzurra eta subordinatua nabarmentzen dira, horrela. Kontraposizio horrek **Pinkolaren ikuspuntu subjektiboa eta estereotipatua** salatzen du, analisi horretan; eta M. Meaden ikerketak erantzungo dio 4.2. atalean.

**Intuizioak** (espirituak) emakumea (arima) munduaren alienaziotik askatuko du, ederki ikasi duelako konpentsatzen alienazioak uzten dion hutsunea psikean gordetzen duen bizitza instintiboarekin. Intuizioak (emakumearen **espirituak edo semeak**) ni bitartekari-aren rola jokatzen du, emakume naturalaren eta kanpoko munduaren eskakizunen (niaren) artean. Ipuinean, intuizioak itsasoaren deia entzuten du, eta amari larruazala ekartzen dio, itsas azpirako bidaia askatzailea egin dezan. Dei hori espontaneo izaten da, eta emakume bakoitzari garai propio batean pizten zaio. Pinkolaren iritziz, bizitza basatirako bide askatzaile hori bera agertzen da *Ederra eta Piztia* ipuinean. Halaber, Pinkolak «jostunaren ipuinean» adierazten duen eran, izaera naturalaren galera gerta daiteke instintuak zokoratu direlako, edo baita kulturaren jokamoldeak eskuratu direlako ere.

### Iruzkina

Pinkolak garbi egin arren, nekez bereizten dira, gizartean, izaera naturalaren galera eragiten duten bi faktoreak: instintuak zokoratzeko joera, batetik, eta kulturaren jokamoldeak eskuratzea, bestetik.

Egun, emakumeak arima basatirako **itzulera gehiegi atzeratzen du**, ordea; eta batzuetan sakrifikatu ere egiten du, gizartearen presiopean. Eta horrek kalte egingo dio haren nortasunari, eta baita ondorengo dituen seme-alabei ere, haiek nortasuna menderatzen ikasiko dutelako, *etsipen ikasiaren* mekanismoaz. Emakumeak bidaia basatia osatzeak, berriz, sendotu egiten du inguruko nortasuna eta, horrekin, seme edo alaba bakoitzaren indibiduoazio-prozesua.

Emakumearen itzulerak modu eta gradu asko ditu, norberaren arabera. Kontua andreak psikean gordetzen duen indar basatia berreskuratzea da, gizartearen erdian ahuldurik sentitzen denean. Kulturaren eragina erabatekoa da emakumearen ahultzean, Pinkolak berak baieztatzen duenez, sendatzaile eta zerbitzari handiaren arketipoa ezartzen baitio andreari, betidanik; eta hori ideal lortezina da. Horren aurrean **emakumearen konspirazioa proposatzen du Pinkolak, bidaia askatzailea egin dezan**. Bidaia horrekin, instintuekin lotutako jarduera sortzaileei ekiteko gogoia piztuko zaio emakumeari, eta horregatik artea praktikatzeko hasiko da, askotan. Instintuen mundura itzultzeak, gainera, lagundu egingo dio emakumeari bizi duen kulturari injustua dena ezagutzen eta diskriminatzen.

**Kanpoko mundurako itzulerak egokitzea eskatzen du:** emakumea mundu instintibotik gizartearen duen tokira itzultzen denean, Sokratesi gertatzen zitzaion bezala, friboloak eta hutsalak iruditzen zaizkio jendearen ohiturak, teknologia eta bizimodua. **Intuzioa** garatuta duelako lortuko du koherentzia ematea bere bizitzari, arima basatia eta ni praktikoa lotuz; ipuinean, semeak lotzen ditu ama eta aita. Semea bere kabuz molda dadin, amak erreminta funtsezkoak uzten dizkio: labana, sua pizteko zotzak eta totemak. Horiek naturaz baliatzeko instintuen gaitasuna adierazten dute. Gainera, **zazpi** eguneko (sarbide-prozesuen iraupen arketipikoa) ikastaldia eman du haurrak amarekin eta aitonarekin, itsaspean. Semeak, bakardadean, kontsulta egiten dio amari eta hark aholkuak ematen dizkio; hau da, intuizioak aztertu egiten ditu instintuen edukia eta interesa. Antzinako kulturetan, emakumeek toki sakratu propioa zeukaten gogoeta espirituala aurrera eramanez ahal izateko.

**Emakumearen ziklo naturalak sendotu** egiten dira andreak psikearen mundu instintiborako bidaia osatzen duenean, eta horrek bizitza orekan mantentzeko balioko dio; izan ere, gehiegikeriak baztertu egingo ditu eta gabezia nagusia, proiektu sortzaileak gauzatzeko behar duen indar afektiboa, aurkitu. Horregatik, Pinkolak mundu instintibora egiten diren bidaiei eta mundu instintiboari egiten zaizkion kontsulterei **ekintza ekologiko integral** deitzen die.

### Iruzkina

Gizarteak emakumeari ezartzen dion morrontzaren aurrean, Pinkolak **emakumearen konspirazioa** proposatzen du, bidaia askatzailea egiteko; hau da, bere baitaratzearen bidez instintuak berreskuratze, instintuen mundura itzultzeak lagundu egingo diolakoan emakumeari, bizi duen kulturari injustua dena ezagutzen eta diskriminatzen. Beraz, **kulturari aldaketa-beharra** suspertzen du Pinkolak, emakumearen barne-sentsibilitatean oinarrituz.

*Foka-larruazalean* emakumea komunitatearen (kulturaren) gainetik dago, hots, bere izaera komunitatearen eskakizunen gainetik gorde behar du. (Honi buruz, M. Meaden lana erabiliz, oharak egingo dira 4.2.2. atalean).

*Foka-larruazalean* emakumeak barne-bidaia egiten du, gizarteak gehiegi estutu duenean indarrak berreskuratu eta gizartearen **presio bidegabearen aurka** konspiratzeko. Ipuin klasikoetan, berriz, emakumeak barne-bidaia egiten duenean (*Edurne Zurin*, kasu), sarbide-prozesu bat burutzen du beti, gero gizarteak eskatzen diona betetzeko hobeto prestatuta egon dadin (printze baten ondoan bizitzea).

*Foka-larruazalean* emakumeak utzi egiten du gizona barne-bidaia burutzen duenean; ipuin klasikoetan (*Edurne Zurin*, esaterako), aldiz, gizon aproposa aurkitu ahal izateko egiten du barne-bidaia.

### 3.11. NEGARTIA, POSPOLO SALTZAILEA ETA URREZKO HIRU ADATSAK: BIZITZA SORTZAILEAREN ELIKAGAIA

#### 3.11.1. Negartia

Kontakizun hauek **sormena** dute aztergai. Sormena ere, Emakume Basatiaren dohaina da, *Ibaiaren azpiko Ibaiarena*. Sormenezko indar basatia jarioan dator, eta ibilgu egokia prestatu behar dio emakumeak, aprobetxatu nahi badu. Sormenezko bizitza haziz eta puztuz doa emakumearentzat, ziklikoki, ibai basatia bailitza. Emakumeak sormena eskastuta izan dezake, bai gaitasunak abandonatuta edukitzeagatik (ibaiaren ura, blokeatuta), bai gaitasunak konplexuek eragotzita edukitzeagatik (ibaiaren ura, pozoituta). Beraz, sormenak oreka ekologikoan dihardu ingurunearekin. Sormenaren indarra elkarreragin estuan dago emakumearen eta kulturaren prestutasunarekin.

*Negartia* ipuinaren jatorria antzinakoa da, zenbaiten ustez XVI. mendekoa, espainiarrek Mexikoko herri aztekak konkistatu zituztenekoa; Pinkolaren ustez, zaharragoa, ordea. Batzuen iritziz, protagonista Hernan Cortés-en maitale indiarra da, baina beste emakume zorigaiztokotzat ere hartu izan da, ipuinak aldaera asko dituelako Amerikan zehar. Hona hemen kontakizunaren mamia, aldaera guztietan:

«Noble aberats batek neska pobre baina ederra gorteiatzen du, eta emakumearen maitasuna irabazten du. Emakumeak bi seme ematen dizkio, baina gizonak ez du andrearekin ezkondu nahi. Egun batean, gizonak esaten dio Espainiara itzuliko dela familiak aukeratu dion emakume aberats batekin ezkontzera, eta semeak berarekin eramango dituela. Neska gazteak, minaren minez, garrasika ekiten dio gizonari, eta harramazka egiten dio, eta arropak urratzen dizkio. Haurrak hartzen ditu, eta ibaira doa korrika. Han, haurrak uretara botatzen ditu, eta ito egiten dira. *Negartia* belauniko erortzen da ibaiertzera, nahigabeak jota.

Horregatik, egun, esaten da *Negartiak* ibaiertza ibiltzen duela, adats luzeak airean, hatzak ur hondoan sartuz galdutako haurren bila. Eta horregatik, haurrek ez dute ibaira hurbildu behar gaua heltzen denean; izan ere, *Negartiak* bere semeekin nahas ditzake eta berarekin eraman, betiko».

Ipuin horren **Colorado aldeko aldaerak** dioenez, Pinkolaren hitzetan, «Negartia noble aberats batekin joan zen, ibaiaren behealdeko fabrika batzuen jabea zen noble batekin. Haurdunaldian, emakumeak ura edan zuen ibaitik, eta, ondorioz, haurrak itsu eta behatzak palmatuta jaio zitzaizkion, nobleak ibaia pozoitu egin zuelako lantegien kutsadurarekin. Gizonak, gertatua ikusita, errefusatu egin zituen andrea eta semeak, eta fabrikako produktuak gustuko zituen emakume aberats batekin ezkondu zen. Neska arbuiatuak haurrak bota egin zituen ibaira, bizitzaren oinazeak jasan ez zituzaten, eta penaz hilda, zerura joan zen. Zeruko atarian, ordea, San Pedrok eskatu zion, zerura sartu nahi bazuen, semeen arimak bilatu eta ekartzeko. Harrezkero, hantxe dabil emakumea ibaiertzean semeen bila etengabe, Negartiaren espirituak ur zikin eta ilunetako hondoak hatz muturraz miatzen dituen bitartean».

#### Interpretazioa

Kontakizunean, ibaiaren **urak kutsatu** egiten dira, eta emakumeak galdu egiten du bizitzeko grina. Interpretatuz, emakumearen sormena niak lapurtu egiten du, kulturak ezarritako

konplexu negatiboengatik edo kanpoko munduak zuzenean eragotzita. Kutsatze horrek sormenezko bizitzaren bost faseetako batean edo gehiagotan eragiten du: inspirazioan, kontzentrazioan, antolamenduan, gauzatzean eta mantentzean. Emakumeek beren baitan gordetzen dituzten **konplexu negatiboek** emakumeak berak sortze-lanaren aurrean duen balioa, zintzotasuna eta talentua jartzen dute auzitan. Eta hori estaltzeko, mila eta bat aitzakia asmatzen ditu, sormenezko ekintza aurrera eramane ezin duela justifikatu nahian. Emakumeak proiektu propioak aurrera eramateko behar duen **indarrari animus** deitzen dio Pinkolak, Jungen ildotik; eta konplexu negatiboak dira emakumearen animusa blokeatzen dutenak. Psikologia arketipiko klasikoaren ustez, animusa gaitasun maskulinoa da (emakumearen izaera kontrasexuala ere deitzen dio Pinkolak) eta, horregatik, emakume sendoek gizon sendoen irudiak dituzte psikean; animus ahula duten emakumeek, aldiz, gizon zaurituenak edota zauritzaileenak dituzte (gogora dezagun Bizarurdinen kontakizuna).

Pinkolaren esanetan, emakumearen animusak, gainera, **bitartekaritza** eskaintzen dio emakumeari, bere baitako eta berarengandik kanpoko munduen artean, hain zuzen ere; beraz, izaera basatiaren eta niaren artean (gogoratu emakume foka eta haren senarraren arteko harremana). Emakumearen psikearentzat animusa beharrezko osagaia da, orekatua izan nahi badu.

#### Iruzkina

Kontraesan ezinbestekoa dago Pinkolaren interpretazio horren eta foka-larruazalaren ipuineko interpretazioaren artean. *Negartian*, emakumearen bitartekari animusa agertzen da. Bitartekari izateaz gain, erabakitzailea ere bada animusa, eta, beti ere, gizonezko dohaina. *Foka-larruazalean*, aldiz, bitartekaria intuizioa da, ni-bitartekaria, emakume fokaren semea, amaren jakinduria adierazten duena; beti ere, emakumezko dohaina. Bi kasuetan, emakumearen berezko munduaren eta kanpoko munduaren arteko zubi-lana da gaitasuna, negoziatzaile iaio izatea. Pinkolak, ordea, genero eta konnotazio ezberdinak ematen dizkio. Harritzekoa da, ildo honetan, *Negartia* ipuinean erabakitasunaz gain, bitartekaritza ere gizonezko dohaintzat edukitzea Pinkolak, bitartekaritzari hain atxikita dagoen intuizioa emakumearen dohaintzat baldin badu, argi eta garbi, hasieratik. Ondorioz, zehaztu beharko litzateke Pinkolaren «gizonezko izaera boteretsu eta dialoganteak» niarekin ala intuizioarekin duen erlazio handiagoa. Polarizazio sexualak bultzatuta, Pinkolarentzat gizartearen joera arautzaile intelektuala (botereak eta arrazoiak eragindakoa) ezaugarri modernoa da, gizonezko kulturak sortua; beraz, arrotza zaio emakumezko izaera instintiboari, nahiz eta beharrezko osagaia izan animusa, psikea orekatua izan nahi badu. (M. Meaden lanarekin berriro aztertuko da polarizazio sexual hori, 4.2. atalean).

Ipuinean, emakume negartiaren maitale noblea (animusa) ustelduta dago, ez da jakintsua. Emakume baten **animusak** fidela, sendoa, argia, barneko eta kanpoko munduarekin sentikorra, etorkizunaren auresalea eta erabakitzailea izan behar du, Pinkolaren esanetan.

#### Iruzkina

Nabari denez, animusaren profil horri errazago egokitzen zaio Baba Yaga sorginak Vasalisari ematen dion burezur distiratsua (emakumearen intuizioa, beraz), emakume fokaren senar ehiztaria baino (emakumearen egoa).

**Animusaren ahuleziak** emakumeari ideia eta proiektu propioak baztertzea eragiten dio; hau da, ipuinean, semeak galtzea; eta ondorioz, bere buruarenganako konfiantza galtzea; ipuinean, penaz hiltzea.

**Animusa indartzeko**, lehenik, konplexuak alboratu egin behar dira (ibaiaren urak garbitu) eta, gero, sormena eta sormenezko proiektuak berrindatu (ibai hondoa galdutako semeen ari-mak berreskuratu). Animusa jaiotzetikoa izanik, Pinkolaren ustez, emakumeak garatu egin behar du, eta kulturaren eragin galtzaitetik libratu. Egileak dioenez, kulturak botere izugarria du emakumearen lana gutxieteko, eta, gainera, ez da gai gizonaren bitartekaritzarako gaitasuna ulertzeko. Konplexuak gainditzeak, beraz, emakumeak kulturaren eragina gainditzea esan nahi du. Hona hemen, emakumeak animusa indartzeko jarraitu behar dituen urratsak:

1. Emakumeak ideia eta lan propioagatik jasotzen dituen laudorio guztiak baliatu behar ditu elikagaiak bailiran, konplexuak uxatzeko.
2. Gertatzen den guztiaren aurrean erantzuna ematen ikasi behar du, pasibotasuna saihestuz.
3. Asmatzen duen oro kanporatzen ikasi behar du.
4. Arriskatzeak sortarazten dion beldurra onartzen ikasi behar du.
5. Bere buruarentzako beta zaindu behar du.
6. Sormenaren lanean tematia izan behar du.
7. Bere sormenezko bizitza babestu egin behar du.

#### **Iruzkina**

Antzinako ipuin honek, ipuin klasikoaren aurka, **emakumearen inizatibaren (animusa) eta sormenaren alde** egiten du, era berean gizonaren erruz galdutako autonomia aldarrikatzen duela. Ipuin klasikoetan, emakumeak ez dauka ez inizatiba eta ez sormena; eta daukanean, alboko gizona laguntzeko da (Gretelek Hanseli edota Ederrek aitari, adibidez), edo, bestela, bide okerra aukeratzeko (Txanogorritxok basotik ateratzeko). Ipuin klasikoetan, ildo beretik, gizonak ez dio sekula emakumearen autonomiari kalte egiten; aitzitik, lagundu egiten dio (gehiegi) bizitza propioa eraikitzen (Errauskine aitak bultzatzen du printzearen eskuetara, Grimm anaien aldaeran, kasu).

### **3.11.2. Pospolo-saltzailea**

Ipuin zaharra izanik ere, Hans Christian Andersen-en bertsiogatik da ezaguna, batez ere. Pinkolak ere bertsiio hori darabil. Hona hemen:

«Bazen neskatxa bat, aitarik eta amarik gabea, basoan bizi zena bakarrik. Basoaren mugan zegoen herrixkan pospoloak erosten zituen errealean bakoitza, gero, kalean, bakoitza errealean saltzeko. Nahikoak saltzen bazituen, ogi koxkorra eros zezakeen eta basoko estalpera itzuli, han, estalpetxoan, arropak kendu gabe lo egiteko. Negua iritsi zen, eta neskatxa hotzak pasata zegoen. Ez zeukan zapatarik, eta berokia ere oso fina zuen. Kalean jarraitu zuen pospoloak saltzen, baina jendeak ez zizkion erosten. Horregatik, gau batean pospoloek berotzea erabaki zuen, nahiz eta egurrik ez izan. Lehen pospoloa piztu zuenean, bizileku zoragarrian zegoela sentitu zuen, berogailu handiaren aurrean, eta hotza kendu zitzaion. Baina pospoloa itzali egin zen, eta berriro hotzak jota esnatu zen. Bigarren pospoloa piztu zuen, eta hormaz bestaldeko gelan, jaki goxoz betetako mahaia ikusi zuen, baina eskua luzatu orduko, pospoloa itzali eta hantxe ikusi zuen bere burua, lehen bezala, elurraren erdian. Eta hotza gorputzean barrura sartzen nabaritu zuen; beraz, hirugarren pospoloa piztu zuen. Pospoloaren argitan, Gabonetako zuhaitz ederra agertu zitzaion aurrean, apaingarriz eta argiz beteta. Orduan, zuhaitzari begira, enborra zeruraino igotzen zela ikusi zuen eta, han goian, zeruko izarrak agertu zitzaizkion. Halako batean, izar

herratua igaro zen, eta gogoratu egin zuen nola amak esan zion arima bat hiltzean izar bat erortzen zela. Segidan amona maitagarria agertu zitzaion, mantalaz estu-estu hartzen zuela, eta oso pozik jarri zen. Baina pospoloa agortu zitzaion, eta berriz ere piztu eta piztu ibili zituen pospoloak amonaren irudia gorde nahian, azkenean, amonarekin batera zerura igo zen arte. Biharamunean, neska hilda aurkitu zuten etxeen artean».

## Interpretazioa

Ipuinak **sormenezko instintuaren galera** esan nahi du. Neskak pospoloen su txikia eskaintzen du, soilik, eta jendeak hori ere ez du hartu nahi. Itxaropena galtzen du, eta, ondorioz, heriotza samurra besterik ez du bilatzen. Emakumeak, berriz, barruan duen Emakume Basatiaz baliatu behar du borroka instintiboaz aurrera ateratzeko. Beti dago aukeraren bat itxaropena bizirik mantentzeko, baina Pinkolak berak adierazten duenez, beharrezkoa du neskak inguruko norbaiten estimulua sormen-gaitasuna ez agortzeko; ipuinean, pospoloaren su txikia ez itzaltzeko. Animus sendoa edo, bestela, **gizartearen babes eta estimulu minimoa** behar ditu emakumeak, sormena bizirik gorde nahi badu; eta aurkitzen ez duen bitartean, mugitu egin behar du ingurune sozial egokiaren bila (gogoratu ahate itsusiaren patua). Ipuinean ikusten denez, fantasia kontsolatzaileak, lagundu beharrean, galera dakar, etsipenean amiltzen delako; hobe du emakumeak fantasia planifikatzailea erabili. Laburbilduz, pospolo-saltzaileak ezin du psikikoki garatu, beharrezko duen sarbide-esperientzia ezin duelako gauzatu (irtenbidea aurkitzea pospoloen negozioari), barneko eragilea (animusa) eta kanpoko (gizartearen onspena) falta zaizkiolako.

**Amonak**, ipuinean Bizitza/Heriotza/Bizitzaren ordezkariak, neskatxari lagundu egiten dio bizi duen egoerari bukaera ematen, eta, segidan, neskaren arima gorde egiten du, bizi berria izango duen arte. Emakume Basatiak beti laguntzen dio emakumeari, baita egoerarik latzenean ere, bukaera ematen agortuta dagoen bizitzari eta, ondoren, indar berria ezarriko dio psikean, biziera berriak proba ditzan.

### Iruzkina

Ipuinaren aldaera klasiko bat erabiltzen du Pinkolak, eta, beraz, ikuspegi klasikoaren gainean Pinkolaren beraren kritika agertzen da. Nabari denez, ipuin klasikoetan emakumeari ez zaio iniziatiba propiorik uzten, neskatxa ez delako bere kabuz burua altxatzeko gai. Ipuinak neskak gizartearengandik merezi dituen babes eta estimulu minimoa aldarrikatu beharko lituzke, neska-irakurle gazteari konfiantza garatzen laguntzeko, baina Bettelheimen baikortasunaren kontra, soilik errukia eta pena eskaintzen dizkio neskari, Pinkolak aditzera ematen duen ildotik.

Bestalde, amonaren irudi sakonak (neskaren barrunbe instintiboa) emakumearen galtzaile-rola jokatzen du, indartze-rola jokatu beharrean, Pinkolak zuzen adierazten duen eran.

### 3.11.3. Urrezko hiru adatsak

Sormenari etekina atera eta gero, emakumeak ekiten ari den lanean nekaldia ezagutuko du eta, horrekin batera, kontzentrazio falta. Hori ziklo naturalak berak ekarriko dio. **Kontzentrazioa berreskuratzeak** emango dio emakumeari behar duen energia lanari berriro ekiteko. Hori honako ipuin honen bidez adierazten digu Pinkolak.

«Gau ilun batean, basoan zehar agure abaildu bat zihoan arrastaka eta ezinean. Oso zaharra zen, eta linternatxoa zeraman buruan, ia itzaltzear. Besoetz bultzatzen zuen bere burua zuhaitz batetik bestera, aurrera eginahalean. Urrutira etxetxo baten argia ikusi zuen, eta, hara abiatuta, justu-justu iritsi eta atea zabalduz barrura erori zen. Barruan amona bikaina zegoen su ederrari begira. Altxa zen eta, agurea besoetan hartuta, zabuan ibili zuen, semea bailitzan. «Lasai, lasai, ez da ezer gertatzen» zioen, artean. Gau osoa eman zuen agurearekin kulunka eta, egunsentia urratzear zegoela, agurea gazte lerdan bihurtu zen orain, urrezko adateko gazte gihartsu. Baina amonak kulunkari ematen zion, «lasai, lasai, ez da ezer gertatzen» esanez. Egunsentia heltzear zegoen, eta gaztea haur zoragarri bihurtu zen, ile kizkurreko haur polit. Egunsentia heltzerakoan, amonak hiru ile kendu zizkion haurrari, eta zorura jaurti zituen. Besoetan zuen haurra zorura jaitsi eta lauoinka urrundu zen ate aldera. Atzera jiratu zen amonari begiratzeko eta, irribarre argitsua eginda, han altxa zen zeru aldera, goizaldeko eguzki distiratsu bihurtzeko».

## Interpretazioa

Ipuinak **sormenezko energiaren bukaera** adierazten du. Gau ilunak inkontzientea ekartzen du gogora, psikearen energia kontzientearen bukaera, lanerako kontzentrazioaren amaiera. Amonak agurearekin egiten duen eran, emakumeak lasai, pazientziaz beterik eta leunkiro hartu behar du proiektu utzia. Eutsi egin behar dio proiektuari, baina oraingoan jarduera pasibotik, **atseden hartuz**. Amona ipuinean Badakienaren lana egiten ari da, Emakume Basatiarena, eta horrela, emakumearen animusa atsedenen ziklo naturalean txertatzen du. Atsedenen bidez, emakumeak kontzentrazioa berreskuratuko du eta, horren bidez, energia. Emakumea berritu egingo da. **Kontzentrazioak** emakumeari lanean jarraitzeko gaitasuna emango dio, zentzumenak eta, batik bat, garrantzitsuena den intuizioa (pospolo-saltzaileari falta zaiona) erne izango dituelako berriro.

Ipuinean agertzen diren **ileek** pentsamendu bereziak adierazten dituzte, eta, ileak zorura jaurtitzek, era horretan, gogamenak egiten duen ideia astunen garbiketa esan nahi du. Horrek guztiak emakumearen proiektu nagusiaren zainketa adierazten du, soberako ideiak arinduz; beraz, atsedeen hartzearen sinboloa da.

Sormenezko energia (animusa) galtzeko emakumeak duen gizonezko jitea ahultzea esan nahi du, eta, Pinkola ohartzen den moduan, hori **kulturak** gaizki ikusten duen gertakizuna da, gizarteak barneratuta baitu gizonen erresistentziak ez duela mugarik izan behar.

### Iruzkina

Gaineratu beharko litzateke emakumearen animusa ahultzea bera ere, hein handi batean, fenomeno kulturala dela, emakumeari neurritz gaineko nekea presio kulturalak ezartzen baitio; eta, beraz, gehiegitan, ziklo naturaletik kanpo gelditzen da animusaren ahultzea gizarte modernoan.

Ipuin klasikoen oso bestela, kontakizun honetan **emakumezkoa (amona) da indartsua; eta gizonezkoa (agurea), ahula**. Emakumea da gizonari bizitza berritzen diona, gizonari sarbide-esperientzia eragiten diona, heriotzatik bizitzarako eraldatzearekin. Ipuinean, hortaz, emakumeak naturaren indar sakonena hartzen du, Bizitza/Heriotza/Bizitza **ziklo oinarrizkoaren gidari**. Nabari denez, ikuspegi horri antzinako kultura matriarkalaren kutsua dario, gizakia naturaren berrikuntza etengabean murgilduta bizi zenean, eta, hala, ez zenean behin betiko akaberarik ez sorrerarik ematen. Horren aldean, ipuin klasikoak ditugu, hala nola Txanogorritxo, Edurne Zuri eta Loti Ederra. Horietan guztietan gizonezko batek (ehiztariak edo printzeak) itzultzen dio bizitza neskatxari, sarbide-prozesuari amaiera emanez.



### 3.12. JAINKOSA LIZUNAK: SEXUALITATE SAKRATUA BERRESKURATZEA

Emakumearen izaera lizunak —jainkosa lizunek ondo ordezkaturak— zentzumen-kontzientzia bizia esan nahi du, eta ez kitzikapen sexual hutsa. Emakumearen sexualitateak badu alderdi **lizun sakratua**, antzinarotik datorrena. Antzinako kultura femeninoetan baziren jainkosa lizunak, gordinkeria maltzur sana zerabiltenak. Izaera fantastikoa ematen zitzaion dohain horri. Sexualitatea, kontakizun femenino lizunetan, psikea zuzentzeko erabili izan dute emakumeek, **barrea** eraginez. Barre fisikoaren bidez, emakumeak kulturak murriztu dizkion sententzioak askatzen ditu, era sendatzailean. **Jainkosa lizunek**, atal honetako kontakizunetako protagonistek, Emakume Basatiaren izaera sexuala eta sakratua adierazten dute.

#### 3.12.1. Baubo: sabelaren jainkosa

*Baubo* antzinako Greziako lizunkeriaren jainkosa da, baina erreferentzia bakarra gelditzen da testu zaharretan, *Baubo* bera eta baita haren kultura ere ezabatu egin baitira kultura berrien eraginez. *Kantaria* ipuinean, Pinkolak jainkosa horren aztarna erakusten digu. Hona hemen ipuina:

«Demeter-ek, Ama Lurrak, Persefone izeneko alaba ederra zeukan. Egun batean zelaian jolasten zebilen Persefone. Halako batean, estropezu egin zuen lore polit batekin, eta hatzez laztantzen hasi zen. Bat-batean, zartada handi bat eginez, lurretik Hades atera zen, hildakoen erreinuko jainkoa, zaldizko gurdi beltzean, lerdan. Hadesek Persefone ekarri zuen gurdira, eta lur azpira amildu ziren denak. Persefoneren garrasiak itsasotik eta mendietatik gora igo ziren, haien oihartzuna galdu zen arte; baina Demeterrek entzun egin zituen. Orduan, munduaren gainetik ibili zen hegan, alabatxoaren bila, baina alferrik; ezin zuen aurkitu, bazter guztiak zehatz-mehatz miatu arren. Saminduraz, berak, dena etengabe hazteko bidean jartzen zuenak, munduko lur emankor guztiak madarikatu zituen, eta ez zen fruiturik ez haurrik jaio handik aurrera.

Soina guztiz bazterrera utzirik, bihotza zauri sakonak harrapatuta, eta bilaketaren emaitzarik gabe, herri galdu bateko putzu-hondora erori zen. Hantxe zegoela, emakume itxurako gorputz bat hurbildu zitzaion dantzari, aldakak mugimendu erotiko jarraian eta bularrak saltoka. Dantzariaren gorputza xelebrea zen oso: ez zeukan bururik, haren titi-buruak begiak ziren eta alua, ahoa. Aho horretatik istorio barregarriak kontatu ahala, Demeterren irribarrea indartuz joan zen, eta, azkenean, biek algara bizian jardun zuten, Sabelaren Jainkosa txikiaren (*Bauboren*) umoreari esker.

Irrialdi hari esker, Demeter depresiotik irten zen, eta alaba bilatzeari ekin zion berriz ere; eta, Baubori, *Hekate* sorgin zaharrari eta *Helios* eguzkiari esker, aurkitu zuen. Persefone amarengana itzuli zen, eta lurrak eta emakumeen sabelak hazi egin ziren berriro ere».

#### Interpretazioa

Baubo, sabelaren jainkosa, neolitikoko jainkusetatik dator, seguru asko; bururik eta, askotan, besorik eta hankarik gabeko jainkosa misteriotsu haietatik. Haiek ugalkortasunaren irudiak izateaz gain, emakumeen hizketaldi propiorako inspirazioa ere baziren, Pinkolaren esanetan. Irudi horiek sentikortasun- eta adierazpen-maila berezia gordetzen dute beren baitan. Emakumeek beren gauzez **barrunbetik hitz egiteko** beharrari erantzuten dio Baubok, eta sabeleko irri askatuari esker, emakumeek haien libidoa askatzea lortzen dute, hau da, bizitzeko gogoia askatzea.

**Iruzkina**

Kontakizun honen bidez **emakumearen izaera lurkoa** aldarrikatzen da. Istorioan emakumea ugalkortasunaren, amatasunaren eta gorputzaren aldeko grinak ikur bihurtzen da. Ipuin klasikoetan, aldiz, emakumeari itxi egiten zaio izaera lurkoa, eta haren ordeztu izaera espirituala ezartzen zaio; gorputzaren aldeko grinak bekatuaren iturri zaizkio (Txanogorritxori eta Loti Ederrari, kasu), moralitateak lizunduta; eta, beste aldetik, ugalkortasuna eta amatasuna bakarrik ezkontza patriarkalaren barruan aitortzen zaizkio (Loti Ederraren Basileren aldaeran neskak bere burua soilik edoskitzearekin errealtzitzen zuen, eta artean ezkongabea bazen, erregeak bortxaketaren ostean ahaztu zuelako izan zen).

**3.12.2. Dick Koiote**

Pinkolak honako ipuin hau bildu zuen gizonen sexualitateari buruz, jatorri indiarra (*hopia*) omen duena:

«Dick Koiote izaki zirikatzailea zen; nahi zuena lortzearren, jendeari ziria sartzen pasatzen zuen egun osoa, ez bazen lotan. Egun batean, zakila nazkatu zitzaion, eta alde egin zion, lo zegoen bitartean, parrandan bere kabuz ibiltzeko asmoz. Bazihoan maldan behera, hanka bakarrean jauzika oso kontent, baina bidetik aterata sasitan erori zen. Garrasika hasi zen, azkurak jota, eta Dick Koiote esnatu egin zen zaratarengatik. Eskua hankartera jaitsi zuenean, larritsuak itota, hantxe abiatu zen korrika maldan behera, zakila topatu zuen arte. Dick Koiotek atera egin zuen sasiartetik, eta, maitekiro, bere tokian ipini zuen. Baina, harrezkero, sasi haiek azkura eragin zioten zakilean behin betiko Dick Koioteri. Eta, horregatik hurbiltzen dira gizonak emakumeengan, ezer nahi ez balute bezala, beraiekin igurtzi nahian, azkura-aurpegia jarrita. Zakil unibertsal horrek denagatik baitu azkura, ihes egin zuenetik».

**Interpretazioa**

Ipuin horrek lortu egiten du emakumearen **barrea** erabat askatzea, kontalariaren emazteari eta Pinkolari berari gertatzen zaien eran. Pinkolaren ustez, barreak **sexualitatearen alderdi sakratua** ukitzen du: emakumeak barruan gordeta duen energia fisikoa (libidoa) ateratzen du kanpora, eta, horrekin, plazeraren bitzite osoa egiten du emakumeak. Ekintza hori sexualitatearen alderdi basatizat eta sakratutzat hartzen du Pinkolak, bi ezaugarriak batera ematen baitira emakumearengan. Emakumearen berezko sexualitatea, basatia eta lotsagabea izanik (nolakotasun analogoak), sakratu bihurtzen da pertsona osatu egiten duelako, esan nahi da, energia era integralean askatzen diolako emakumeari (eta barrea da era horren sinboloa).

**Iruzkina**

Aztertu beharko litzateke Pinkolak deskribatzen duen sexualitate basatia ez ote den emakumearen sexualitateak bizi duen **errepresio kultural sakonaren askatze sinboliko hutsa**. Hau da, barrea, Pinkolarentzat askatzearen era eredugarria dena, ez ote den errepresioaren sintoma garbiena, eta psikoanaliaren ikuspegitik, beraz, defentsa-mekanismo hutsa, ipuinean sublimazioari lotua (nahiko liokete gizon harroari zakila moztu eta apaldu). Bi emakumeen irriek sexualitatearen **tabu-izaera** erakusten dute, izaera lotsagabea eta basatia baino gehiago.

.../...

.../...

**Gizonaren sexualitatearen harrokeriaz trufatu** egiten den ipuina zaila da topatzen erreper-  
torio klasikoan, sexualitate maskulinoaren boterea sakratua izan delako gure kulturari. Horren adibi-  
de *Jack eta haren negozioak* dugu. Ipuin horretan Jackek bere makila (zakila) harrotasunez darabil,  
munduan zehar, edozer konkistatzeko tresna boteretsutzat hartuta.

### 3.13. ILGORAKO HARTZA ETA ZUHAITZ IDORTUAK: SUMINDURA ETA BARKAMENA

#### 3.13.1. Ilgorako hartza

Emakumeak askotan bizi duen suminduraz hitz egiten digu ipuinak, sumindura erreprimi-  
turik gordetzeak dakarren sufrimendu antzuz eta, beraz, **sumindura askatu beharraz**. Hona  
hemen ipuin japoniar baten gaineko Pinkolaren bertsio literarioa.

«Bada neskaxa bat naturaz inguratutako etxean bizi dena. Senarra, urte askoan gerran  
ibili eta gero, etxera itzultzen da, baina ez du barruan bizi nahi. Nahiago du basoan bizi,  
harri artean, isolaturik. Neskaxak, hunkituta, era guztietako jaki goxoak prestatzen dizkio,  
eta basora doa, senarrari jaten ematera, baina hark jakiei muzin egiten die. Behin baino ge-  
hiagotan saiutzen da neskaxa senarra goxatzen eta janaria ematen, baina guztietan alferrik.  
Kezkaturik, aztiarenera doa azkenean, laguntza eske. Aztiak edabe sendagarria eskaintzen  
dio, baina edabeari falta zaion osagaiaren bila bidaltzen du neska; mendian bizi den hartz  
beltzaren ilgora itxuradun paparreko ile bat. Horrekin sendatuko omen da senarra, eta berri-  
ro elkarrekin biziko dira zoriontsu. Neska, biziki eskertuta, badoa mendian gora. Mendiari  
eskerrak ematen dizkio, magaletik igotzen utzi diolako. Zuhaitzei ere eskerrak ematen diz-  
kie, tartetik igarotzen utzi diotelako. Familiarik gabeko espiritu beltzak agertzen zaizkio,  
txori bihurtuta hegan; eta haien alde errezatzen du. Segidan, elur-ekaitz bortitza altxatzen  
du, baina bideari ekiten dio kementsu, eta haizeari eskerrak ematen dizkio ekaitza baretu  
duelako.

Leize ziztrin batean gaua eman ondoren, hurrengo egun osoa hartzaren bila pasatzen du,  
arratsean hartz beltz handia orroka topatzen duen arte, eta orduan, hartza gordelekura sartzen da.  
Neskak kaiku batean janaria uzten dio hartzari, eta hark, gordelekutik aterata, jan egiten du.  
Ondoren, berriro jartzen dio janaria, baina oraingoan, begira geratzen da neska, zain. Hurrengo  
gauetan ere janaria uzten dio, eta hartzak jan egiten du. Azkenean, gau batean janaritik hurbil  
gelditzen da neska, hartzaren zain. Hartza, neskaxa ikustean, orroka eta atzaparka hasten zaio,  
baina neskaxak, pixkanaka lasaituz, azaldu egiten dio hartzari janaria ematen aritu zaiola gaue-  
ro, eta mesedez paparreko iletxo bat emateko eskatzen dio. Hartzak, errukituta, baietz esaten dio  
eta ilgorako paparra erakusten dio, ilea azkar ken diezaion. Hala, neskak ilea kendu eta korrika  
abiatzen da, hartza atzetik orroka duela. Mendian behera, eskerrak ematen dizkio mendiari jais-  
ten uzteagatik. Zuhaitzen artetik pasatzen da, eta eskerrak ematen dizkie, adaxkak jasorik pasa-  
tzen uzteagatik. Azkenean, zarpail eta zikin, iristen da nola hala aztiarenera, pozik. Aztiak ilea  
hartu, benetakoa dela egiaztatu, eta sutara botatzen du. Neskak, nahigabeturik, azalpena eska-  
tzen dio, eta aztiak, bere aldetik, hauxe eskatzen dio: egindako bidean emandako urrats guzti-  
guztiak ondo gogoratzeko, eta, segidan, ikasitako guztia senarrarekin erabiltzeko, hori baita  
sendabidea».

## Interpretazioa

Ipuinean, emakumearen **suminduraren sendabidea** agertzen da. Pazientziaz beterik, psikearen ordena berreskuratu behar du emakumeak, urrats hauek emanez (ipuinekoekin alderatuz): gogoeta lasaia egin (aztiarenera jo), psikea zehatz-mehatz aztertu (mendira igo), barne-ilusioak gainditu (mendiko elementu alegiazkoak atzean utzi), pentsamendu obsesiboei atsedena eman (espiritu beltzei errezatu), Ni errukiorrari laguntza eskatu (hartza elikatu eta konbentzitu) eta Niaren izaera oldarkorra ulertu (hartzaren izaera bortitza eta odolberoa onartu). Ipuinean, senarrak irudikatzen du emakumeak psikean gordetzen duen alderdi torturatua eta asaldatua, eta **hartzak**, era berean, emakumeak ziklo emozionalak orekatzeko duen gaitasuna (hartzak, hibernazioagatik, ziklo berriaren pizkundera adierazten du).

Beraz, sumindurak badu zuzentzeko bidea, behar duen arreta eta patxada eskaintzen bazaizkio; izan ere, emozio guztiek bezala, sumindurak ere irakaspena dakar berarekin. Emakumeak ulertzen badu **sumindurak bere baitan gordeta daukan injustiziaz beteriko jatorria**, jarrera tolerantia izango du erreakzionatzeko era bortitz horren aurrean, eta jatorrizko injustizia bideratzen saiatuko da. Horrekin, amorrua transformatzea lortuko du, indar suntsitzailea indar sortaile bihurtuz.

Sumindura **obsesiboa** izaten da, errepikakorra, jatorrizko esperientzia mingarriak gogorarazten dituzten estimuluak behin eta berriro agertzen zaizkiolako emakumeari bizitzan zehar. Freudentzat jokaera hori *neurotikoa* zen, baina, Jungen ildotik, erantzun koherentetzat hartzen da, estimulu erasotzailearen aurrean jarrera defendatzailea bilatzen baitu gizakiak, eta hori jokaera naturaltzat hartzen da. Sumindurak, obsesioaren bidez, sufrimendua **estereotipatu** egiten du. Hori gainditzeko, gogamenak sortu dituen ilusio subjektiboak biluzi egin behar dira (ipuinean, aztiak hartzaren ilea, izaki beldurgarriaren ilusioa, sutara botatzen du), estimulu erasotzaileek ez dutelako inoiz itxura finkorik, soilik bizitzaren eskarmentu pertsonalak ematen baitie itxura jakina. Ipuinean, neska mendian gora doa, eskerrak emanez atzean uzten dituen ilusioei, aurrera egiten uzten diotelako. Emakumeak ulertu egin behar du **pentsamendu mingarrien jatorria**, batetik, eta pentsamendu horiek bizitzan berarentzat izan duten **itxura erlatibizatu** egin behar du, bestetik (ilusio faltsuak baitira). Ondorioz, ikasi egingo du sumindura desaktibatzen, eta erreprimaturiko energia hori sortaile bihurtuko du. Ez da lan erraza, jatorrizko traumek etengabeko eragina baitaukate hondatu duten psikean, baina emakumeak jada badauka tresna eraginkorra suminduraren indar negatiboa eraldatu eta positibo bihurtzeko, emeki-emeki.

### Iruzkina

Ipuinean **emakumeak gizonaren sumindura bereganatu eta baretu behar du**. Gizonak hartzaren irudia ere hartzen du. Hortaz, «senargai animalia» saileko ipuin klasikoetan gertatzen den moduan, istorio honetan ere emakumea gizonaren desoreka afektiboa sendatzeko dago. Emakumeari dagozkion bertute baretzaileei esker (hala nola gogoeta, azterketa, atsedena, laguntza eta ulermena, Pinkolaren hitzetan), gizonarena den desoreka konpondu egingo du, horretarako dohain berezia baitauka: intuizioa; eta animaliaaren oldarkortasuna baretuta, energia hori sortaile bihurtuko du. Berriro ere emakumea agertzen da gizonaren jatorri iluneko izaera suntsitzaileari men egitera, nahiz eta Pinkolak «gizona» emakumearen nia izendatzeko erabili. **Aurreiritzi kultural garbia da emakumearen niak garatzen duen sumindura maskulinizatzea**, M. Meaden lanak argituko duen eran, 4.2.2. atalean.

.../...

.../...

Pinkolak aitortu egiten dio emakumeari **sumindura sentitzeko gaitasuna eta eskubidea**, eta, gainera, jatorria kulturaren presioan kokatzen du. Hortaz, defentsa-mekanismo zilegizkotzat jotzen du, baliatu behar duena hurrengo urratsa emateko: energia hori positibo bihurtzeko, jatorrizko injustizia sozialaren aurka aritzeko. Ipuin klasikoetan, ordea, emakumearen sumindura soilik inbidia eta jelosiaren eskutik agertzen da, batez ere amaordearen aldetik (*Loti Ederran*, kasu); beraz, emakumeari ez zaio zilegi suminduraz jokatzeari.

### 3.13.2. Zuhaitz idortuak

Emakumeak sumindura askatzeko **une eta gune egokiak** topatu behar ditu, honako ipuin honetan erakusten den legez:

«Bazen behin gizon bat, oso aiurri txarra zuena. Izaera txar horrek, hain zuzen, denbora eta lagun onak galarazi zizkion bizitza osoan. Horregatik, agure jakintsu bati sumindura nola mendera zezakeen galdetu zion. Agureak urrutiko basamortuko oasi idortura joateko esan zion, eta hango zuhaitzetan esertzeko, pasatzen ziren bidaiariei bertako putzuko ur gazikara eskaintzera. Halaxe egin zuen gizonak, sumindura gainditzeko ahaleginean. Hilabetetan zehar ur mikatza atera zuen putzutik, eta handik pasatzen zirenei eman zien. Igaro ziren urteak, eta gizonak ez zuen gehiago sumindura aldirik jasan. Egun batean, bidaiari harro bat hurbildu zen hara, eta, ur arrezko katiluari mespretxuz begirata, uko egin eta bideari ekin zion berriro. Ura eskaintzen zuen gizonak, bat-batean suminduraz asaldaturik, bidaiariari heldu zion, eta hil egin zuen. Berehala damutu zen, ordea, egindakoaz. Orduan, beste zaldizko bat agertu zen lauhazka eta, hildakoari begiratu, eskerrak eman zizkion hiltzaileari eta Ala jainkoari, errege hilko zuen gizona hil zuelako. Une hartan bertan, oasiko ur arre eta gazikara garbi eta geza bihurtu zen, eta zuhaitz idortuak suspertu eta lorez jantzi ziren».

### Interpretazioa

Kontakizunak erakusten du sumindura une egokian askatu behar dela bakarrik. Sumindura saihesten duen emakumeak lasaitua nabaritzen du, bai, baina behin-behinean soilik, metatuz baitoa haserrea bere barruan, eta noizbait lehertu egingo zaio. Hortaz, berandu baino lehen, **egokiro askatzen** jakin behar du energia hori, alferrikako kaltea sor ez diezaien besteei edo bere buruari. Egokiro askatuz, oreka emozionala lortuko du, eta energia bizitza sortzailea indartzeko erabiliko du.

Suminduraren azpian datzan sufrimenduari **atsedenaldiak** eman behar zaizkio, Pinkolaren esanetan. Emakumeak, bizitzari atzera begiratu, izan dituen esperientzia frustranteak («heriotzak», egilearen hitzetan) aurkitu eta zedarritu egin behar ditu, eta, ahal duen neurrian, ulertzearen eta errukiaren bidez, barkatu. Horri atsedentaldia egitea deritzo Pinkolak, eta horren bidez lortzen du emakumeak esperientzia kaltegarrien energia gordea era positiboan transformatzea.

Emakumearen kasuan, txikitatik kulturak neskaxari ezartzen dion instintuaren erreprezioak (gogoratu *Zigoto erratuaren* kontakizuna) sumindura barneratzen irakasten dio. Desfase hori **emakume helduak** konpondu beharko du, eta horretan arima basatiak gidatuko du, andrea-

ren instintuak berez daukan zolitasunaz, indarraz eta errukiaz, egoki denean erantzun sendoak emateko, era eskuzabalean. Erantzun sendoen bitartez, sumindura askatuz, konpentsatu egingo du ordura arte jasan behar izan duen sufrimendua.

### **Iruzkina**

Neska **gazteek** (mutikoen eran), gero eta gutxiago gordetzen dute, erreprimiturik, kultura-zapalketa, eta, gainera, zapuzketari eusteko duten gaitasuna gero eta txikiagoa da; ondorioz, beren baitan erreprimituriko indarra txikiagoa da, eta, pentsa daiteke emakume helduak bizi duen suminduraren fenomeno suntsitzaileak ez diela berdin eragingo neska gazteei.

Emakumearen sumindurak **era kolektiboa** ere badu, kontzientzia sozialak, kulturalak eta politikoak emakumeari injustiziaren jatorria erakusten dionean. Kasu horretan ere, guztiz zilegi zaio sumindura askatzea, taldean erantzun antolatua emanez, hori baita erantzun naturala.

Sumindurak izaera **kronikoa** hartzen duenean, arazoa kateatu egiten da. Emakumearen barruan gori-gori diharduen amorruek antsia izugarria sortzen dio, eta, ondorioz, beldurrez, gogo faltaz eta zinismoz hartzen du bizitza. Horren konponbidea, Pinkolaren ildotik, **barkamena** da. Barkamenak maila eta garai ugari ditu, norberak erabaki beharrekoak, kasuan kasu. Barkamenak arindu egiten du aspalditik kateaturik diharduen sumindura, arazoaren azalpen sakona aurkitzen duelako. Berez, gatazka guztien ulermen sakona lortuko balitz, guzti-guztiak barkatuko lirake, Pinkolaren esanetan. Hala ere, bada jatorrizko injustiziak beti uzten duen frustrazio-hondarra, amorruzko aldikako erantzunak eragingo dituen, eta inoiz ere ezingo dena erabat errotik atera, bizitzan eragindako kaltea ezin baita erabat konpondu.

### **Iruzkina**

Ez litzateke ahaztu behar **eszeptizismo sanoak** (karga ironiko-kritiko osoarekin) sumindura kronikoaren eragina arintzen duela, gatazkak era sinboliko hutsean konpontzen baditu ere, gatazka sozializatzea ezinezko gertatzen den kasuetan.

**Barkamenak**, bere aldetik, **lau maila** ditu:

1. **Aldendu.** Injustiziak eragindako kaltea behin-behineko alde batera uztea da, barruari atsedendia eskainiz.
2. **Jasan.** Pazientziaz, emozioak sublimatzea da, hau da, itxura samurra ematea barruko emozio mingarriei.
3. **Ahaztu.** Oroitzapen mingarriei protagonismoa kentzea da, haien edukia ahaztu gabe, bigarren plano batera eramanez. Horrekin, eragiten dituzten emozio mingarriak ezabatzea lortzen da.
4. **Barkatu.** Gorrotoa galtzea da, zorrak barkatzea eta errepresaliak hartzeari uko egitea. Ez du etsipena esan nahi, eta dagokion mailan eta graduan aplikatu behar da; izan ere, hori emakumeak erabaki behar du. Barkamen sakonak barkatuarekin errukia eskatzen du, norbere buruaren defentsa irmoa galdu gabe. Ondorioz, barkamenak barkatuarekin hostasuna galtzea dakar, hostasuna hurkoa baztertzeko erarik eragingarriena delako; eta hurkoari norbere bizitzaren barruan dagokion tokia eman behar zaio.

### Iruzkina

Erazegi ahazten da barkamenak berarekin eskatzen dituela eragindako kaltea **aitortzea eta konpontzea**, zapalketa ontzat hartu nahi ez bada. Beraz, Pinkolak proposaturiko lau pausoez gain, kaltearen aitortzea eta konpontzea gaineratu beharko lirateke, azken pausoa eman ahal izateko; eta kaltea eragin duenak ez baditu ematen, kaltetuak berak eman beharko ditu era erreal edota sinboliko batean, gutxienez.

*Zuhaitz idortuak* ipuinean sumindura askatu beharra adierazten da, eta horretarako era asko zehazten ditu Pinkolak; horietako bat, **barkamena**. Ipuin klasikoetan barkamenak ez dauka presentzia handirik, gertakizun moralizatzaileak direlako. Alderantzizko fenomenoak, ordea, mendekuak, **agerpen ugaria du, eta, ia beti emakumearen eskutik**. Emakumea ohi da mendekaria, arranguraz, jelsiaz edo inbidiaz jokatu ohi duelako (amaordearen irudiaren bidez, batik bat), eta bera da mendekua zigorra jasotzen duena (arinki edo maltzur jokatzegatik). Adibide dramatikoak dugu *Zapata-txo gorriak* ipuinean, neskatxak duen zigor krudelarekin. Pinkolak aurkezten dituen antzinako ipuinetan, ordea, gutxitan agertzen da mendekua, soilik *Urrezko adatseko emakumean*, eta oraingoan, gainera, emakumea gizonaren biktima bidegabetzat hartzen da (*Bizarrurdineko* anaien hilketak eta *Baba Yagako* suzko garezurraren hilketak autodefentsa-ekintzak besterik ez dira).

### 3.14. URREZKO ADATSEKO EMAKUMEA: BORROKAREN ZAURIAK

*Orbainaren Klana*, Pinkolarentzat, historian zehar sufrimendu sakonari eutsi dioten herri eta era guztietako emakumeek osatzen dute. Emakumeek bizitzan zehar pairatu behar izan duten esperientziak sekretupean gordetzeko joera dute. Emakumeen **sekretuek arau kultural baten hausturari egiten diote erreferentzia**; gizonari, oster, indarreko kulturak baimen zabala eman dio nahi duen bezala aritzeko arlo moralean, politikoa eta sozialean. Sekretuak gorde behar horrek **lotsa** eragin dio emakumeari. Sekretuak azpian gordetzen duen istorioaren alderdi tragikoa drama heroiko bihurtzeko, emakumeak sekretua ezagutarazi egin behar du, norbait aitortu, beste bukaera bat bilatu, izandako jokaera aztertu, eta, halaber, eusten lagundu zion bertutea ezagutu. Bestela, gaintu gabeko sekretuaren sufrimenduekin batera, haren lotsa jasan beharko du. Emakumearen **arima basatiak, gainera, den-dena barka lezake**, erabat bihozbera baita.

Ezin da psikean erabat gorderik mantendu sekretua, luzaroan. Eragiten duen desoreka konpondu nahian, inkontzienteak azaleratu egin nahiko du erreprimaturiko energia, eta, ondorioz, emakumeak **somatizatu** egingo du, nola edo hala, sekretuaren ezkutuko libidoa. Hona hemen sekretuaren azalratzea erakusten duen antzinako ipuin bat, Pinkolarena:

«Bazen, behin batean, neska bitxi bezain eder bat, urre itxurako adats luzea zeukana. Gaztea eta umezurtza, bakarrik bizi zen basoan. Ehungintza-lanetan aritzen zen. Ikazkinaren seme ankerrak berarekin ezkontzera behartu nahi izan zuen, eta neska, gainetik kentzearen, urrezko ile batzuk oparitu zizkion. Baina mutikoa, urrezko adatsaren balio espiritual hutsa ezin ulerturik, saltzen saiatu zen, alferrik, eta jendearen barrea jaso zuen. Haserre, gauetz neskatxaren etxera itzuli, eta hil egin zuen, eta erreka ertzean lurperatu. Denbora luzean ez zen inortxo ere kezkatu haren faltaz. Baina neska gajoaren hilobian urrezko adatsak hazten jarraitzen zuen, eta izurtuz joan zen lur azpitik gora, hilobi gainean kiribilduz, hilobia urrezko kanaberaz estali arte. Artzainek kanaberak moztu egin zituzten txirulak egiteko, eta jotzen zituztenean, txirulek abestu egiten zuten urrezko adatseko emakumea zetzala han lurpean, ikazkinaren semeak erailda eta lurperatuta. Eta horrela izan zuten hilketaren eta hiltzailearen berri, eta merezi zuena eman zioten hari. Harrezkero lasai bizi izan zen, berriro, basoko jendea».

## Interpretazioa

Ipuinak erakusten du **sekreturik ilunenek ere indar basati nahikoa gordetzen dutela, noizbait azalera ateratzeko**. Ikusi besterik ez dago ametsak duten funtzio ohartarazlea eta, horren bitartez, osatzailea. Ipuineko emakume basati xume eta isilak niaren (psikearen) izaera integrala adierazten du, tinko mantendu nahi duena bere osotasunean, eta ez sekretuek erdibantatuta. Pinkolak argitzen duen eran, sekretu lotsagarriekin gertatzen da hori, badira eta bestelako sekretu onberak.

### Iruzkina

Zaila ikusten da, ordea, irizpide objektibo garbia aurkitzea sekretu lotsagarria sekretu onberatik bereizteko. Kultura baten baitan lotsagarri dena gizabanako batentzat onbera gerta daiteke, eta sekretupean eduki dezake gordeta bizitako esperientziaren bat, kalte kulturala ekiditearren, besterik gabe.

Beharrezkoa da sekretu lotsagarriaren terapia, garbiketa, **suntsiketari etena** jartzeko. Emakumeak autosuntsiketa egiten du lotsarazten duten esperientzia mingarriekin, eta baita jatorrizko esperientzia mingarri horiei lotutako esperientziekin ere. Autosuntsiketaz gain, beste gizakiek dituzten antzeko esperientziak suntsitzeko joera sendotuko zaio gainera, sekretu lotsagarriak sendatzen ez baditu. Behar adina aldiz azaleratu beharko du sekretua emakumeak, hots, garbitu beharko du azpian datzan zauria (esperientzia mingarriak eragindakoa), zauriak utzitako orbaina beti zaindu behar delako, eta ziklikoki min ematen duelako.

Emakumeak ez du izaten, alabaina, bere sekretuak azalera ekartzeko behar duen **elkartasuna** gizartean, inguruko gizakiek ez dutelako benetan inplikatu nahi jatorrizko injustizia sakoan. Pinkolaren hitzetan, emakumearen inguruko komunitate osoak bukatuko luke «urrezko adatseko neskatxaren hilobiari negar egiten».

### Iruzkina

Ulgerria da gizartearen elkartasun gabezia, **emakumearen zapalketaren oinarrian kulturaren printzipio zapaltzaileak daudelako** finko errotuta, eta zaila da kulturak bere kontra harriak botatzea. Horregatik kostatzen zaio hainbeste emakumeari tratatu txarrak salatzea, eta nahiago du askotan haien lotsari eutsi, salatzeak gizartearen egitura diskriminatzailea bera salatzen duelako.

Ipuin klasikoen artean *Antzaren zaintzaile*ko printzesa protagonista agertzen da sekretua gorde beharrean, dontzeila maltzurak horretara behartuta. Beste aldetik, «giltzaren proba» saileko ipuinetan (*Bizarrurdin*, *Fitcherren txoria*, *Andre Mariaren alaba* eta *Zerri sorgindua*) neska maltzurak ageri dira bekatuaren sekretua zaindu nahian. Sekretua gordetze horrek emakumearen duintasuna zigortzen du, eta haren ahultasuna salatzen.

**Pinkolaren antzinako ipuinetan, ordea, sekretuak gordetzeak emakumearen izaera sakonari egiten dio erreferentzia**; emakumearen duintasunari, beraz (*Manaween* ahizpek beren izenak ezkutatzen dituzte; *Zapatatxo gorriaken* —Andersenena izanagatik ere, ipuinak badu emakume basatiaren kutsua— neska sekretupean gordetzen du irrika autosuntsitzailea, baina gizarte zapaltzailearen erruz; eta *Urrezko adatseko emakumean* neska hilketa zapaltzailearen sekretua azalertzen du).



### 3.15. ANDRE BESAMOTZA: AZPIMUNDUAREN SARBIDEA

Atal honetako gaia emakumeak bizitzaren etapa bakoitzean aurrera egiteko duen erresistentzia da. Pinkolaren iritziz, hori instintuen dimentsiora, «lur azpiko oihanera», itzultzean ikasten du emakumeak. Ipuineko protagonistak, andre besamotzak, instintuen dimentsiorako igaroaldia egiten du, zenbait txandatan. Horietako txanda bakoitzak hiru urrats betetzen ditu: galera, sakrifizioa eta iluminazioa. **Mundu instintiborako igaroaldiaren bidez, emakumeak indar basatia berriztatzen du**, bizitzaren urratsak egokiro gainditzeko. Hona hemen ipuina:

«Behin batean bazen errotari bat bizilagunen garia ehotzeaz bizi zena. Bolada txarra pasatzen ari zen eta ehotzeko harrizarra besterik ez zeukan, ukuiluan gordeta, eta, etxearen atzealdean, sagarrondo loretsu bat. Basora egur bila joan zen egun batean, zuhaitzaren atzealdetik agure arrotz bat atera zitzaion. Egurrean gehiago sakrifikatu beharrik ez zuela esan zion. Aberastasunez beteko zuela, baldin eta errotaren atzealdean zeukana ematen bazion. Errotariak, sagarrondoan pentsatuz, baiezkoa eman zion, eta agureak, barre-algaraz, hiru urteren buruan berea zenaren bila itzuliko zela erantzun zion, eta basoan barrena urrunduz. Bidean errotariak emaztea topatu zuen. Asaldaturik korrika zetorren, etxeko tresnak, arropak eta despentsa ere aberastasunez eta jakiz beteta agertu zitzaizela eta ea zergatik gertatu ote zen galdezka. Errotariak bere jantziak dotoretzen ikusiaz bat, basoan aurkitutako arrotzarekin egindako tratua azaldu zion emazteari. Emazteak, gertatua ulerturik, izututa arrotza deabrua zela argitu zion, eta etxearen atzekoa, sagarrondoaz gain, alabatxoa ere bazela. Alaba erratzarekin zorua garbitzen ari zen. Negarrean itota, gurasoak etxera itzuli ziren. Hurrengo hiru urtean alabatxoak, eder galanta izanagatik, ez zuen senarrik topatu, eta eguna heltzean, hantxe zegoen garbi eta tunika zuriaz dotore jantzita deabruaren zain, klarionezko zirkulu baten barruan, zutik. Deabruak neskaxari heltzeko eskua luzatu zuenean, indar batek atzera bota zuen. Deabruak, orduan, neskari ez zuela garbitu behar ohartarazi zion, eta itzuliko zela. Hala, neskak garbitu gabe eman zituen aste osoak. Deabrua haren bila itzuli zenean, alabatxoa negar-zotinka hasi zen, eta malkoak besoetatik eskuetara jaitsi zitzaizkion, beso-eskuak garbi-garbi utzirik. Deabrua haserretu egin zen, horrela ezin ziolako neskari heldu, eta alabatxoaren eskuak mozteko agindu zion aitari, bestela inguruko izaki bizidun guztiak akabatuko zituela. Aitak, penaren penaz, alabari barkatzeko eskatu eta, haren oniritziarekin, eskuak moztu zitzaizkion. Deabrua itzuli zenean, alabak horrenbeste malko askatu zituen, ezen muinoiak zuritu egin baitzitzaizkion, eta deabrua berriro indar batek atzera bota zuen. Haserreak kiskalita, madarikazioen erdian alde egin zuen betiko, neskatxarekiko eskubidea galdu egin baitzuen.

Gurasoak zahartu ziren, eta aitak betiko aberastasunak eta gaztelu ederra eskaini zitzaizkion alabari, baina hark nahiago izan zuen bizimodua aldatu eta eskale-bizimoduari hasiera eman. Hala, muinoiak ondo bilduz, alde egin zuen etxe hartatik. Ibili eta ibili, gauez arbola-fruituz beteriko lore-baratze batera heldu zen, baina ezin zen barrura sartu, urrezko lubaki batek baratzea inguratzen zuelako. Zuriz jantzitako espiritu bat agertu zen orduan, eta lubakiari atea itxi eta hustu egin zuen. Neskatak udareen peskizan, goseak janda, bakoitza zenbatuta eta ondo zainduta zegoela jakin zuen. Baina adaxka bat makurtu zitzaion, eta eskaintzen zion fruitu gozoa jan egin zuen, ilargiaren argipean. Baratzezainak dena ikusi zuen, baina espirituaren magia ikusita, geldirik jarraitu zuen. Neskaxa loak hartu zuen basoan. Hurrengo goizean erregea agertu zen, eta, udareak zenbatuz, bat falta zela ikusi zuen. Baratzezainak espirituaren azioa kontatu zion, orduan. Errege baratzezainarekin eta aztiarekin itzuli zen gauez, baratzea zaintzera. Halako batean, neskaxa agertu zen espirituarekin hegan, arropa-ileak zarpailduta eta muinoiak agerian. Lehen egin bezala, azkenean udarea ahoratzea lortu zuen. Erregeren aztiak, orduan, haiekin hitz egin ondoren, neska erdi gizaki erdi espiritu zela azaldu zion erregeri. Erregek, entzutean, neska

salbatu asmoz gaztelura eraman zuen eta zilarrezko eskuak egin zizkion. Han, elkarrekin ezkondu egin ziren.

Iritsi zen gerra egiteko garaia eta erregek urrutira joan behar izan zuen borrokara, ama emazte maitagarriaren kargu utzirik. Erregina gaztea ume eder batez erditu zen eta erregeren amak mezulari bat bidali zuen, erregek jakin zezan. Bidean, ordea, mezulariak nekearen nekez lo hartu zuen erreka bazterrean. Deabrua agertu zen zuhaitz ondotik, mezulariari mezua kendu zion, eta erreginak izaki erdi gizon erdi zakur batez erditu zela zioena sartu zion zorroan mezulariari. Erregek ikara ederra jaso zuen, baina mezu baten bidez maitasuna agertu zion erreginari eta zain zezaten agindu. Bueltan mezua zeraman mutikoa, berriro ere, loak ziplo gelditu zen erreka ertzean. Orduan, deabrua agertu zen berriro eta mezua aldatu zion; erregina eta jaio berria hiltzeko agindua zeraman beste bat jarri zion. Ama zaharra asaldatu egin zen notiziarekin, eta mezulari batzuk bidali zituen, bata bestearen atzetik, berria egiaztatzeko asmoz. Baina mezu bakoitzeko, agindu gordinagoa zetorren bueltan. Eta azkenak erreginaren begiak eta mingaina gordetzeko eskatzen zuen, haren heriotzaren frogatzat. Amona zaharrak ezin zuen jasan erregina gazte eta samurra hiltzeko asmoa, eta hori egin ordez, uso baten begiak eta mingaina moztu eta gorde zituen. Ondoren, erreginaren magalera haurra lotzen lagundu, beloaz estali eta ihes egiteko esan zion, bizia salbatzearen.

Erregina gazteak bideari ekin zion, sekulako baso mardul batera iritsi zen arte. Ibili eta ibili, azkenean espiritu zuria agertu zitzaion berriz, eta ostatu umil bateraino gidatu zuen, basoko bizilagun bihozbera batzuek gobernaturakoa. Han bertan, erregina baten moduan zaindu zuten, nor zen ondo zekitelako. Erregina zazpi urtez bizi izan zen ostatu hartan, zoriontsu; eta eskuak hazi zitzaizkion berriro. Bitartean, errege gerratik itzuli eta amak, usoaren mihia eta begiak erakutsiz, galdetu zion zergatik agindu zuen bi inuzente haien heriotza. Errege, gertatua ezagutu zuenean, asaldaturik geratu zen, baina amak bizirik zeudela jakinaraztean, erregek haien bila munduaren mugalderaino joango zela erabaki zuen, ezer jan eta edan gabe aurkitu artean. Zazpi urte eman zituen bila eta bila, jan eta edan gabe, baina indar batek zaintzen zion bizia. Azkenean, ostatura heldu zen, eta ostalari zuriak etxean hartu zuen. Etzan, eta beloaz aurpegia estali zion. Lo sakona egin ostean, esnatzean, emaztea eta semea ikusi zituen, baina oso harrিতuta geratu zen emakumearen esku berrituak ikusita. Zilarrezko eskuak gorderik zeuzkala jakin zuenean, ordea, pozaren pozez hartu zuen emaztea, eta basoan festa handia ospatu zuten hango izaki guztien artean. Ondoren, errege, erregina eta semea ama zaharrarengana itzuli ziren, bigarren ezkontza ospatu zuten, eta seme-alaba asko izan zituzten. Seme-alaba haietako bakoitzak ehun laguni kontatu zion istorioa, eta haiek beste ehuni, zeuk ere beste ehuni kontatuko diozun era berean».

## Interpretazioa

### *Lehen fasea: inozentziaren galera*

Emakumeak bizitzan egiten duen traturik txarrena, **biziera sakonaren ordez promestutako biziera aberats eskasago bat aukeratzea** da. Aukeratzen jakin ez izanak izaera instintiboa benetan garatzeko bidea urratuko dio, hala ere, handik aurrera. Garapenaren sarbidea aitak deabruarekin egindako tratu kaltegarriak jartzen du, hau da, emakumearen biziera instintiboaren saltzeak; izan ere, «aitak», emakumearen psikearen zaindariak, huts egin du. Baina emakumearen izaera instintiboak emakumea bera bultzatzen du kanpoko errealitatea ezagutzera, intuizioari esker (gogoratu Vasalisaren ipuina). Pinkolaren ustez, izaera basatiaren hasierako inozentzia gainditu egin behar da. Ipuinean, errotak utzi egin dio aleak ehotzeari; hau da, emakumearen sormena geldirik dago. Pinkolaren esanetan, bada gaztetxoarengan lozorro psikologikoa ematen

den garaia, hamaika urte inguru dituenan (Bettelheimen antzera, pubertaroaren atarian kokatzen duena). Horrela, deabruak —neska gaztetxoaren psikearen harrapariak— haren inozentziaz baliatuz, erraz hartzen du mendean psikea osorik. Horrenbestez, indibiduzio-prozesua martxan jartzen du (arbola —sagarrondo loratua, kasu— da horren sinbolo arketipikoa).

Ipuinean, errotariak (aitak) egurgilearen lan astuna egiten du; esan nahi da, emakumearen animusak psikea elikatu egiten du, baina horretarako oso lan gogorra egin behar du eta soilik bizirauteko balio dio, errota ezin baitu erabili (psikearen sormena geldirik dago, beraz). Niak beti du biziera errazagoa aukeratzeko joera, hots, erosotasunari eta praktikotasunari begira dago. Intuzio zorrotzaren faltan, niak **psikearen osotasuna saltzen du**, eta bizitzaren kontrola kanpoko faktoreen esku uzten du. Ondoren, errotariaren emaztea (ama) ohartu egiten da deabruaren amarruaz, eta asaldatu. Esan nahi da, psikearen gune instintiboa galeraz ohartzen da, eta izutu ere bai; beraz, **indibiduzio-prozesuari hasiera** ematen dio emakumeak.

### Iruzkina

Zertan oinarritzen da Pinkola **inozentiaren galera bat-bateko** kontsideratzeko? Gure kulturaren, soilik? (Marshallek ikertutako mangaiandarrek emango dute erantzunaren zati bat, 4.2.2. atalean, *Andre besamotzaren* iruzkinean).

### *Bigarren fasea: zatikatzea*

Ipuinean, aitak alabaren eskuak moztu egiten ditu. Emakumea konturatu egiten da sentikortasun eta jakintasun faltagatik **animusak (aitak) ez duela zaindu**, traizionatu baizik. Aitak emakumearen ni mundukoi eta menderatzailea adierazten du, eta «egoista» da, berez; hortaz, ez du hil nahi, nahiago du alaba (psikea) sakrifikatu.

Alaba hiru urtez deabruaren zain geratzen da, eta senarrik gabe gainera. Horrekin, senarra azpiko munduan aurkitu behar duela (erregea) adierazi nahi du ipuinak; esan nahi da, instintuen mundu psikikoan eraiki behar duela animusa. Neska ondo garbituta, tunika zuriaz jantzita eta zirkulu baten barruan zutik dago deabruaren zain; hau da, jainkosa zaharren babes magikoaz baliatzen da. Izaturik, antzinako emakumeen indarra eskatzen ari da, Badakienaren laguntza. Heriotzarako araztasunez prestatzeak gaizkia gainditzea dakar berarekin, eta neskaren **malkoak** horren emaitza dira; deabrua uxatzen dute. Deabruak eskuak motzarazten dizkio, neska bere kabuz baliatzearen (psikearen autonomia) irudi diren eskuak, hain zuzen ere. Beste era batera ikasi beharko du baliatzen; horregatik, zilarrezko esku probisionalak jarriko dizkiote, esku sendoak garatzen dituen bitartean. Zilarrak, ipuinean, mundu espiritualaren kolorea adierazten du. Pertsona bati **eskuak mozteak sentikortasuna, oharmena eta sendatzeko ahalmena kentzea** esan nahi du, emakumearen kasuan batez ere, eskuez baliatuz eramaten baititu aurrera eginkizun horiek inguruko gizakiekin eta bizidunekin. Ipuinean, hiru zeregin horiek (sentikortasuna, oharmena eta sendatzeko ahalmena) dira neskak garatuko dituenak, esku berriak haztearekin batera nortasuna helduz doanean. Bitartean, buruak, gorputzak eta hankek bizitza instintiboaren indarra gordeko diote (gogoratu bururik eta eskurik gabeko Bauboren sabel sutua).

Urrats honetan, labur, emakumeak animusa askatu egingo du behin betiko, animusaren ahuleziak ekarritako kalteaz minduta. Ondoren, psikearen indar instintiboak lagunduta, borrokari eutsiko dio nortasuna berritzeko asmoz, eta prestutasun horri esker, indar suntsitzailea (deabrua) alden du egingo du.

**Iruzkina**

Aitak eta deabruak emakumearen alderdi ahula eta kaltegarria islatzen dute. Pinkolak, berriro ere, psikearen **osagai maskulinoa aukeratzen du emakumearen desorekaren jatorri**. Gainera, osagai horiek berezko, jaiotzetiko, ditu. Ideia horixe aurkitzen da *Emakume Foka* ipuinean arrantzalearekin (emakumearen alderdi ego-ista) eta *Bizarrurdi* ipuinean ogroarekin (emakumearen inozentziaren zapaltzailea). M. Meaden ikerketaz auzia argituko da, 4.4.2. atalean, *Andre besamotzaren* iruzkinean.

***Hirugarren fasea: alderrai ibiltzea***

Emakumeak bere kabuz egin behar du bidea. Nortasun zaharraren erosotasuna alde batera uzten du, eta animusa eta instintu lokartuak (aita-ama) utzi egiten ditu; orain, gogamen sakona bilatzen du kontzienteki. Horretarako, alderrai ibili beharra dauka balore propioen eraikuntza horretan. Pinkolak prozesuari *heriotza eta pizkundea, jaitziera* edo *barne-bidaia* ere deitzen dio. Matriarkatu handien antzinako garaian, erritualizatu egiten zen emakumearen azpimundurako trantsizioa.

Bidaia horretan, **espiritu zuriak** —arimaren indarraren mezulariak— laguntzen dio; ipuinean, azpimunduan gidatu egiten du, eta elikatzen laguntzen dio. Espiritu zuria Danteren Virgilioren parekoa da, edo *Coatlicueren* sugea, adibidez; **azpimundua**, greziarren Eliseoa (hildako arima bertutetsuen bizilekua), eta lore-baratzearen bidez ere irudikatzen da. Ipuineko **udare-arbolaren** parekoa antzinako Bizitzaren Arbola da, eta **fruitua**, udarea, inkontziente femeninoa da, Emakume Basatia bera. Emakume Basatiak zaintzen du neska gaztearen sarbidea eta pizkundea heriotzaren munduan.

***Laugarren fasea: maitasuna aurkitzea***

**Erregeak** emakumearen inkontzientearen zaindari-lana betetzen du; beraz, **galdutako animusaren (aita) egiazko ordezkoa** da. Emakumearen etxezaina izanik, Emakume Basatiaren zerbitzura dago. Baratzeko udare guztiak zenbaturik izateak neska gaztearen etorreraren zelatan dagoela esan nahi du. Erregea, baratzezaina eta aztia arketipo maskulinoaren sinbolo helduak dira. Pinkolarentzat, era berean, arketipo femeninoak neskatxa, espiritu zuria eta erregearen ama dira. Erregea bera ere basati egiten da, basoaren bidaia luzean. Emakumearen animusa izanik, haren lege eta jarrerak eraikitzen ditu. **Baratzezainak**, azpimunduaren lore-baratzearen lurra eta landaredia zaintzen dituen eran, psikearen jariora zaintzen du, pentsamendu, ideia eta energiak berrituz. **Aztiak** emakumearen transformaziorako gaitasuna (magia) adierazten du, eta maskulinoa zein femeninoa izan daiteke. Hiru elementuak bi generoetakoak izan daitezke, jatorrian, baina Pinkolak ez du zehazten zerk bultzatzen duen bata ala bestea aukeratzera. Erregearen **ama** emankortasunaren sinboloa da, emakumearen psikearen ongarria, elikagaia; eta harraparitik libratzeko jakinduria dauka.

**Deabrua**, irudi maskulinoa, antzinako emakume-sarbide errituetan emakume zaharraren bidez zegoen adierazita, bizia ematen duena eta bizia kentzen duena baitzen. Erlijioarekin deabruak itxura maskulinoa hartzen duenean, soilik bizia kentzen duena da. Aspaldian, emakume zaharra zen neskatilari erronka psikikoak ezartzen zizkiona, izaera naturalaren bidea bila zezan; beraz, eragin positiboa zuen. Egun, ordea, deabruaren arketipoak eragin negatiboa dauka,

emakumearen psikearen suntsitzaile hutsa baita. Emakumearen psikearen harrapari naturala psikearen beraren alderdi ez-naturala da (contra natura), Pinkolaren hitzetan.

Emakumearen psikearen elementu (alderdi) horiek guztiak elkarlanean aritzen dira, emakumearen transformazioaren egitura integrala baitira. Denak Ama Nagusiaren zerbitzura daude. Transformazio-prozesuan, egoera espiritual batetik bestera **zirkulu**en bidez igarotzen da. Deabrua eta neska bereizten duen klarionezko zirkuluaren ondoren, lore-baratzean sartzeko erreka-zuloaren zirkulua agertzen da. Leku batetik bestera eta egoera espiritual batetik bestera alderrai ibiltzea nekagarri egiten zaio neskari, baina nekeak beldurra uxatzen dio berrikuntzaren aurrean. Baratzeko fruitua (udarea) aurkitzean, **bizitzaren ziklo sakona** ikasi egiten du; badauki psikearen elikagaia ziklo naturalak eskaintzen diola, Bizitza/Heriotza/Bizitzaren jarraibideak.

Erregeak aurkitzen duenean, kontakizunean, **ezkontza** berezia gertatzen da bien artean: hildakoen munduko erregearen eta bizidunen munduko neska besamotzaren artean. Horrela, «bigarren aldiz jaiotzen da neska», Pinkolaren hitzetan; hots, ni instintiboak Emakume Basatiaren azpimundua aurkeztu dion eran, ni praktikoak erregea aurkeztuko dio. Kontrako kontzeptuen arteko ezkontzak heriotza hurbila eta jaiotza hurbila iragartzen ditu: mendeko bizitzaren heriotza eta bizitza propioaren jaiotza. Bien bitartean erregeak **zilarrezko eskuak** ematen dizkio, hots, aldibaterako nia, azpimunduan bere kabuz baliatzeko (ikasteko) tresna. Mitologia klasikoan Hefestori gertatu bezala, neskatxak barne-munduan sentikortasuna berreskuratzen du zilarrezko gailuen bidez.

Horrekin, azpimunduko **erregina** bihurtzen da, *Persefone* Eliseokoa den eran. Persefone hildako arima bertutetsuen erregina da, eta, salbatzeko nahikoa sufritu ez duten arimak askatzearen, Munduko Arbolatik zintzilik egotea bezalako tormentuak jasan behar ditu; horra hor **Kristoren erreminiszentzia garbia. Beraz, jatorrian emakumeari zegokion arimak salbatzeko lana.** Gainera, Persefoneren Eliseoak etimologian «sagarren herrialdea» esan nahi du, hain zuzen, andre besamotzaren azpimunduko baratzean bezala.

#### **Iruzkina**

Deabruaren irudian ikusten da, inon baino hobeto, emakumeak psikean daukan **instantzia suntsitzaileak (ogroak) ez duela zertan genero maskulinoa izan, hori kultura erlijiosoak ezarritako estereotipoa baita** eta, azpian, erlijioak oinarrian daukan gizarte-egitura sexistak ezarritako aurreiritzia. Pinkolak berak aitortzen duenez, antzinaroan emakumeak zeuzkan bi egitekoak: sortzea eta suntsitzea. Beraz, Pinkolak psikearen instantzia suntsitzailea maskulino eta, era berean, jaiotzetiko kontsideratzea kontraesan nabaria da. Egun, emakumeari deabrua agindu kultural itxuran agertzen zaiola aitortzen du Pinkolak, baina, segidan, harrapari «natural» deitzen dio. Kontraesanean murgiltzen da, berriro, naturala eta kulturala ezaugarriak erabiltzen dituenean (deabrua psikearen alderdi «ez-natural naturala» izango bailitzateke, Pinkolarentzat).

#### ***Bosgarren fasea: arimaren tormentua***

Erregea badoa gerrara, baina haur bat utzi dio erreginari, hots, bizitza berriaren (nortasun berriaren) itxaropena, amaren zaintzapean. Beraz, Emakume Basatiak (barne-instintuak) eta gizonaren maitasunak (animus berriaren indarrak) eusten diote erreginari, eta bitartean noraezean aurrera jarraitzen du, hau da, **erresistitu** egiten du arima osatzeko trantze mingarria. Erregearen amak emakume sakonaren bi izaerak gordetzen ditu: zaintzailea da (Persefoneren ama

Demeter-en eran), eta maltzurra ere bai (Hekate sorginaren eran). Horrela, laguntza eskerga eskainiko dio neskatxari, deabruak jarritako oztopoak gainditzeko. Mitologia klasikoan lur azpiko *Lete* ibaiarekin gertatu ohi denez, mezulariak loak hartzen ditu, eta jatorrizko mezua galtzen dute. **Deabruak** akabatu nahi ditu arimaren (instintua) eta espirituaren (animusa) artean igortzen diren mezuak. Deabruak, egungo kulturak, emakumearen mezu sortzaileak okertu egiten ditu, eta horregatik ez dira ez ulertzen, ez eta onartzen. Baina instintu basatia (erregearen ama) deabrua baino azkarragoa da, eta gorde egiten dio neskatxari bere proiektu eta nortasun propioa (haurra). **Instintu basatiaren jakinduria betierekoa den eran, Pinkolarentzat harraparia ere betierekoa da.** Deabruak, psikearen konplexuek egiten duten moduan, berrikuntza —bizitzeko era propioa (basatia)— akabatu egin nahi du, eta eragin maltzur horretatik ateratzeko era indar suntsitzailea kontziente egitea da; hau da, ulertzea, desaktibatu ahal izateko. Horra hor terapia psikoanalitiko.

Sarbidearen hurrengo urratsa hain arketipo esanguratsua den **basoan** ematen du neskatxak, deabruaren eraginez berriro ere bilaketari ekin behar diolako, bere burua bakardadera sakrifikatuz. Erregearen ama zaharrak beloaz estalirik haurra altzora lotzen dionean, eskapatzen lagunduz, Emakume Basatiaren babesa ari da jasotzen. **Beloak** emakumearen kutsu sakratua, numenikoa, adierazten du —Pinkolaren esanetan—, eta baita erotismoa eta edertasunaren alderdi magikoa ere. Aipagarria da egun beloak bere baitan biltzen dituen esanahi kontrajarriak.

#### **Iruzkina**

Pinkolak, berriro, elkarren ondoan jartzen ditu kulturaren deabrua eta psikearen harraparia, bien arteko lotura kausala ezagutuko ez balitz bezala. Gainera, **harrapariaren ezinbestekotasuna** baieztatzen du, betierekoa denez gero; baina hala al da? M. Meadek lagunduko du erantzuna bilatzen, 4.2.2. atalean eta, bereziki, *Andre besamotzaren* iruzkinean.

#### ***Seigarren fasea: Emakume Basatiaren erreinua***

Emakumeak sarbideko bidaia bete egiten du, **itzuli egiten da etxera** (basora), instintuen mundura (Emakume Fokak egiten duen moduan), noraezean ibili ondoren, bidaia hasi zuenean bezala. Espiritu zuriak saritu egingo du haren erresistentzia eta babesera lagunduko dio, Emakume Basatiarenera. Basetxean zazpi urte emango ditu, instintuak garatzen; nortasuna garatzen, alegia. Antzinako greziarren azpimunduko baso sakratua zen *Leuzeren* antzera, neska besamotza animalia eta landareen paradisuan bizi da, eta haren arima osatu egiten da. Basetxeko espiritu zuriak ederki ezagutzen du neska (Baba Yagak Vasalisa bezala), eta hainbat etxeko lan agintzen dizkio (nortasuna osatzeko proba), baina ipuinak galdu egiten ditu lan horien xehetasunak, agian sinesmen paganoak ezkutuan mantentzen zituelako **sarbideko probak**, Pinkolaren esanetan. Hala ere, egin beharreko lanak arketipo ezaguna direnez maitagarrien ipuinetan eta mitoetan, lanen nondik norakoa eratorri egin daiteke, Pinkolaren ustez.

Neska besamotza **zazpi** urtez geratzen da basoan, eta epe horixe bera da emakumearen **bizitzaren aro bakoitzak** irauten duen denbora, ilargiaren fase bakoitzari dagokion zenbakia bera, hain zuzen ere. Aro bakoitzari hasiera ematerakoan, emakumeak bere gorputzaren transformazioari lotutako **ikastaldi fase berria** eta sakona gauzatzen du. Hona hemen emakumearen bizitzaren faseak, adinaren arabera, Pinkolak jakinduria tradizionaletik eratorritakoak. Fase hauek, hala ere, ez daude adin eta ordena finko bati lotuta, emakume bakoitzak berari dagokionean aurkitzen baititu.

Adina (urteak)	Faseak
0-7	Ametsak eta gorputza sozializatzea
7-14	Arrazoia eta irudimena bereiztea
14-21	Gorputz berria aurkitzea
21-28	Mundu berria aurkitzea
28-35	Amatasuna aurkitzea
35-42	Nia aurkitzea
42-49	Heldutasuna aurkitzea
49-56	Azpimundua aurkitzea
56-63	Hautatzea
63-70	Zaintzea
70-77	Gazteagotzea
77-84	Txikitasunean handitasuna aurkitzea
84-91	Bizitza ulertzea
91-98	Existentzia dastatzea
98-105	Arnasa hartzea
105+	Eternitatean sartzea

Neska besamotzak, zazpi urteko aroa burutzean, nortasuna osatzeko prestakuntza bete du, instintuak bereganatzearen bidez. Sinbolikoki, eskuak berriro hazi egiten zaizkio, hau da, **autonomia berreskuratu** egiten du, eta horrekin, sentikortasuna, oharmena eta sendatzeko gaitasuna (eskuen balio arketipikoa).

### *Zazpigarren fasea: senar-emazte basatiak*

Azken fasean, emakumeak egindako lanaren emaitza ezagutzen du: **nortasuna osatzea**. Horretarako, bereganatu egin ditu gaitasun espiritual berriak: **animusa (erregea), nia (semea), instintuen indarra (Emakume Basatia) eta eskarmentua (eskuak berreskuratutako neskatxa)**. Neska emakume jakintsu bihurtu den eran, animusak ere, deabruaren oztopoak gaindituz, kanpoko mundu kolektiboarekin harremanetan jartzeko zolitasuna eskuratu du. Horregatik agertzen ziren gizonezkoak *Eleusiseko* (Demeterren omenezko) sarbide errituetan, Grezia klasikoan. Ipuinean, neska besamotzaren sarbidearen zazpi urtealdiko bertute ikasiak aipatzen ez diren eran, animusarenak ere ez dira aipatzen, baina erator daitezke, arketipoaz baliatuz. Horrela, erregeak, sarbidearen bidez, ausarta izaten ikasi du; gainera, gurarien zikloen ulermena, oreka eta kontrola lortzen du, bereziki gurari sexualarena. Pinkolaren iritiz, erregeak aurpegia beloaz estalirik loak hartu izanak esan nahi du animusak ezin duela emakumearen ezagutza-maila gainditi, beloak emakumearen izaerarik sakonena ezkututzen baitio.

Emakumea **kanpoko mundura** itzultzen denean, hasieran kosta egingo zaio egokitzea, bizitza basatiaren sakontasuna bizi nahiko lukeelako (Sokratesi gertatzen zaion bezala Platonen haitzuloaren teorian). Ondorio moduan, kanpoko bizitzak ezartzen dion presioak eragiten dio emakumeari azpimundura bidaiatu beharra, hots, nortasuna sendotu beharra. Beraz, emaitza positiboa dauka emakumearentzat, **indibiduoaren sarbide-prozesua** gainditzea lortzen badu, handik aurrera bere buruaren alde egingo baitu, kulturak otzantzeko egiten dituen saiakerak guztien aurrean.

Emakumeak sarbide-lana betetzen du zazpi urtetik behin (batez beste), lehenengoan arin samar, gutxienez bizitzan behin lan handiarekin, eta gainontzean era berrizale apalagoan, dagoneko eskarmentua hartuta duelako.

### Iruzkina

Pinkolarentzat sarbide-prozesuaren oinarritzko **helburua nia (semea, egoa, kontzientzia edo intuizioa) sendotzea da, animusa (nolakotasun maskulinoak) eta instintuak (nolakotasun femeninoak) sendotuz**. Horrekin emakumearen integritatea burutzen da. Horrela, *Andre besamotzan* eta *Foka Larruazalan* zerabilen kategorizazio anbigua (semearen irudia) argi daiteke: emakumearen bi muturreko indarren (animusa eta instintuak) arteko bitartekaritza intuizioaren esku dago (semea), eta, emakumearen eta kanpoko munduaren arteko bitartekaritza, bere aldetik, animusaren esku (aita); eta biak dira niaren osagaiak.

Emakumearen gizonezko alderdiak (erregeak) desioen ulertze sakona eta, hortaz, desioen kontrola burutu behar ditu, nortasunaren garapen naturalak (basatiak) eskatzen duen eran. Konnotazioa argi dago: **izaera femeninoak ez omen du desioak deskontrolatzeko joera**. Baina hori berezkoa da ala kulturala? Errepara diezaiogun genetikoki hurbilekoen dugun animaliairen (*bonobo* txinpantzearen) izaera sexualari; izan ere, erabat promiskuoa da bonobo arra zein emea. Beste aldetik, gizonezko izaera heldugabea Dick Koioteraren eredu fidela omen da, hots, alproja eta lizun hutsa; baina hori berezkoa al da ala kulturala? (M. Meadek argituko ditu kuestioak, 4.2. atalean).

«Beloaren muga gnoseologikoari» buruz, esan behar da **agian gizonak ere gordetzen duela izaera basati ezkutua** «beloan», aurreiritzi kulturalak gaindituta azter litekeena. (Ikus M. Mead, 4.2. atala).

Pinkolaren ustez, emakume basatiak, instintuen heziketa burutu duenak, edozein mundutan eusten dio bere buruari; eta gainera, edozein munduren euskarria da. **Larria dirudi edozein mundu (kultura) izaera basatiarekin bateragarri kontsideratzeak**, eta are larriagoa edozein mundu izaera basatian oinarritu nahi izateak. Bestela, ikusi besterik ez dago egungo gizarte globalizatzailean mundu (kultura) asko suntsitzaileak direla berez, printzipio suntsitzaile sendoetan errotuta daudelako; eta izaera instintibo integralak mundu horiek errotik eraldatzea bultzatu beharko luke, ez mundu horretara egokitze soilak.

Pinkolak onartzen du emakumearen nekeak, sumindurak eta sekretu mingarriek jatorri kulturala dutela, eta instintuen bidezko indarberritzearekin emakumeak desoreka kulturalak zuzentzeari ekin behar diola; bistakoa da horrek **Pinkolari konpromiso iraultzaileago bat eskatu beharko liokeela, desoreka sexualaren faktore sozialei begira**. Pinkolak, dena den, emakumearen gaitasun aldatzailea aldarrikatzen du, instintuetan oinarritutako gaitasuna garatzearen bidez, nor bere erara; eta hori da Pinkolaren ekarpenik funtsezkoena.

Emakumearen **sarbiderako prozesu baten beharra, kontzeptu arketipikoa, ipuin klasiko zein antzinakoetan azaltzen da oso hedaturik**, zentzu ezberdinekin, hala ere. Ipuin klasikoetan emakumeak kultura patriarkalarekiko helburu alienatzailea adierazten du (*Ederra eta Piztian*, adibidez, neskak bere gorputza sakrifikatu behar du aitaren ahulezia dela medio, eta barne-bidaian piztia den erregearengandik urrun mantendu behar du, bolada batez), ikusi denez; eta ipuin antzinakoetan, aldiz, autoerrealizazio «basatia» (autonomia) bilatzen da. Bada antzekotasunik, hala ere: bai Bettelheimek eta bai Pinkolak, **sarbide-prozesu gogoetatsua eta pasiboa** gomendatzen dute, heldutasuna eskuratzeko. Gainera, Pinkolak emakumearen garatze-ibilbidea definitzeko ipuin klasikoaren **egitura patriarkala** hartzen du eredutzat darabilen kontakizunean (*Andre besamotzan*), erregearen irudi autoritarioan oinarritzean, gizonaren estereotipo soziala ezin duelako gainditu (animusan ederki islatua). *Baba Yagan*, ordea, emakumearen egitura autonomia errespetatzen du.



*Emakumea: trataera  
ez-sexista*

**4**

#### 4.1. IPUINEN TESTUINGURU SOZIOHISTORIKOA

**Maitagarrien ipuinak mundu errealarrekin antitesian omen daude**, André Jolles-ek adierazten duenaren arabera (Valentina Pisanty-ren *Maitagarrien ipuina nola irakurri* liburuan). Horregatik, lege moral propioei jarraitzen die, eta ez gizadiaren etika bati dagozkion legeei. Jollesen esanetan, ipuinek moralitate instintiboari jarraitzen diote. Hala ere, pentsalariak aitortzen du ipuinetan gauzak gertatzen direla gure sentikortasunaren arabera munduan gertatu beharko luketen eran. Ipuinaren unibertsoa espazio eta denbora definitu gabeen kokatzeak horixe bera adierazten omen du. Hortaz, ipuinaren munduaren eta esperientzia errealarren artean bereizketa nabaria aurkitzen du Jollasek.

Pisanty-ek adierazten duenez, ipuinen oinarrizko balio eta arauak ez datoz irakurleak bere baitan gordetzen duen errealtate-ereduarekin bat. Aztertu den moduan, Bruno Bettelheim-ek berak onartzen du ipuinek umearen mundu-ikuskeran duten eragina, umearen barneko eta kanpoko errealtatea antolatzen laguntzen baitiote. Beraz, Pisanty-ek dioenaren oso bestela, **ipuinaren oinarrizko balio eta arauak eragin zuzena dute irakurleak antolatzen duen errealtate-ereduan**; eta Jollesek ezarritako bereizketa morala gaindituz, ipuinaren moralitateak haurraren errealtatearen moralitatea baldintzatu nahi du. Pisantyren arabera, ipuinak «zoragarri» denaren generoan kokatzen direnez gero, irakurleak kontakizunak proposaturiko ahalezko munduaren onarpen akritikoa egiten du; baina B. Bettelheimen tradizioak berak gezurtatzen du ideia ingenuo hori, umearen kontzienteak ez bada, haren prekontzienteak edo inkontzienteak barneratu eta, ondoren, aplikatu egiten duelako ipuinaren irakaspena. Jarrera zoli baina aktiboz (kritikoz) aplikatzen du umeak kontakizunaren edukia umearen beraren unibertsoan. Horregatik, umearen unibertsoaren antolaketa erasotzen badu ipuinak, haurrak ezinegona adieraziko du eta ipuinari bukaera jakin bat eskatuko dio.

B. Solinas-Donghi-ren arabera, jasotako lehen ipuin literarioa Apuleioren *Eros eta Psike* da, eta haren egituraketa ortodoxoari erreparatuta, ipuinen forma mendeetan zehar egonkor mantendu dela ikusten da. XVII. mendera arte ipuinen hartzailea herria zen, eta ez haurra (bereziki). Ikusi besterik ez dago Erdi Aro osoan ez zitzaiola haurrari izaera eta pentsaera berezirik aitortzen. Robert Darnton-en arabera, ipuinen bertsiio zaharrak nekazari helduari daude zuzenduta, garaiko ingurune soziokulturala erakutsi nahi diotelako. XVII. mendean zehar haurtzaroaren berezitasunaz ohartzen hasten dira klase sozial jasoak, eta hezitzaile eta moralistak arduratzen hasten dira haur-literaturaren beharraz. Ipuinak mende horretan **moralizatu** egiten dira, eta hartzailearentzat egokitu (Giambattista Basilek Italian, lehenik; eta gero, Charles Perraultek, Frantzia). Perraulten errepertorio ezagunak, ipuin bukaeran *moralités* erako irakaspenak izanik, hartzaile haurra duela dirudi; izan ere, hark du moralizatzeko premia nagusia, nahiz eta Perraultek ez aitortu. Hala ere, Perraulten jarrera ironikoak kontakizunekin gordea dibertitzeko asmoa salatzen du, nahiz eta haren estilo soil eta ingenuoak haurrengana iritsi nahi zuela pentsarazten duen. Aldaketa sakona XVIII. mendean hasiko da, ilustrazioaren pedagogia enpirikoarekin (batez ere Rousseau-en ekarpen ideologikoaren bidez), eta harrezkero pedagogia haurraren zerbitzura jarriko da.

XIX. mendean haurra bihurtzen da hartzaile nagusi, 1819. urtean esplizituki haurrentzat Wilhem Grimm-ek Alemanian argitaratutako *Haurrentzako eta etxerako ipuinak* bildumarekin. Grimm anaiek eman zieten gaur egun ezaguna den forma ipuinei (ipuin literario burgesen itxura, hain zuzen). Horrekin, burgesiaren mundu-ikuskerara eta moralitatea ezarri zuten; eta, ipuinen bitartez, pedagogia moralizatzaile burgesak portaerak erakutsi zituen (hala nola ordena, lana, zuhurtasuna eta lasaitasun domestikoa), eta, Pisanty-ek dioen eran, rol sexual zehatzak bultzatu

zituzten; horrela, **emakume pasiboak eta otzanak suspertu zituen, eta, era berean, gizon aktibo eta abenturazaleak**. 1819. urteko bildumarekin burgesiak grinaz hartu zuen ipuinen irakurketa, eta, horri esker, belaunaldi askotako hurrek kultura menderatzailearen (burgesia) balio nagusietako batzuk barneratu zituzten. XIX. mendearen bigarren erdialdiaz geroztik merkaturia bete duten haur-ipuinen bilduma gehienek Grimm anaiei ildoari jarraitu diote. Salbuespen gisa, Andrew Lang-en hamabi *Fairy Books*ak ditugu, Britainia Handian oihartzun zabala izan zutenak. Langen hamabien arteko lehen ipuin sorta Perraulten bertsoetan oinarritu zen, eta, horrela, adibidez, Perraulten *Txanogorritxoren* aldaera gordina darabil, nahiz eta Langek hurrei begira idazten duen eta haurren ikuspegi biguna eta purua duen. Badirudi, ordea, horrek arrazoi soziokulturalak dituela. XIX. mende bukaerako Britainia Handian joera pedagogikoa oso zorrotza zen, mende osoan haurren heziketak garrantzi handia hartu zuelako; izan ere, inbertsio ekonomiko-afektibotzat hartu zen. Haurrenganako trataera lehen baino maitagarriagoa da, baina baita zorrotzagoa ere (oraindik zigor fisikoa erabiltzen da, batez ere nekazarien etxeetan eta eskolan). Ildo horretan, Ipar Europako herrialde protestanteetan haurren heziketa bereziki da zorrotza, eta zigor fisikoak hartzen du haien autonomiaren lekua. Eskualde horretan, tradizioz mantendu diren ipuin ohartarazleek ere (maitagarri-ipuinek ez bezala kontakizunean hutsegiteak barkatzen ez dituztenek) beren tokia konkistatzen dute.

Azken mendeetan, ipuinek haurra daukate hartzaile; beraz, haien interesetara eta hizkuntzara egokitzen dira, eta, horretarako, ipuinei arreta pedagogiko eta didaktiko berezia eskaintzen zaie. Horregatik, ipuinek formaren eta edukiaren eraldaketa modernoa izan dute, horrek adierazten duen manipulazio ideologiko nabarmenarekin. J.R.R. Tolkienek azpimarratzen duen moduan, ipuinak ez du heldua baztertzeko. Pisantyrentzat, ildo horretan, ipuinak gaur egun haurrari bakarrik erreparatzeak ondorio negatiboak dakartza, errealitatea fikzio gordin eta krudelarekin nahastearen eragin gaiztoa saihesteko ipuinari irudi gogorrak kenduz, jatorrizko eduki sakona (asmo hezitzailea eta moralizatzailea) hustu egiten delako. Tolkienen ideia hori Bruno Bettelheimen oinarrian berresten du, haurra ipuinaren gaitasun sinbolikoaz ederki konturatzen delako.

#### 4.1.1. Ondorioak: trataera menderatzailearen kritika

Bruno Bettelheimen planteamenduak ondorio hauetara eramaten gaitu.

Ipuinen testuinguru soziohistorikoak argi uzten du, funtzio gizarteratzailearen bidez, irakurle zen sektore soziala menderatu nahi izan dela. XVII. mendera arte herri xeheari jarraibideak erakusteko eta XVIII. mendetik aurrera haurren enkulturazioaren bidez hierarkia soziala bermatzeko funtzio zehatza izan dute, dela hierarkia aristokratikoa (Perraultekin, nabarmen), dela hierarkia burgesa (Grimm anaiekin, nabarmen); eta gizarte estamentalaren eta klasistaren printzipio nagusi bat egitura patriarkala izanik, **beharrezko dute ipuinek errepikatzea neska eta mutilen arteko rol-bereizketak tradizionala, eta, horrekin, emakumearen diskriminazio soziala**.

Hortaz, gizabanakoaren nortasun-garapenari erreparatzen bazaio, Bruno Bettelheimen asmo osatzailearen gainetik, **haurrak (gizabanakoak, orokorrean) murrizturik izan du, mendeetan zehar, nortasunaren adierazpide eta bilakabide-espektroa**, kultura estetizista baten bidez (ipuinen osagai zoragarria) ezarri zaizkion rol estuetara; eta, zehatzago, rol sexual estuetara (datorren atalean Margaret Meadekin argituko den eran). Beraz, ipuinen egitura arketipikoak gizabanakoaren garapen psikologikoan izan duen eraginak bermatu egin du **emakumearen diskriminazio psiko-sexuala**.

.../...

.../...

Hona hemen, ipuin klasikoen emakumearekiko trataera menderatzailean, Bruno Bettelheimek ontzat ematen dituen ezaugarri sexista nagusiak.

1. Emakumea ezin da bere kabuz errealizatu.
2. Emakumea jeloskorra eta maltzurra da.
3. Emakumeak ez dauka irrika sexualik, eta baldin badu, ezin du kontrolatu.
4. Emakumea gizonaren zerbitzaria da.
5. Emakume protagonistak ederra izan behar du.
6. Emakume eredu birjina eta purua da.
7. Emakumeak gizona engainatzen du.
8. Emakumeak gizonaren akatsak eta okerrak onartu, eta maitatu behar ditu.

## 4.2. MARGARET MEAD ETA IKUSPEGI BERRIA

### 4.2.1. Kokapena

Margaret Meadek 30eko hamarkadan **ikuspegi interkulturala** ezarri zuen antropologian, bereziki, gizartearen rol sexualak ulertzeko. Gizartearen egituraketan konbentzioek duten eragina aztertzeko munduaren muturrera jo zuen, gizakiaren historia globaletik isolatuen zeuden herrietara; horrela, Ginea Berrian hainbat herriren ikerketak egin zituen (*Nerabezaroa eta Kultura*, *Heziketa eta Kultura*, eta *Sexua eta Izaera* lanak). Emaitzak azpimarragarriak dira. Herri horien rol sexualen azterketa *Sexua eta Izaera* lanean argitaratu zuen, eta, ondorio moduan, herri horietako bakoitzak rol-banaketa berezia zuela adierazi zuen: *arapeshtarren* artean, gizonak zein emakumeak izaera berekoak ziren, hala nola «femeninoak» eta «antimaskulinoak»; *mundugumortarren* artean, gizonak zein emakumeak izaera berekoak ziren, hala nola «maskulinoak» eta «oldarkorrek»; eta *tchambulitarren* artean, rola bereizi egiten ziren: emakumeak bikotearen alderdi menderatzailea, hotza eta arduratsua ziren; gizonak, berriz, «emozionalki menderatuak eta arduragabe samarrak» ziren.

Horrekin erakutsi zuen gizakiaren izaera malgua zela, eta **kultura zela, eta ez biologia, kategoria sozialak bereizten zituena**, banakoak sailkatzen zituena. Ikuspegi horrekin John Locke-ren tradizioari (gizakia jaiotzean *tabula rasa* da) eutsi zion, Harbert Spencer-en tradizioaren (indartsuenaren legea) aurka. Franz Boas (antropologiaren aita) ambientalistaren ildotik, gizabanakoaren nortasuna eta portaera batik bat ingurune kulturalak moldatzen duela baieztatzen zuen. Beraz, generoari eta etniari buruzko ezberdintasun guztien jatorria batez ere heziketan kokatu zuen. Hala ere, herentzia biologikoaren eragin apala ez zuen ukatu, «egokitu gabekoen» kasurako zehaztu zuena (4.2.2. atalean azalduko da).

Margaret Meaden teoriak, geroztik, onespenuk jaso ditu, baina baita kritikak ere. Hala ere, haren ekarpena giza talde minoritarioen aldekoentzat **iraultzailea** izan zen, bizi izan zuen garaian (mugimendu eugenesisikoaren eta arrazistaren goraldia, mendealdeko gizartean). Aurkako kritikak, batez ere, erabilitako **metodologiari** egiten zaizkio (Marvin Harris-ek argi salatu zuen M. Meadek metodo subjektiboegia zerabilela, baina guztiaren gainetik haren ekarpena goratu zuen). M. Mead, nabaria da, inpresio emozionaletan oinarritzen zen natiboen jokaera deskribatzeko, eta adjektibo bidez ezaugarritzen zituen aztertutako herriak (Ruth Benedict-ekin batera, kultura kategoria psikologikoetara ekarri nahian).

Hala ere, **edukiak** ezinegon sakona sortu zuen eremu intelektual zabal batean (Derek Freeman, adibidez, M. Meaden Samoako sexualitate-ikerketaren aurkako ondorioak ateratzen saiatu zen). Ildo horretan, Helen Fisher-ek ere edukiari erreparatzen dio, M. Meaden aurka, faktore berri baten garrantzia aldarrikatuz Meaden «kulturalaren» ginetik. Faktore berri hori, gizakiak eboluzio naturalari esker erabiltzen duena, **gogamena** da. Gogamenak faktore biologikoaren eta kulturalaren ginetik eragiten du, haren ustez, gizartea antolatzeke garaian. H. Fisherrek, hala ere, Meaden ekarpen iraultzailea aitortzen du.

#### 4.2.2. Teoria

Ginea Berriko ikerketen bidez, M. Meadek nortasunaren bidezko portaera-ezberdintasuna aurkitu nahi izan zuen gizonen eta emakumeen artean. Horretarako, lan-hipotesizat kontrastatu nahi izan zuen nortasun-izaera batzuk, berez, maskulinoak direla eta beste batzuk, berez, femeninoak. Ikerketarekin **ondorio** nabarmenetara heldu zen.

Lehenengo ondorioaren arabera, gizarte bakoitzean **sexuaren berezitasun biologikoetan oinarriturik, artifizialki hartzen dira berezkoizat gizonen eta emakumeen rolen ezaugarriak**. Bi generoak, gizona eta emakumea, hasieratik nahi dira bereizi, interes kulturelek hala erabakita (E.J.S. Putnam-en *The Lady* lanean argi ikusten da kulturak desitxuratzen duela emakumearen gaitasuna).

Bigarren ondorioaren arabera, **kultura bakoitzak bere erara instituzionalizatu (eraiki) ditu gizonen eta emakumeen rola, eta ez nahitaez kontrastearen, menderatzearen edo esanekotasunaren bidez** (Vaerting anaien *Sexu menderatzailea* lanak adierazten duenaren aurka, emakumeak gizonaren rol menderatzailea gainditzeko bide bakarra ez da emakumea bera menderatzaile egitea). Musulmantzat, adibidez, izaeraren aldetik gizona da menderatzailea, eta emakumea, otzana. *Tchambulitarrentzat*, aitzitik, izaeraren aldetik emakumea da menderatzailea, eta otzana, gizona; *arapeshtarrentzat*, ordea, biak dira otzanak.

Hirugarren ondorioaren arabera, **ez dago sexuak bereizteko balio duen rol unibertsalik**. Rolak bereizteko kultura batentzat baliagarria den izaera (ausarta edo koldarra izatea, kasu), beste batentzat ez da baliagarria izaten (*mundugumortarren* artean bi sexuek jokaera ausart bera erakusten dute). *Arapeshtarrentzat* eta *mundugumortarrentzat* ez dago bi sexuak bereizteko izaerazko ezaugarririk, bi sexuek izaera bera izan ohi dute eta. Gizarte osora estrapolatuz, sexu batentzat jaiotzetiko hartzen dugun izaera, giza nortasun orokorraren konbentziozko moldaketa baten kasu hutsa da, eta gizartea, heziketaren bidez, sexu horretako gizabanakoei ezartzen saiatu ohi da.

Hona hemen ikertu zuen herri bakoitzaren profila.

*Arapeshtarren* artean, gizonen zein emakumeen rol sexual bera dute: femeninoa, amatiarra, kooperatiboa eta bakezalea.

*Mundugumortarren* artean ere, gizonen zein emakumeen rol sexual bera dute: maskulinoa, berekoa, ankerra eta oldarkorra.

*Tchambulitarren* artean, rol-bereizketa badago, baina, gizarte patrilineala izan arren, munduan ohikoa den rol-banaketaren alderantzizkoa gertatzen da: emakumea da menderatzailea,

inbertsonala, zuzendaria, gutziatsua, ausarta eta sexualki aktiboa; gizona, aitzitik, menekoa, emozionalki otzana eta apaina da.

Gizarte bakoitzaren **egituraketa sexuala heziketaren bidez** transmititzen da. Haurrak jasotzen duen heziketa bidezko baldintzapenak, batik bat lehen haurtzaroan eraginkorra denak, jatorri kulturala du; eta heziketaren bidez, haurrak kulturak nahi dituen ahalmenak landuko ditu.

**Rol bakoitzaren eraikuntza arbitrarioa da.** Lehen ondorioak dioen legez, artifizialki hartzen dira berezkozat gizonen eta emakumeen rolen ezaugarriak. Rol bakoitzaren eraikuntzan, sexu bakoitzaren kide batzuek dituzten ezaugarriak hartu izan dira eredu, eta sexu osoari zabaldu zaizkio; eta horrela osatu da rol sexualaren profil psikologikoa, ezaugarri emozionalak, intelektualak, teknikoak eta artistikoak kontuan hartuta. Gizadiaren eboluzioan egokitasunak erabaki du, hortaz, rol sexualaren profila.

**Sexualki homogenea** den kulturak (*arapeshtarrek* eta *mundugumortarrak*) haur guztiengan balio berak garatzen ditu, izan neska izan mutila. Beraz, ez dira joera psikologiko edo soziologiko ezberdinak agertuko bi sexuen artean, eta gertatzen diren joera-desbideraketak ere berdin gertatuko dira sexu batean zein bestean. Ez da klaseen banaketarik gertatzen, ez sexuaren ez adinaren arabera. *Arapeshtarrek* zein *mundugumortarrek* gizaki mota (rol sozial) bakarra eraiki dute; ez dute, beraz, jarrera berezirik sortu sexu bakoitzarentzat. Ez dute ezagutzen sexuen arteko alderik (biologikoaz gain), eta ez dute pentsatzen sexu bakoitzak era ezberdinean sentitzen duenik.

Margaret Meadek aitortzen du hiru gizarte mota horien egituraketa sexuala gizadian heterodoxoa dela, eta bakartze geografikoak bultzatu dituela giza historiaren korrante nagusiaren aurka; baina tipologia sozial hori existitzea nahikoa izan da gizartearen kategoria sexualei izaera absolutua kentzeko.

Kasu aipagarria da tribuaren rol sozialetara egokitu ez diren gizabanakoena. Bai *arapeshtarren* eta baita *mundugumortarren* artean ere, «**egokitu gabekoen**» **profil psikosexualak ez du aldaketarik jasaten**, eta ez da homosexualitatearik izaten. Egokitu gabekoek, hots, arrazoi fisiologikoengatik edota intelektualengatik ezarritako profil sozial bakarrarekin identifikatzen ez direnek, ez dute beste profilik ezagutzen (ez sozialik, ez sexualik); beraz, haien joerak ez du forma zehatzik hartzen, ez baitute beste izaerarik ezagutzen; soilik urrunketa eta apatia sentituko dute.

Oso bestelakoa da *tchambulitarren* kasua. Haien artean egokitu gabekorik baldin badago, haien beste talde sozial (sexual) bat ezagutzen dute, eta harekin identifika daitezke. Orduan, ez dagokien talde baten jokaera edo ohiturak errepikatzen badituzte, identifikazioaren bidez talde horrekiko joera psikosexuala nabarmenduko zaie. Hala, *tchambulitar* gizonek emakumeen joerak badituzte, erabakiak inposatzekoa adibidez, haiekiko **identifikazioak inbertsio psikosexuala eragingo die** eta, horrekin, trabestismoa edo homosexualitatea. Fenomeno hori da arruntena gizarte gehienetan, mendebaldeko zibilizazioan, adibidez.

Horren ondorioz, Freuden ideien aurka, M. Meadek **homosexualitatea Ediporen konplexu gainditu gabekotik harago eramaten du** (Malinowskik ere lehenago, Trobriand uharteetan Ediporen konplexua gainditzeko semearen aitarekiko urrunketa jeloskorra gertatu beharra gezurtatu zuen). Homosexualitatearen jatorria ez dago beste sexukoekiko identifikazio psikologikoan (sexu berekoen irudi indartsu baten gabeziagatik), beste sexukoak talde definitu-

tzat hartzean baizik; zeren, horrela, beste sexukoekiko identifikazioarekin batera haien izaera osoa bereganatzen baita. Esan nahi da, *arapeshtarren* eta baita *mundugumortarren* artean ere, gizon bati emakumeen ohiturak eta izaera gustatzen bazaizkio eta errepikatzen baditu, ez ditu horrekin batera haien gustu sexualak barneratuko, ez baitu gizonak bere burua emakumetzat sailkatuko. Kasu asko daude homosexualitatearen iturritzat hartzen den lotura edipiko freudiarra gezurtatzen dutenak.

Homosexualitatea desoreka eta desegokitasun psikosozialtzat hartu beharrean, **hainbat kulturak homosexualitate maskulinoa gizonaezkoaren garapenerako instituzio bihurtzen dute**. *Crowtarren* artean, adibidez, hango artasun zorrotzera heltzen ez diren gizonen feminizatzeko logikoak *berdacheak* edo «gizon afeminatuak» sortzen ditu, gerlari handiei fabore sexualak eskaintzeko. Era berean, *azandetarren* artean, gerlari ezkongabeek gerlari ikastunekin harreman sexualak izaten dituzte hurrengo gerlari-maila eskuratzeko; eta *etoroen* artean, homosexualitatea praktika erritual bihurtzen da.

Marvin Harrisek nabarmen uzten duen eran (gizarte aurreestatalak aztertu ondoren), ez da Ediporen konplexua herrien arteko gerraren kausa. Aitzitik, **gerraren beharrak sortzen ditu oldarkortasuna eta jelosia sexuala (Ediporen konplexua)**. Hortaz, ikuspegi freudiarra alderantzizatu beharra dago.

Ondorioz, ez dira diferentzia anatomikoak artasuna eta emetasuna eraikitzen dutenak, kultura baizik. M. Meaden moduan, beraz, M. Harrisentzat ere **kulturak definitzen ditu artasuna eta emetasuna**, eta, hortaz, esaten du nola erabili behar diren gizonaezkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasun anatomikoak.

Mendebaldeko kulturak **rol sexual hertsia erabiltzeak identitate sexualaren nahastea eta inbertsioa (estalia edo garatua) ere eragiten ditu**, gizabanakoaren izaerari eta jokaerari identitate sexual bat egotzi nahian. Horrela sortzen dira *moldatau gabeak*. Psikiatriarentzat aitarekin identifikatzen ez den mutikoak jokaera maskulino normala izateko oinarria galtzen badu ere, kontuan hartu beharko litzateke, Meaden arabera, haur batzuek beste sexuko gurasoa aukeratzeko dutela eta harekin identifikatzen direla, ez hura gehiago maitatzeko asmoz, baizik eta haren **zaletasunarekin eta izaerarekin afinitate** handiagoa dutelako (beste hainbeste esan beharko litzateke anai-arreben gainean). Kasu paradigmaticoak ditugu, baita psikoanalista adituen artean ere. Bruno Bettelheimentzat berarentzat emakume bati **zaldi gainean** ibiltzen gustatzeak irrika sexual maskulinoaren kontrol-nahia adierazten badu ere (gizonaezkoaren aldeko edo kontrako joera, beraz), M. Meaden arabera koordinazio fisikoak emakumeari sortzen dion sentazio atsegin hutsa adieraz dezake, besterik gabe.

Mendebaldeko kulturaren, tradizioz jaso diren rol sexual hertsiek eta (AEBn, bereziki) genero bakoitzarentzat jasotako jokaera konplexuek eta estratifikatuek talka egiten dute sexu-parekatze aniztasunarekin, eta **gizabanako bakoitzari dagokion estatus sexuala krisian** murgiltzen ari da, gero eta gehiago.

M. Meaden aburuz, gizarte batek rol sexualen arbitrariotasuna barneratu duenean eta haren malgutasuna erabili, **hiru bide dauzka estatus sexualaren desfase soziala saihesteko**.

Lehenengoa gizonen eta emakumeen **nortasunak aurkakotasunean finko estandarizatzeko** da; tradizioari, beraz, muturretik eustea. Horrek nortasun sexual bakoitzaren frustrazioa areagotuko luke.

Bigarrena gizonentzat eta emakumeentzat **nortasun sexual bera ezartzea** da. Horrek eragozpen bat dakar berarekin: konplexutasuna galtzea. Nortasun sexualen bateratzeak aniztasuna oztopatzen du, eta, horrekin, izaera ezberdinen eta adierazpideen aberastasuna galarazten du; dena, rol bakar baten mesedetan. Egoera horretan «moldatu gabeko» berriak leudeke, haien nortasunak adierazpiderik ez aurkitzeagatik (*arapeshtarren* eta *mundugumortarren* artean gertatzen den eran). Nortasun-talde ugari baleude, ordea, batean falta duen adierazpidea bestean aurkituko luke, eta hori izango luke inspirazio-iturri; beste nortasun-talde batek piztuko lioke **irudimen sortzailea** (Pinkola Estesek emakumearentzat hainbatetan aldarrikatzen duen gaitasuna).

Hirugarrena, eta baliagarriena, kategoria biologiko, soziologiko eta psikologiko oro albora utzita, gizakiek (gizonak eta emakumeak bereizi gabe) duten **nortasun aniztasunari eta ezberdintasunari adierazpidea ematea** da. Sexuak bereizteak historian eragin duen nortasuna adierazteko murrizketa ez da sexuen bereizketa gainditze hutsarekin konpontzen; sexuen bereizketa-aren azpian klase sozioekonomikoen bereizketa datzalako, eta horrek sortzen du sakoneko murrizketa gizabanakoak nortasun propioa adierazi ahal izateko. Beraz, ez da nahiko burgesiak XVII. mendean geroztik emakumearentzat eragin duen estatus pribilegiatua, **bereizketa sozioekonomikoak** nortasunaren adierazpideari eragindako murrizketa ere gainditu beharra dago. Hala ere, eskakizun hori ez da erronka erraza, egituraketa sozialak berezko duelako nortasuna garatzeko ahalmenen diskriminazioa, erosteko ahalmenaren araberakoa, eta arazo politiko horren aurrean M. Meaden garaitik ez da soluziobidean asko aurreratu.

#### 4.2.3. Ondorioak: trataera osatzailearen kritika

Clarisa Pinkola Estesek planteamenduak ondorio hauetara eramaten gaitu.

**Ez dago arketipo sexual finkorik**, arketipo sexual oro kulturala baita, hots, konbentziozkoa, eta ez jatorrizkoa (Margaret Meaden ikerketak nabarmen utzi zuen eran). Ahozko tradizioak (ipuin bitartez, besteren artean) kultura patriarkalaren ginetik gorde dituen ahalmen femeninoak antzinako gizarte paganoaren lekuko dira; beraz, gizarte patriarkalean garatu diren ahalmen maskulinoekin borroka bizian mantendu dira. Borroka horretatik Pinkolak kategoria absolututzat dituen **emakumearen izaera sortzailea eta gizonaren izaera suntsitzailea asmatutako estereotipo kultural hutsak dira**. Horregatik, kultura ezberdinetako ipuinen artean arketipo sexualen borroka bizia nabari da; baita ipuin beraren interpretazio (kultural) ezberdinen artean ere. *Txanogorritxo* eta *Otsemea* ipuinek otsoak duten tratamendua aurkakotasunean oinarritzen da: *Otsemean* otsoa feminoa eta osatzailea da, eta *Txanogorritxon* (zein tradizio klasiko osoan) otsoa maskulinoa eta suntsitzailea da. Era berean, Pinkolaren *Bizarrurdinen* gizona maltzurra eta neska ingenuoa badira ere, Bettelheimen *Bizarrurdinen* neska da maltzurra eta gizona ingenuoa.

Pinkolaren ustez, emakume basatiak, instintuen heziketa burutu duenak, edozein mundutan eusten dio bere buruari; eta gainera, edozein munduren euskarria da. **Larria dirudi edozein mundu (kultura) izaera basatiarekin bateragarri kontsideratzeak**, eta are larriagoa edozein mundu izaera basatian oinarritu nahi izateak. Bestela, ikusi besterik ez dago egungo gizarte globalizatzailean mundu (kultura) asko suntsitzaileak direla berez, printzipio suntsitzaile sendoetan errotuta daudelako; eta izaera instintibo integralak mundu horiek errotik eraldatzea bultzatu beharko luke, ez mundu horretara egokitze soil. Hala ere, kontraesanean erortzen bada ere, Pinkolak berak onartzen du (*Foka-larruazalean*) emakumea komunitatearen (kulturaren) ginetik dagoela, hots, izaera komunitatearen eskakizunen ginetik gorde behar duela, eta, beraz, Emakume Basatia ez dela edozein kulturarekin bateragarria. Badirudi, sakonean Pinkolak ihes egin nahi diola kulturaren eragin alienatzailea aztertzeari.

.../...



.../...

Pinkolak onartzen du emakumearen nekeak, sumindurak eta sekretu mingarriek jatorri kulturala dutela eta, instintuen bidezko indarberritzearekin, emakumeak desoreka kulturalak zuzentzeari ekin behar diola. Bistakoa da horrek **Pinkolari konpromiso iraultzaileago bat eskatu beharko liokeela, desoreka sexualaren faktore sozialei begira**. Pinkolak, dena den, emakumearen gaitasun aldatzailea aldarrikatzen du, instintuetan oinarritutako gaitasuna garatzearen bidez, nor bere erara; eta hori da Pinkolaren ekarpenik funtsezkoena.

Hona, Pinkola Estesi **ipuinez ipuin egin beharreko kritika**, M. Meaden ildoari jarraituz gero.

**Otsemea.** Emakumearen arketipoa ez da finkoa, ez jaiotzetikoa (naturala), kulturala baizik, giza bilakaera sozialak garai batean eraiki zuena, ingurune naturalerako egokitzapenaren bila.

**Bizarrurdin.** Irrika suntsitzaileen izaera ez da jaiotzetikoa, ez eta halabeharrez gizonezkoarena. Ikusi besterik ez dago *arapeshtarren* artean gizonen eta emakumeen izaera sexual baketsua, eta *mundugumortarren* artean gizon eta emakumeen izaera sexual oldarkorra.

Emakumearen instintuen izaera gizonezkoa ala emakumezkoa kulturaren arabera moldagarria da, hala nola *tchambulitarrentzat* instintu oldorkarrak emakumezko itxura hartzen du; hortaz, ez da berezkoa. Kategoria psikoanalitiko horiek, beraz, arketipo kulturalen moldagarritasunaren arabera aldatzen dira.

**Manawee.** Gizonaren eta emakumearen arketipoen balioa (txakurra eta otsoa) aldakorra da, kultura bakoitzean batak eta besteak betetzen duten izaera basatia (sakona) aldakorra den neurri berean (ikusi besterik ez dago Meadek ikertutako hiru herrietako generoen profila).

**Emakume Eskeletoa.** Pinkolak ez du «maitasunik» gabeko harreman sentsuala emakumearen propiotzat hartzen. Arketipo sexual hori, besteak bezala, kulturala eta aldakorra da, ordea.

**Foka-larruazala.** Pinkolaren interpretazioan, gizona agertzen da psikearen alderdi iluna adierazteko, emakumearen alderdi ego-ista (gizarteratzailea). Meadek erakutsi zuen eran, aldiz, rol sexualen arketipoak kulturalak dira, eta, beraz, aldakorrak. Ikusi besterik ez dago *tchambulitarren* kasua, komunitatean egoistaren rola emakumeak joka dezakeela konturatzeke.

Pinkolak emakumea komunitatearen (kulturaren) ginetik jartzen du, hots, emakumearen berezko izaera komunitatearen eskakizunen ginetik gorde behar du. Meaden azterketak erakutsi du emakumearen izaera bakarria kulturaren oinarritzen dela, hortaz, kulturak eskaintzen dizkion *espektatibetan*. Emakumeak «berezko izaera» berreskuratu nahiak **desfasea** dagoela salatzen du, kulturak garai batean eskaintzen zionaren (berezkoa izatea) eta orain eskaintzen dionaren (alienazioa) artean, alegia.

**Negartia.** Kategoria psikologiko zein soziologikoen polarizazio sexuala eraikuntza guztiz kulturala da, hortaz, kategoriak beraiek diren moduan, aldakorra. Emakumearen animusa **niari (gizonezko instantzia)** atxikitzen dio *Negartian* Pinkolak, nahiz eta animusarenak omen diren inizatiba eta bitartekaritza **intuizioari (emakumezko instantzia)** egokitu *Foka-larruazalean*. *Tchambulitarren* kasuak, ordea, argi uzten du rol sozialek ez dutela genero markarik.

**Ilgorako hartza.** Kategoria psikologiko zein soziologikoen polarizazio sexuala eraikuntza guztiz kulturala da, hortaz, kategoriak beraiek diren moduan, aldakorra. Emakumearen sumindura **niari (gizonezko instantzia)** egozten dio Pinkolak, baina *arapeshtarren* eta *mundugumortarren* izaerak nabarmen uzten du rola kultura batetik bestera alda daitezkeela.

.../...

.../...

Bestalde, *Ilgorako hartzan* gizonaren sumindurak izaera guztiz kulturala du, hura amorratuta gerratik baitator; hortaz, faktore amorrarazlea ez dago gizonaren baitan, gizartean baizik.

**Andre besamotza.** Donald Marshallen landa-ikerketara jo daiteke (1971). Polinesiako *mangaiandarren* artean, «neska gazteei ez zaizkie amodiozko deklarazio erromantikoak interesatzen, laztanaldi luzeak edo atariko joko amoltsuak. Harreman sexuala ez da afektu maskulinoaren saria; alderantziz, afektua bera bihurtzen da asebetetze sexualaren sari». Gainera, «mangaiandarren artean ohikoak dira pubertaro aurreko harreman sexualak, eta, gerora ere, ezkontza aurreko harreman sexualak» (Marvin Harrisen hitzetan). Arlo sexualean, bederen, herri honetan ez dirudi inozentziaren bat-bateko galera ematen denik.

Pinkolak psikearen **osagai maskulinoa** aukeratzen du emakumearen desoreka psikikoaren irudi. Baina, ikusi denez, kategoría psikologiko zein soziologikoen polarizazio sexuala eraikuntza guztiz kulturala da; hortaz, kategoriak diren moduan, aldakorra (ikusi tribuekin egindako ikerketa).

Pinkolak emakumearen psikean **harrapari natural** bat bilatzeak ere ez du oinarri objektiborik, osagai kulturala baita, eta beraz, aldakorra. Meadek ikertutako hiru tribuetako emakumeek ez dute gizonen aldeko zapalketa sexuala psikean islatzeko premiarik.

Meade eta Marshallen ikerketetan —ikus 4.2.— nabarmentzen da **emakumearen jarrera sexuala ere lizuna eta apetatsua** (gure ikuspegitik) izan daitekeela.

Gizonaren **izaera basati ezkutuari** edo sakonari buruz, *tchambulitarren* artean, adibidez, gizonek normalean emakumeena den rol «basatia» betetzen dute (edo hurbiltzen dira), Pinkolaren zentzuan.

### 4.3. KONTAKIZUN EZ-SEXISTAK

Kontakizun ez-sexistak gizarte egituraketa ez-klasista behar du, Meadek ondorioetan aditzera ematen zuenez, sexuen bereizketaren azpian klase sozioekonomikoen bereizketa datzalako. Meadek nortasun aniztasuna bermatzen duen gizartea aldarrikatzen zuen, eta ez rol sexualetan oinarritzen dena. Sexismoaren eragina apalduz eta nortasunaren aniztasuna indartuz doazen neurrian, kontakizun ez-sexistak ugaritzen ari dira egungo literaturan; baina, hala ere, ez dira berriak; kontakizun ez-sexistek tradizio zaharra dute ahozko literaturan, gizarte paganotik dattorkigun tradizio zaharra, hain zuzen.

Hona hemen, kultura ez-sexistaren erakusgai, kultura paganoan errotutako erlijio ez-sexista baten adibidea, kultura paganoan errotutako mitologia ez-sexista baten adibidea, eta kultura garaikidean errotutako kontakizun ez-sexista baten adibidea.

#### 4.3.1. Mapucheen kosmogonia

Mapucheen kosmogonia (Hego Amerikako herri indigena), Jainkoaren ulermen ez-sexistan datza. Honela diote Jainkoari erregu egiteko: «O, Jainkoa; zu, zeruko emakume zaharra zaren hori; zu, zeruko gizon zaharra zaren hori; zu, zeruko neska gaztea zaren hori; zu, zeruko mutil gaztea zaren hori» (Conrad Phillip Kottak-ek bildua).

Horrek esan nahi du, izaki perfektua irudikatzeke, mapucheek (eta beraiekin herri indigena askok) heldutasunaren eskarmentua eta gaztetasunaren indarra hartzen zutela aintzakotzat, bai emakumezko zein gizonezko aldaeretan.

### **Iruzkina**

Mapucheen adibide adierazgarri horrek erakusten du erlijio batek edo mundu-ikuskerak batek izaera ez-sexista izan dezakeela oinarrian, munduan arrakasta handia izan duten monoteismoen izaera paternalistaren aurka.

## **4.3.2. Euskal mitologia: Mari eta Basandere**

### *Mari*

Euskal Herriko mitologiak oinarri naturalista eta matriarkala du. Berezko paradisuari Ama Lurra deitzen dion eran, numen (jainko) nagusia jainkosa da, Mari. Marik, animalia itxura edota suzkoa izan arren, emakumezko izaera hartzen du. Naturaren indar guztietan nagusi, **ja-kinduriaren indar babeslea** da, eta haren orakuluak, gerta litekeenaren ikurrak, jendeak kontsultatu egiten ditu. Olagizon batek, adibidez, tresneria konpontzeko ezagupidea eskatu zion, bai eta hark eman ere. Marik **moral naturala** (axiologia matriarkalarekin edo komunalarekin bat datorrena) zaintzen du. Jokabide zuzena betearazten du, bereziki jendeak emandako hitza; esaterako, alaba madarikatu zuen amaren kasuan. Ondorioz, gezurtiak, arduragabeak, harroak, zapaltzaileak eta berekoiak zigortu egiten ditu. Adibidez, ukatzen diren ondasunak Marik bereganatu egiten ditu. Beste aldetik, **emakumearen hezitzailea** eta ezagutza misterikoen igorlea da; esaterako, Markina inguruko neskatzak Marirenean, gorulari-lanetan, sarbide-prozesua burutu zuenekoak. Gainera, Marik gizakien **gurtza eta eskaintza** jasotzen du; adibidez, eguraldi kaltegarria saihesteko. Berarekiko **errespetuzko tratua** eskatzen du, emakumeari zor zaion errespetuaren adierazle. Adibidez, Mariren etxean, zutik eta aurpegiari begira jardun behar da. Gainera, Marik **naturaren zikloak** erregulatzen ditu, eguraldiarena bereziki, sortu-bukatu-sortu bilakaera bere esku baitago; jaiotzearen eta hiltzearen arketipoa da, beraz. Esaterako, zaldizko gurdian ekaitz-hodeiak bideratzen ditu.

### **Iruzkina**

Argi dago *Mari* Pinkola Estesek *Emakume Basatiaren* arketipoari egokitzen zaiola betebetan.

### *Basandere*

Basanderek, numen femeninoak, Basajaunen profila betetzen du. Hala ere, batzuetan lamiekin eta sorginekin nahastu izan da. Hona hemen Basandere protagonista daukan kondaira bat.

«Basandere Zeanuri inguruko basoetan bizi zela, behin, bidean topatu zuen gazte batekin maitemindu zen. Gizasemeak, ordea, oinen ordeztaparrak ikusi zizkionean atzera egin zuen, eta, orduan, Basanderek heriotzarekin madarikatu zuen gizagaixoa; eta halaxe gertatu zen, hurrengo egunean mutikoa hil egin baitzen. Basandere, alabaina, haren hiletara joan zen».

**Iruzkina**

Basanderek, pasadizo horretan, maitagarrien ipuinetan emakumeari bikote-harremanetarako egokitzen zaion rol pasiboa eta otzana apurtzen du, eta, alderantzikaturik, gizonaren rol aktibo, abenturazale eta oldarkorra hartzen du. Mitologiako kasu soil honek emakumearen rol tradizionalak mendebaldeko kultura paternalistatik jaso duen eragina uzten du agerian.

**4.4.4. Ipuin garaikide ez-sexistak**

Egun genero-berdintasuna bultzatzen duten ipuinak gero eta arruntagoak dira gurean. Ez da, ordea, erraza, milurteko aurreiritzi sexuarekin bukatzea, Meadek orain mende erdi baino gehiago salatutako gizarte klasistak errotuta jarraitzen duenean. Gizarte klasistaren merkantilizatze sexualak (pornografia eta literatura arrosa, kasu) balio zapaltzaileak mantentzen ditu, hala nola oldarkorra, lehiakorra, kontsumista eta berekoia izatea sexu kontuetan. Ondorioz, emakumeak gizarteko klase garaiak eskuratu ahala, bera ere gizonarenak ziren balio sexual zapaltzaileak eskuratuz joan da. Beraz, ez da nahiko burgesiak XVII. mendeaz geroztik emakumearentzat eragin duen estatus pribilegiatua. Gauzak horrela, **emakumea, eskuratu berri duen botere soziala dela eta, rol sexual boteretsuenarekin (gizonarekin, batez ere) parekatzen hasi da, baina rolen bereizketa gainditu gabe.** Hori maitagarrien ipuinetako rol sexualen dramatizazioan ikusi ahal izan da, Davis Brouwyn-en eskutik, neska-mutil gaztetxoek bitartez (haurrak). Fenomeno hori *Sapos y culebras y cuentos feministas* lanean erakusten du egileak.

«Neska burgeskumeek (*printzesa gerlariak*) ez dituzte ipuinetako generoen rola aldatu nahi, eta rol tradizionalarekin identifikatzen dira. Baina joera handia dute haien nahi propioari eusteko, ingurukoei inposatu behar badiete ere, eta agintzea gustatzen zaie, neska eta mutilen gainetik. Hori dramatizazioan (*La princesa y el dragón* eta *La princesa Bolsa de Papel* ipuinetan, kasu) eta neska-mutilen jolasetan ikusten da».

**Iruzkina**

Emakume (eta gizon) klasista berriak literatura sexista berria bultzatzeko daude prestatuta, ez literatura ez-sexista. Sexu-berdintasunezko gizartea bultzatzeko rol sexualen gainetik rol pertsonalak ezarri behar dira, M. Meaden ildoari jarraituz.

*Bibliografia*

**5**

- BETTELHEIM, BRUNO: *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Editorial Crítica, 1990. Bronwyn, Davies: *Sapos y culebras y cuentos feministas*. Ediciones Cátedra, 1994. Dueso, José: *La primitiva religión de los vascos*. Orain, 1996.
- GLEZ. GARAI, IÑAKI; GAZTAÑAGA, ANTXON; IRIONDO, RAMON: *Klaseak, erlijioak, generoa eta adina, gerra... gizarte desberdinetan*. Gaiak, 1999.
- HARRIS, MARVIN: *Antropología cultural*. Alianza Editorial, 2001.
- HORNILLA, TXEMA: *Sobre mitología femenina del pueblo vasco*. Editorial Txertoa, 1994.
- KOTTAK, CONRAD PHILLIP: *Antropología*. Mc Graw-Hill, 2000.
- MEAD, MARGARET: *Sexo y temperamento*. Paidós, 2006.
- PINKOLA ESTES, CLARISSA: *Mujeres que corren con los lobos*. Zeta Bolsillo, 2005.
- PISANTY, VALENTINA: *Cómo se lee un cuento popular*. Paidós, 1995.



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-2857-4



9 788445 728574

Salneurria: 14 €